

Espezialitateko Hizkerak eta Terminologia II

Euskara estandarra eta
espezialitate hizkerak

Iñaki Ugarteburu Gastañares
Pello Salaburu Etxeberria
(Argitaratzaileak)



ehu^{press}

**OPEN
ACCESS** 



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea
ARGITALPEN ZERBITZUA
SERVICIO EDITORIAL

**Espezialitateko Hizkerak
eta Terminologia II**

Espezialitateko Hizkerak eta Terminologia II

Euskara estandarra eta espezialitate hizkerak

Iñaki Ugarteburu Gastañares eta Pello Salaburu Etxeberria
(argit.)

EUSKARA INSTITUTUA - EHU

eman la zabal zazu



Universidad Euskal Herriko
del País Vasco Unibertsitatea
A R G I T A L P E N
Z E R B I T Z U A
SERVICIO EDITORIAL

© Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua

ISBN: 978-84-9860-041-4

Depósito legal/Lege gordailua: BI - 3.824-07

Fotocomposición/Fotokonposizioa: Ipar, S. Coop.
Zurbaran, 2-4 - 48007 Bilbao

Impresión/Inprimatzea: Itxaropena, S.A.
Araba Kalea, 45 - 20800 Zarautz (Gipuzkoa)

Aurkibidea

Aurkezpena: Espezialistak idazle. <i>Iñaki Ugarteburu Gastañares</i>	9
«Espezialitate-arloko terminoak hiztegi orokorretan». <i>Elixabete Etxebarria</i> (Elhuyar Fundazioa)	11
«Terminologia-Bankuaren eguneratzea espezialitateko testu normalizatuen corpusa baliatuz». <i>Miel Loinaz</i> (UZEI)	23
«XX. mendeko euskararen corpus estatistikotik XXI. mendeko erreferentzia corpusera». <i>Miriam Urkia</i> (UZEI)	35
«Zientzia eta Teknologiaren Corpusa: diseinua eta metodologia». <i>Xabier Artola</i> (IXA Taldea) eta <i>Anton Gurrutxaga</i> (Elhuyar Fundazioa)	53
«Irrati-telebistako glosarioa». <i>Asier Larrinaga</i> (EITB)	71
«Espezialitate-hizkeren garapen lexiko-diskurtsiboa: aldakortasun terminologikoa tratatzeko zenbait irizpide». <i>Agurtzane Elordui</i> (EHU)	81
«Morfologia lexikoa eta hizkera bereziak. - <i>tzaile</i> atzizkia: egile- eta tresna-atzizkia». <i>Anton Elozegi</i> (EHU)	95
«Filosofia alemana euskaraz eta euskara estandarra». <i>Ibon Uribarri</i> (EHU)	111
«Euskara-gaztelania Terminologia Elebidunaren Erauzle Automatikoa». <i>Anton Gurrutxaga</i> , <i>Xabier Saralegi</i> , <i>Sahats Ugartetxea</i> (Elhuyar Fundazioa) eta <i>Iñaki Alegria</i> (IXA Taldea)	123
«Zenbait gogoeta euskal definizioen idazkeraz». <i>Xabier Alberdi</i> (EHUko Euskara Zerbitzuak)	145

«Gaztelaniazko agindu- edota betebehar-balioko geroaldiaren ordainak euskarazko administrazio-testuetan».	
<i>Axun Aierbe</i> (EHU)	171
«Magnitude fisikoen neurrien deklinabidea eta joskera».	
<i>José Ramón Etxebarria</i>	185
«Ere eta auresuposizioa hizkera berezituetan».	
<i>Ainara Ondarra</i> (EHU)	199
«Especialitateko hizkeren irakaskuntza: ikuspegi didaktikoa».	
<i>Joseba Ezeiza Ramos</i>	207
«Gramatika- eta estilo-arauak espezialitate-hizkeren garapen diskurtsiboari begira».	
<i>Igone Zabala</i> (EHU)	227
«Terminologia batzordearen lana».	
<i>Araceli Díaz de Lezana</i> (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)	243
«Zientzia-prosa: hitzartutako eredu baten bila».	
<i>Kepa Altonaga</i> (EHU)	247
Gaikako aurkibidea	277

Aurkezpena

Espezialistak idazle

Espezialitateko hizkuntzei buruzko jardunaldietan, ohiko biltzarretan ez bezala, bi eratako profesionalak bildu ohi dira: hizkuntza arloko espezialistak (hizkuntzalariak, gramatikariak, lexikologiako eta terminologiako adituak, hizkuntza teknikariak...) eta beste gaietako espezialistak. Izan ere, hizkuntzaz ari gara eta talde biek dute zer esanik eta zer eginik hizkuntza kontuetan, batzuek hizkuntza ikertzaile direlako eta besteek hizkuntzaren erabiltzaile direlako. Baina ez dago pentsatzerik ikuspuntu, ez interes bera dutenik talde batekoek eta bestekeok. Ongi legoke, bada, ikuspuntu eta interes horiek labur azaldu eta zehaztea.

Espezialistak dira jakintza espezializatuaren jabe eta haiek dira espezialitateko testua nolabait “kontrolatzen” dutenak, hau da, testu horren sare eta bilbe kontzeptuala ulertzen eta zuzen interpretatzen dutenak. Espezialista ez denak, testu horren birformulazioa behar du, edukiaren jabe izateko. Eta birformulatu behar horrek irekitzen du komunikazio eremu zabal bat unibertsitatean. Izan ere, unibertsitateko espezialista edo zientzialariak ikertzea du zereginetako bat, eta horrekin batera zabalkundea. Zabalkundea, alde batetik, ikasleei begira, eta, bestetik, neurri batean edo bestean, gizartera.

Badira bi huts arrunt samarrak. Bata da pentsatzea testua argia bada edonork uler dezakeela testu espezializatua, baina ez dago halakorik, baldin eta egitura kontzeptuala eta espezialitate horretako erreferentzia mundua ezagutzen ez badira. Bestalde, pentsa daiteke espezialista beti dela egokia testuak idazteko edota birformulatzeko, hizkuntzaren jabe ere badelako. Gehienetan, ez du zientzialariak arazorik izango zientzia arloko testuak sortzeko (tesiak, komunikazioak...) baina zientzialari batzuk baino ez dira izaten egoki zabalkunderako (hau da, horretarako motibazioa dutenak, lan horrek eskatzen duen kontzeptu berrantolaketa txukun gauzatzeko gai direnak, zeregin horretan trebatzen direnak). Eta are gutxiago dira lan teknikoak egoki itzuliko dituztenak; izan ere, ez dirudi hizkuntza kodea ezagutzea aski denik itzulpen lanari ekiteko: prestakizun berezia behar du zeregin horrek, oro har, itzultzaile trebatuek eskuratua dutena. Horrela, gero eta gehiago-

tan erabiltzen da eredu mistoa: itzultzaileak itzuli testu teknikoa eta espezialistak berraztertu kode berrian eraiki den testu hori, egitura kontzeptuala, erreferenteak, ideien antolamendua eta abar egokiak diren epaitzeko.

Hori guztia dela eta, badirudi zientzialaria dela egokiena zientzia lanak idazteko, baita ikasleentzako lanak prestatzeko ere. Zientzialari da, era berean, zabalkunde lanei berme guztiarekin ekin diezaiokeena, nahiz eta zeregin horretan gerta daitekeen laguntza behar izatea.

Are gehiago, esan daiteke kontzeptualizazio arazoak letraren bidez adierazteko arazoak izan ditzakeela inoiz zientzialariak, hemen aztertuko ez ditugun mila arrazoi linguistiko direla medio. Eta zeregin horretan biltzen dira espezialitateko hizkuntzarekin edo espezialitateko hizkuntzari buruz ari direnak.

Galderak denok ditugu gogoan: zein ote dira gramatika baliabide egokienak ideia konplexuak adierazteko? Zein ote dira espezialitateko lexiko berria eratzeko irizpide nagusiak? Nola baliatu orain arte sortu den hizkuntzazko produktu zabala? Kezka horiek (espezialitateko diskurtsoa eta gramatika; lexikoa eta terminologia, corpusgintza) hizkuntza guztietan ageri dira, baina premiak are larriagoak dira euskara darabilgunean: tradizio urria (inguruko erdaren aldean, behintzat), unibertso txikia (hori ere ingurukoen aldean, jakina), espezialitateko testuen argitalpenen munduaren sendoera falta, arlo batzuetako espezialista euskaldunik eza (edo hizkuntza gaitasun eskasa), aski arrazoi dira gai horren inguruan etengabeko gogoetaren beharra ulertzeko, ikertu beharra, eztabaidatu eta bide berriak bilatu beharra.

Edonola ere, bada erreferentzia bat behin eta berriz agertuko dena galdera horiek egin eta erantzun nahian gabiltzala: hizkuntza estandarra, edo gurean, euskara estandarra. Erraz ulertuko dugu espezialitateek hiztegi berezia dutela baina ez da hain erraza hiztegi horren eta hiztegi orokorraren arteko mugak zehaztea. Era berean eztabaida daiteke ea espezialitateko testuetan hizkuntza baliabide edo baliabide gramatikal bereziak behar ote ditugun. Eta zer ote da egokiago: testu teknikoak corpus orokorretan txertatu ala corpus bereziak eratu? Hizkuntza espezializatuaren eta estandarren arteko auzi hori garrantzi handikoa da gaur eta hemen, teknikoarekin batera estandarra ere finkatzen ari garelako, zenbait aukera eginez eta eredu jakin bat hautatuz.

Iñaki Ugarteburu Gastañares
Euskal Herriko Unibertsitatea

Espezialitate-arloko terminoak hiztegi orokorretan

Elixabete Etxeberria

Elhuyar Fundazioa

1. HIZTEGIA: DEFINIZIOA ETA ALDERDI OROKORRAK

1.1. Zer da hiztegia?

Hiztegia erreferentzia-material ohikoena da, liburu-formatuan edo formatu elektronikoan argitaratzen dena, hitz-zerrenda duena —gehienetan, ordena alfabetikoan ordenatuta— eta, sarritan, hitzaren formaz, ahoskeraz, etimologiaz, esanahiaz, erabileraz eta esapide idiomatikoez informazioa ematen duena. ‘Hitz-zerrenda’ esan badugu ere, hizkuntz unitateak bakunak edo hitz anitzekoak izan litezke eta sarritan, gainera, hiztegi lexikografikoetan azpisarrera gisa antolatzen dira. ‘Esanahia’ ere aipatu da; hitzaren esanahia sarreraren hizkuntza berean ematen den definizioa izan liteke, edota beste hizkuntza batean ematen d(ir)en ordaina(k) izan lite(z)ke. Jarraian, hiru adibide emango ditugu, orain arte esandakoaren osagarri gisa:

a) **cascanueces** 1 m. Utensilio que sirve para cascar nueces y otros frutos secos. → Cascador, cascapiñones, rompenueces. 2 (*Nucifraga caryocatactes*) *Ave paseriforme de color oscuro con manchas blancas. (Moliner 1998: 548)

b) **jardín**. s.m. Lorategi, lore-baratze, lilitegi. *En el jardín tenemos rosas rojas*: arrosa gorriak ditugu lorategian. **II jardín botánico**. Lorategi botaniko. **II jardín de infancia**. Haurtzaindegi. (Elhuyar 2000: 392)

c) **atzipen**. *Informatika, orokorra*. Erregistro fisiko batean, memoria edo fitxategi batean dagoen informazioa lortzeko ekintza. es acceso; fr accès; en access (UZEI 2003: 36).

1.2. Hiztegien sailkapena: tipologia

Hiztegiak era askotakoak izan daitezke: txikiak, handiak, elebidunak, elebakarrak, irudidunak, eskola-hiztegiak, itzultzaile-hiztegiak, hiztegi entziklopedikoak, hiztegi terminologikoak eta abar.

Hainbat iturritan kontsulta egin ondoren, ikusten da hiztegi-motez hitz egitean elementu hauek¹ askotan aipatzen direla:

- tamaina (handiak, txikiak, oinarrizkoak)
- eduki-mota (orokorrak, berezituak edo terminologikoak)
- antolaketa (alfabetikoa, gaika antolatua)
- euskarria (liburua, elektronikoa)
- funtzionalitatea (aktiboa, pasiboa)
- hizkuntza (elebakarra, elebiduna, eleaniztuna)
- erabiltzailea (hizkuntza ikasten ari diren ikasleak, eskola-ikasleak, erabiltzaile arrunta, gai batean adituak...)

Henri Béjoint lexikografoak *Modern Lexicography. An Introduction* lanean hauxe esaten du (Béjoint 2000: 37):

*The conclusion to be drawn from all the typologies proposed by various authors over the years is that it is impossible to classify dictionaries in a way that would be both orderly and applicable to all societies. Dictionaries come in more varieties than can ever be classified in a simple taxonomy.*²

2. HIZTEGI OROKORRAK ETA HIZTEGI TEKNIKOAK

2.1. Lexikologia eta terminologia

Hiztegi orokorrek eta hiztegi teknikoek dituzten ezaugarriak hobeto ulertzeko, lagungarria izan liteke, labur bada ere, izenburuko bi diziplina horiek zertaz diharduten esatea.

Lexikologiak hitzak (eta hitzek osatzen dituzten hizkuntz unitate finkoak edo ohikoak) hartzen ditu aztergaitzat, haien ezaugarri morfosintaktikoak (kategoria, testuinguru sintaktikoen arabera erabilera...), esanahia (semantika), hautatze-murrizketak, erregistroa (pragmatika), konbinatoria (hitz anitzeko unitateak: kolokazioak, esapide idiomatikoak...) eta abar. Informazio hori hautatzerakoan eta antolatzerakoan, ikuspegi linguistikoa da nagusia. Gainera, orokorra da, —hau da, lexiko osoa— hartzen du gaitzat; alor, erregistro, genero... guztietako hitzak hartzen ditu.

Terminologia tradizionala Wüster-en Terminologiaren Teoria Orokorrean (TTO) oinarritzen da. Teoria horretan, ikuspegi linguistikoa ez da nabaria (ez du onartzen ez polisemiari, ez sinonimiarik, ez termino-aldaerarik ...). Terminologia

¹ Besteak beste, R.R.K. Hartmann eta Gregory James adituen *Dictionary of Lexicography* (Hartmann & James 1998: 147) hiztegiko *typology* sarreran ere elementu hauen arabera sailkapena proposatzen da

² 'Urtetan zehar aditu zenbaitek proposatu dituzten tipologia guztietatik atera beharreko konklusioa hauxe da: ezinezkoa da gizarte guztietan erabilgarri izan litekeen hiztegien sailkapen ordenatua egitea. Hau da, taxonomia simple batean ezin sailka adinbat hiztegi-mota egiten dira.'

tradizionalak espezialitate-alorreko lexikoa, —hau da, terminoa— du aztergai, eta enfasi berezia jartzen du kontzeptuan.

Horren guztiaren lehen eragina eta isla da, esaterako, datu-base lexikografikoetan gunea ‘hizkuntz unitatea’ izatea, eta, datu-base terminologikoetan, ‘kontzeptua’.

Mugak, ordea, ez dira argiak, edo, hobeto esanda, gero eta lausoagoak dira, hain zuzen ere, bataren zein bestearen oinarriak, ikuspegiak eta metodologiak ere garatzen eta aldatzen ari direlako, eta, aldi berean, elkarrengana hurbiltzen, hein batean bederen. Adibidez, aipatu TTOren kritikak ikuspegi edo hurbilketa (*approach*) berriak ekarri dituzte, eta terminologia ‘linguistikoa’ proposatzen da gaur egun; horietan nagusia Teresa Cabré-ren *Terminologiaren Teoria Komunikatiboa* da.

Hiztegitantzaren edo, nahiago bada, hiztegitagilearen eguneroko lanaren ikuspegitik, askoz ere arazo praktikoagoa da: hiztegi lexikografiko orokor batean espezialitate-arloko zein hizkuntz unitate edo termino sartu behar litzatekeen erabakitzea. Horixe da, hain zuzen ere, artikulu honetan jorratu nahi den gaia.

2.2. Hiztegi orokorrak eta hiztegi teknikoak

Labur esanda, hiztegi orokorrak hizkuntza bateko unitate lexikalak deskribatzen ditu. Hiztegi teknikoak, berriz, jakintza-alor jakin bateko lexikoa biltzen du.

Hiztegi orokorra, tradizioan, elebakarra eta definizioduna izan da. Horrez gain, hitz-zerrenda esanguratsua, zabala, hartu izan du barne, eta erabiltzaile helduarengan pentsatuta diseinatu izan da. Batez ere, hizkuntza estandarra deskribatzea izan du helburu, horretarako gutxienez sarrera bakoitzaren definizioa jasoz. Azkenik, hiztegi orokorrak historian izan duen helburu pedagogikoa ere aipatzekoa da.

Gizartea aldatuz joan den heinean, bai hiztegitantza, bai hiztegitagilea eta bai hiztegi-erabiltzailearen beraren ezaugarriak eta beharrak ere aldatuz joan dira, eta erabiltzailearen edo erabiltzaile-talde baten ‘neurrira’ egindako hiztegi asko eskaintzen da merkatuan, hizkuntza normalizatuetan bereziki. Orokor-tekniko dikotomia hartzen badugu oinarri, hiztegiez ari garela, lexiko teknikoak soilik jasotzen ez duen hiztegi oro orokortzat hartuko genuke egun. Horiek horrela, goian aipatutako hiztegi elebakarraz gain, hiztegi orokorra elebiduna edota eleaniztuna izan daiteke; definizioaz gain, beste hizkuntza bateko edo gehiagoko baliokideak ere jaso ditzake, edota ordaina edo ordainak soilik jaso dezake/ditzake; lexiko orokorra jasotzeaz gain, lexiko teknikoak ere badu lekua gaur egungo hiztegitan.

3. ESPEZIALITATE-ARLOKO LEXIKOAREN ADIERAZPIDEA

3.1. Espezialitate-arloko lexikoa

Historian zehar izan dira zientziak zientzia-komunitatearen mugak iragan ez dituen garaiak. Gaur egun, ordea, ez da horrelakorik gertatzen. Zientziak, zien-

tzia-arloan lortzen diren emaitzek, haren aplikazioek izugarritzko eragina dute gure bizimoduan eta bizitza baloratzeko eta ulertzeko dugun moduan. Arrazoi hori dela medio, zientziaz hitz egiten eta hartaz eztabaidatzen ikasi beharko genuke. Hiztegiek, orokorrek zein teknikoek, paper garrantzitsua betetzen dute egiteko horretan. Ildo horretatik, interesgarria da adituek hiztegi orokor esanguratsu batzuen hitzaurrean diotena.

Manuel Alvar Ezquerria-k, *Diccionario General de la Lengua Española VOX* hiztegiaren hitzaurrean, honelaxe dio: "...el léxico procedente de las ciencias y de las técnicas se ha visto incrementado con no pocos elementos, algunos de ellos de gran actualidad..."³ (1997: V)

Real Academia Españolaren hitzaurrean hauxe esaten da:

*El Diccionario da cabida a aquellas voces y acepciones procedentes de los distintos campos del saber y de las actividades profesionales cuyo empleo actual — se excluyen también los arcaísmos técnicos— ha desbordado su ámbito de origen y se ha extendido al uso, frecuente u ocasional, de la lengua común y culta...*⁴ (2001: XXXIV)

Adituen esanari erreparatzen badiogu, azken berrogeita hamar edo hirurogei urteetan aldatu egin da lexiko teknikoak hiztegi orokorretan ordura arte zuen proportzioa. Denboraldi horretan, zientzietako lexiko berezituaren sarrera-kopurua izugarri igo da hiztegi orokorretan. Landauk dio⁵, esaterako, Webster hiztegi sarrera-kopuru osoaren % 40 baino gehiago zientzia-arlokoa edo tekniko dela. Eskola-hiztegietan, haren ustez, mota horretako lexikoak hiztegi osoaren %25-35 hartzen du. Ez dira kopuru txikiak, inondik inora.

Teresa Cabré adituak hauxe dio gai honen inguruan:

*... los hablantes medianamente cultos de una lengua poseen un conocimiento activo de un buen número de términos de especialidad media y un conocimiento pasivo (principalmente a través de la difusión de la que son objeto por parte de los medios de comunicación) de un número muy grande de términos propiamente considerados como términos de especialidad. Estos términos son los que debe recoger un diccionario general de lengua que se proponga ser de utilizar eficaz para los usuarios.*⁶ (Cabré 1994: 593)

³ "... zientzia eta teknika alorreko lexikoko elementu dezente sartu dira, horietako batzuk gaurkotatzen handikoak"

⁴ 'Jakintza-alor eta lanbide zenbaitetako hitz eta adierak jasotzen ditu hiztegiak, gaur egungo erabilerak —arkaismo teknikoak kanpo utzi dira— hitz eta adiera horiek sortze-eremutik harantzago, hizkuntza arrunt eta kultuaren erabilera-eremura, (noizbehinkakora edo maizkora), hedatu ditu-eta'

⁵ "... I have estimated that more than 40% of the entries in NID3 (Webster's Third New International Dictionary) are scientific or technical, and 25-35% of those in college dictionaries". (Landau 2001: 33)

⁶ "... hizkuntza bateko hitzuen gutxi-asko jantziek espezialitate-arloko termino askoren ezagutza aktiboa dute eta espezialitate-alorreko terminotzat jotzen diren termino asko eta askoren ezagutza pasiboa (bereziki, komunikabideen bidezko hedapena dela medio)'

Gaur egungo joera zabalduena da espezialitate-alorretako terminoei hiztegi orokorretan lekua egitea. Lexikografiaren praktikan, hiztegi-gileari edo hiztegi-gile-taldeari sortzen zaizkion galderak, ordea, bat baino gehiago dira: espezialitate-arloko lexikoa zenbat eta zein proportziotan sartu? Markatu behar da? Eta, markatzekotan, zein marka ezarriko zaio? Sarrera edo azpisarrera izan behar du? Azpisarrera edo adibide? Eta abar, eta abar.

Termino bat hiztegi orokor batean sartzeko arrazoi nagusia da delako terminoa ‘gizarteraturik’ egotea, espezialitate-arloaren langa gainditu eta hizkuntza ‘orokorrera’ edo herritar ‘arruntaren’ hizkuntz esparrura pasatu izana, alegia. Noiz esan daiteke terminoa ‘gizarteraturik’ dagoen ala ez?

3.2. Espezialitate-arloko lexikoa: hiztegiaren makroegitura

Hiztegiaren makroegitura hiztegi jakin bateko hizkuntz unitateen antolaketa orokorra da. Hizkuntz unitateak antolatzeko formatu ohikoena alfabetikoa da, baina ez da bakarra, gaika, maiztasunaren arabera eta abar ere antola daitezke. Bestalde, unitate guztiak hiztegi-sarrera gisa antola daitezke, baina baita sarrera-azpisarrera egituraren arabera multzokatuta ere.

Hiztegi orokorraren barnean sartu nahi den lexiko tekniko, kopuruan eta nolakoan orekatua izatea nahi bada, lehenik erabileraren datuak (maiztasunak) behar ditugu eta datu horiek aztertzeko irizpideak finkatu, gero. Datuak corpusek eman-go dizkigute.

Dena den, baliabideak baliabide, uneko hiztegi-gileak edo hiztegi-gile-taldeak bere sena eta subjektibotasuna erabiliz hartu beharko ditu bere hizkuntz erabakiak. Bestalde, corpuseko datuez eta ‘intuizioaz’ gain, beste hiztegiak ere kontuan hartu ohi dira termino jakin bat hiztegitatu aurretik.

3.3. Espezialitate-arloko lexikoa: hiztegiaren mikroegitura

Hiztegiaren mikroegitura hiztegi-unitate baten barne-diseinua da, datuak antolatzeko era. Sarrerari buruzko informazioa xehatua ematen du, sarrera-formari eta esanahiari buruzko oharra egiten dira (ahoskera, etimologia, definizioa, ordainak eta abar).

Hiztegi tekniko batzuetan, batez ere terminologiaren alorrekoetan, hizkuntz unitatea edo termino guztiak sarrera dira, baina hiztegi orokorrean edo hiztegi entziklopedikoan, normalean, azpisarrera gisa antolatzen dira. Arazoa, jakina, betikoa da: zein sarreratan? Batez ere, euskarazko izen-elkarteak: alfabetikoki legokiekeen sarreran (lehen izenarenean), ingelesezko hiztegi askoren gisan, ala gune den izenaren sarreran (euskaraz, ingelesez bezala, bigarrena da gunea). Espezialitate-alorraren marka zer da? Hizkuntz unitate bat espezialitate-alor batekin lotzen duen laburdura da: Hezk., Fis., Mat., Hizkl., Kim. eta abar. Hize-

giaren arabera, adibideen bidez ere informazio lexiko-tekniko esanguratsua eman daiteke.

4. HIZTEGI BATUA ETA ESPEZIALITATE-ARLOKO LEXIKOA

4.1. Hiztegi batuaren ezaugarriak

Hiztegi Batua 1995ean hasitako lana da. 1995-2000 urte-tartean egin zen lehen itzulia, eta 22.000 forma inguru jaso zituen lehen itzuli horretan. Ondoren, bigarren itzuliari ekin zitzaion, eta ‘berrizale-buzuntz’ hitz-tartea da azkena argitaratutako zerrenda.

Eragozpenen bat duten hitzak bigarren itzulirako utzi dira. Hauxe dio Hiztegi Batuaren sarreran: “... Nahiago izan dugu alderdiren batetik eragozpenen bat agertzen duten hitzak bigarren ekinaldiko azterketa zehatzagoaren ondoren onartzeko utzi, euskaldunen egungo premia larriek hertsaturik arinkeriaz jokatu baino...” (Euskaltzaindia 2000: 481).

Hiztegi Batua, beraz, hiztegi amaitu gabea da, bai hizkuntz unitateen kopuruari dagokionez eta bai unitate bakoitzean edo, hobeto esanda, zenbait unitatetan, ematen den edukiari dagokionez ere.

Aurrekoaz gain, Hiztegi Batua ‘ortografia-hiztegia’ da eta hitzen forma egokiez dihardu, neurri handi batean bederen. Hauxe dio sarrera beraren beste une batean: “Argi dago Euskaltzaindiaren Hiztegi Batua, lehen idatzaldi honetan, ortografia hiztegia dela batez ere, hau da, hitzen *forma* egokiaz ari dena (...). Dena dela, aski da hiztegiari gaingiroki begiratzea besterik ere eskaintzen duela ikusteko...”. (Euskaltzaindia 2000: 483).

Hiztegi Batuak hizkuntza orokorreko hitzak jasotzea du helburu; hiztegi orokorra da, beraz. Hizkuntza orokorreko hitzekin batera, espezialitate-arlokoak ere jasotzen ditu. Hitz teknikoei buruz hauxe dio sarrera berean: “... Orobat, teknika eta zientzia hitzei dagokienez, bakoitzaren alorra mugatu da, Mat., Admin. eta kideko laburduren bidez. Animalia eta landare izen nagusi guztiei zientzia izena erantsi zaie...”. (Euskaltzaindia 2000: 481).

4.2. Hiztegi batua, hiztegi orokorra?

Hiztegi Batua hiztegi orokorra dela esan dugu goraxeago, hizkuntza orokorreko hitzak jasotzen dituelako, eta halaxe da: *asurantz*a, *atseden*, *bonbilla*, *borla*, *fideo*, *gasna*, *kantatu*, *konorte*, *lorategi*, *lotsabako*, *nahitaezko*, *ogitarteko*, *oratu*, *pantaila*, *txandal*, *txikle*, *walkman*... sarrera dira hiztegiaren lehen idatzaldian. Horrekin batera, esan behar da, egunero erabiltzen diren hitz askok ez dutela lekurik hiztegian. Adibide batzuk aipatzearren, ez ditugu aurkituko *biberoi*, *eran-*

tzungailu, errulo/rulo?, galleta, kantinplora, kapota, konpresa, kortxo-kentzeko?, lozio, ma(g)dalena?, txaleko, permanente, velcro/belcro? eta, gutxi edo gehiago, egunero erabiltzen diren hitzak dira, horretan ez dago zalantzarik. Bestalde, beste hizkuntza bateko edozein hiztegi orokor hartzen badugu, hitz horien baliokideak sarrera direla ikusiko dugu. Esaterako, Real Academia Españolaren hiztegian *biberón, contestador, rulo, galleta, cantimplora, capota, compresa, sacacorchos, loción, magdalena, chaleco, permanente, velcro* sarrera dira. Adibide hauek denak lehen azaldu den irizpidearen ondorio dira, hau da, eragozpenak dituzten hitzak (baldintza minimoa betetzen ez dutenak) bigarren itzulirako utzi direlako ez daude lehen itzulia.

Hiztegi Batuak jasotzen dituen sarrerei dagokienez, bada beste sarrera-multzo bat, hitz berriez osatua eta asko eta asko teknikoak direnak. Adibide batzuk aipatzearen: *adstratu, amiloide, anfotero, arteriografia, audiograma, azetilsaliziliko, dodekaedro, teleologia, teodizea, teogonia* sarrera dira Hiztegi Batuaren lehen idatzaldian.

Bigarren talde horretako hitzak hiztegian lekua izateak ez dio erabiltzaileari, itzultzaileari, eguneroko lanean diharduenari inolako trabarik egiten; norbaitek hitz horiek euskaraz nola idazten diren jakin nahi badu, hiztegian aurkituko ditu. Beste kontu bat da, aurrerago ikusiko dugunez, horrelako hitz teknikoak sartzeko zenbaterainoko sistematikotasuna erabil daitekeen, eta modu puntualean lan eginez gero, desorekak sartzeko arriskua handitu egiten dela. Eguneroko beharrak hala eskatuta, lehen taldeko hitzek burukomin handiagoa ematen diote erabiltzaileari.

Esana du Euskaltzaindiak Hiztegi Batuko sarrerak hautatzeko erabili duen eta erabiltzen duen metodologia. Ez da artikulua honen helburua metodologia hori ez-baian jartzea, edo metodologia horren nondik norakoak azaltzea.

Erabiltzaile garen aldetik atera dezakegun ondorioa hauxe da: Hiztegi Batuan hizkuntz unitateak hiztegitatzeko irizpidea zein izan den kontuan hartuta, euskaldunek izan ditzaketen komunikazio-beharrak edo maiz adierazi behar izaten dituzten ‘adierak’ edo kontzeptuak kontuan hartzea ez da lehentasunezko gaia izan.

4.3. Hiztegi batua: sistematizazioa

Sistematizazioaz hitz egitean, hizkuntz unitateei buruz hitz egin daiteke, makroegituraz alegia, edo mikroegituraz ere bai.

4.3.1. Sistematizazioa: makroegitura

Hiztegi Batuaren makroegituraz ari garela, lexiko teknikoa, parte batean behintzat, hiztegitatzea erabaki da. Familia edo multzo bereko hitzak tratatzean, ordea, ikusten da termino batzuei sarrera eman zaiela eta beste batzuei ez. Hona hemen adibide batzuk:

Sarrera d(ir)a	Ez d(ir)a sarrera
erribonukleiko	desoxirribonukleiko
berilio, berkelio, bromo, fluor, kadmio, kloro, kromo, litio, potasio, renio, zesio, zerio	argon, banadio, boro, erbio, eskandio, estrontzio, galio, germanio, helio, iodo, lantano, neon, titanio
sulfuriko	nitriko
sulfidriko, zianhidriko	fluorhidriko, klorhidriko
anpere, volt, watt	coulomb, hertz, joule, kelvin, newton, pascal
oxidatu, oxidatzaile, oxidazio	erreduktore, erredukzio, erreduzitu
antiparasitario (2. itzulia)	parasitario
fa ‘musika nota’	<i>gainerako musika-notak</i>
alkohol, metanol	butanol, etanol, propanol
adagio	allegro, andante, lento, presto, vivace

Espezialitate-arloetako terminoak hiztegiratzean, modu sistematikoagoan lan egiteak, terminoen testuinguru osoa gogoan izateak, batetik, asko hobetuko luke hiztegia bera eta erabiltzaileari lana asko erraztuko lizkioke, bestetik. Bestela jokatzeak, luzarora ebazten zail gerta litezkeen eta inorentzat eroso ez liratekeen ondorioak ekar litzake.

4.3.2. Sistematizazioa: mikroegitura

Mikroegiturari dagokionez, oraingoan batez ere Hiztegi Batuan espezialitate-alorraren markak zein isla duen azalduko dugu.

Hiztegi Batuaren lehen itzulian espezialitate-alorraren marka duten sarrerak eta adierak, guztira, 260 dira. Animalia- eta landare-izenek ez dute alorraren markarik, latinezko izena dute; hiztegi osoan 760 inguru dira. Hauek dira erabili diren jakintza-alorraren markak eta kopuruak:

Jakintza-alorraren marka	Kopurua
Admin.	2
Akust.	2
Anat.	6
Ark.	3
Arkit.	1
Astron.	2
Biokim.	1

Jakintza-alorraren marka	Kopurua
Biol.	3
Bot.	3
Ekon.	7
Elek. <i>edo</i> Elektr.	3
Erl.	21
Fil.	4
Finantz.	2
Fis.	22
Fis. eta Kim.	1
Geogr.	2
Geol.	1
Geom.	8
Gram.	17
Hist.	0
Hizkl.	11
Inform. <i>edo</i> Informat.	2
Kim.	16
Kirol.	2
Liter.	20
Log.	2
Mat.	57
Med.	17
Meteorol.	1
Mus.	12
Opt.	1
Tekn.	2
Teknol.	2
Zientz. eta Tekn.	1
Zin.	1
Zool.	0
Zuz.	2

Aurreko datuak ikusita, interesgarria dirudi hainbat ohar egitea.

Lehenik eta behin, proportzioan, sarrera gutxik dute alorraren marka: hiztegi osoaren %1,3k.

Espezialitate-alor batzuen marka, proportzioan, askotan ageri da: *Mat.* (57); *Fis.* (23); *Erl.* (21); *Liter.*⁷ (20); *Gram.* (17); *Med.* (17); *Kim.* (16); *Hizkl.* (11). Beste alor batzuen marka, aldiz, oso gutxitan erabili da: *Meteorol.* (1); *Geol.* (1); *Inform.* (2); *Arkit.* (1); *Zin.* (1).

Espezialitate-alor batzuetako lexiak markatzeko ohikoak diren laburdurak ez dira erabili: *Fon.*, *Hist.*, *Psikiatr.*, *Psikol.*, *Hirgz.*, *Hezk.*, *Soziol.*, *Sukal.*

4.3.2.1. Hiztegi batua eta beste hainbat hiztegi: adibideak

Hiztegi Batuan espezialitate-alorraren marka duten zenbait sarrera beste hiru hiztegitan (Elhuyar Fundazioa: *Elhuyar Hiztegia*; Bostak Bat Lantaldea: *Diccionario 3000 Hiztegia*; Ibon Sarasola: *Zehazki Hiztegia*) nola tratatu diren ikusiko dugu jarraian:

Sarrerak	<i>Hiztegi Batua</i>	<i>Elhuyar Hiztegia</i> (eu-es)	<i>Diccionario 3000</i> <i>Hiztegia</i> (eu-es)	<i>Zehazki Hiztegia</i> (es-eu)
hipofisi, iris, sakro, timo	<i>Anat.</i>	hipofisi. <i>iz.</i> (Anat.) hipofisis iris. <i>iz.</i> (Anat.) iris sakro. <i>iz.</i> (Anat.) sacro timo. <i>iz.</i> (Anat.) timo	hipofisi. <i>iz.</i> (Anat.) hipofisis, glándula pituitaria iris. <i>iz.</i> (Anat.) iris sakro. <i>iz.</i> (Anat.) sacro timo. <i>iz.</i> (Anat.) timo	hipofisis <i>f</i> ANAT (glándula) timo iris <i>m</i> ANAT iris sakro 1 <i>adj</i> ... 2 ANAT errain-, sakro: <i>hueso sacro</i> , errain hezurra; <i>vértebras sacras</i> , errain ornoak 3 <i>m</i> (hueso) errain hezur, sakro timo <i>m</i> ANAT (glándula) timo
ogasun	1 ... 2 <i>Admin.</i> 'finantzak'	<i>iz.</i> 1. haberes, bienes, hacienda, riqueza... 2 hacienda (<i>Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun Saila</i> : Departamento de Hacienda de la Diputación Foral de Vizcaya)	<i>iz.</i> 1 haberes, riqueza, hacienda. → Ministerio de Hacienda: Ogasun Ministerioa 2 (Adm.) finanzas	hacienda 1 <i>f</i> (bienes) ogasun, ondasun(ak) 2 ...
tinbal	<i>Akust.</i>	<i>iz.</i> (Mus.) tinbal	<i>iz.</i> (Akust.) tinbal	tinbal <i>m</i> (<i>instrumento musical</i>) tinbal
disekzio	<i>Anat.</i>	<i>iz.</i> 1. (Biol./Med.) disección 2. (Teknol.) disección (dibujo)	<i>iz.</i> 1 (Med.) disección 2 (Teknol.) disección (dibujo)	disección 1 <i>f</i> disekzio: <i>disección de cadáveres</i> , hiltzen disekzioa, ... 2 ...

⁷ Liter. marka dute 'distiko', 'epigrama', 'eratzan', 'gosebera', 'gurbil', 'haltsar'... gisako sarrerek. Lehen begiratuan, laburdura horrek bi esanahi dituela ikusten da: maila jaso edo testu literarioetan erabilia (*eratzan, gurbil,haltsar...*) eta literatura espezialitate-alorrekoa (*epigrama, distiko...*).

Sarrerak	Hiztegi Batua	Elhuyar Hiztegia (eu-es)	Diccionario 3000 Hiztegia (eu-es)	Zehazki Hiztegia (es-eu)
leiar	1. Opt. 'gutxienez alde bat konkaboa edo konkaxua duen beirakia' 2. h. kristal; beira	iz. 1. (Fis.) lente 2. ...	iz. 1 (Opt.) vidrio de por lo menos ... 2 ...	lente 1 <i>amb</i> FIS leiar: <i>lente de aumento</i> , leiar handitzailea. 2 ...
alternadore	Tekno.	iz. (Elektr.) alternador	iz. (Elektr.) alternador	alternador <i>m</i> ELEK alternadore
diferentzial	Mat., Tekno.	iz. 1. (Autom.) diferencial ■ <i>iz./izond.</i> 2. (Mat.) diferencial. <i>Ekuaziodiferentziala</i> : ecuación diferencial	<i>iz./izond.</i> (Mat.) diferencial; diferentzial osoa : diferencial total; ekuazio diferentziala : ecuación diferencial; kalkulu diferentziala : cálculo diferencial	diferencial 1 <i>adj</i> ... 2 <i>m</i> TEK diferentzial 3 <i>adj-f</i> MAT diferentzial: <i>las ecuaciones diferenciales</i> , ekuazio diferentzialak ► cálculo diferencial , kalkulu diferentzial
txip	Inform.	iz. (Elektron.) chip	iz. (Inform.) chip	chip <i>m</i> INFORM txip

Datu hauek ikusita, zenbait ohar egin ditzakegu:

1. Kasu batzuetan (*hipofisi, iris, sakro, timo*) Hiztegi Batuaren marka bera erabili da beste hiztegiaren ere.
2. Ez da horrela gertatu beste sarrera batzuei dagokienean: *tinbal, disezizio, leiar, txip*.
3. Jakintza-alorraren marka batzuetan, ohar semantikoa beste batean. Adibidez, *tinbal* sarrerari *Mus.* edo *Akust.* marka jarri zaio edota *instrumento musical* oharra beste batean.
4. Hiztegi Batuan alorraren marka izanik ere, beste batean edo batzuetan markarik ez, eta ohar semantikorik ere ez (*disección*).

5. ONDORIOAK

Orain arte aztertu ditugun datuak ikusita, gaur egungo hiztegi orokorrek lexiko teknikoaren zati esanguratsua jasotzen dute, horixe da joera nagusia.

Hiztegi orokorrek lexiko teknikoaren agerpen orekatua, bai kopuruan eta bai nolakoan, izatea litzateke helburua.

Denok onartuko genuke termino tekniko bat hiztegi orokor batean sartzeko irizpide nagusia, eta ia bakarra, delako terminoa hizkuntza arruntera 'hedatu' izana dela, eta adierazpen generiko horren arazo nagusia dela hori nola neurtzen den. Lehenik eta behin, erabileraren datuak behar dira, eta, gero, datu horiek aztertzeke eta haztatzeko irizpideak.

Erabileraren datuak (maiztasuna) kontuan hartuz gero, sortzen den arazoa sistematikotasuna da (lehen azaldu duguna); ulertzen dugu termino tekniko bat gizar-tean zabaldu izanak ez duela zertan ekarri berez haren kide direnak eta sistema

bat osatzen dutenak ere sartu behar izatea; baina bai esan genezake, Hiztegi Batuaren kasuan batez ere, delako termino teknikoak baldintza minimoa bete ez eta haren ordez zerbait berria proposatzen denean, proposamen horrek sisteman nola funtzionatzen duen eta zenbaterainoko distortsio eta gerorako hipotekak sortzen dituen aztertu behar lukeela Euskaltzaindiak.

Kontziente izan behar dugu sistema kontuan hartu gabe hartzen diren erabaki puntualek sortzen dituzten arazoak, termino espezializatuegiak izateagatik hiztegi orokorrean kontuan hartu ez direnak, oso zailak direla konpontzen, edo ez dutela konponbiderik. Adibidez, urrutira joan gabe, *garapen iraunkor* hobetsi zuen Euskaltzaindiak, baina *garapen* ez den beste hainbat izenekin erabili beharra egokitzten denean, ez dago batere garbi *iraunkor* izenondoa baliozkoa gertatzen den edo ez ('turismo iraunkorra', 'kontsumo iraunkorra'...?). Eta nola jokatu *permanente* eta *sostenible* biak erabili beharra egokitzen denean?

BIBLIOGRAFIA

- Alvar Ezquerro, Manuel "Prólogo" in *Diccionario General Lengua Española VOX*. Barcelona: Emegé Industrias Gráficas, S. A.
- Béjoint, Henri. 2000. *Modern Lexicography. An Introduction*. New York: Oxford University Press.
- Cabré, M.T. 1994. "Terminologie et dictionnaires" in *Meta* 39/4
- Elhuyar Fundazioa. 2000. *Elhuyar Hiztegia* (euskara-gaztelania/castellano-vasco). Donostia: Elkarlanean
- Euskaltzaindia. 2000. *Euskera. Hiztegi Batua*, (45. liburukia) Bilbo
- Gutiérrez Rodilla, Bertha. 2005. *El Lenguaje de las Ciencias*. Madrid: Gredos
- Gutiérrez Rodilla, Bertha. 2003. "Ciencia y Lexicografía". In *Euskal Herriko Unibertsitatea Espezialitate-Hizkerak eta Terminologia: Jardunaldiak*. Zarautz: Itxaropena
- Hartmann, R.R.K. and James, Gregory. 1998. *Dictionary of Lexicography*. London: Routledge
- Iulaterm. 2001. *La Terminología científico-técnica*. Barcelona
- Landau, Sidney I. 2001. *Dictionaries. The Art and Craft of Lexicography*. Cambridge: Cambridge University Press
- Maria Moliner. 1998. *Diccionario de Uso del Español*. Madrid: Gredos
- Real Academia Española. 2001. "Advertencias para el uso de este diccionario" (Voces técnicas) in *Diccionario de la Lengua Española* (vigésima segunda edición). Madrid: Espasa Calpe, S.A.
- UZEI 2001. *Informatika eta Internet Hiztegia*. Donostia: Elkarlanean

Terminologia-Bankuaren eguneratzea espezialitateko testu normalizatuen corpora baliatuz

Miel Loinaz

UZEI

1. IRAGANARI BEGIRA

Hitzaldiaren lehen partean, euskarazko terminologia modernoaren ibilbideari buruzko mugari batzuk azaltzen dira, batez ere, jende gazteari begira, egungo terminologiaren egoera errazago uler dezaten. Bigarren partean, aldiz, gaur egungo ikerketaren berri ematen da.

1.1. UZEI: euskarazko terminologia modernoaren hasieran

1977an UZEI sortu zen, irabazi-asmorik gabeko elkarte gisa, espezialitateko euskara ikertu eta mundu modernora egokitzeke helburuarekin. Urte bat lehenago argitaratua izan zen *Natur Zientziak Hiztegia*.

2004an Eusko Jaurlaritzako Industria Sailak, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sareko kide (RVCT) izendatu du UZEI, oinarritzko ikerketa eta ikerketa aplikatua egiten dituelako hizkuntza-teknologiak erabiliz.

Bi epe hauen artean terminologia egiteko eta eguneratzeko moduak asko aldatu dira. Eta hori azaltzea da hitzaldiaren helburua.

1.1.1. *Hasierako hiztegi gintza (1977-1986)*

Hasierako hiztegi gintzak jakintzaren oinarritzko gaiak landu zituen, ia dena lantzeke zegoelako (*Fisika, Kimika, Matematika, Ekonomia, Psikologia, Biologia, Zuzenbidea...*).

Lehen hamar urteetan 30 hiztegi inguru argitaratu ziren. Eta, horretarako, espezialitate-arlo askotako jendearen elkarlana sustatu zen.

UZEIk proposatzen zituen terminoak, adituekin batera egindako lankidetzaren baten ondoren.

Terminoak sorkuntzak garrantzi handiagoa zuen garai hartan, terminoen bilketak edo erauzketak baino, asko eta asko ordura arte erabili gabeak zirelako.

1.1.2. *EUSKALTERMEN sorrera (1986)*

Lehenengo hamarkadako esperientzia horren ondorioz egindako hiztegi guztiak termino-banku bakarrean bildu ziren. Bost urtetan zehar fitxa guztiak berrikusi eta bateratu ziren.

Terminologia Bankuaren kanpo-kontsulta ia hasieratik sustatu zen, eta aitzindaria izan zen: Minitel 1987an, Videotex 1991an, Internet geroago.

1.1.3. *Terminologia bateratzeko saioak (1990-2000)*

IVAPen baitan terminologia-zentro bat eratu zen 1990ean, Administrazio eta Zuzenbideko terminologia normalizatzeko. Bitarte honetan, beste erakunde batzuen ekarpenak ere sartzen hasi ziren Euskalterm Bankuan. Terminoak ez zituen UZEIk berak bakarrik proposatzen, beste erakunde batzuetako ordezkariak ere bazuten zeresana.

- a) Batetik, IVAPen eta UZEIren arteko lehen bateratze-saioak egin ziren, eta Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen Legea izan zen lehenengo lan-gaia. Ponderazio-marka berri batzuk ere asmatu ziren: IVAPek onartua, UZEIk onartua, biek onartua...
- b) Bestetik, Normalizazio Batzorde puntualak izan ziren bateratze-ahalegin honetarako beste tresna eraginkorra.

1990eko hamarkadan hainbat hiztegi adostu ziren erakundeen arteko batzordeetan. Hasieran, inprimaki batzuk bateratu ziren:

– *BEZ inprimakiak, Errenta-aitorpena.*

Ondoren errotuluak, kanpokoak eta barnekoak:

– *Barne Errotulazioa.*

– *Bide Seinaleak.*

Eta gero benetako hiztegi terminologikoak landu ziren:

– *Nekazaritza hiztegia.*

– *Administrazio hiztegia (Funtzio Publikoa).*

– *Arrantza Hiztegia.*

– *Lan Harremanak.*

– eta abar.

Hiztegi berri horiek Bankuan sartu ahala, aurreko terminologia egokitzen zen hiztegiotan hartutako erabakien arabera. Adibidez, anekdota moduan esango dut, haritz mota bat izendatzeko *erkametz* proposatu zen *Biologia I* hiztegian, baina Nekazaritza hiztegioko Batzordean *ezkametz* forma hobetsi zen. Itxura guztien arabera, Hiztegi Batuak *erkametz* aginduko du forma egokitzat.

1.1.4. *Terminologia banku publikoa (2001)*

EUSKALTERM. 2001ean *Euskalterm Terminologia Banku Publiko* bihurtu zuen Eusko Jaurlaritzak, UZEIrekin sinatutako lagapen baten bidez.

Handik aurrera Hizkuntza Politikak kudeatzen du, eta UZEIk egiten du eguneratzea.

1.1.5. *Terminologia batzordea (2002)*

Euskararen Aholku Batzordearen baitan sortu zuen Eusko Jaurlaritzak *Terminologia Batzordea* (2002ko abuztuaren 179/2002 Dekretua).

Aurrerantzean, ponderazio-marken bidez adieraziko da batzordearen hobespena Euskaltermeko terminoetan.

1.2. **Orain arteko banku-eguneratzea**

Hainbat eratako irizpideak izan dira orain arteko eguneratze-lanaren gidari:

1.2.1. *Hiztegi batuaren erabakiak*

Terminoetako hitzen forma egokitzea ekarri du gehienetan. Aldizka, termino konkretuei buruzko erabakiak ere argitaratu ditu Euskaltzaindiak (esate baterako, *ingurumen* edo *garapen iraunkor*).

Hitzen erabilera arruntaren eta espezializazioko erabileraren arteko mugak ez daude beti argi Hiztegi Batuan, eta zalantzak ere sortu izan dira. Horrelakoetan, nahiago izan da Hiztegi Batuarekiko leialtasuna lehenetsi, nahiz eta kasuren batzuetan kontraesanean erortzeraino iritsi.

1.2.2. *Hiztegi batuko lantaldearen proposamenak*

Hiztegi Batuaren aurretik joan izan denez, Lantalde honen proposamenak ere terminoei aplikatu zaizkie. Kasu bakar batzuetan atzera egin beharra izan da, Hiztegi Batuaren azken erabakiak Lantaldearen proposamena ez duelako onartu, baina esan bezala, hau salbuespena izan da.

1.2.3. *Hiztegi berrien integrazioa*

Hiztegi berriak integratu ahala, haien arloan lehendik zeuden terminoak eguneratu egin dira, eta ordura arte ez zeuden berriak gehitu.

1.2.4. *Epaitegietako idazki-ereduak normalizatzeko batzordearen erabakiak*

Zuzenbideko terminologian garrantzizkoa izan da Batzorde hau, erakunde desberdinen bermea duelako. Erakunde honen hobespena 'J' ponderazio-markarekin adierazi izan da terminoetan.

1.2.5. Terminologia batzordearen hobespenak

Terminologia Batzordeak terminologiarako irizpideak finkatu ditu.

Batzorde teknikoan proposamenak dira oraingoz eragin bakarria izan dutenak, Terminologia Batzordeak ez dituelako oraindik proposamen konkretuak plazaratu.

2. AURRERA BEGIRA: TERMINOLOGIA EGITEKO MODU BERRIAK

Ondorengo urteetarako Terminologia Batzordeak formulatu beharko duen Jarduketa Planak zehaztuko ditu lerro nagusiak. Gure ustez, jarduketa horren baitan, garrantzi txikiagoa eman beharko litzaioke hiztegi berriak egiteari eta ahalegin handiagoa egin lehendik dauden terminoak gaur egungo aditu-erabilerarekin kontrastatzen.

2.1. Terminologia-eguneratzeko metodologia berria ikerketa-proiektu baten barnean

Ikerketa-proiektua: *Itzulpenen Diagnostiko Terminologikoa (IDITE)*. Proiektu hau *Gipuzkoako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Sarea* Programaren 2005eko deialdian onartua izan da, eta gaztelania-euskara itzulpenetan erabilitako terminologiaren txikeoa egitea da helburua, hiztegi terminologikoa baliatuz. Kanadan egin dira, batez ere, honelako ikerketak (Macklovitch 1994; Russell 2005).

Azpmarratu behar da terminologia dela gaia, eta beraz, espezialitateko hizkeraren barnean mugatzen dela jarduera, xede orokorreko testuetan sartu gabe.

Proiektuak bi fase nagusi ditu:

- 1) Hiztegi terminologikoa eguneratzea: hiztegian proposatzen diren terminoak normalizazio-ikuspegitik egokian izan daitezela.
Bitarteko emaitza: Euskalterm eguneratzea izan da.
- 2) Itzulpenetako terminologia egiaztatzea: gaztelania-euskara testu elebidun batean, alde bietako terminoak identifikatu eta haien egokitasunari buruzko azalpen bat ematea.
Azken emaitza: eLENA aplikazioaren funtzionalitate berria.

2.2. Proba-harria, zuzenbideko terminologia eguneratzea

Zuzenbideko erabileremua aukeratu da, arlo honek erronka eta zailtasun be-
reziak dauzkala jakinik ere:

- Zuzenbideko terminologian lexiko orokorreko hitz asko eta asko erabiltzen dira. Adibidez, Zuzenbide Zibilean *aita, ama, guraso, seme, alaba; hijo, hijos, padre, padres, derecho, forma...* Desanbiguazio-zailtasunak ez dira txikiak.
- Eredu honetan, euskarazko terminologian joera desberdinak egon dira, eta daude, eta bateratze-bidea neketsua izan da.

- Azken urteotan arlo honetan terminologia normalizatua finkatuz doa, lege garrantzizkoen itzulpenak argitaratu baitira (*Kode Zibila, Zigor Kodea, Espainiako Konstituzioa* eta abar). Itzulpen hauen egileak IVAP, Deustuko Unibertsitatea eta beste batzuk izan dira.

2.3. Zuzenbideko terminoak eguneratzeko metodologia

Proiektuaren barnean, testu normalizatu batzuetatik abiatuta hiztegi terminologikoa eguneratzeko metodo bat finkatu da.

2.3.1. *Corpusa*

Lege-testuen corpusa hautatu da, eta formatu elebidun egokian jarri da. Hautapena legeen garrantziari begira eta itzultzailearen normalizazio-eskumenaren arabera egin da. Azpian doaz lege horietako batzuen izenak:

- *Zigor-Kodea.*
- *Kode Zibila.*
- *Espainiako Konstituzioa.*
- *Autonomia Estatutua.*
- *Euskal Herriko Foru-Zuzenbide Zibila.*
- *Nafarroako Foru Zuzenbide Zibila.*
- *Langileen Estatutua.*
- *Euskararen Erabilera Normalizatzeko Legea.*
- *Zirkulazioari Buruzko Araudi Orokorra.*
- *Administrazio Prozedura Erkidearen Legea.*
- *Toki-Araubidearen Oinarriak Arautzen Dituen Legea.*
- *Trafikoari Buruzko Oinarri Arauak.*
- *Adingabeen Legea.*
- *Erregistro Zibilaren Legea eta Erregelamendua.*
- *Prozedura Zibilaren Legea.*

2.3.2. *Baliabideak*

Hizkuntza-baliabideetan, gaztelaniazko eta euskarazko lexikoiak, hiztegi terminologikoa, eta hizkuntza bietako testuetan terminologia identifikatzeko eta erauzteko tresnak prestatu dira.

Euskarazko termino-erazketarako, IXA taldearen baitan egindako hainbat ikerketa baliatu dira (Alegria 2004, 1999). Erdarazko termino-erazketarako lagun-garriak izan dira Pompeu Fraba Unibertsitateko IULA Institutuko ikerketak (Estopà 1999; Vivaldi 2004). Gaztelania prozesatzeko tresnak garatzeko, ezinbestekoak izan dira Kanaria Handiko Las Palmaseko Unibertsitatean Grupo de Estructuras de Datos y Lingüística Computacional taldeak egindako ikerketak (Santana 1997, 1999).

Giza baliabideei dagokienez, argi gera bedi termino-eguneratze honetan pieza nagusia terminologoa dela: Zuzenbidean eta Hizkuntzalaritzan jantzia, Zuzenbideko terminologian esperientzia duena; eta gainerako tresna automatikoak haren lana errazteko erabiltzen direla.

2.3.3 . Urratsak

2.3.3.1. Euskarazko termino ezezagunen azterketa

Euskarazko testua lematizatzean, hainbat termino edo hitz ezezagun (Hiztegi terminologikoarentzat ezezagunak) azaltzen dira, idazketa-akats batzuekin batera. Idazketa-akats hauek testuak digitalizatzean sortzen dira maiz, bereziki PDF formatutik testua berreskuratu bada.

Termino ezezagunen zerrendatik abiatuta, Hiztegi terminologikoa egokitzeke proposamena egiten du terminologoa, *hapax* izaerako formak alde batera utzita.

<i>Kode Zibila</i>	<i>Hiztegi Terminologikoa</i>	<i>Gaztelania</i>
albazeago	albazeago <i>albazeatza</i>	albaceazgo
aldaberriketa	aldaberriketa ; <i>aldaberritze</i> ; <i>berritze</i> , <i>nobazio</i>	novación
antikresi	antikresi	antícresis
aurkaratu	aurkaratu <i>impugnatu</i>	impugnar
aurretiazko abisu	aurretiazko abisu	aviso previo
azpierrentan eman	azpierrentan eman <i>berrakuratu</i> ,- <i>berrakuran eman</i> ,- <i>berrakuran-</i> <i>hartu</i>	subarrendar
azpierrentamendu	azpierrentamendu <i>berrakura</i> ,- <i>suberrenta</i> -	subarriendo
azpierrentatzaile	azpierrentatzaile <i>berrakuratzaita</i> -	subarrendador
azpierrentari	azpierrentari <i>berrakuradun</i> -	subarrendatario
azpifidatzaile	azpifidatzaile	subfiador
azpiforo	azpiforo	subforo
baldintza etengarri	baldintza etengarri ; <i>baldintza</i> <i>etenarazle</i>	condición suspensiva
berradiskidetze	berradiskidetze	reconciliación
dohaintzen urripen; dohaintzak urritze	dohaintzen urripen ; dohaintzak urritze <i>dohaintzen-murrizketa</i>	reducción de donaciones

2.3.3.2. Hiztegi terminologikoak proposatzen dituen euskarazko terminoen egokitasuna egiaztatzea

Lege-testu elebidunak aurrez aurre jartzen dira, sorburu-hizkuntzan hiztegiaren proposamenak automatikoki txertatuta. Terminoen identifikazioa oso lotua dago gaiaren sailkapenarekin. Esate baterako, Zuzenbide zibileko terminoak ezagutzeko, “Zuzenbide Zibila” edo “Zuzenbide orokorra” sailkapena duten terminoak soilik hartzen dira kontuan.

Kode Zibilaren hasierako adibidea: Ezkerrean ikus daitezke euskarazko ordainak gaztelaniazko testuan tartekatuta. Eskuinean erakusten dira terminologoak detektatu dituen termino-desberdintasunak (letra etzanean) eta berdintasunak (azpimarratuan).

Artículo 1	1. artikulua
1. Las fuentes del ordenamiento jurídico [ordenamiento jurídico] [legedi; zuzenbide-ordenamendu; ordenamendu juridiko; zuzenbideko ordenamendu] español son la ley [ley] [lege], la costumbre [costumbre] [ohitura] y los principios generales del derecho [principios generales del derecho] [zuzenbidearen printzipio orokor].	1. Espainiako <i>antolamendu juridikoaren</i> iturriak dira <u>legea</u> , <u>ohitura</u> eta <u>zuzenbidearen printzipio orokorrak</u> .
2. Carecerán de validez las disposiciones que contradigan otra de rango superior.	2. Ez dute baliorik izango goragoko lerruneko xedapenen bat urratzen duten xedapenek.
3. La costumbre [costumbre] [ohitura] sólo regirá en defecto de ley [ley] [lege] aplicable, siempre que no sea contraria a la moral o al orden público [orden público] [ordena publiko] y que resulte probada.	3. <u>Lege</u> aplikagarri izan ezean bakarrik eraenduko du <u>ohiturak</u> , betiere, moralaren zein <u>ordena publikoaren</u> aurkakoa izan ez eta berori frogatuz gero.
Los usos [uso] [usadio] jurídicos que no sean meramente interpretativos de una declaración de voluntad [declaración de voluntad] [borondate-deklarazio; borondate-adierazpen; borondatea adierazte; borondatea deklaratzte] tendrán la consideración de costumbre [costumbre] [ohitura].	<u>Usadio</u> juridikoak <u>ohituratzat</u> hartuko dira, <i>borondate-aitorpenaren</i> interpretazio hutsak ez badira.

Desadostasun-txostena

Aurreko saiotik ondorengo proposamena egiten du terminologoak. Desadostasun-portzentajea ez da honelako zerrenda bat ikusita pentsa daitekeen bezain handia, batez beste, %5 eta %10 artean egon daiteke.

Gaztelania	Hiztegi terminologikoa	Kode Zibila
adoptante	adoptatzaile	adopzio-hartzaile
asiento	erregistro-idazpen idazpen (p=J)	idazkun
bien común	ondasun komun	ondasun erkide
carta de naturaleza	herritartze-agiri herritartze-gutun	herritar-agiri
causa de nulidad	deuseztasun-kausa deuseztasuneko kausa deuseztatzeko kausa	deuseztasun-arrazoi
contrayente	ezkontide ezkonberri	ezkongai
convenio regulador	hitzarmen arautzaile (p=J)	hitzarmen arau-emaila
deber conyugal	ezkontzako betebeharrak	ezkontzako eginbehar
declaración de ausencia	absentzi deklarazio (p=J) absente deklaratzeko	absentzia-adierazpen
declaración de fallecimiento	heriotzaren deklarazio heriotza-deklarazio (p=J)	heriotza-adierazpen
declaración de voluntad	borondate-deklarazio borondate-adierazpen borondatea adierazte borondatea deklaratzeko	borondate-aitorpenaren
defensor judicial	defentsari judicial adingabekoen eta ezgaituen defentsari judicial (p=J)	defendatzaile judicial
derecho preferente	lehenespenezko eskubide lehenatasuneko eskubide	lehenespenezko eskubide
desheredar	desjarauntsi	jaraunsgabetu
doble nacionalidad	nazionalitate bikoitz	naziokotasun bikoitz
efecto retroactivo	atzeraeragineko ondorio	atzera-eraginezko ondore
encargado del Registro Civil	Erregistro Zibilaren arduradun (p=J)	Erregistro Zibileko arduradun
error de derecho	zuzenbidezko errakuntza	zuzenbidezko oker
ignorancia de la ley	legearen ez-ezagutza	legeak ez jakite
incapacitación	gaitasun-gabetze ezgaitze (p=J)	ezgaitza
infidelidad conyugal	ezkontza-desleialtasun ezkontzako desleialtasun	ezkontzaren artean fideltasunik ez izate

Gaztelania	Hiztegi terminologikoa	Kode Zibila
matrimonio rato y no consumado	ezkontza egin baina burutu gabe ezkontza ratu eta kontsumatu gabe	ezkontza rato eta gauzatugabe
medida provisional	behin-behineko neurri (p=J)	aldi baterako neurri
nacionalidad	nazionalitate (p=J)	naziokotasun
obligación de dar alimentos	mantentzeko betebeharrak mantenu-betebeharrak	mantenua emateko betebeharrak
ordenamiento jurídico	legedi ordenamendu juridiko zuzenbideko ordenamendu	antolamendu juridiko
presunción de paternidad	aitatasun-presuntzio	aitatasunari buruzko presuntzio
promesa de matrimonio	ezkon-hitz ezkonberba ezkontzeko promesa	ezkontzitz
recuperación	berreskurapen berreskuratze	berreskuraketa
régimen de separación de bienes	ondasunen banantetako erantza	ondasunen banantze-erantza
renta vitalicia	hil arteko errenta	bizi arteko errenta
representante legítimo	ordezkari legitimo	legezko ordezkari
separación de hecho	egitatezko banantze	egitezko banantze
vecindad civil	auzotasun zibil	auzotartasun zibil

2.3.3.3. Gaztelaniazko testuetako terminogaien erauzketa

Batez ere sinonimoak eta “termino berriak” detektatzeko egiten da.

Hitzen maiztasunak baliatuz, elkarrekin azaltzeko joera duten hitz-bikote edo n-koteak bilatzen dira.

Terminogai hauen artean lehendik hiztegian daudenak identifikatu ondoren, hiztegian falta direnak detektatuko ditu terminologoak.

Kode Zibileko adibidean, batzuetan kontzeptua lehendik badago, baina sinonimia-arazoak antzematen dira (*heredero abintestado* eta *heredero abintestato*). Beste batzuetan, kontzeptu-hutsuneak nabaritzen dira.

- Termino ezagunak: *heredero forzoso*, *herederos legítimos*.
- Sinonimoak: *heredero abintestato*, *mayor edad*.
- Terminogaiak: *hogar familiar*, *ignorancia inexcusable*, *impugnación de la paternidad*.

2.3.3.4. Euskarazko testuetako terminogaien erauzketa

Corpusean euskarazko dokumentuak arakutzen dira, termino-hustuketa automatikoaren bidez. Terminologoak euskarazko termino berriak detektatzen ditu hustuketak eman dizkion terminogaien artean. Batzuetan, hiztegian lehendik dagoen kontzeptu bati dagokion sinonimoa izango da, eta beste batzuetan hiztegian falta den kontzeptua nabaritzen da.

Kode Zibileko adibideak:

- Batzuetan hiztegian lehendik zeuden terminoak azaltzen dira: *abintestato epaiketa, agiri publiko*.
- Beste batzuetan, ordain desberdinak detektatu dira: *abintestato jaraunsle, absentzia adierazpen, adopzio hartzaile*.
- Terminogaiak: *adingabearen gaineko tutoretza; akzesio eskubide*.

2.3.4. Lehen fase honetako emaitza eta hurrengo fasea

Zuzenbideko Hiztegi terminologiko eguneratu bat da lehen fase honetako emaitza.

Ikerketaren hurrengo urratsa hau izango da: Zuzenbideko testu elebidun baten baitan, gaia zehaztu ondoren, gaztelaniazko eta euskarazko terminoak identifikatu, elkarrekin parekatu eta termino-bikoteen egokitasuna epaitu. Eta, azken emaitza, gaztelania-euskara itzulpen bateko terminoak txekeatzeko funtzionalitate bat izango da, eLENA aplikazioaren barnean (hau da, itzulpen-memoriak kudeatzeko UZEIK garatu duen sistemaren barnean) txertatuko dena.

BIBLIOGRAFIA

- Alegria I., Ezeiza N., Oronoz M., Urizar R. 1999. "Extracción Automática de Terminología a partir de Etiquetado y Lematización". *VI Simposio Internacional de Comunicación Social. Santiago de Cuba, 1999ko urtarrilaren 25-28*.
- Alegria I., Gurrutxaga A., Lizaso P., Saralegi X., Ugartetxea S., Urizar R. 2004. "Linguistic and Statistical Approaches to Basque Term Extraction" *GLAT-2004: THE PRODUCTION OF SPECIALIZED TEXTS*.
- Estopà Bagot, R. 1999. *Extracció de Terminologia: elements per a la construcció d'un SEACUSE (Sistema d'Extracció Automàtica de Candidats a Unitats de Significació Especialitzada)*. Barcelona, Institut Universitari de Lingüística Aplicada, Universitat Pompeu Fabra.
- Macklovitch, E. 1994. "Using Bi-textual Alignment for Translation Validation: the Trans-Check System". *Actes du First Conference of the Association for Machine Translation in the Americas (AMTA-94)*, Columbia.
- Russell, G. 2005. "Automatic Detection of Translation Errors: The TransCheck System". *Proceedings of the 27th Translating and the Computer Conference (ASLIB)*, London, UK.
- Santana Suárez O., Pérez Aguiar J.R., Losada García L.J., Carreras Riudavets, F.J. 2002. "Hacia la desambiguación funcional automática en Español". *Procesamiento del Lenguaje Natural*, 28 zk.

- Santana, O.; Pérez, J.; Carreras, F.; Duque, J.; Hernández, Z.; Rodríguez, G. 1999. *FLANOM: Flexionador y lematizador automático de formas nominales*. *Lingüística Española Actual XXI*, 2. Ed. Arco/Libros, S.L. 253/297
- Santana, O.; Pérez, J.; Hernández, Z.; Carreras, F.; Rodríguez, G. 1997. *FLAVER: Flexionador y lematizador automático de formas verbales*. *Lingüística Española Actual XIX*, 2. Ed. Arco/Libros, S.L. 229/282
- Vivaldi, J. 2004. *Extracción de candidatos a términos mediante la combinación de estrategias heterogéneas*. Barcelona: IULA, 2004. ISBN: 84-89782-11-3.

xx. mendeko euskararen corpus estatistikotik xxi. mendeko erreferentzia corpusera

Miriam Urkia

UZEI

1. SARRERA: ZER DIRA CORPUSAK

Corpusen historia ez da oso luzea; bai, ordea, emankorra. 1963an sortu zen lehena, *Brown corpus* izenekoa¹, eta ordutik asko aldatu da hauei buruzko ikuspegiak, azken hogeitaz batzuetan batez ere. Gaur susmagarria da erabilera dokumentatua oinarritzen ez den lana: corpusetan frogatzen dira proposamenak. Ez da corpusaren beharra planteatzen; eztabaida tamainan eta edukian dago, corpus orekatua, handia eta ona izatea zaila baita.

Baina, zer da corpus bat? *hizkuntzaren atal baten erakusgarri gisa erabiliko den testu-multzo egituratua, erabilera errealak jasoko dituen, betiere irizpide zehatz batzuen arabera*².

Urrats bat aurrera egin, baina, erreferentzia-corpusa *hizkuntza bere osotasunean hartuko duena dela* esango dugu, *hizkuntza bera erakusgarri izan dadin*³. Horretarako, hizkuntzaren aldaera esanguratsuak adierazteko besteko tamaina eta kalitatea beharko du, eta, ondorioz, *orekatua* izango da. Izan ere, *de facto* estandar bihurtzen direla erakutsi dute orain arte gizarteratu diren corpusak (Leech 2002: 1; Rojo 2002).

Erreferente izango den corpusa osatzen hasi aurretik hainbat galdera izan behar dira kontuan: nolako corpusa nahi dugu? zer islatu nahi dugu? zertarako, zein informazio eskaini behar du? Jasotako informazioaren eta honen kalitatearen arabekoa izango da emaitza ere. Corpusak orekatua, erakusgarria behar du: hau da, baliagarria. Datu empirikoen garrantzia duten neurrian balio du corpusak ere. Azkenean, aukeratu den hizkuntzaren atalaren —hizkuntza bere osotasunean bil-

¹ www.hit.uib.no/icame/brown/bcm.html

² Definizio nagusietara jotzen badugu: “a collection of pieces of language that are selected and ordered according to explicit linguistic criteria in order to be used as a sample of the language” (EAGLES 1996a: 4) eta “a finite-sized body of machine-readable text, sampled in order to be maximally representative of the language variety under consideration” (McEnery & Wilson, 2004: 32).

³ John Sinclairen definizioa: “A reference corpus is one that is designed to provide comprehensive information about a language” (EAGLES 1996b: 8).

tzea ezinezkoa baita — adierazle gorena izan nahi duen testu-multzoa da⁴, kontu handiz aukeratutako lagin erakusgarria. Informazio-masa handia biltzen duenez, eta sailkatzeko erraztasunak ematen, proba-banku eroso da: teoriak edo/eta intuizioak frogatzeko erabiltzen da, eta metodo estatistikoak erabiltzeko aukera ere ematen du.

Antolaketari begira, azpicorpusetan banatu ohi dira corpusak: hau da, hainbat corpusek osatuko dute corpus nagusia. Adierazgarritasun-balantzea ondo zehaztuta, kontsultarako aukera asko ematen ditu, beharren arabera mugatuz.

Bukatzeko, hizkuntzaren alor gehienetan dute zeresana corpusek: ahotsaren tratamenduan, lexikografian⁵, gramatikan, semantikan, pragmatikan eta diskurtsoaren analisisan, soziolinguistikan, estilistikan, hizkuntzen eta hizkuntzalaritzaren irakaskuntzan, hizkuntzalaritza historikoan, dialektologian, psikolinguistikan, azterketa kulturaletan eta psikologia sozialean, besteak beste. Noski, informazioa kodetu eta egituratu egin behar da, corpusa erabilgarri izateko ezinbestekoa baita bilaketa-sistema sendoa izatea. Baina ez tresna informatikoen aldetik soilik, baita ezagutza linguistikoaren aldetik ere⁶.

2. AURREKARIAK: EUSKARAZ DAUDEN CORPUSAK

Euskarak badu bere corpus-tradizioa, inguruko herrialdeetan eta hizkuntzetan baino mugatuagoa bada ere. Corpus elebakar eta orokorretara mugatuz —itzulpen-corpusak eta halakoak besterik dira-eta—, Euskaltzaindiaren ekimenari esker osatutako biak ditugu: tradizioa biltzen duen *Orotariko Euskal Hiztegiaren* corpusa⁷ batetik, eta *XX. mendeko euskararen corpus* estatistikoa⁸ bestetik. Bi corpusotan oinarritu dira Euskaltzaindiaren “produktu” nagusietako batzuk: *Orotariko Euskal*

⁴ Beñat Oihartzabalek hala definitzen du corpusa: “*Hizkuntza baten deskribatzeko eta ikertzeko baliatzen den hizkuntza-datu bilduma, baliabide elektronikoak erabiltzen eta eskaintzen dituen*” (Oihartzabal 2002: 2).

⁵ Corpus nagusiak hiztegi handien oinarri gisa sortu dira. *BNC* corpusa *Longman*, *Larousse* eta *Oxford* hiztegien oinarri da, *COBUILD BoE*-n oinarritua da eta *Trésor de la Langue Française*-k *FRANTEXT* du atzean.

⁶ Hitzek lema, kategoria gramatikala, informazio morfologikoa, sintaktikoa, eta are semantikoa izan behar dute erantsita. Horrela, gauza izango da adierak, kategoria sintaktikoak, klase semantikoak, argumentu-egitura, hitzen arteko kookurrentziak, unitateen agerpen-maiztasuna, are bere testuinguruan, analisi probabilitistikoa, erlazio lexikoak, erabilera-adibideak, murriztapen selektiboak, hitz elkartuak, lexiak, lokuzioak, etab. eskaintzeko.

⁷ *Orotariko Euskal Hiztegia* (OEH) corpus diakroniko itxia da, 1970. hamarkada arte iristen dena. 310 obra ia oso “hautatu”k osatzen dute 5.800.000 hitzeko corpus gordina, etiketatu, zuzendu, kodetu eta lematizatu gabea. Epea, euskalkia eta testu-mota zabala baliatzen ditu sailkapen-irizpide gisa. Corpusaren lantzearen aldetik, muga handiak baditu ere, euskararen historiaren altxor ezinbestekoa da.

⁸ Corpus hau, lehen EEBS —Egungo Euskararen Bilketa-lan Sistematikoa— gisa izendatzen zena, UZEK Euskaltzaindiaren eskariz eta harentzat egina da. Ondoko atal osoa eskainiko diogu corpus honen aurkezpenari.

Hiztegia bera, *EGLU* liburukiak eta *Hiztegi Batua*, besteak beste. Gaur ez genituzke eskura izango corpusik gabe.

Bada, hauez gain, EHUren baitan sortutako *Ereduzko prosa gaur* ere⁹.

3. XX. MENDEKO EUSKARAREN CORPUS ESTADISTIKOA

1986an ekin zion UZEIk, Euskaltzaindiaren eskariz, xx. mendeko euskal lexikoaren erabileraren berri emango zuen corpora osatzeari, hasiera batean EEBS izenez ezagutu zenari. Orduko abian zen OEH, baina testu-bilduma gisa erabiltzen zen corpus gisa baino gehiago. EEBSren osaerarako garaiko metodo berrienak ezagutu eta baliatu ziren, mende osoko euskara idatziaren inbentarioa egin eta horren lagin erakusgarri bat ateratzeko atal guztiak estatistikoki eta proportzionalki jasoz. Hauek dira corpusaren ezaugarri nagusiak (Urkia 2002a):

- a) *Sinkronikoa*: xx. mendea hartzen du, 1900tik 1999 artekoa.
- b) *Elebakarra*: euskara, baina euskalki guztiak jasota.
- c) *Idatzia*: eta argitaratua; ahozkoa, transkribatu eta argitaratu den neurrian jaso da.
- d) *Lagin estatistikoa*: xx. mendeko euskal argitalpenen inbentario sailkatuan oinarritua eta proportzionalki jaso.
- e) *Sailkatua*: garaia, euskalkia, generoa eta obraren tamainaren arabera.
- f) *Kodetua*: SGML formatu estandarra baliatuz.
- g) *Lematizatua*: testu-hitz bakoitzari lema estandar bat esleituz, unitate konplexuak barne.

Corpora osatzeko egindako urratsak ikusiko ditugu ondoko puntuotan.

3.1. Abiapuntua: xx. mendeko euskal argitalpenen inbentario sailkatua

Corpora osatzen hasi aurretik, unibertsoa ezagutu behar da; alegia, xx. mendean euskaraz argitaratu dena. Horrek corpusaren oinarri izango den inbentarioa —sailkatua— egitea dakar.

Bi sail zabaletan banatu zen unibertsoa, gerora bi azpicorpus nagusien oinarri izango zena: liburuak eta aldizkari “nagusietako”¹⁰ artikulua, batetik; eta egunkariak —aldizkari ofizialak barne— eta bestelako aldizkariak, bestetik. Sailkapen-irizpide nagusiak hauek izan ziren:

⁹ Ez dugu honi buruzko azalpenik emango, bere aurkezpen propioa izango baitu ondoren.

¹⁰ Aldizkari “nagusi” gisa nolabaiteko pisua dutenak jaso genituen: *Euskera* edo *Jakin* modukoak, adibidez, artikulua landuak, mardulak, sinatuak dituztenak. Herri-aldizkariak, esaterako, artikulua laburragoak, maiz sinatu gabeak, arinagoak eta maiztasun handiagokoak direnez, sailkatu gabeen multzoan bildu ziren.

a) *Garaia*: lau epe nagusitan banatu zen guztia.

1900-1939: mende-hasieratik gerrak artekoa.

1940-1968: gerraostean abiatu eta euskara batuaren sorrera artekoa.

1969-1990: euskara batuak ekarritako aldaketekin hasi eta Euskaltzaindiaren gomendioak eta arauak artekoa (eta I. Sarasolaren *Hauta-Lanera* *Euskal Hiztegia* argitaratu artekoa).

1991-1999: araugintza berriaren ondokoa.

b) *Euskalkia*: sailkapen zabala egin zen.

1 Bizkaiera

2 Gipuzkera

3 Zuberera

4 Lapurtera/Nafarrera

5 Euskara batua

6 Sailkatu gabeak¹¹

c) *Testu-mota, generoa*:

3 Saio-artikuluak

11 Ikerketa-lanak

4 Administrazio-idazkiak

12 Haur- eta gazte-literatura

5 Ikasliburuak

13 Ahozkoak (ahozko jardunen transkripzioak)

6 Saio-liburuak

14 Liturgia

7 Prosa literarioa

8 Poesia

15 Egunkariak

9 Antzerkia

16 Astekariak/hamaboskariak

10 Bertsoak

17 Hilabetekariak (eta maiztasun urriagoak)

d) *Obraren tamaina*¹²:

1 1-5 orrialde (1-1000 hitz)

2 6-20 orrialde (1000-5000 hitz)

3 21-50 orrialde (5000-10000 hitz)

4 51-250 orrialde (10000-50000 hitz)

5 251 orrialde baino gehiago (50000 hitzetik gora)

Irizpideok aplikatuz, hainbat liburutegi haztatu genituen xx. mendean euskaraz argitaratutako guztia inbentariatu eta sailkatzeko, alegia, unibertsoa osatzeko. Bi sail nagusiak bereiz landuz —corpusa ere bi azpicorpus nagusik osatzen baitute—, inbentarioaren emaitzak sailka eskuratu genituen.

¹¹ Euskalkiaren arabera sailkatu gabe utziak, askotan euskalki bat baino gehiago tartekatzen direlako: liburuetan (bertsoak, elkarrizketak) eta aldizkarietan (masa osoa jasota, artikuluka).

¹² Eta, sailkatu gabeen atalean, argitalpen bakoitzaren testu-masaren totala bakarrik hartu zen kontuan, artikuluka banatzea ezinezkoa baitzen.

3.1.1. **Sailkatuen sailean**, liburuak eta aldizkari “nagusiak” biltzen dituenen, 49.858 dokumentu jaso genituen, goian zehaztutako irizpideen arabera, datuok eskuratuz¹³:

a) *Garaia, epea*:

1. 1900-1939: 4.910 dokumentu
2. 1940-1968: 5.415 dokumentu
3. 1969-1990: 18.284 dokumentu
4. 1991-1999: 21.152 dokumentu

b) *Euskalkia*:

- | | |
|-----------------------------------|--|
| 1. Bizkaiera: 4508 dokumentu | 2. Gipuzkera: 8966 dokumentu |
| 3. Zuberera: 203 dokumentu | 4. Lapurtera/Nafarrera: 2815 dokumentu |
| 5. Euskara batua: 31223 dokumentu | 6. Sailkatu gabeak: 177 dokumentu |

c) *Testu-mota*:

- | | |
|-------------------------------------|--------------------------------------|
| 3. Saio-artikuluak: 18056 dokumentu | 4. Administrazio-idazkiak: 280 |
| 5. Ikasliburuak: 2913 | 6. Saio-liburuak: 8891 |
| 7. Prosa literarioa: 5357 | 8. Poesia: 5823 |
| 9. Antzerkia: 711 | 10. Bertsoak: 919 |
| 11. Ikerketa-lanak: 81 | 12. Haur- eta gazte-literatura: 4439 |
| 13. Ahozko transkripzioak: 106 | 14. Liturgia: 387 |

d) *Tamaina*¹⁴:

1. 1-5 orrialde: 25425 dokumentu (12.712.500 testu-hitz)
2. 6-20 orrialde: 12882 (38.625.000 testu-hitz)
3. 21-50 orrialde: 4754 (35.655.000 testu-hitz)
4. 51-250 orrialde: 4044 (121.320.000 testu-hitz)
5. 251 orrialde baino gehiago: 766 (45.960.000 testu-hitz)

Horiek horrela, xx. mendeko euskal produkzio sailkatuaren kopurua 254.272.500 testu-hitzekoa zela ikusi genuen.

3.1.2. **Sailkatu gabeen sailean**, aldizkariak eta kazetaritzako lanak biltzen dituenen, ez zen euskalki-banakatarik egin, gorago azaldu dugunez. Testu-masa handiak

¹³ Hainbat material inbentariatu bai, baina eskuratzetik izan ez genuenez, sailkapen osorik gabe utzi genituen. Beraz, kopuruak ez dira beti bat etorriko.

¹⁴ Formula bezala: “1” taldekoen batez bestekoa 500 hitzekoa da, “2”koena 3000, “3”koena 7500, “4”koena 30000 eta “5”ekoena 60000. Kopuru horietan oinarrituta atera da testu-masa osoa.

zirenez, argitalpen bakoitzaren hitz-kopuru osoa jaso zen. Emaitzak 510.326.796 testu-hitz eman zituen.

a) *Garaia, epea:*

1. 1900-1939: 37.583.775 hitz
2. 1940-1968: 22.666.000 hitz
3. 1969-1990: 147.812.782 hitz
4. 1991-1999: 302.264.239 hitz

b) *Testu-mota:*

15. Egunkariak: 259.840.586 hitz
16. Astekariak / hamaboskariak: 168.773.954 hitz
17. Maiztasun urriagokoak: 81.712.256 hitz

Eta, bi multzoak batuta, hau da, sailkatuak eta sailkatu gabeak, xx. mendeko euskal argitalpenen unibertso osoa 764.599.296 hitzekoa zela ondorioztatu genuen. Hori zen, beraz, abiapuntua. Datuokin has gintezkeen corpusa osatuko zuen lagin estatistikoa bideratzen.

3.2. Corpusaren osaera

3.2.1. *Corpusaren tamaina zehaztu:* unibertsoa osatuta, zenbateko corpusa beharko litzateke xx. mendeko euskararen erakusgarri aski zabala izateko? Unibertsoa ezin da bere osotasunean jaso, baina corpus erakusgarria eta egingarria behar genuen hasierako helburuari erantzuteko.

Horrela, garaiko beste lan batzuen emaitzak aztertu genituen, corpusaren tamaina eta emaitzen erakusgarritasuna erkatuz¹⁵. Haiek eskaintzen zituzten datuen argitan, 2.000.000 testu-hitzeko corpusa aski erakusgarria izan zitekeela kalkulatu zen, horrekin 40.000 lema— edo hiztegi-sarrera— desberdin lortuz. Hala egin zen¹⁶.

Bi milioi hitzeko lagin estatistikoa osatzeko, unibertsoa sailkapen-ataletako bakoitza proportzionalki jaso behar genuen. Beraz, formula estatistikoak baliatu genituen EUSTATen laguntzarekin: parametro batzuk definitu eta atal guztiek izan zuten lekua corpusean, zegokien proportzioan¹⁷.

¹⁵ Lau hizkuntzatako lanak hartu genituen kontuan: *Frequency Dictionary of Spanish Words*; I. Sarasolaren *Gaurko euskara idatziaren maiztasun-hiztegia*; *Computational Analysis of Present-day American English*, eta *Trésor de la Langue Française*.

¹⁶ Gogora dezagun 1987an egin zirela lanok eta, beraz, goian aipatu dugun unibertsoa ez zela osoa. Azken emaitzak, 1900-1999 osorik hartuta, nabarmen aldatu ditu hasierako aurreikuspen horiek.

¹⁷ Testu-mota bakoitzari kuota bat esleitu zitzaion: prosan (prosa arrunta eta literarioa, ikasliburuak eta antzerkia), 50 hitzeko bat jasoko zen; poesian eta bertsoan, 200 hitzeko bat; kazetaritzan, 350 hitzeko bat.

Aukeratzeko-lana ausazkoa izan zen, adierazgarritasuna zozketaren esku utziz; alegia, ez ziren ez autoreak ez obrak kontuan hartu. Eta, egokitutako obrak ere, ez ziren bere osotasunean jaso, bakoitzetik orrialde gutxi batzuk baizik.

Hartara, lexiko-aberastasuna berma zitekeen. Obrak bezala, orrialdeak ere ausaz jaso ziren¹⁸.

Beraz, corpusaren lehen bertsioak 2.000.000 hitz bilduko zituen, 1900-1987 urteei zegokiena. Hala ere, 1999 arte eguneratuz joan zen, urtero, irizpide berak errespetatuz, oreka mantentzeko. Azken hamarkadan, baina, 4. epeari ekitean, testu-masaren gorakada itzela zela-eta gerta zitekeen desorekari aurre egiteko, formulak berrikusi ziren. Eta, hala ere, mendearen bukaeran, hasierako 2.000.000 hitz haiek bikoiztu egin ziren, eta lema desberdinen kopuruak ehun milatik gora egin zuen.

3.2.2. *Corpusaren osaeraren emaitzak*: formulak aplikatuta, eta kopuruak kontuan izanik, hala osatu zen corpusa:

1) *sailkatuen azpicorpusa*: 3.622.032 hitz, 3.467 dokumentutatik jasoak, hala banatuta:

a) *Epeka*:

<i>Epea</i>	<i>Hitzak</i>	<i>%</i>
1900-1939	198.057	5.5
1940-1968	263.932	7.3
1969-1990	1.751.703	48.3
1991-1999	1.408.340	38.9
Guztira	3.622.032	100

b) *Euskalkika*:

<i>Euskalkia</i>	<i>Hitzak</i>	<i>%</i>
Bizkaiera	273.295	7.5
Gipuzkera	510.911	14.1
Zuberera	12.328	0.3
Lap/Naf	154.859	4.3
Euskara batua	2.651.935	73.2
Sailk. gabeak	18.704	0.5
Guztira	3.622.032	100

¹⁸ Sailkatuetan, 400, 800 edo 1.600 hitz jaso ziren obra bakoitzeko, tamainaren arabera; sailkatu gabetan, berriz, 2.000 edo 4.000 hitzeko multzoak egin ziren (argitalpen bereko hainbat artikulutan banatuak).

c) *Testu-motaka:*

<i>Testu-mota</i>	<i>Hitzak</i>	<i>%</i>
Saio-artikuluak	575.194	15.9
Admin-idazkiak	47.550	1.3
Ikasliburuak	521.102	14.4
Saio-liburuak	1.207.055	33.3
Prosa literarioa	695.019	19.2
Poesia	47.882	1.3
Antzerkia	132.226	3.6
Bertsoak	24.207	0.6
Ikerketa-lanak	26.256	0.7
Haur- eta gazte-lit.	274.147	7.5
Ahozko transk.	11.713	0.3
Liturgia	59.681	1.6
Guztira	3.622.032	100

2) *sailkatu gabeen azpicorpusa:* 1.035.134 hitz, 2.885 dokumentutatik jasoak:

<i>Epea</i>	<i>Hitzak</i>	<i>%</i>
1900-1939	114.294	11
1940-1968	70.221	6.8
1969-1990	429.429	41.5
1991-1999	421.190	40.7
Guztira	1.035.134	100

<i>Testu-mota</i>	<i>Hitzak</i>	<i>%</i>
Egunkariak	502.938	48.6
Astek./ hamab.	372.904	36
Aldizkariak	159.292	15.4
Guztira	1.035.134	100

Datuak bere osotasunean hartuta, 764.599.296 hitzek osatzen zuten unibertsoetik 4.657.165 besterik ez dira corpusera pasa: alegia, osoaren %0.6 bakarrik. Corpuseratu diren formen artean 418.487 hitz desberdin daude, eta 104.817 lema desberdin. Orotara, corpusa 6.352 dokumentuk osatzen dute: 3.467 dokumentu sailkatuen multzoari dagozkionak, eta 2.885, berriz, sailkatu gabeen multzoari dagozkionak.

Unibertso osoaren %0.6 horretan, sailkatuek %77.7 osatzen dute, eta sailkatu gabeek %22.3.

Medioa osotara hartuta, literarioa %25.3 da eta informatiboa %74.7¹⁹.

Horiek horrela, corpora orekatua dela esan dezakegu, gaurko estandarren bitetik baitoa. Gainera, unibertsoetik abiatua denez, XX. mendeko euskal argitalpenen errealtatea islatzen duen neurrian mantentzen du oreka hori.

3.3. Corpora eskuratzea

Lagina aukeratuta, eskuratze-lana bi modutara bideratu genuen: a) paperean eskuratu eta eskanerretik pasa, ondoren zuzenduz; eta b) formatu elektronikoa eskuratu. Mende-hasierako testuak lehenengo aukerarekin jaso ziren, nahiz azken urteetan bigarren aukerak gora egin zuen, baina sailkatu gabeen kasuan gehienbat. Izan ere, obra-zati txiki asko behar genuenez, askotan arinagoa zen eskanerretik pasatzea —dokumentuen kalitatea ona baitzen, eta eskanerrak azkarrak, lehen urteetan ez bezala— obra guztiak eskuratzeko bidea lantzea baino.

3.4. Corpora egituratzea: kodetzea

Eskuratutako dokumentuak elkartrukerako sistema estandar batera ekartzea oinarritzokoa denez, UZEIn SGML²⁰ formatua hautatu genuen. Erabiltzaileak testuak letra-tipo desberdinetan ikusiko ditu testuak, originalean zegoen bezala. Baina, horrez gain, marka lexikografikoak ere aurkituko ditu.

Real Academia Españolak CREA²¹ corpuserako baliatu zituen irizpideak gure beharretara egokituz, bi fasetan kodetu genuen corpora: a) azaleko markatzea (testua, orrialdea, paragrafoa eta halakoak, batetik, eta marka tipografikoak bestetik), eta b) informazio lexikografikoa (aurreko marka tipografikoak interpretatuz, erdarak, aipamenak, metahizkuntza eta halakoak ezarriz), betiere dokumentu originale-ra bueltatzeko aukerarekin.

Guztia egokitu, zuzendu eta markatu ondoren, erabat bateratua eta interpretatua dagoenean, corpora lexikografikoki lantzen hasteko moduan izango da. Bukatu dira, beraz, aurrelanak.

3.5. Corpora lematizatzea

Kodetzean, iragazlea pasa ondoren euskal lexiko gisa utzi ditugun hitz guztiak lematizatzea da hurrengo urratsa, hau da, testu-hitz bakoitzari lema estandar bat

¹⁹ Nahiz hau ez den egia osoa. Izan ere, sailkatu gabeetan literatura ere ageri da: alegia, aldizkari literarioak testu-masa oso bezala jaso dira eta, ondorioz, datuok ez dira literaturaren sailean bildu. Beraz, literarioari gehixeago esleitu beharko litzaioke —ez gehiegi, sailkatu gabeetan ez baitira maiztasun handienekoak—.

²⁰ Standard Generalized Mark-up Language.

²¹ Corpus de Referencia del Español Actual. www.rae.es

esleitzea. Horrek, besteak beste, erraztu egingo du kontsulta, forma deklinatuei eta aldaerei lema bakarra ezarriko baitzaie eta horixe izango baita heldulekua²². *Etxe* lemaren kontsulta egiten badugu, *etxe*, *etxea*, *etxeetan*, *etxien*, *echeco*, *etchecho*, *etchetik* eta beste ehunka aldaera eskuratuko ditugu berehala, aldaeraren bat ahazteko arriskurik gabe.

Lematizazioa, baina, ez da hitz bakunetara mugatzen: hitz soilez gain, hitz elkartuak, eratorriak eta bestelako sarrera konplexuak markatu dira. Alegia, lema hiztegi-sarrera modukoa dela esan dugu, baina hori baino gehiago da: hiztegiaren sarrera, azpisarrera edo are adibide gisa markatzen dena, hemen maila berean jaso baitago, unean behar dugun hitza berehala aurkitzea ahalbidetuz. Aurreko adibidearekin jarraituz, *etxe* lema soilaz gain, *abeletxe*, *argitaletxe*, *bainuetxe*, *etxe orratz*, *etxe-abere*, *etxe-tresna*, *etxeko*, *etxeko jaun*, *etxeko andre*, *etxepe*, *etxezain* eta beste hainbat aurkituko ditugu.

Horiek horrela, XX. mendeko euskararen corpus estatistikoak 104.817 lema desberdin ditu.

3.6. Corpusaren aplikazioak

Corpusa, bere muga guztiekin ere, hainbat lanetan aplikatu da eta baliagarri dela erakutsi du:

Euskaltzaindiko Hiztegi Batuko Lantaldeak corpuseko maiztasun-zerrendetatik hautatzen ditu landu beharreko formak; baina ez hori bakarrik, forma horiei buruzko historialak corpusean dokumentatzen ditu (tradizioko hitzak OEHko corpusean eta azken mendeko erabilerak XX. mendeko corpusean). Gramatika Batzordeak ere, egungo erabileren berri emateko, tradiziokoekin bat ez datozenak dokumentatzeko, XX. mendeko corpusa baliatu izan du.

Ikertzaileak, unibertsitatekoak batez ere, hipotesiak frogatzeko (aditzen erregimena, osagaien urruneko mendekotasuna kontrolatzeko, etab.), erabileren helduleku gisa (hitz anitzeko unitate lexikalak, hitz konkretuen familiak, eratorriak, konposatuak eta hauen sistematizazioa, atzizki zehatzak, etab.) eta tresnak trebatzeko (lematizatzailea, ahotsaren tratamendurako oinarritzko ezagutza bideratzeko, etab.) baliatu izan dute corpusa.

Hiztegitileek — lexikografoek eta terminologok — formen balorazioa egiteko erabili izan dute: dokumentatua dagoen ikusteko, zeinek erabili duen, zein arlotan, gaur bizi den, etab.

Gaur sarean dago corpusa, guztion eskura. Erabiltzaile-mota zabala duela erakutsi du.

²² Lematizazio-lana bi fasetan burutu zuen UZEIko lantaldeak: 1900-1990 artekoa, HIZKIA etxeak prestatutako *RTerm* aplikazio informatikoa baliatuz, eta 1991-1999 artekoa UZEIren eta EHUko IXA taldearen elkarlanaren ondorioz sortutako EUSLEM lematizatzaile automatikoa erabiliz. Kasu bietan, gutzia berrikusi eta eskuz zuzendu, osatu edo desanbiguatu zen.

3.7. Corpusaren mugak

Aurreko orrietan corpora lagungarri eta erabilgarri dela erakutsi dugu, baina baditu bere mugak. Dena dela, bere garaian kokatu behar da, helburu zehatz batekin sortu baitzen: *xx. mendeko euskal lexikoaren berri ahalik eta zabalena eskaintzea*. Dударik ez da, corpusak erabilera askotarikoa beharko lukeela, ikusi dugunez, baina 1986an jarri zen abian proiektua, baliabide mugatuekin (lantaldea, dirua, ezagutza eta denbora, guztiak ere urriak ziren hasierako garai haietan). Hauek dira muga nagusiak:

1. Txikia da egungo euskararen erabileren berri zabala emateko, adibidete mugatua da, maiztasun urriko adierak ez aurkitzeko arriskua dago. Horrez gain, estatistikoa da eta, ondorioz, autoreak eta obrak ez dira garrantzitsuak, ez dira erreferente.
2. Etiketatzeko morfosintaktikoa falta du: a) ez du kategoria gramatikalik eta, ondorioz, desanbiguatua gabea da; b) adiera-banakatarik ez dago²³; c) menderagailuen informaziorik ez da azaleratzen lematizatzean eta testu-hitzera jo behar da hori berreskuratzeko. Muga horiek kontuan izanda, kontsultarako hobekuntza batzuk bideratu ditu UZEIk, Euskaltzaindiko Gramatika Bazordearekin adostuak.

3.8. Ondorioak

XX. mendeko euskararen corpus estatistikoak bere egitekoa bete du, Hiztegi Batuari helarazi baitio —eta hala jarraitzen du orain ere— eman ziezaiokeen informazioa. Horrez gain, erabiltzaileen esku jarri den lehen euskal corpora da eta, sareko kontsultak ikusita, beharra zegoela ikusi da. Aipagarria da, gainera, Euskal Herritik kanpo egiten den kontsulta-kopurua, atzerrian dauden euskaldunena batez ere. Beraz, lehen ondorio gisa, corpora behar zela esan dezakegu. Une batean ia bost milioi euskal hitz kontsulta daitezke: hitz-zerrenda soilak, hitzen edo/eta lemen arteko konbinazioak, haien testuinguruak, erreferentzia bibliografikoak.

Ez ditugu ahaztu behar, halere, gorago aipatu ditugun corpusaren mugak, egungo —eta, batez ere, biharko— beharretarako ez baita erreferente gardena: txiki geratu da, estatistikoa da, etiketatu gabe dago, baina bere garaian eta testuinguruan kokatu behar da. Euskaltzaindiaren Hiztegi-gintza Sailerako, euskal lexiko modernoaren berri emateko sortu zen eta, hain zuzen, horri erantzuten dio.

Dena den, gaur baliabide handiak ditugu material aldetik —sarean edo euskarri elektronikotan daude azken urteetako argitalpenik gehienak—, tresna egokiak prestatu dira, eta ezagutza ere ez da 1986koa, esperientziadun adituak baitaude.

²³ UZEIk lantzen ditu horiek Hiztegi Batuko prestalana egitean, Interneteko kontsultan ageri ez badira ere.

Beraz, aurrera begira, corpusaren alde onak eta hobe daitezkeenak ikusita, dudarik ez dugu etorkizunean —etorkizun hurbilean— XXI. mendeko euskara modernoaren erreferente izango den corpus etiketatu bat beharko dela: *erabilera askotariko erreferentzia-corpusa*, tamainaz handia, erreferentea, egituratua, etiketatua, guztion eskura. Guztiona eta guztiontzat, ondoko lanetarako oinarri ezinbestekoa. Horixe da, hain zuzen, ondoko orrietan proposatuko duguna.

4. XXI. MENDEKO EUSKARAREN ERREFERENTZIA CORPUSA

Euskararen erreferentzia-corpusa, euskararen atal erakusgarria landuz eraiki beharko dugu, azken urteak hartuko dituen, euskalki eta genero guztiak dagokien proportzioan bilduz, ahozkoa, elektronikoa eta idatzia jasoz, euskaraz sortua zein itzulia, etab. Alegia: euskara modernoaren erakusgarri ahalik eta zabalena.

4.1. Egitura


Erakusgarritasuna *azpicorpusek* islatzen dute, erabilera-moten arabera azpi-corpus bat edo batzuk bakarrik beharko baitira: terminologian —administrazioko lexikoa lantzeko, adibidez—, ereduzko euskara bakarrik, prosa soilik, haur-hizkera, ahozkoa, etab. Nolanahi ere, corpus osoarekiko oreka mantenduz sortuko dira, beti irizpide berak aplikatuz.

Corpusak ondo egituratua, kodetua behar du, informazio linguistiko aberatsez hornitua. Honek eskatzen duen lana handia denez, azpimultzotan landuko da, azpi-corpus bakoitzekoa proportzionalki jasota. Beraz, erreferentzia-corpusak bi urrats izango ditu: corpus landua, baina berrikusi gabea, eta behin betikoa, landua, benetako erreferentzia-corpusa.

Horrek ez du esan nahi, erreferentzia-corpusarekin batera, *corpus oportunistiko edo monitore bat* sortzen joan ez daitekeenik²⁴. Alegia, eskura dagoen guztia da corpuserako hautagai, baina ez erreferentzia-corpuserako. Datu-biltegi handi batean jaso daiteke eskuratzen den guztia, markatze minimoa eginda, betiere: kodetze bibliografikoa, testuala eta, zergatik ez, zuzenketarik gabeko etiketatze automatikoa. Datutegi horretako osagai batzuk erreferentzia-corpusera pasako dira, eta beste batzuk tresnak hobetzen joateko proba-banku gisa erabiliko dira, lematizatzaileak eta desanbiguatzaileak, adibidez, horiek testu-masa handiak behar baitituzte. Kostu handirik gabeko sasicorpus bat sortzeko balia daiteke hau.

Irudi honek biltzen ditu euskal erreferentzia-corpusaren ingurune osoa:

²⁴ Ikus, honen haritik, Beñat Oihartzabalen proposamena (Oihartzabal 2004).



4.2. Diseinua

Corpus oportunistikoak ez du eduki-diseinurik behar, testuak bildu ahala txertatuko baitira. Hemendik aurrera, beraz, erreferentzia-corpusaren diseinua bakarrik izango dugu kontuan.

Corpusak orekatua behar du; alegia, atal bakoitza bere garrantziaren arabera egongo da ordezkaturia, hortik abiatuko baita beste guztia. Kontua, baina, “garrantzia” neurtzeko modua da. Sortzen den material-kopurua kontuan izan behar da, baina baita sortzaile- eta hartzaile-kopurua ere. Oreka hori diseinuaren atal guztietan mantendu beharko da.

Estandarrek markatzen dituzten oinarritzko ezaugarriak bederatzira: 1) elebakarra, 2) sinkronikoa, 3) orokorra eta 4) lagin erakusgarria; eta, honen barruan, gehiago finduz: 5) handia, 6) egungoa, 7) sailkatua, 8) idatzia + ahozkoa eta 9) egituratua. Horiek hartuko ditugu abiapuntu gisa gure proposamenerako²⁵. Proposamen erabat zabala da; izan ere, irizpideak zehaztea adituei dagokie, ez guri. Ezaugarri nagusiak besterik ez ditugu hona bilduko.

²⁵ Proposamenerako, txosten honetan esplizituki azalduko ez baditugu ere (proposamen osoa Urkia 2001 eta Urkia 2002b-n ikus daiteke), lau iturri nagusi baliatu ditugu: a) corpusen osaerarako estandarrek —EAGLESek, nagusiki— markatzen dituzten irizpideak; b) PAROLE proiektuak landu eta proposatua; c) *xx. mendeko euskararen corpus estatistikoa* osatzeko egindako euskal argitalpenen inbentario sailkatua (1991-1999 epea); eta d) egungo hainbat erreferentzia-corpusen buruzko datuak.

1. *Elebakarra*: erreferentzia-corporaren definizioan bertan dator elebakar izatea: “hizkuntza baten atal baten erreferentzia”. Gure proposamena, beraz, *euskara aztergai bakar*ra izatea da.

2. *Sinkronikoa*: “azken urteak” definizioak, gehienetan, azken 15-20 urteak biltzen ditu. Corpus berriek 1990. hamarkadan jarri dute abiapuntua, material elektronikoa baliatzeko, besteak beste. Euskararako, XXI. mendea badiogu ere, *1990ean edo are 1991n* jar daiteke abiapuntua, ez eskuragarritasunagatik bakarrik. Izan ere, *XX. mendeko euskararen corpus estatistikoan* lau eye bereizi ziren, azkena 1991-1999, “araugintza berriaren ondokoa”. 1991n Ibon Sarasolak *Hauta-Lanera*ko *Euskal Hiztegia* kaleratu zuen eta Euskaltzaindia lehen gomendioak kalera-tzen hasi zen. Beraz, “egungo” euskararen abiapuntu gardenena —data bat ezarri behar bada behintzat— hori izan daiteke. Honek ez du esan nahi, noski, 1991 baino lehenagoko obrek —erreferente izan daitezkeenek— lekurik ez dutenik.

3. *Orokorra*: “hizkuntza baten barruan dauden eredu desberdinak eta aldaerak jaso” behar ditu, guztiaren berri emateko. Murrizketak egin ohi dira, noski: ingelesaren kasuan, adibidez, britanikoa eta amerikarra bereizi egiten dira (BNC vs. ANC), hizkuntzaren aldaerak oso markatuak direlako, besteak beste. Idatzia eta ahozkoa banatzea ere bada orokortasunean murriztapenak ezartzea, baina aukeratzeko den unibertsoaren barruko orokortasuna da axola duena. Euskararen kasuan, hiru atal hartu beharko ditugu kontuan: 1) hizkuntza-ereduak, 2) euskara batua eta euskalkiak; eta 3) idatzia eta ahozkoa.

4. *Lagina*: hizkuntzak ezin dira bere osotasunean jaso. Horregatik, lagin bat aukeratu behar da, erakusgarri izango dena: bai kalitatearen aldetik, bai kantitatearenetik ere. Edukiaren kalitateari ez zaio inongo mugarik ezarri behar, emaitza ere horren arabera izango baita. Bestalde, generoa, dialektoak, diskurtso-mailak etab. jaso behar dira. Tamainari dagokionez, milioika hitzetako corpusak daude gaur, eta estandartzat 100 milioi hitz hartzen dira.

Euskararako eratzeko, *idatzi argitaratua, elektronikoa eta ahozkoa* jaso behar direla ahaztu gabe, eta tarteko adierazgarritasun-maila lortzeko, euskal argitalpenak²⁶ eta beste hizkuntzetako datuak ikusiz, euskararen erreferentzia-corpora 25 edo 50 milioi hitzetara ekarriko genuke, gaur-gaurkoz egingarria eta erakusgarria dela uste baitugu. Hala bil daitezke kopuruok: 25 milioi erabat landuak, eskuz berrikusiak, behin betiko erreferentzia-corpora osatuz, eta beste 25 milioiak, berrikusi gabe, denborarekin, eta baliabideen arabera osatzen joango direnak, baina kontsultagai egon daitezkeenak, azkenean 50etara iritsiz.

²⁶ UZEIk *XX. mendeko corpus estatistiko*a osatzeko euskal argitalpenen inbentario sailkatua egin zuenean, 1991-1999 epean produkzio idatzi argitaratuaren unibertsoa ia 438.000.000 hitzekoa zela ikusi zuen. Hori mantendu eta egonkortu egin dela dirudi. Hala ere, elektronikoki sortutako materiala ez zen orduan jaso, ez eta ahozkoa ere. Ez dira, beraz, datu osoak, baina eman dezakete argirik. Beraz, bederatzi urtetako produkzio idatzia 438 milioikoa bada, ez dirudi oso egingarria 100 milioi hitzeko corpora proposatzea, hori unibertso —idatzi argitaratu— osoaren laurdena bailitzateke. Corpus oportunistak edo monitore bat sortzeko egokia da, baina erreferentzia-corporerako egokiago ikusten dugu maila apalago batetik abiatzea, osatzeko aukera beti izango baita, corpus irekia nahi bada behintzat. Hori bai, orekatua beharko du.

5. *Handia*: erakusgarri izan behar badu, handia izango da, aurreko puntuan ikusi dugunez.

6. *Egungoa*: 1991tik honakoa da proposatu dugu gorago.

7. *Sailkatua*: corpus erakusgarria izateko, hau da, unibertsoaren berri emateko, sailkatu²⁷ egin behar da: barruko oreka mantenduz, betiere hizkuntza bakoitzaren unibertsoaren²⁸, egoeraren eta baliabideen arabera. Garaia, geografia, edukia — argitalpen-mota, sailak — eta abar hartu ohi dira kontuan. Guztiek irizpide bateraturik ez badarabilte ere, estandarrena ondokoa da: a) medioa (informatiboa eta literarioa); b) argitalpen-mota edo euskarria (idatzia — argitaratua eta elektronikoa — eta ahozkoa); eta c) tematika²⁹ (hemen ez dago irizpide bateraturik).

Euskararako ere, halako zerbait proposa dezakegu:

a) *Medioa*: literarioa (%25), informatiboa (%75).

b) *Argitalpen-mota*:

- idatzia: liburuak, egunkari-aldizkariak, material soltea, ahozkorako prestatua.
- elektronikoa: sareko aldizkariak, atariak, web guneak, weblogak, blog pertsonalak, posta-zerrendak, berri taldeak.
- ahozkoa: irrati-telebistetako saioak, elkarrizketak, hitzaldiak, sermoiak.

c) *Tematika*: literarioa (narratiba, poesia, antzerkia, bertsoa) eta informatiboa (gaika, adituekin zehaztua).

8. *Idatzia + ahozkoa*: corpus idatziak eta ahozkoak bereiz landu izan dira maiz, aplikazio desberdinetarako pentsatuta zeudelako bereziki, baina gaur biak elkartzea egoki — eta ia beharrezko — ikusten da, betiere azpicorpusen askatasuna mantenduz. Hala ere, praktikan, ahozkoa oso gutxi lantzen dute eta, jasotzen dutenen artean, %10 biltzen dute gehienez.

Euskararako, ahozkoak badu garrantzia. Estandarren bidetik, corpusaren %10 eskain dakioko ahozkoari, %90 osatuko duen idatziarekin — argitaratua + elektronikoa — paraleloan landuz.

9. *Egiturataua*: corpora, erabilgarri, hitz-bilduma hutsa baino gehiago denean da; etiketatua, landua, hortik lortzen baita informaziorik osoena. Neurri batean, markatze horrek interpretazioa dakar, lexikografoak datu inplizituak esplizitu jarzen baititu erabiltzaileak automatikoki eskuratu eta, ondorioz, emaitza okerrik ez baliatzeko. Aldi berean, testua edozein unetan hasierako formatura bueltatzeko

²⁷ EAGLESen sailkapen orokorra, corpus nagusiek baliatzen dutena: 1. ahozkoa; 2. idatzia; 3. elektronikoa. Eta, idatziaren barruan: a) argitaratua: i. liburuak (fikzioa / ez-fikzioa); ii. egunkariak (berri orokorrak; enpresa / ekonomia; kirola; artea; bitxikeriak); iii. aldizkariak; iv. argitalpen iragankorrak; v. korrespondentzia; b) makinaz idatzitako materiala; eta c) eskuizkribuak.

²⁸ xx. mendeko euskararen corpus estatistikoan, zabal jokatura —ikus irizpide zehatzak 3. atalean— literarioa corpus osoaren %22,1 da eta informatiboa %77,9. Gaurko estandarrek markatzen dutenetik gertu dago.

²⁹ Medio literarioaren barruan: poesia, narratiba eta antzerkia. Informatiboan: zehaztasun-maila oso desberdinak daude corpusen eta hizkuntzen arabera.

moduan eduki behar da. Gaur egun estandarrak erabiltzen dira kodeketarako: TEI, XML eta XCES³⁰ batez ere.

Guk, atal honetan, egituratzeko hiru irizpide hartuko ditugu abiapuntu gisa: *corpusa kodetua* izatea, eta, honen barruan, bereziki, *etiketatua* eta *lematizatua*.

- a) *kodetua*: XCESen oinarrizko irizpideak jarraituz. Oinarrizkoak, tamaina handiko *corpusa* delako eta, beraz, modurik automatikoenean egiten saiatu behar delako. Baina informazio lexikografikoa ezin da automatikoki landu eta, ondorioz, muga batzuk ezarri beharko dira, edo guztia eskuz begiratu duen lantalde handi bat osatu.
- b) *etiketatua*: etiketa morfosintaktikoak ezarrita, lexikografoaren orrazketalana ezinbestekoarekin hemen ere.
- c) *lematizatua*: euskararen tipologia — eta aurreko corpusen erabileren esperientzia — kontuan hartuta, lematizatua beharko genuke, lema estandarra eta aldaeraren lema ere jasota eta, horiekin, lema, kategoria + azpikategoria eta markatze morfosintaktikoa; alegia, etiketatua. Eta desanbiguatua. Eta, faseka bada ere, eskuz berrikusia eta zuzendua.

Honaino corpusaren osakerari dagozkion irizpide orokorrak. Datuok finduz eta zehaztuz joan beharra egongo da, euskararen beraren egoera kontuan hartuta.

4.3. Lan-prozesua

Corpusa modu orekatuan osatzeko biderik egokiena “tipula-eredua” baliatuz egitea da: alegia, oinarrizko obrak landu lehen zati batean, baina bere osotasunean, lortzen den *corpusa* —txikia bada ere— orekatua izan dadin. Horrela, hurrengo fase batean beste azpimultzo bat landuko litzateke, osoa hura ere. Modu honetan, urtez urteko banaketa tipularen azal bakoitzaren araberkoa proposa dezakegu (erabat landua bakarrik jasoz).

4.4. Emaidza eta eragina

Corpusa erabilia eta erabilgarri den neurrian bakarrik izango da baliozkoa. Ondorioz, irteera ahalik eta orokorrena behar du, erabiltzaile-talde zabalari begira. Eta, erabiltzaileak aipatzen ditugunean, espezialista ez direnak ere hartu behar ditugu kontuan, guztiek izan behar baitugu sarbidea informazio sofistikatu eta ondo egituratura. Alegia, maila guztietan erabiltzekoa izango da: lexikografoak, hitzen erabilerak dokumentatzeko, adibide egokiak bilatuz, adierak landuz, etab.; terminologoak, azpicorpus sailkatuak ustiatzeko; gramatikariak, morfologia eta sintaxiko jokaerak, urruneko mendekotasunak, aditzen subkategoriazioa, kolokazioak, etab. lantzeko.

³⁰ TEI Text Encoding Initiative; XML eXtended Markup Language; XCES Corpus Encoding Standard for XML.

Baina, erabiltzaile arruntek askotan nahikoa izango dute konkordantziak, ikuspegi orokorrek emango dizkieten maiztasunak edo, besterik gabe, hitzen lema estandarrek galdetzeko. Ahotsaren tratamenduak hainbat datu berri ekarriko ditu, zalan-tzarik gabe, orain arte landu ez diren erabilerak corpuseratuko baitira. Azkenean, informazioa ondo eratua, antolatua eta landua badago, programazio-lana besterik ez dugu beharko azaltzen joango diren beharrei erantzuteko.

5. BUKATZEKO, ONDORIO GISA

XX. mendeko corpus estatistikoaren mugak ikusita, XXI. mendeko euskararen erreferentzia-corpora osatzen hasi beharra dagoela erakusten saiatu gara aurreko orrietan: *euskara modernoaren erakusgarri ahalik eta zabalena* izango dena, hain zuzen.

Lanok bideratzen hasi beharra dagoela uste dugu, baina corpus bakarra, publikoa, guztiontzat balioko duena beharko du, horren kostua handia baita. Horregatik, elkarlana beharrezkoa dela ikusten dugu, baliabideak bateratu egin behar direla: adituak —lexikografoak, gramatikaria, informatikariak, hizkuntzalari konputazionalak—, tresnak —berrerabilgarriak, malguak, elkartrukerako egokiak, estandarrek— eta eragileak zein erabiltzaileak —ikerketa-zentroak, enpresak, unibertsitateak, Akademia, argitaletxeak, elkarteak, herri-aginteak; alegia, irizpideak ezarriko dituztenak, tresnak garatuko dituztenak, materiala helaraziko dutenak, corpora landuko dutenak eta dirua jarriko dutenak. Azkenean, etorkizuneko euskararen corpora³¹ behar dugu-eta, guztiona eta guztiontzat, orotarikoa. Eta, hori, guztion esku dago.

6. ERREFERENTZIAK

- EAGLES 1996a. *Text Corpora Working Group. Reading Guide*. EAG-TCWG-FR-2 dokumentua. <http://www.ilc.cnr.it/EAGLES96/corpintr/corpintr.html>
- EAGLES 1996b. *Preliminary recommendations on Corpus Typology*. EAG--TCWG--CTYP/P dokumentua. <http://www.ilc.cnr.it/EAGLES96/corpusstyp/corpusstyp.html>
- Leech, G. 2002. "The importance of reference corpora", in *Hizkuntza-corporak. Oraina eta geroa*, UZEI, Donostia. <http://www.uzei.com>.
- McEnery, T. 2002. "Ethical and legal issues in corpus construction", in: *LREC 2002*, Las Palmas de Gran Canaria.
- McEnery, T. & Wilson, A. 2004. *Corpus Linguistics* (2. edizioa), Edinburgh: Edinburgh University Press.
- Oihartzabal, B. 2004. "Euskaltzaindiaren corpusez", in *Euskera* 2004-1, 49. liburukia, 43-55.
- Rojo, G. 2002. "Sobre la lingüística basada en el análisis de corpus", in *Hizkuntza-corporak. Oraina eta geroa*, UZEI, Donostia. <http://www.uzei.com>.

³¹ Corpora, bat, bakarra, baina proiektu bakar gisa. Corpusak hainbat izango dira, azpīcorpus deituko ditugunak, baina osotasun orekatu bakar baten barruan adierazi nahi dugu hemen.

- Urkia, M. 2001. "Euskararen erreferentzia-corpusaren beharraz", in *Euskaltzaindiaren Nazioarteko XV. Biltzarra*, Bilbo.
- Urkia, M. 2002a. "xx. mendeko euskararen corpus estatistikoa", in *Hizkuntza-corpusak. Oraina eta geroa*, UZEI, Donostia. <http://www.uzei.com>.
- Urkia, M. 2002b. "xxi. mendeko euskararen erreferentzia-corpusaz", in *Hizkuntza-corpusak. Oraina eta geroa*, UZEI, Donostia. <http://www.uzei.com>.

Zientzia eta Teknologiaren Corpusa: diseinua eta metodologia

N. Areta, A. Gurrutxaga, I. Leturia, Z. Polin, R. Saiz

Elhuyar Fundazioa

I. Alegria, X. Artola, A. Diaz de Ilarraza, N. Ezeiza, K. Fernández,
A. Sologaistoa, A. Soroa, A. Valverde

Ixa taldea. Euskal Herriko Unibertsitatea

1. SARRERA

Corpusak azken urteotan hizkuntza-baliabide gisa hartu duen garrantzia inork gutxik uka lezake gaur egun. Corpusa hizkuntza aztertzeko ezinbesteko baliabidea da, hainbat alorretan erabiltzen dena: lexikografian, sintaxian, semantikan, diskursoaren analisisian... Adibidez, gaur egun, mundu zabalean egiten diren lexikografia-lanetan hutsik egin gabe aipatzen den hitza *corpus* da. Dela hiztegiaren osagarri, dela hiztegia bera egiteko lehengai eta abiapuntu, corpusa hiztegiaren tresna eta euskarri ezinbestekotzat jotzen da gero eta maizago, hainbestera, non corpusen oinarritua edo, gutxienez, corpusaren laguntzaz taxutua ez den hiztegiari nekez aitortzen baitzaio zehaztasuna, zorrotasuna, fidagarritasuna eta, oro har, kalitatea. Esan gabe doa, corpusak ez dira lexikografian soilik erabiltzen, diziplina oso bat da corpus-hizkuntzalaritza. Corpusek datu linguistikoak jasotzen dituzte eta baliozko lanabesak dira hizkuntzaren erabilera erreala aztertu nahi bada. Urte askoan, horrelako azterketa enpirikoak egitea hizkuntzalaritzaren korrante nagusitik kanpo egon bada ere, azken urteotan gero eta tresna estimatuagoak dira, ez noski gramatika sortzailearen alternatiba edo aurkari gisa, beste ikuspegi baten eta ebidentzien ekarle gisa baizik. Gainera, corpusetan bildutako datu-kopuru handien bidez, hizkuntza-teknologien alorreko behar eta eginkizun batzuei beste era batera erantzuteko modua egoten da (prozedura estatistikoetan oinarritutako desanbiguazio-teknikak, itzulpen-memoriak, etab.).

Berez, edozein testu-bilduma har liteke corpustzat; hala ere, gaur egun baldintza batzuk ezarri ohi dira testu-bilduma bat 'corpustzat' jotzeko: hizkuntza-erakusgarri 'errealen' multzo 'handia' izatea, irizpide batzuen arabera bildua, formatu elektronikoa biltegitratua eta informazio linguistikoz hornitua (Bach *et al.* 1997: 4). Baldintza horien guztien helburua, azken buruan, corpusa hizkuntza-baliabide eraginkorra izatea da, hau da, corpusetik datu linguistiko asko, aberatsak eta esanguratsuak lortzeko aukera izatea.

2. CORPUS BEREZIA

Badira hogeita hamar urte baino gehiago euskara zientzia- eta teknologia-gaie-tan erabiltzen hasi zela. Geroztik egindako lanaz eta, bereziki, handik hona argitaratu diren lanez, iritzi desberdinak daudela esan daitezke; mutur banatan, honako hauek: batzuentzat aintzat hartzekoa dena, ‘tradizio berria’ dena, baztergarritzat edo ez ikusia egiteko modukotzat dute beste batzuek. Ez gaude ados azken urteotako testu-produkzio horren deskalkifikazio orokorrarekin eta baztertzeko joerarekin, ezta ezinbestean segitu beharreko eredia finkatu delako ustearekin ere; hau da, uste dugu jarrerak ‘kritikoa’ izan behar duela. Gure iritzia da testu-produkzio hori aztergaitzat hartu behar litzatekeela, eta, horretarako, corpusa behar dela.

Euskaraz azken urteetan eratu diren corpus lematizatuak ‘orotarikoak’ dira (*XX. mendeko euskararen corpus estatistikoa*; Urkia 2002: 6), edo, *Ereduzko Prosa-ren zein Ibinagabeitia Proiektua*-ren kasuan, literatura edota prentsa jasotzen dituzte. Lematizatu gabeko corpusak ere badaude (*OEHko Testu-corpusa, Klasikoen Gordailua...*).

Zientzia eta Teknologia erabiltzen den euskara aztertzeko, alor horietako testuak biltzen dituen corpusa erabiltzea litzateke zentzuzkoena. Hau da, behar berezi horri erantzuteko, egokiena baliabide ‘berezi’ bat eratzea delakoan gaude, hartarako berariazkoa hain zuzen ere. Asmo horri ‘corpus berezia’ dagokio. Corpus berezia edo espezializatua hizkuntzaren erabilera-eremu espezifikoko bateko edo hizkuntza-aldaera jakin bateko testuak biltzen dituen corpus-mota da, eremu edo aldaera horretako ezaugarriak aztertzeko asmoz eraturia (Sinclair 1996: 10). Corpusaren helburua hizkuntzaren erabilera-eremu guztietarako baliagarria edo ‘adierazgarria’ izatea denean, ‘erreferentzia-corpusa’ edo ‘orotariko corpusa’ dela esan ohi da (Sinclair 2002: 10; Leech 2002: 1).

Corpus berezien bidez, erabilera-eremu espezifikoko baten edo aldaera jakin baten hizkuntza-ezaugarriak hobeto aztertzeko aukera dago. Horrekin batera, espezialitate-arloetako hizkuntza-erabileraren eta erabilera arrunt edo orokorraren arteko aldeak ere azter daitezke. Aztergaiak hizkuntzaren aztertzeko-eremu askotakoak izan daitezke: lexikoa, terminologia, fraseologia, morfosintaxia, semantika, pragmatika, diskurtsoa, estilistika, testugintza... Aztertzeko-eremu horiek hainbat aplikazio-eremutan izan daitezke baliagarri: terminologiaren normalizazioa, hiztegigintza espezializatua (hiztegi terminologikoak eta teknikoak), hiztegi orokorretan sartzekoak diren termino espezializatuaren hautaketa, terminoen erauzketa erdiautomatikoak, kontzeptu-mailako informazioaren erauzketa, ontologiak eratzeko teknikak, testu-sailkapen automatikoa, hitz-adieren desanbiguazioa, informazioaren berreskurapen eta erauzketa; xede berezietarako hizkuntza-irakaskuntza (curriculumak, syllabus-ak)...

Corpuseko datuak aztertuz, hizkuntzaren aztertzailak (hizkuntzalariek, euskara-teknikariek, irakasleek...) ondorioak atera ditzakete eta proposamenak egin ere bai, dagokion alorreko adituek hizkuntza-ereduari buruzko argibideak edo ‘gidalerroak’ izan ditzaten, eta erakunde arau-emailek ere espezialitate-alorreko ebazpenak eman ahal izan ditzaten. Beraz, gure ikuspegia ez da eredu-emaile izatea, ez ditugu corpuserako obrak ‘kalitate-irizpide’ baten arabera bahetuko. Proiektu honen

helburua ez da zientzia eta teknologiaren alorreko 'ereduzko corpusa' eratzea. Aitzitik, inoiz 'eredutzat' har litekeen ikuspegi edo baliabide bat moldatu ahal izateko lehen urratzat jotzen dugu gure proiektua.

3. CORPUSGINTZA-EREDUA

Corpusa nolnahi bildutako testu-multzo hutsa izango ez bada, corpusgintza gidatuko eta egituratuko duen eredu bat da beharrezkoa. Corpusgintzan lau urrats nagusi bereizi ohi dira:

- Diseinua: corpusaren helburuak eta ezaugarriak zein izango diren, testuak zein irizpideren arabera corpuseratuko diren, testuak zein mailatan eta nola prozesatuko eta etiketatuko diren...
- Corpus gordina eratzea: corpuseratzekoak diren testuak eskuratzea eta corpuserako hautatu den formatura bihurtzea
- Etiketatzea: corpusa osatzen duten testuei buruzko informazioa (metadatuak), egitura, formatu-ezaugarriak, informazio linguistikoa (lema, kategoria...)
- Corpusak analizatzeko eta ustiatzeko tresnak: corpusaren kontsulta diseinatzea eta inplementatzea

Hurrengo ataletan, eredu horren arabeko corpusgintza-prozesua azalduko dugu.

4. DISEINUA: ZT CORPUSAREN EZAUGARRIAK

Zientzia eta Teknologiaren corpusean, euskaraz 1990-2002 bitartean argitaratu diren zientzia eta teknologiaren alorreko obrak jaso nahi ditugu. Bi data bat datoz, hurrenez hurren, Euskaltzaindiaren araugintza berriaren hasierarekin, eta proiektu honen hasierarekin berarekin. Corpusa bi ataletan antolatuta dago. Batetik, adierazgarria izateko asmotan diseinatu den gune orekatua; bestetik, eskuragarritasunaren arabera corpuseratzten diren obrez edo obra-zatiez osatutako atal irekia. Hain zuzen ere, gune orekatuan ez dira obra osoak sartzen, obren lagin etenak baizik. Horrek berekin dakar gune orekaturako aukeratu den obra baten pasarte ez hautatuak (lagin eten horien artekoak), eskura izanez gero, corpusaren atal irekian sar daitezkeela (gune orekaturako hautatu ez diren baina eskura dauden obrekin batera). Gune orekatuan zein obra sartu behar den eta obra bakoitzetik zein testu-masa eta zein pasarte sartuko diren ere erabaki egin behar da. Horretarako, lehenik 1990-2002 bitarteko zientzia eta teknologiaren alorreko obren inbentarioa egin dugu. Hurrena, adierazgarritasuna edo 'oreka' bermatuko duen lagintze-eredu estatistikoa landu dugu. Eredu horren lehen oinarria da laginketa geruzatua izatea, eta geruzak sortzeko erabili ditugun parametroak 'Eremua' eta 'Generoa' dira. Jakintza-arloak 'Eremua' parametroaren arabera sailkatu ditugu, eta testu-motak 'Erregistroa' parametroaren arabera:

— Eremua

- Zientzia zehatzak (Matematika eta Logika)
- Materiaren eta energiaren zientziak (Fisika eta Kimika)
- Lurraren zientziak (Geologia, Ozeanografia, Geografia...)
- Biziaren zientziak (Biologia, Medikuntza, Ingurumena...)
- Teknologia (Teknologia Mekanikoa, Teknologia Elektrikoa/Elektro-nikoa, Telekomunikazioak, Informatika, Aeronautika...)
- Bestelakoak (Ekonomia, Arte-teknologiak, Antropologia...)¹
- Orokorra

— Generoa

- Oinarrizko hezkuntzako materiala
- Goi-mailako liburua (espezialistentzako liburua + goi-mailako hezkuntzako liburua)
- Artikulu espezializatua
- Dibulgazio-artikula
- Dibulgazio-liburua
- Administrazio publikoko dokumentua

Geruza edo ‘sail’ bakoitzean eremu-genero konbinazio bakoitzeko obrak daude, eta laginketaren ausazkotasuna geruza horietako bakoitzean bermatzen da. Horrela jokatuz, ziurta dezakegu mota guztietako obrak ordezkaturik egongo direla gune orekatuan. Bigarren oinarria da geruza bakoitzaren tamaina, hasiera batean behintzat, geruzak populazioan duen proportzioaren arabera izatea; inbentarioa amaitutakoan, zenbait doikuntza txiki egin dira, geruza edo sail batzuen proportzio handiak txikiagotzearen. Landu den lagintze-eredu estatistikoa, honako hauek ere automatikoki zehazten dira: a) geruza bakoitzetik zenbat obra hartu behar diren; b) obra bakoitzetik zenbat hitz hartu behar diren (obraren tamainaren arabera); c) obra bakoitzetik lagin etenak hartzea (automatikoki egiten da XML dokumentuan). Lagin-tamaina minimoa 300 hitz da.

Gune orekatuan zenbat hitz sartu behar lirakekeen kalkulatzekoan, kontuan hartu ditugu, batetik, inbentarioko datuak aztertuz zenbatetsi den hitz-kopurua (98 milioi hitz), eta, bestetik, euskarazko bi corpus txikiren forma/lema erlazioaren azterketa eta estrapolazioak aurreikusarazi digun corpus-tamainaren eta lema-kopuruaren arteko erlazioa (erreferentzia). Horiek horrela, 5 milioi hitzeko gune orekatua diseinatu da.

Gune orekatuan biltzen diren laginak automatikoki prozesatu ez ezik, eskuz ere berrikusten dira, corpusgintzaren urrats bakoitzean egiten diren lanak zuzentzeko edo desanbiguatzeko. Atal irekia, berriz, automatikoki baino ez da prozesatzen. Dena den, etiketatze linguistikoa, atal irekiko testua eskuz halako masa handi bat landu ondoren prozesatzen da, eskuz egindako lanetik ‘ikas’ dezan, eta asmatze-tasa handiagoa izan dadin.

¹ ‘Bestelako gaiak’ eremuan, zientzia eta teknologiaren alorrean sartu ohi ez diren baina mugakotzat jo litezkeen zenbait alorretako testuak sartu ditugu. Ez da batere samurra horrelakoetan erabaki argi eta zalantzagabea hartzea, eta irizpideak zehaztea ere zaila da.


5. COSPUSGINTZA-LANA

Corpusgintza-ereduko urratsak modu sistematiko eta egituratuan egiteko, corpus-metodologia bat landu behar da, eta, hori inplementatzeko, corpusgintza-tresna bat. Lehendik garatutako tresnak eta proiektu honetarako garatuak integratuz, CORPUSGILE aplikazioa sortu dugu. Corpus gordina eratzea eta etiketatze-lanak dira kudeatu behar dituen prozesu giltzarriak. Batetik, IXA taldeak euskara automatikoki prozesatzeko garatutako tresna batzuk (EUSTAGGER, EULIA) moldatu eta areago garatu ditugu, eta, horrekin batera, corpusgintza bera kudeatzeko eta, oro har, corpus-lanak egiteko beharrezkoak diren tresnak ere garatu behar izan ditugu. Kontuan hartu behar da merkaturatu diren corpusgintza-tresna urriek ez dutela euskararen prozesamendu automatikorako beharrezkoak diren tresnak eta baliabideak integratzen, eta ez direla egokiak euskarazko testu-corpusak eratzeke. Halaber, CORPUSGILERen bidez corpusgintzaren etorkizuneko helburua den erreferentzia-corpus orokorra egiteko baliagarria izango den metodologia adostua eta kontrastatua eskaini nahi izan dugu.

CORPUSGILE hiru moduluz osatua da:

- TB: testu-bilketaren modulua (corpus gordina biltzeko modulua)
- EE: egitura-etiketatzeko egiteko modulua
- EL: etiketatze linguistikoa egiteko modulua

Diagrama honetan bildu ditugu urrats horien eta horien barneko prozesu nagusiak:



1. irudia

Corpusgintzaren diagrama

5.1. Corpus gordina

Testuak biltzeko hiru bide aipatu ohi dira: a) testua formatu elektronikoa jasotea; b) testua eskaneatzea; eta c) testua eskuz idaztea ordenagailuan. Esan gabe doa, a) bidea da erosoena eta fidagarriena. Testuak formatu horretan jaso ahal izateko, argitaratzaileengana jo dugu. Horretarako, corpusaren helburua, erabilera eta testuak corpuseratzeko baldintzak zehazten dituen hitzarmena sinatzea proposatu zaie hornitzaileei. Zenbaitetan ordea, ezin izan da testua formatu elektronikoa eskuratu, eta eskaner bidez digitalizatu behar izan dugu.

Formatu elektronikoa jasotzen dugunean, jatorrizko dokumentuaren formatu hauek onartu ditugu: .html, .xml, .doc, .rtf, .txt, .pdf, .qk. Horietako formatu batzuek arazoak sortzen dituzte formatu-bihurketa automatikoa egiteko. Bestetik, formatua bihurtzean jatorrizko formatu-ezaugarri batzuk gordetzea eta automatikoki prozesatzea interesatzen zaigu. Adibidez, egitura etiketatzean ikusiko dugu letra-estiloa (etzana, lodia...) atxikitzea interesgarria dela; beste hainbeste testuaren egiturari buruzko informazioa ematen duten estiloez (esaterako, Word-en erabiltzen diren 'atalburua', 'bulet-dun zerrenda', eta abar).

The screenshot shows the 'Corpusgile' software interface. It features several windows for managing a corpus. The main window displays a table of corpus items with columns for 'Eremua', 'Generoa', 'Tam.', 'Pro.', 'Cor.', 'Pro.', 'Prop.', 'Obr.', 'Pro.', 'Zot.', and 'Pro.'. Below this, there are buttons for 'Hautatu', 'Ezinezkoa', 'Ez egokia', and 'Aldatu ordena'. A detailed view of the corpus items is shown below, listing titles, authors, years, and other metadata.

Corpusaren tamaina:	Teorikoa:	Proporztzia:	Errealak:	5000000	Proporztzia:					
Eremua	Generoa	Tam.	Pro.	Cor.	Pro.	Prop.	Obr.	Pro.	Zot.	Pro.
Lurraren zientziak	Oinarritzko hezkuntza	43.	0.86				4			
Lurraren zientziak	Oinarritzko hezkuntza	17.	3.59				105		30	
Materiaren eta e.	Administrazio publiko.	1651	0.03				1			

Corpusaren testu kanitateak:	179830	Tokatuakoen tamaina:	600120	Proporztzia:	29.45		
Izenburua	Egileak	Materiak	Urtea	Euskarria	Mota	Lib	Argitar
Eguna eta gaua (Gordon, Maria-	087 5, 502	1986	Papera	Liburua	Ibaizabal E	
Biologia eta Geol.	Balibrea Lopez	373 5, 55, 57	2002	Papera	Liburua	Grupo Ana	
Geografia Babil	Banriagarreme	373 5, 91	1939	Papera	Liburua	Ereln	
Urtekoak gata. It.		373 2, 558	2000	Papera	Liburua	Ediciones	
Biologia eta Geol.	El ali- Egilea,	373 5, 55,	2000	Papera	Liburua	Ediciones	
Gizarte-zientziak	Burgos Alonso,	373 5, 91	2000	Papera	Liburua	Grupo Ana	
Munduko Atlasa	Asumendi, Eli-	912	1997	Papera	Liburua	Klaudio Ha	
Ingurua ezag.	Cerezo, José M.	373 3, 502	1993	Papera	Liburua	Zubia Edit	
Biologia geologi.	Berasategi Zar.	373 5, 55,	2000	Papera	Liburua	Gipuzkoak	
Ezagutu Nafarro.	Arriola Epuzk.	001, 373 3,	1991	Papera	Liburua	Elnayar Fu	
Geografia gizart.	El ali- Egilea,	378 91	1986	Papera	Liburua	Grupo Ana	
Biologia eta geol.		373 5, 55,	1997	Papera	Liburua	Grupo Ana	
Biologia eta geol.	Fuideo Bordiallo,	373 5, 55,	2000	Papera	Liburua	Grupo Ana	

2. irudia

TE modulua: sail baten laginketaren emaitza (corpuseratzeko obrak nabarmenduta daude)

5.2. Etiketatzea

Corpusak kodetzeko eta etiketatzeko proposatu diren ereduaren eta formatuaren artean, TEI ereduaren eta XML teknologia hautatu ditugu. TEI (Text Encoding Initiative)

nazioarteko estandar bat da, testu elektronikoa kodetzeko eta trukatzeko orientabi-deak proposatzen dituena (Arriola *et al.* 1997: 6). Gure etiketatze-eredua koherentea da TEI P4ren orientabideekin, orokorrekin zein hizkuntza-corpusetarako emandako orientabide bereziekin (23. atala; <http://www.tei-c.org/P4X/CC.html>).


5.2.1. Egitura-etiketatzea

TEk aukera ugari eskaintzen ditu testuak etiketatzeko. ZT corpusean, testuen egitura (atalburuak, atalak, azpiatalak, paragrafoak, zerrendak, taulak...) eta formatu-ezaugarri zenbait markatzea erabaki dugu. Egitura-elementuak hauek dira: <text>, <body>, <div>, <head>, <p>, <table>, <row>, <list>, <item>... Testuaren joskeraren barnean irudi bat edo corpuseratuko ez den bestelako elementuren bat dagoenean (formulak, ekuazioak...), <gap> elementu hutsaren bidez adierazten dugu gune horretan zerbaite falta dela.

Etiketatzeko linguistikoen emaitzak hobetze aldera, zuzenketak eta aldaera ez-estandarrek etiketatzeko lana ere egiten dugu urrats honetan. Horretarako, <corr> eta <reg> elementuak erabiltzen dira. Adibidez:

```
<corr cert="ziurra" resp="hizking21" sic="batzuk">batzuk</corr>
<reg cert="ziurra" resp="hizking21" orig="zientzialari">zientzialari</reg>
```


EUSTAGGER etiketatzaileak <corr> edo <reg> proposamenak automatikoki markatzen ditu testuan, eta gero horiek denak eskuz aztertzen dira, balioesteko edo behar diren aldaketak egiteko (eskuz landutako corpus-atalean, noski).



3. irudia

EE modulua: aldaera ez-estandarren normalizazioa

Bestetik, testuaren ezaugarri tipografiko linguistikoki esanguratsuak (nabarmen-tzeak) automatikoki jasotzen dira, <hi> elementuaren bidez: letra-estiloak (lodia, etzana, azpimarratua...), komatxoak (bikoitzak, bakunak...); gune orekatuan, nabarmen-tzeak desanbiguatu egiten dira, hau da, nabarmentzeei balioa edo funtzioa esleitzen zaie (<foreign>, <emph>, <soCalled>, <q>, <term>, <mentioned>, <name>...): Bestetik, TELren DTDan, orekatua atributua erantsi diogu <p> elementuari. Horren bidez, corpus-gune orekatuan sartzen diren laginen paragrafoak markatzen dira.




4. irudia

EE modulua: nabarmentzeen lanketa

Azkenik, corpuseko obra bakoitzaren metadatuak obraren goiburuan (<teiHeader> elementuan) bildu ditugu (ISBN zenbakia, izenburua, egilea, argitaratze-urtea, argitaletxea, eremua, generoa...). Metadatu horiek inbentarioaren DBtik zuzenean ekartzen dira goiburura.

5.3. Etiketatze linguistikoa

Corpusa baliabide linguistikoa izango bada, ezinbestekoa da linguistikoki prozesatzea eta etiketatzea, alegia, corpuseko hitzak informazio linguistikoz aberas-tea. Hitzen informazio linguistikoa lortzeko, IXA taldearen hainbat tresna linguis-tiko erabili dira.



5. irudia

Prozesatze linguistikoaren oinarritzko eskema

Irudian (5. irudia) ikus daiteke testuek jasan duten prozesatze linguistikoaren eskema. Labur esanda, honako eragiketa hauek egin dira testuon gainean:

- Tokenizazioa: testua token edo analisi-unitatetan bereizi, puntuazio-ikur, maiuskula-minuskula, ezaugarri ortotipografiko eta abarren tratamendua eginez.
- Segmentazio morfoloikoa: tokenak morfematan zatikatu, eta morfema bakoitzari dagozkion ezaugarriak esleitu. Prozesu honetan azaltzen da, es-treinakoz, anbigutasunaren arazoa, hitz-forma bat morfoloikoki modu desberdinetan segmentatu ahal izango baita, eta, ondorioz, interpretazio bat baino gehiago izango dugu (kontuan hartu behar da segmentazioa testuinguru aintzat hartu gabe egiten dela, automatikoki).
- Analisi morfosintaktikoa: segmentazioaren emaitzatik abiatuz, hitz-formari dagozkion lema osatu behar da (eratorpenaren kasuan, adib., oinarriari da-

gokiona aurrizki-atzizki lexikalekin elkartzu), eta forma osoari dagokion informazioa “goratzen” da morfema osagaien informaziotik (kasua, numero-mugatasunak, adib.).

- Hitz anitzeko unitateen tratamendua: hitz-forma solteen analisitik haratago, lexikalki unitatetzat har daitezkeen adierazpenak eta bestelako batzuk (entitate-izenak, data- eta zenbaki-adierazpenak, eta abar) ezagutzen dira fase honetan.
- Lematizazioa: prozesu honetan, bi aspektu bereizi behar dira: (1) geroko analisi-urratsetan — sintaxian, batik bat — pertinentea litzatekeen informazioa bereiztea: lema, kategoria-azpikategoriak, hitz-formaren kasua, numeroa eta mugatasuna, pertsona(k) adizkietan, funtzio sintaktikoa, erlazioa, eta abar; (2) desanbiguazioa, hots, hitz-formari egoki dagokion interpretazioa zuzentzat markatzea (okerrak baztertuz), testuinguruari erreparatuz. Desanbiguazioa hizkuntza-ezagutzan oinarritua izango da (murriztapen-gramatika bat baliatuko da horretarako), alde batetik, eta estatistikoa, bestetik (ikaste automatikoko teknikak erabiliz, alde aurretik eskuz desanbiguatutako corpus batean oinarrituz).

Lematizazioan aipatutako desanbiguatze hori automatikoa da (ez % 100 zuzena, beraz), eta horren emaitza izango da corpuseko atal irekian geratuko dena. Gune orekatuan, ordea, eskuz berrikusiko dira emaitzak, eta, prozesua burututakoan, gune hori anbiguotasunik gabe eta erabat zuzen lematizatua geratuko da. Eskuzko berrikuste hori EULIA izeneko tresnaz baliatuz egingo da.

Prozesu hauetan guztietan erabiltzen den informazio lexikala EDBL datu-base lexikaletik dator. EDBL lexiko-biltegi iraunkorra da, eta aparteko prozesu baten bitartez gobernatzen da. Emaitzen doitasuna handitzeko asmoz, EDBLko lexikoari erabiltzailearen lexiko partikular bat gehitu diogu. Hiztegi horretan, hizkuntza arruntean erabiltzen ez diren (hots, EDBLn ez dauden) termino zientifiko-teknikoak gehitu dira; beraz, termino horiek lematizatzen/etiketatzen direnean sistemak ez du beste aukerarik aztertuko, ez da saiaturik lexicorik gabeko lematizazioa egiten, alegia. Hiztegi hori osatzeko, bi irizpide jarraitu dira: Elhuyarren hiztegi gintzako datu-basea (ElhDB) eta 'ZT' corpusa bera. Lehena EDBLekin erkatu da, hor ez dauden lema erabiltzailearen lexikoan sartzeko edo, batzuetan, terminoak orokor samarrak zirenean, EDBL bera aberasteko. Corpusaren erabilierari dagokionean, aurreprozesatze bat egin da lematizatze arazoak ematen dituzten hitzak detektatu eta EUSTAGGERek proposatzen duen lemaren maiztasunaren arabera sailkatzeko. Zerrendaren buruan geratu diren lema eskuz aztertu eta, egokitzat hartu direnean, erabiltzailearen lexikoan barneratu dira. Bi lan horiek etiketatze linguistikoaren berraren aurretik egiten dira, egitura-etiketatzearekin batera. Bigarren eginkizunerako, gainera, programa eta erabiltzaile-interfaze berezia garatu dira (CORPUSGILEren EE moduluan integratu da, zuzenketak eta aldaera ez-estandarrek etiketatze egitekoen aurretik).

Prozesu honen amaieran, corpuseko hitz orok zenbait informazio linguistiko izango du erantsita, hala nola:

- Hitzaren lema eta kategoria lexikala (% 100 zuzen, eskuz desanbiguatutako atalean, eta automatikoki esleitutako, gainerakoan).
- Hitzak duen kasua eta betetzen duen funtzio sintaktikoa (automatikoki esleituak).
- Hitz anitzeko unitateen kasuan, unitate hauen egitura ere esplizitu erreprezentatuko da, ezagutu direnen kasuan, jakina (EDBLn ziurtzat jotzen diren eta testuan etenik gabe agertu ohi direnak).


Testuak linguistikoki etiketatzeko — anotatzeko —, bi hurbilpen nagusi jarraitu ohi dira historikoki. Batean, informazio linguistikoa jatorrizko corpusean txertatzen da, hitzekin batera, orain arte ikusi ditugun etiketak bezala (<text>, <body>, <hi> etab.) erabiliz. Bestean, berriz, informazio linguistikoa hitzak dauden dokumentu nagusietatik at gordetzen da, horretarako berariaz sortutako dokumentuetan, alegia. Hitzak dagokien informazio linguistikoarekin lotzeko, bestalde, estekak erabiltzen dira. Azken hurbilpen horri anotazio banatua (*stand-off annotation* edo *markup*) esaten zaio, eta horixe erabili da gurean corpusa linguistikoki etiketatzeko (Aldezabal *et al.*, 2002).

Informazio linguistikoaren konplexutasuna kontuan harturik, hurbilpen honek abantaila hauek eskaintzen dizkigu, besteak beste:

- Informazio teilakatua adierazteko aukera ematen du, eta, ondorioz, analisi linguistiko anbiguoak adierazteko.
- Informazio linguistikoa hainbat mailatan edo geruzatan antola daiteke, eta geruza bakoitza independentea izan daiteke besteeikiko. Geruza batean aldaketak egin behar badira, aldaketek eragin txikia izango dute gainerako geruzetan. Beraz, anotazioaren hedagarritasuna errazten du, corpusaren gainean informazio linguistiko osagarria txerta baitaiteke, dagoen informazioaren gainean oinarriturik.
- HAULEn osaera erreprezentatzeko modu egokia eskaintzen du, baita hitz anitzeko unitate horiek testuan etenda gertatzen direnean ere.
- Desanbiguatze-egoera (eskuzkoa, automatikoa) zein den adierazteko era egokia eskaintzen du.

Diagraman (6. irudia), anotazio banatuaren oinarrian dagoen eskema irudikatu da. Funtsean, hiru elementuk hartzen dute parte guk amarauna esaten diogun anotazio-arkitektura honetan:

- Aingurak: testu-elementuak edo, oro har, aurreko prozesuek sortutako interpretazioak izan daitezke anotazioen jomuga edo helduleku.
- Informazio linguistikoa: prozesu linguistikoek eraikitako analisi-biltegiak, ezaugarri-egiturak (*feature structures*) erabiliz erreprezentatuak.
- Estekak: aurreko biak lotzen dituzten elementuak, hau da, aingura bat (testu-hitz edo -zati bat, esate baterako) dagokion informazio linguistikoarekin (lematizazioaren emaitza, adibidez) estekatzen duen elementua.




Testua

6. irudia

Anotazio banatua, eskematikoki

Hiru elementu horiek, praktikan, elkarrekin lotutako hainbat XML dokumenturen bitartez gauzaten dira, testu batek jasan dituen prozesu linguistikoen emaitzak (anotazioak) biltzen dituztenak. Beheko irudian (7. irudia) adibide konkretu bat ikus daiteke: *Horrela, euliak hegan egitean igortzen duen soinua...* esaldiaren lematizazioaren ondoren izango genukeen anotazio-amaraura dago bertan irudikatua, eskematikoki. Kasu honetan, bost dokumentuk osatzen dute amarauna: jatorrizko testua (egitura-etiketatzearen emaitza), tokenizazioaren emaitza (*Testu tokenizatua*, irudian), lematizazioen bilduma (*Lematizazioak*), HAULEn egitura errepresentatzen duena eta esteken dokumentua. Ikus daitekeenez, aingurak testu tokenizatuan eta HAULEn egitura errepresentatzen duen dokumentuan aurki daitezke. HAULEn egitura adierazteko, tokenen dokumentuko unitateen erakusleak erabiltzen dira, eta horrela errepresentatzen da, adibidez, *hegan* eta *egitean* tokenak lematizazio-unitate beraren osagai direla. Esteki erreparatuz gero, berriz, aise ohartuko gara interpretazio-anbiguotasuna nola errepresentatzen den (*euliak* formak bi lematizazio posible ditu: ergatibo singularra eta absolutibo plurala, eta, hortaz, bi estekak dute helduleku token horretan), eta baita desanbiguate-egoera adierazten duen *type* atributuaren funtzioaz ere (Correct balioak adierazten du, desanbiguazioaren ondoren, interpretazio zuzena zein den). Azkenik, lematizazioen bilduma dugu informazio linguistikoaren atalean, non, ezaugarri-egitura batek errepresentatzen baitu hitz-forma desberdin bakoitzaren lematizazio-informazioa: forma bera, lema osatua eta goi-mailako zein morfemaz morfemako informazio morfoloikoa (kasua, funtzio sintaktikoa eta abar).

Etiketatzeko linguistiko automatikoa egindakoan, emaitzak eskuz lantzeko aukera dago. Lan hori corpusaren gune orekatua osatzen duten testuetan egiten dugu. Lan hori CORPUSGILERen EL moduluan egiten da, eta hurrengo atalean xeheago azalduko dugu.



7. irudia

Etiketatzeko linguistikoa. Anotazio banatua: dokumentu-amaraua

5.3.1. EL modulua

ELmodulua corpusaren gainean etiketatutako informazio linguistikoa gainbegiratzeko, orrazteko eta desanbiguatzeko ingurunea dugu, eta giza erabiltzaileari zuzenduta dago. Modulu honen osagai nagusia EULIA izeneko tresna bat da, eta berorri esker linguistek zein etiketzaileek aurreko urratsetan sortutako informazio linguistikoa guztia aztertzeko aukera dute, eta, nahi izanez gero, informazioa gehitu, aldatu edo/eta zuzentzekoa (Artola et al. 2004:).

EULIAren helburuak honako hauek dira:


- Anlisi-tresnak modu integratu batez koordinatu, eta tresna horien emaitzak kudeatzeko laguntza eskaini.
- Hizkuntzalariari anotazioen adierazpidea eta konplexutasuna ezkatu, bere lana modu atsegina batean egin ahal izan dezan.

EULIA honako prozesu hauetan erabiltzen da:

- Anlisi-prozesu automatikoak, oro har: testu bat hautatu, eta berorren tokenizazioa, segmentazioa, analisi morfosintaktikoa, lematizazioa eta abar abiarazi eta egikaritu.
- Aldez aurretik prozesatutako testu baten analisi-emaitzak ikusku, eta berorren gaineko bilaketa oinarritzko nahiz konplexuak egin.

- Eskuzko desanbiguazioa: interpretazio bat baino gehiago daudenean zuzena markatu, akatsak zuzendu, interpretazio zuzenik ez dagoenean sortu, eta abar. Sistemak bermatzen du zuzenketak edo/eta analisi berriak TEI gidale-rron arabera egiten direla, hau da, sortzen diren ezaugarri-egiturak dago-rien motaren arabera eratuta sortzen direla.

EULIA proiektuan erabiltzeko egokitu da, eta CORPUSGILEn integratuta dago.



8. irudia

EULIAren lan-interfazea

Irudian (8. irudia), EULIAren interfaze grafikoa ageri da. Irudiaren ezkerrean *Testu-leiho*a dugu eta eskuinekoan *Analisi-leiho*a. Beheko aldean ohiko *Egoera-barra* ere ikus daiteke. Ikus ditzagun, bada, bi leiho nagusiak.


5.3.1.1. Testu-leiho

Testu-leihoan, sarrera-testua (gure kasuan, egitura-etiketatzaren emaitza), tokenizazioaren emaitza eta HAULen fitxategia prozesatzaren ondorioz sortutako testu-egitura bistaritzen da. Irudian ikus daitekeenez, corpusaren gune orekatukoak diren paragrafoak nabarmenduta ageri dira eta atal irekikoaz zuriz. Leiho honetan bi motatako osagaiak nahasten dira:

Interfazeak aukera ematen du, bada, testu-leihoko hitzen gainean klik egin eta dagokien informazioa ikuskatzeko. Horretaz gain, markak erabiltzen dira hitzak bereizteko: analisi anbiguoak dituztenak modu berezi batez bistaritzen dira, erabiltzaileak hautatutakoa(k) beste modu batez, eta abar. Marka hauen guztien itxura pertsonaliza daiteke erabiltzaile bakoitzarentzat.

5.3.2. *Analisi-leiho*

Leiho honetan, testu-leihoan markatutako tokenekin erlazioatutako analisiak erakusten dira. Analisia erakusteko, zenbait estilo-orri definitu dira, erakutsi beharreko analisi-mota eta ikusi nahi den informazioaren xehetasun-maila kontuan izanik. Horri esker, amarauna osatzen duten XML dokumentuak ezkutuan gelditzen dira, eta erabiltzaileak modu gardenean ikus eta erabil dezake informazio linguistikoa. Irudiaren goiko aldean (10. irudia) ikus daitezke *euliak* hitz-formaren bi lematizazio posibleak zerrenda batean, non lehena zuzentzat markaturik ageri den (desanbiguzio automatikoaren ondorioz edo hizkuntzalariak analisi hori eskuz hautatu duelako). Beheko aldean, berriz, lematizazio horren xehetasunak ikus daitezke: informazio goratua eta morfemaz morfemako informazio xehatua.



10. irudia

EULIAren interfazeko analisi-leiho (xehetasuna)

Estilo-orriak horrela erabilia, leiho honek izan ditzakeen funtzionalitateak irekita gelditzen dira. Hemen erakusten den informazioa eta erabiltzaileekin duen harremana estilo-orri baten bidez defini daitezke. Erabilpen berezietarako, estilo-orri konplexuak defini daitezke, eta analisi-leihoan komandoak edo bilaketa berriak egiteko aukerak gehitu daitezke. Hau tresna indartsua da, eta, unean tratatzen den informazioaren arabera, interes gehien duten ekintzak eskaini daitezke, modu adimentsuan.

Testu-leihoko dokumentu bakoitzeko, analisi-leiho bat dago; horretara, aktibo dagoen dokumentuaren arabera, analisi bat edo beste erakutsiko dugu.

6. ONDORIOAK

Hizkuntza orok bezala, euskarak ere corpusak behar ditu; hizkuntzalariek, terminologoez, hizkuntza-teknologiaren ikertzaileek, hizkuntzaren estandarizazioaren ardura dutenek, hainbatek behar ditu corpusak, gaur egun hizkuntza aztertzeke ezinbesteko baliabide direlako. Zientzia eta Teknologiaren corpusaren bidez, baliabide egoki eta ahaltsu bat eskaini nahi dugu espezialitate-alor horietan erabili den hizkuntza aztertzeke.

Baina corpusak berak ez ezik, horiek eratzeko teknologia ere behar dugu, corpusgintza-prozesua behar bezala bideratu eta kudeatzeko, eta hain handiak izaten diren kostuak gutxitzeko. Bestetik, corpusa eratzeko metodologia zehaztu eta ezarri dugu, corpusgintzan behar diren tresnak eta baliabideak moldatu edo garatu ditugu, eta prozesu osoa bere baitan hartzen duen aplikazio batean, CORPUSGILEn, integratu.

Horiek biak dira, baliabide eta tresna bana, hain beharrean gauden alor honetara egin nahi ditugun ekarriak.

BIBLIOGRAFIA

- Alegria, I., Areta, N., Artola, X., Díaz De Ilarraza, A., Ezeiza, N., Gurrutxaga, A., Leturia, I., Saiz, R., Sologaitoa, A., Soroa, A. & Valverde, A. 2005. "Zientzia eta teknologiaren corpusa." In *Mendebalde Kultur Alkartea, IX. Jardunaldiak: Euskera zientifiko-teknikoa*. Bilbo.
- Aldezabal, I., Alegria I., Ansa O., Arregi X., Artola X., Díaz De Ilarraza A., Ezeiza N., Gojenola K., Hernández G., Mayor A., Oronoz M. & Soroa A. 2002. *Hizkuntza prozesatzeko tresnen integrazioa, SGML erabiliz*. Barne-txostena. UPV/EHU/LSI/TR 2-2002.
- Arriola, J., Artola, X., Gojenola, K. & Soroa, A. 1997. "TEI: testu-kodeketarako gidalerroak." In *Ekai: Euskal Herriko Unibertsitateko Zientzi eta Teknologik aldizkaria*, 7. zenbakia. Udazkena.
- Artola, X., Díaz de Ilarraza, A., Ezeiza, N., Gojenola, K., Sologaitoa, A. & Soroa, A. 2004. "EULIA: a graphical web interface for creating, browsing and editing linguistically annotated corpora." In *LREC 2004. Workshop on XML-based richly annotated corpora*. [http://ixa.si.ehu.es/Ixa/Argitalpenak/Artikuluak/1088448358/publikoak/04LREC_EULIA.pdf; 06-02-10ean irakurria]

- Bach, C., Saurí, R., Vivaldi, J. & Cabré, M.T. 1997. *El corpus de l'IULA: descripció*. Barzelona: Universitat Pompeu Fabra. Institut Universitari de Lingüística Aplicada. [ftp://ftp.iula.upf.es/pub/publicacions/97inf017.pdf; 06-02-10ean irakurria]
- Leech, G. 2002. "The Importance of Reference Corpora." In *Hizkuntza-corporak. Oraina eta geroa*. Donostia: UZEI. [http://www.uzei.org/corpusajardunaldia/06_gleech.pdf; 06-02-10ean irakurria]
- Sinclair, J. 1996. *Preliminary Recommendations on Corpus Typology*. EAGLES. [http://www.ilc.cnr.it/EAGLES96/corpusyp/corpusyp.html; 06-02-10ean irakurria]
- Urkia, M. 2002. "xx. mendeko euskara-corpora." In *Hizkuntza-corporak. Oraina eta geroa*. Donostia: UZEI [http://www.uzei.org/corpusajardunaldia/03_murkia.pdf; 06-02-10ean irakurria]
- Text Encoding Initiative. *The XML version of the TEI Guidelines*. [http://www.tei-c.org/P4X/; 06-02-10ean irakurria]

Irrati-telebistako glosarioa

Asier Larrinaga Larrazabal

Euskal Telebista

Euskal Irrati Telebistak eta Euskaltzaindiak 2003ko otsailean sinaturiko Lankidetzako Esparru-Akordioaren barruan, EiTBk irrati-telebistako glosarioa aurkeztu eta helarazi dio Euskaltzaindiari 2005eko udazkenean, akademiak euskarazko formen zuzentasuna eta egokitasuna azter dezan, Hiztegi Batuko irizpideekin bat datozen begira dezan, eta dagokion irizpena eman dezan.

1. GLOSARIOAREN HELBURUA

Irrati-telebistako glosarioa Euskal Irrati Telebistako komunikazioak errazteko prestatu dugu. Idatzizko zein ahozko komunikazioetarako balio du, hots, enpresa barruan sortzen diren dokumentuetarako, zein profesionalen arteko lan-solasetarako. Eta enpresa barrurako balio duen bezala, kanpoko komunikazioetarako ere balio du: txostenak, prentsa-oharrak, kredituak...

Hortaz, laneko hiru hizkuntzak hartu ditugu aintzat. Gaztelaniaz eta ingelesez forma ezagun guztiak jarri ditugu. Euskararen kasuan, Euskaltzaindiaren irizpena bitarteko dela, forma normalizatuak izango dira.

EiTBtik kanpo ere, glosarioak interesa pitz dezake, irrati-telebistako enpresetatik kanpo ere gertatzen baitira irratia edo telebista gaitzat duten komunikazioak.

Kanpoko erabiltzaileei begira, hainbat kontzepturen definizioak eman ditugu, eta jakingarri batzuk erantsi ditugu.

2. OSATZEKO PROZEDURA

Irrati-telebistako glosarioa osatzeko, EiTBren lehenagoko hainbat hitz-zerrenda bildu ditugu. Izan ere, urteokaz, enpresaren premiei erantzuteko, era askotako zerrendak prestatu ditugu: programetako kredituak, langile-kategoriak, instalazioen planoak...

Bada beste zerrenda bat, garrantzitsua, bilketa horretatik kanpo utzi duguna, espezifikoezia izateagatik. Beste zerrenda hori generoen sailkapen bat da, Telebista Digitaleko Foroak 2003an adostu zuena lur-telebista digitalerako (ikus I. eranskina).

Irrati-telebistako glosarioaren oinarria prestatutakoan, lehen orraztua eman genion. Batetik, hiru hizkuntzetako formak jaso genituen zutabe banatan, eta, bestetik, beharrezko definizioak landu genituen.

Horren ondoren, Euskal Telebistako eta Euskadi Irratiko profesionalen laguntza izan genuen, falta ziren hitzak eta alferrik jasotakoak detektatzeko, gaztelaniako eta ingeleseko hutsuneak betetzeko, euskarazko ordainak hobetzeko, eta definizioak biribiltzeko.

3. EZAUGARRIAK

1. Glosarioan jasotako hitzak ez dagozkio jakintza-arlo zehatz eta mugatu bati. UNESCOk zientzia teknologikoen barruan sailkatu du telebista, baina gure hitzetako askok ez dute zerikusirik irrati-hedapeneko aparatuekin edo gailu elektronikoekin; errazago lotzen ditugu soziologiaren edo zientzia politikoaren barruko zenbait arloekin.
2. Glosarioak ukitutako jakintza-arlo bat bera ere ez dago modu exhaustiboan landuta. Irrati-telebistako hainbeste kontzeptu kanpoan utzi ditugu, ez baititugu hartu irratingileen edo telebistagileen ezagutza partekatutzat. Beste hainbat kontzeptu halabeharrez geratu dira zerrendatik kanpo, ez baikara abiatu jakintza-arlo bakoitzaren kontzeptu-egituratik. Zenbait adigairen kasuan alferrik ariko ginateke zerrenda osatzen, teknikak esan barik baitauka azken hitza, edo azken-aurrekoa, behintzat. Bideoko zinten formatua da adibide egokia. Antzina ez dela, hazbeteko zintak eta hiru hazbete laurdenekoak erabiltzen ziren. Sonyk Betacam sistema atera zuenean, berori nagusitu zen, beste haiek erabat zokoratzeraino. Betacam digitala etorri zen gero, baina ez zaio etorkizun oparorik antzematen, iraultza digitalak, agian, zintak eurak desageraraziko ditu eta.
3. EiTBren irrati-telebistako glosarioa ez dabil terminologi ahaleginetik oso urrun. Izan ere, hitzak aukeratzeko irizpideetako bat erabileraren formaltasuna izan da. Horren arabera, ez ditugu zerrendan sartu EiTBko profesionalen arteko komunikazio informaletan bakarrik erabiliriko hitz eta lokuzioak. Hitz eta lokuzio horietatik askok hala-holako jatorria dute: ingelesaren eta gaztelaniaren maileguak, laburtzapenak, marka komertzialak... Hitz eta lokuzio horiek erakusten dute, enpresa askotan eta lan-esparru askotan bezala, Euskal Irrati Telebistako langileek euren argota sortu dutela (ikus II. eranskina). Argot horren proiektzioa ez da iristen EiTBko hormak baino harago, eta, hartara, ez du zentzurik Euskaltzaindiari horren gaineko irizpena eskatzeak.
4. EiTBn erabiltzen ditugun hitzak eta gure inguruko irrati eta telebistetan erabiltzen dituztenak konparatuz gero diferentziak aurkituko ditugu, enpresa bakoitza den modukoa delako. Esan liteke enpresa bakoitzaren historiak, premiek, bilakabide teknologikoak eta beste hainbat faktorek mundu-ikus-

kera bat ematen dietela hor dihardutenei, eta, horren ondorioz, errealitate bera modu batera baino gehiagotara antolatuta aurki dezakegula.

Adibide bat ematearren, Euskal Telebistan *statement* [esteiman] esaten diogu berriemailea ahotsez eta irudiz gertaeren lekuan azaltzeari. Ingeles hitza izan arren, ingelesez ez zaio horrela esaten, *stand-up* baizik. *Statement* Hamburg estudioetan ikasi zuten ETBko lehen belaunaldiko kazetariak, Alemanian egin baitzuten ikus-entzunezko prestakuntza. Gaztelaniaz, berriz, *entradilla* erabiltzen dute oro har.

I. ERANSKINA

Eduki deskriptoreak

Telebista Digitaleko Foroak, Espainiako Zientzia eta Teknologia Ministerioaren babespean, bi mailako eduki-deskriptore hauek erabaki zituen 2003an lur-telebista digitalari bēgirako estandarizazio-akordioen barruan, deskriptoreon bidez eman zedin programen generoari buruzko informazioa telebista digitaleko nabigatzaileetan.

GENEROA	AZALPENA	GÉNERO	DESCRIPCIÓN
BESTERIK	zezenak	OTROS	toros
ZINEMA	drama	CINE	drama
	komedia		comedia
	akzioa		acción
	detektibeak		policia
	suspensea		suspense
	abenturak		aventuras
	zientzia fikzioa		ciencia ficción
	maitasun komedia		comedia romántica
	melodrama		melodrama
	animazioa		animación
	beldurrezkoa		terror
	westerna		oeste
	musikala		musical
	historikoa		histórico
helduak	adulto		

GENEROA	AZALPENA	GÉNERO	DESCRIPCIÓN
TELESAILAK	drama	SERIES	drama
	komedia		comedia
	akzioa		acción
	detektibeak		policiaa
	suspensea		suspense
	umorea		humor
	zientzia fikzioa		ciencia ficción
	animazioa		animación
	telenobela		telenovela
	gazteak		juvenil
	abenturak		aventuras
	benetako gertaerak		hechos reales
	historikoa		histórica
INFORMAZIOA	albistegia	INFORMACIÓN	informativo
	debatea		debate
	elkarrizketa		entrevista
	gaurkotasun erre- portajea		reportaje de actua- lidad
	albistegi berezia		especial informativo
	magazina		magacín
	ikerketa		investigación
	eguraldia		meteorología
	trafikoa		tráfico
	ekonomia		economía
	politika		política
	gizartea		sociedad
	kirola		deporte

GENEROA	AZALPENA	GÉNERO	DESCRIPCIÓN
ENTRETENIGARRIAK	lehiaketa	ENTRETENIMIENTO	concurso
	magazina		magacín
	bihotza / gizartea		corazón / sociedad
	telerrealitatea		tele realidad
	umorea		humor
	gala		gala
	ikuskariak		variedades
	elkarrizketa		entrevista
	solas saioa		tertulia
	debatea		debate
	jendeen saioa		testimonios
	gaueko saioa		noche
	giza harremanak		relaciones personales
KIROLAK	futbola	DEPORTES	fútbol
	saskibaloia		baloncesto
	motorra		motor
	txirrindularitza		ciclismo
	tenisa		tenis
	atletismoa		atletismo
	golfa		golf
	neguko kirolak		deportes de invierno
	ur kirolak		deportes acuáticos
	eskubaloia		balonmano
	arrisku / abentura kirolak		extremo / aventura
	herri kirolak		deportes tradicionales
	emankizun bereziak		eventos especiales
	kirol magazina		magacín deportivo

GENEROA	AZALPENA	GÉNERO	DESCRIPCIÓN
HAURRAK	marrazki bizidunak	INFANTIL	dibujos animados
	zinema		cine
	telesaila		serie
	lehiaketa		concurso
	magazina		magacín
	heziketa saioa		educativo
	eskolaurrekoak		preescolar
	informazio saioa		informativo
MUSIKA	kontzertua	MÚSICA	concierto
	magazina		magacín
	bideoklipak		videoclips
	zerrendak		listas
	rocka / popa		rock / pop
	klasikoa		clásica
	jazza / bluesa		jazz / blues
	herri musika		folclórica / tradicional
	latinoa		latina
	dancea / elektronikoa		dance / electrónica
	opera		ópera
	zarzuela		zarzuela

GENEROA	AZALPENA	GÉNERO	DESCRIPCIÓN
DOKUMENTA-LAK	natura	DOCUMENTALES	naturaleza
	zientzia eta teknologia		ciencia y tecnología
	gizartea		sociedad
	historia		historia
	biografia		biografía
	arte eta kultura		arte y cultura
	gaurkotasuna		actualidad
	ehiza eta arrantza		caza y pesca
	zinema		cine
	joerak		tendencias
	musika		música
	osasuna / medikuntza		salud / medicina
	bidaiak / espedizioak		viajes / expediciones
	politika		política
ekonomia	economía		
KULTURA / HEZIKETA	joerak	CULTURAL / EDUCATIVO	tendencias
	moda		moda
	kultur magazina		revista cultural
	erlijioa		religión
	herri ohiturak		tradiciones populares
	arte		arte
	literatura		literatura
	antzerkia		teatro
	dantza / balleta		danza / ballet
	hizkuntzak		idiomas
	irakaskuntza		formación académica
osasuna eta ongizatea	salud y bienestar		

GENEROA	AZALPENA	GÉNERO	DESCRIPCIÓN
AISIALDIA ETA ZALETASUNAK	sukaldaritza	OCIO Y AFICIO- NES	cocina
	brikolajea		bricolaje
	turismoa		turismo
	ehiza eta arrantza		caza y pesca
	motorra		motor
	jokoak		juegos
	teknologia		tecnología
	informatika		informática
	eskulanak		manualidades
	dekorazioa		decoración
	lorenzaintza		jardinería
	esoterismoa		esoterismo
	edertasuna		belleza
	telesalmenta		televenta

II. ERANSKINA

Euskal irrati telebistako argota

Hitz eta lokuzio hauek EiTbN sortutako argotaren adibide batzuk baino ez dira.

ado (*marka komertziala*). Irudi-efektu digitala. “Erreportajea dotoreago gera dadin, postprodukzioan ado batzuk sartzeko eskatuko dut”.

beltzera joan. Beltz-itzalpena sartu. “Eszena honen amaieran beltzera joango gara”.

biblia. Programa-proiektua. Telesail baten argumentua, gertalekuak, pertsonaiak, iraupena, programazio barruko tokia eta abar azaltzen dituen txostena. “*Hasie-berriak*-en biblian esaten zen seriea *Goenkale*-ren kimua zela”.

buru bero. Garabi batean jarri eta garabi horren bidez erabiltzen den kamera. “Buru beroarekin zoom bat egingo dugu atetik aurkezlearen aurpegiraino”.

chyron (*marka komertziala*). Gaininpresioa. Albisteetako datuak emateko pantailan jartzen den idazkuna. “Chyronetan [kaironetan] karguak letra xehez idatzi behar dira”.

DLS (*digital library system*). Ordenagailuan sortutako irudia, marrazkiz, argazkiz edo / eta idazkunez osatua. “Bideoaren aurretik DLS [dele-ese] bat sartuko dugu langabeziaren datuak emateko”.

- ENG** (*electronic news gathering*). Kamerari batek, soinu-operadore batek eta kazetari batek osaturiko grabazio-taldea. “ENGa [e-enexea] bidali dugu, baina oraindik ez da heldu istripuaren tokira”.
- ENGz irten / joan** (*electronic news gathering*). Berriaren irudiak eta datuak jasotzera joan gertalekura bertara. “Kotxean jaka edukitzen dut beti, ENGz [e-enexez] irten behar badut ere”.
- estar** (*start*). Errealizadoreak VTR operadoreari ematen dion agindua, *play* tekla saka dezan.
- magneto** (*magnetoskopia*). Irudia eta soinua zinta magnetikoetan grabatzeko eta irakurtzeko aparatua. “Bulegoan magneto bi geneukan lehen, baina orain bat baino ez, eta ezin dugu zinta batetik bestera grabatu”.
- pospo** (*postproduktzio*). Irudien grabazioaren osteko fasea, editatzea, soinua jartzeta eta gaininpresioak txertatzea biltzen dituena. “Pospoa uste baino gehiago luzatuko da, jatorrizko irudietan aprobetxatzeko moduko material gutxi dago eta”.
- rx** (*transmit/receive —Tx/Rx—*). Lotura-gela. Kanpoko irudi eta soinu seinaleak jaso eta grabatzeko tokia. “Zoaz rx-etara [erre-ekisetara] eta begiratu ea Reuters heldu den”.
- saldu**. Informazioa aurkezteko ikuspegia zehaztu. “Legebiltzarreko informazioa ondo saltzen ez baduzu, jendeak kanala aldatzen du”.

Espezialitate-hizkeren garapen lexiko-diskurtsiboa: aldakortasun terminologikoa tratatzeko zenbait irizpide¹

Agurtzane Elordui

Euskal Herriko Unibertsitatea

0. SARRERA: HIZKUNTZA-PLANGINTZA ETA GARAPEN LEXIKO-DISKURTSIBOA

Hizkuntzen normalizazio-plangintzan bi jarduera nagusi bereiz daitezke. Batetik, hizkuntzaren estatusaren normalizazio-plangintza dugu: plangintza horren barruan dira gizartean hizkuntzaren erabilera eta funtzionaltasuna aregotzeko edo hedatzeko ahaleginetan aurrera eramaten diren plangintza-jarduerak. Espezialitate-hizkeren kasuan, espezialitate bakoitzaren diskurtso-komunitatea trinkotzeko ahaleginetan egiten diren jarduerak sartzen dira estatus-plangintzaren barruan.

Bigarren jardueraren barruan hizkuntzaren corpusa normalizatzeko egiten diren ahaleginak dira. Corpusaren normalizazio-plangintza deritzon jarduera horren barruan, euskara bezala orain gutxi arte banaketa dialektala eta egoera diglosikoa bizi izan dituzten hizkuntzek, hizkuntzaren kodifikazio eta estandarizazio fasetik igaro ohi dute eta, ondoren, modernizazioa (Ferguson 1968) edo elaboreazioa (Haugen 1983) deritzonetik. Modernizazio edo elaboreazio fasea da hizkuntzak erabilera-esparru berrietara egokitzeko bizi behar duen garapen lexiko-diskurtsiboaren fasea: espezialitate-hizkeren kasuan, garapen lexiko-diskurtsibo horren barruan, terminologiaren garapenaren fasea da.

Terminologiaren garapenean, terminologia-baliabideen sorkuntza, finkapena eta hedapena bereiz daitezke. Hizkuntza normalizatueta terminologia-baliabideen sorkuntza, adituen esku izaten da nagusiki: hiltun horiek dute terminologia sortze behar hori, beren eguneroko lan-jardueretan. Terminologia-baliabideen finkapena eta hedapena ere, adituen esku izaten dira neurri handian. Adituek sortutako ahozko nahiz idatzizko testu mota desberdinetan finkatzen eta hedatzen da terminologia: adituen artekoetan, ezagutza tekniko-zientifikoaren disbulgaziorako testuetan, edo ezagutza horren transmisiorako sortzen diren testuetan (irakaskuntza maila

¹ Lan hau hurrengo proiektu hauen laguntzarekin eraman dut aurrera: EHU 1/UPV 00113 310-H-15921/2004 eta DGICYT HUM2004-05658-CO2-01/FILO. Igone Zabalarri eskerrak eman nahi dizkiot lan honen idazketa desberdinen inguruan egin dizkidan ohar eta iradokizunengatik. Okerrak ene.

desberdinetako testu-liburuetan, esaterako). Terminologia *in-vivo* deritzo testuen bidezko eztabaidaren ondorioz garatutako terminologiari.

Hizkuntza normalizatueta terminoen finkatze naturala proposatu dute zenbaitak. Sozioterminologiatik *normazioa* defendatzen da (Gaudin 1990; Guespin 1990): aldaeren arteko lehentasunak edo honako edo halako testuinguruetan erabiliak izateko joerak prozesu espontaneo eta kolektibo batean eta hizkuntzaren beraren dinamismoaren arabera izaten uztea. Proposamen horren ondoan dira *estandarizazioa* —*normalizazioa* ere esan zaiona— eta *harmonizazioa*. *Estandarizazioaren* filosofia hurrengo atalean azalduko dut xehekiago, Terminologiaren Teoria Orokorra (TTO) edo Klasikoa deitu denaz jardutean: labur esateko, interbentzio mota horren helburu nagusia nozio bakoitzarentzako denominazio bakarra adostea da. Terminologia *bateza* da estandarizazioaren azken helburua. *Harmonizazioan* terminoak eta kontzeptuak kontrolatzea proposatzen da, baina interbentzioa ahal den txikiena izanda. Jardunbide honetan aldaerak ponderatzen dira, baina ez dira aldaera zenbait lehenesten eta beste batzuk baztertzen eskola edo pentsamolde jakin batekin loturiko irizpideen arabera.

Normalizatu gabeko hizkuntzetan ere, terminologia-baliabideen sorkuntza adituaren esku izatea da komenigarriena: adituak dira hizkeren garapen diskurtsiborako, eta zehazkiago terminoen sorkuntzarako, behar diren ezaugarriak hobekien betetzen dituzten hiztunak: hiztun modura gaitasun orokorra dute eta, horretaz gain, lan egiten duten jakintza-esparruaren baldintza pragmatiko berezien ezagutza dute: eskema kognitiboa ez ezik, erreferentziatzko hizkuntzaren ezagutza semantiko-pragmatikoa ere badute. Baina, zenbait erabilera-esparrutan beharrezkoa izan daiteke sorkuntza bera ere, normalizazio-jarduera batek eraman behar izatea aurrera: esparru bateko erabilera abian jartzeko, adibidez. Oro har, normalizazio-jardueraren lana batez ere deskriptiboa edo sistematikoki neologikoa izango da, espezialitate-hizkeraren elaborazio graduaren arabera.

Hizkuntza ez-normalizatueta terminologiaren finkapenean ere, adituek dute aparteko garrantzia: terminoen bereizgarria den nozio-denominazio lotura gauzatu ahal izateko, ezinbestekoa da termino horiek erabiltzen dituen diskurtso-komunitatearen barruko adostasuna. Baina askotan, finkapen naturala izan ahal izateko behar diren baldintza soziolinguistikoak ez daudenean, normalizazio-jarduera baten beharra ikusten da terminoen finkapenean laguntzeko.

Euskararen kasurako ere, gorago aipatutako interbentzio-jardunbideen artean egokiena aurkitu beharrean gaude. 1968an Arantzazuko Biltzarrean euskara batuaren oinarriak jarri zirenetik, aurrerapausu handiak eman dira euskararen corpus orokorraren normalizazioan. Egun esan daiteke euskararen kodifikazioa eta estandarizazioa nahikoa aurreratuta daudela eta euskararen elaborazio garaian gaudela bete-betean. Elaborazio horren barruan terminologiaren garapenak aurrerapen handia bizi izan du azken hamarkadotan: egun hizkuntzaren inbentarioan eskuragarri diren terminologia-baliabide eta produktuei (hiztegiak, datu-base terminologikoak,...) begiratzea baino ez dago hori ikusteko. Baina oraindik euskarak terminologiaren garapen planifikatua izan behar du, neurri handi batean behintzat, finkapen naturalerako behar diren baldintza soziolinguistikoak ez baititu oraindik.

Esparru tekniko-zientifikoaren erabilera-maila oso txikia da oraindik (www.euskadi.net) eta harreman-sareen trinkotze-mailari gainera begiratzea nahikoa da ikusteko harreman-sareen trinkotze maila baxua². Euskararen terminologiaren finkatze guztiz naturala nekez eman daiteke esparru tekniko-zientifiko gehienetan, epe laburrean behintzat.

Esparru horietako erabileraren egoera, eta hizkuntza egungo komunikazio-beharretara egokitzeko dugun premia³ kontuan izanik, ezinbestekoa iruditzen zait jarduera terminologikoa erregulatzeko⁴ eta, beharrezko den kasuetan, interbentzio-neurriak abian jartzea ere⁵. Erregulazio-jarduera hori nork⁶, zein interbentzio-jardunbideren arabera, terminologiaren zein ikuspegi teorikoren arabera, eta zein metodologiarekin egin behar den pentsatu behar da: jardueran bertan hasteko eta, zalantzarik gabe, jarraibideak eman aurretik ere. Gogoeta horietarako ekarria izan nahi du lan honek. Izan ere, aldaera terminologikoen finkatze-jarduera gidatu behar duten jardunbide, ikuspegi teoriko eta metodologikoez mintzatuko naiz lanaren lehen atalean eta ondorioetan. Bigarren atalean, euskarazko diskurtso zientifikoaz beste ikerlari batzuekin egin dudan ikerketa-lan enpiriko baten zenbait ondorio agertuko ditut: ondorio horiek berek aparteko garrantzia dutelako egungo euskara zientifikoaren garapen lexiko-diskurtsiboaren egoeraren diagnosis egiteko eta, batez ere, aldakortasun terminologikoa tratatzeko ematen dizkiguten datuak oso kontuan hartzekoak direla uste dudalako. Onarpen teorikoak eta aipatu ikerketaren ondorioak batera kontuan harturik, zenbait irizpiderekin amaituko dut lan hau, nire iritziz espezialitate-hizkeren normalizazio-jardueran aldakortasun terminologikoa tratatzeko orduan kontuan izan beharrekoak.

² Honetaz luzeago in Zabala & Elordui (2005) eta Elordui & Zabala (2005).

³ Egungo gizartearen beharretara egokitzen ez den hizkuntzak ezingo du epe luzean bizirik iraun, ez bada modernidadeak dakartzan komunikazio-egoera berrietatik guztiz baztertuta. Euskararen corpus orokorraren estandarizazioan eta lexiko eta diskurtso mota desberdinen elaborazioan egin diren aurrerapausuek ahalbideratu dute neurri handian euskarak modernidadearen trena ez galtzea: esaterako, *Inter-neteko* bilaketak neketsuagoak lirarteke orain aurrerapausu horiek gertatu ezean.

⁴ Erregulazioa, edozein delarik jardunbidea, erabilera sistematizatzeko jarraibideak ematea da: aldakortasun terminologikoa erregulatzeko orduan, aldaera desberdinen erabilerarako jarraibideak ematea, besteak beste.

⁵ Nire ustez, eta Cabré ere agertzen digun bezala (Cabré 1999: 309; Cabré 2003:18), lehenengoak eta garrantzitsuena da neurri horiek plan sistematiko baten barrukoak izatea eta esku-hartze puntualak saihestea. Plan estrategikoko horren ardatz edo gidabide nagusiak izan behar dira: batetik, hizkuntza-eredua, hots, zer-nolako hizkuntza-eredu nahi dugun gure gizartearen eta, aurrekoarekin guztiz lotua, gure hizkuntzarako nahi dugun estatus soziolinguistikoa.

⁶ Lan honetan ez dut eztabaidatuko erregulazioa nork egin beharko lukeen. Baina, labor azaldu nahi dut, Cabré (1999, 2002) proposatzen duen bidetik, terminologia-lanean diziplinartekotasuna ikusten dudala guztiz beharrezkoa eta, euskararen kasuan, erregulazio-jarduera zuzena eta baliagarria izateko, espezialitateetako adituek eta hizkuntzalariek (eta horren barruan soziolinguistek) elkarlan garrantzitsua izan genezakeela. Elkarlan horren beharraz lehenago mintzatu gara Zabala & Elordui (2005) lanean.

1. IKUSPEGI TEORIKO ETA METODOLOGIKOAK

Hiru azpiataletan banatu ditut abiaburutzat hartzen ditudan ikuspegi teoriko eta metodologikoak: ikuspegi horiek interbertsio-jardunbideaz (1.1.), normalizazio-jardueran gidari izan daitekeen terminologiaren teoriaz (1.2.) eta datuak jasotzeko erabili beharreko metodologiaz (1.3.) izango dira. Ikuspegi hauetan erakutsi nahi dut terminologiari alderdi soziolinguistikotik eta pragmatikotik begiratu dioten zenbait ikerbidek ekarritako proposamenak oso kontuan hartzekoak direla euskararen terminologiaren normalizazio-jardueran: aldaera terminologikoen erregulazioan, eta erabiltzaileen beharrei egokituak diren terminologia-lanak diseinatzeko orduan ere. Azpialt bakoitzean azalduko ditut ekarri horretarako ikusten ditudan arrazoiak.

1.1. Terminologiaren ikuspegi normalizatzailea

Nire ikuspegia hizkuntzaren estatusari eragiten dioten gizarte faktoreak kontuan hartzea aldarrikatzen duten hizkuntza-plangintzaren marko teorikoetan (Haugen 1983, Neustupny 1983) kokatzen da: marko horien barruan, normalizaziorako plangintzan diharduenak arazo sozial, komunikatibo eta linguistikoak batera eta elkarren kontuan harturik aztertu behar ditu, eta parte aktiboa hartu behar du arazoon konponbidean.

Ikuspegi normalizatzaile⁷ honen barruan, corpusaren normalizazioa eta estatusaren normalizazioa elkarrekin kontuan harturik planifikatu behar dira. Corpusaren normalizazioak, hizkuntzaren estatusaren normalizazioaren mesedetan izan behar du batez ere⁸. Ikuspegi honetatik bat egiten dut Cabrérekin terminologiaren normalizazio-jarduera ikusteko duen moduan. Cabrék agertu bezala (Cabré 1999: 312), normalizazio-jarduera baten helmuga ez da elaborazioa bera. Bakarbakarrik hitz egin daiteke terminologia-plangintzaren arrakastaz estandarizatzeko proposatu diren aldaerak esparru horretako erabiltzaileen benetako erabileran erroto direnean. Horretarako, elaboraturiko terminologia-lanak erabiltzaileen beharrei egokitu behar zaizkie, beren erabilera ahalbideratu eta sustatu ahal izateko diseinatu behar dira.

⁷ Terminologiaren *normalizazioa* eta terminologia *normalizatzaile* zentzu desberdinetan erabili dira literaturan, zentzu guztiz kontrajarriekin askotan. Geroago xehekiago azalduko dudana TTOren ikuspegia ere *normalizatzailea* deitu da. Hemen nahiago izan dut *normalizazioa* eta *estandarizazioa* (*normatibizazioa*), eta ondorioz *normalizatzaile* eta *estandaritzaile* bereiztea. *Normalizazioa* erabiliko dut corpusaren normalizazioa estatusaren mesedetan egitea helburu duen normalizazio-jarduerarako eta *estandarizazioa* *normatibizazioaren* sinonimo gisa.

⁸ Oro har hedatua eta onartua da ideia hau biziberritze-plangintzetarako proposamenetan, Fishmanek agertzen digunez (Fishman 1991). Baina, Fishmanek berak azaltzen du hizkuntzalari askori behin eta berriro errepikatu beharreko ideia dela hau: 'This is worth repeating, particularly to linguists: it is status planning, not corpus planning that is the engine of all language planning success (...)' (Fishman 1991: 349).

Terminologia-baliabideen finkapenean, beraz, garrantzi handia izan behar du jakiteak proposatu nahi den aldaera denominatiboa adituak darabilen, zein iritzi duen, baita zelan eta zertarako darabilen ere. Bat nator terminologia-baliabideen finkapenetan erabiltzailearen ohiko erabilerek nahiz beharrek lehentasunezkoak direla aldarrikatzen dutenekin (Cabr  1999⁹, Diaz Rojo 2001, besteak beste).

Euskararen diskurtso-komunitate espezializatuen estatusaren normalizazioa helburu duen ikuspuntu honetatik, beraz, terminologiaren *harmonizazioa* iruditzen zait euskararako interbentzio-jardunbide egokia¹⁰. Nire ustez *estandarizazioaren* arrisku nagusia euskararen garapen lexiko-terminologikoa oztopatzea da: gehiegizko kontrol soziolinguistikoa dispertsio terminologikoa ere ekar dezake (Gutierrez 1998) eta euskararen kasuan ediren dira horrelako ondorioak (Zabala & Elordui & Martinez 2004). *Normazioa* ez zait bidegarria iruditzen euskararen esparru espezializatuen oraingo egoera soziolinguistikoa, gorago azaldu ditudan arrazoiengatik.

Baina, harmonizazioa helburu duen normalizazio-jarduerak, harmonizazio-lana aurrera eraman ahal izateko, terminologiaren teoria egokia eta unitate terminologikoen jokaeraren deskripzio egokiak behar ditu.

1.2. Terminologiaren ikuspegi linguistiko-komunikatiboa

Terminologiaren Teoria Klasikoa edo Orokorra deritzonak (TTO) terminoen estandarizazioa du helburu nagusizat. Teoria horren sortzailea den Wuster-entzat terminologiaren zeregina erreferentzia-terminoen estandarizazioan datza. Terminologiaren metodologia onomasiologikoa da eta haren helburu aplikatua kontzeptu baterako denominazio-aldaera bakarra proposatzea da, profesionalen arteko harremanaren zehaztasuna eta unibokotasuna bermatzeko asmoz. Terminologiaren azken lan askok agerian utzi dutenez, TTOren ikuspegia eta helburua preskriptiboa¹¹ da, deskriptibotik abiatzen bada ere (Cabr  2002:2).

Terminologiaren ikuspegi klasikoa krisian dago azken urteotan. Hasteko, ikusi da Wusterren irizpideei jarraituz egin diren nomenklatura eta glosario normatiboek ez dutela bete zeukaten estandarizazio-helburua. Ez dute lortu aldakortasuna mugatzea; guztiz alderantziz, zenbaitetan dispertsio terminologikoa areagotzea lortu dute (Gutierrez 1998). 1993an Rouen-en terminologiaren finkapena aztergai izan

⁹ 'La difusi  i implantaci  dels recursos terminol gics reclama de la informaci  almenys tres condicions: que sigui correcta,  til i eficient. Correcta, en el sentit de respectar l' s real dels especialistes;  til per la finalitat que es proposa de tenir; adequada als destinataris que han d'incorporar-la a l' s real; I eficient, per tal com ha de permetre cobrir amb el m xim d'efic cia les seves finalitats' (Cabr  1999: 50).

¹⁰ Hau da Cabr k ere nazioarte mailako interbentziorako (1999:51) nahiz hizkuntza gutxituen terminologia-normalizazioetarako (Cabr  2003) egokitzat duen jardunbidea.

¹¹ Terminologia-lana, deskriptiboa, preskriptiboa eta neologikoa izan daiteke. Lan deskriptiboak komunikazio espezializatuan adituek erabiltzen dituzten terminoak deskribatzea du helburu. Lan preskriptiboak eraman nahi ditu erabiltzaileak zenbait terminologia-baliabide lehenestera, *erabilera egokira* ez esan dezagun. Lan neologikoak terminoak sortzen ditu hutsune terminologikoa dauden kasuetarako.

zen jardunaldietan argi ikusi zen artifziazialki (edo *in vitro*) sortuak ziren terminoak erabileran finkatzeko zeuden zailtasunak (Freixa 2003).

Alderdi teorikotik ere, terminologiaren normalizazioa ikusteko modu idealista eta murriztailea izatea leporatu zaio Wusterri hainbat ikuspegitatik: ikuspegi kognitibo, linguistiko, soziologiko eta komunikatibotik¹². TTOk unitate terminologikoa ulertzeko duen modua bera jarri dute ikerlari horiek zalantzan, batez ere aldaerak denominazio-aldaera bakarrera mugatu beharra. Wusterrek helburu duen terminoaren biunibokotasuna eta horrek dituen inplikazioak izan dira kritikatuena: aldakortasun terminologikoa ez onartzea eta, oro har, terminoen alderdi komunikatibo eta diskurtsiboak kontuan ez hartzea. Sozioterminologiatik (Boullanger 1983; Gaudin 1990; Guespin 1990) Wusterri egin zaion oinarritzko kritika da hain zuzen ere terminologiaren benetako erabilera eta diskurso espezializatuaren parametro sozial eta funtzionalak kontuan ez hartzea¹³. Ezagutza tekniko-zientifikoak irakaskuntzaren eta komunikabideen bidez egun duen hedapenak zabaldu du terminologia aditu talde murriztuetatik eta komunikazio espezializatutik kanpo. Cabrék (2003) agertu bezala, terminologia askotariko jardueretan behar da egungo gizartean: adituen arteko ekoizpen eta hedapenerako komunikazio-egoeretan (nazioarteko publikazioak, esaterako) ez ezik, adituen arteko bat-bateko ekoizpena eta hedapena dituzte komunikazio-egoeretan (laborategietako bat-bateko jarduerak), ezagutza espezializatuaren aplikazioan eta hedapen-jardueretan gertatzen diren komunikazio-egoeretan (irakaskuntzan, enpresetan,...), eta ezagutza espezializatuaren dibulgazioan gertatzen diren komunikazio-egoeretan (kazetaritza tekniko-zientifikoan eta dibulgazioa espezializatuan) ere. Oro har TTOri egin zaizkion kritiketan agerian geratu da egungo terminologia 'erreal' edo 'sozial' hori azaltzeko gaitasunik eza (Gaudinen 1990).

Wusterren biunibokotasunari egiten zaizkion kritiketatik harago joan da Terminologiaren Teoria Komunikatiboa (TTK). Teresa Cabrék eta IULAko ikerlari taldeak proposatu duten terminologiaren ikuspegi linguistiko-komunikatiboak helburu du terminologiaren benetako erabileraren berri ematea: besteak beste, erabileran dagoen aldakortasuna azaltzea. Ikuspegi honek aztertzen du aldakortasuna hizkuntzalaritza bariasionistaren parametroak kontuan harturik, eta aldakortasun terminologikoa ikertzen du erabiltzaileen gaitasun komunikatiboa edo pragmatikoren berri eman dezakeen eredu linguistiko baten barruan. Teoria honen zenbait oinarri azalduko ditut jarraian, oinarri hauek agerian uzten baitute TTK aldakortasun terminologira hurbiltzeko duen modua:

Terminoaren poliedrikotasuna: Has gaitzen terminoaren beraren kontzeptuotik: Cabrék (1998, 1999, 2002, besteak beste) defendatzen du unitate terminologikoa poliedrikoa direla: unitate terminologikoen alderdi linguistiko,

¹² Terminologiaren diziplina desberdinetatik egin zaizkion kritikez jakiteko, ikus. Cabré 1999: 109-117 eta Cabré 2002.

¹³ Freixak (2003:137) ohartarazten digunez, TTOk ez zuen aldakortasun funtzionala kontuan hartzen aurreikusten zuen komunikazio-egoera espezializatu bakarra adituen artekoa zelako. Arrazoi berak azal dezake aldakortasun soziala kontuan ez hartzea ere.

kognitibo eta sozialak integratzen dituztela. Unitate terminologikoak deskribatu ahal izateko, terminoaren alderdi guztiak kontuan hartzen dituen teoria multzo integratu baten beharra dago, teoria horietako bakoitzak terminoaren alderdi baten deskribapenean aritzen bada ere.

Terminologiaren izaera komunikatiboa: terminoak baliatzen ditugu jakintza espezializatua errepresentatzeko: terminoen bitartez etiketatzen ditugu espezialitatearen eskema kognitiboaren jakintza-guneak direnak. Baina, unitate terminologikoek helburu komunikatibo bati erantzunez sortzen ditugu. Helburu hori zuzeneko komunikazioan gauzatzen da (adituen artekoa, diskurtso didaktikoa, adituek sortutako dibulgazio lanetan,...), edo zeharkakoan (itzulpenen bitarteko komunikazioan ala kazetaritza espezializatuan). Terminologiak, beraz, alderdi errepresentazionala eta komunikatiboa integratzen ditu.

Terminologiaren izaera aldakorra: Terminologiari komunikazio-egoeraren baldintzek eragiten diote, hizkuntzaren edozein alderdiri bezala. TTKren barruan, unitate terminologikoak, gainerako hizkuntza-unitateak bezala, aldakortasun-sistema baten arabera dira: bai kontzeptu beraren forma alternatiboak (sinonimia) eta bai forma beraren kontzeptzio alternatiboak (polisemia) ere. Unitate terminologikoen ezaugarri unibertsal hori graduan aldatzen da komunikazio-egoeraren arabera: zientziaren dibulgazioaren erregistroan aldakortasuna handiagoa da, adituen arteko komunikazio-egoeretan baino (Cabr  1998:72).

Horrelako oinarri teorikoak dituen teoria batek ekarri garrantzitsua egin diezaiok euskara bezala terminologiaren garapen planifikatua behar duen hizkuntza bati. Sozioterminologiaren arabera, oro har, hizkuntza normalizuetan ere, aldakortasun terminologikoa kontuan hartzen ez duten terminologiaren teoriak ezin dute bideratu egungo gizarteak behar duen terminologia, hau da, gizarte modernoan sortu diren behar komunikatibo eta informatibo askotarikoak ase behar dituen terminologia. Auger-ek (1994) aldarrikatu legez, ikuspegi bariazionista behar du egungo terminologiaren plangintzak.

Hori hala da gizarte modernoan guztiz integratu eta terminologikoki garrantu dauden hizkuntzen kasuan, baina baita euskara bezala integratze premian daudenetan ere. Cabr  (2003) agertu duen bezala, hizkuntza gutxituen terminologia ezin da mugatu ikuspegi estandarizaille batera¹⁴. Aurrerago egiten saiatu behar da: testuingurueta egokitzen den sistema aldakor batera jo behar da hizkuntzaren normalizazioan, hizkuntza normalizatuek duten sistema aldakorrera. Euskararen terminologia-lanen xede nagusia izan behar da behar komunikatibo askotarikoak ase dezakeen terminologia lortzea: gizarte modernoan sortu diren komunikazio askotarikoetara egokitzen den terminologia, terminologia-baliabide nahikoa eta

¹⁴ Guztiz bat nator Cabrerekin hizkuntza gutxituen terminologia nolakoa beharko lukeen azalzen duenean: '(...) la terminolog a que requieren las lenguas minoritarias no pueden limitarse a una concepci n uniforme y restrictiva de la unidades especializadas, sino que debe abrirse a la variaci n comunicativa considerando las unidades terminol gicas como unidades l xicas que forman parte del vocabulario de una lengua, y aunque con especificidades en cuanto al contenido y a su uso restrictivo, participan de las mismas propiedades que las unidades l xicas' (Cabr  2003: 23).

egokiak dituen. Helburu hori ikusmiran jardun behar da corpus terminologikoaren plangintzan: garapen lexiko-terminologikoaren hastapenetan dauden espezialitate-esparruetan eta, batez ere, finkatze prozesuan daudenetan.

Alderdi aplikaturako ere, onuragarria izan daiteke TTKren proposamena. TTKren proposamen teoriko eta metodologikoak kontuan hartzen dituzten deskripzioek eta azterketek argibide ugari eman diezazkiokete terminologia-lanen diseinuan aritu behar denari. Terminoen alderdi gramatikalak ez ezik, alderdi soziopragmatikoak ere, integratzen dituen azterketa terminologikoak informazio gehiago eta hobea ematen digu terminologiaren benetako funtzionamenduaz jabetzeko, eta hobeto laguntzen digu erabiltzaileen beharrei egokitua den terminologia-lan aplikatua diseinatzen ere.

1.3. Terminologiaren deskripzioa diskurtsoa kontuan harturik

Goiago azaldu dudanez, testu naturalen deskripzioak oso baliagarriak izan daitezke normalizazio-jardueran hartu behar diren erabakietarako nahiz terminologia-lanak diseinatzeko ere. TTKk terminologiaren azterketari ekarri dizkion parametro berriek, terminoari bere izaera linguistikoa itzuli diote, eta zabaldu dute terminoak, eta jakina aldakortasun terminologikoa, testuinguru naturaletan (*in vivo*), testuetan, aztertzeo aukera.

Orobat, diskurtso espezializatuaren azterketak bide interesgarria zabaldu du azken urteotan aldakortasun terminologikoa aztertzeo. Hasteko erakutsi du Wusterrek defendatzen zuen diskurtso espezializatuaren uniformetasuna ez dela testuetan eginiko azterketek agerian uzten dutena. Guztiz alderantziz, diskurtso espezializatuan testu mota desberdinak bereiz daitezke aditasun maila (Wichter 1994), abstrazio maila eta testuinguruaren bestelako baldintzek (partehartzaileak, partehartzaileen arteko harremanak, gaia tratatzeko era, eta erabiltzen den euskarria) ezartzen dituzten baldintzen arabera (Hoffman 1998). Testuetan ager daitekeen terminologia, eta termino-dentsitatea ere, aldatzen da testuaren helburuen eta komunikazio-egoeraren arabera (Cabré 1998¹⁵, Ciapuscio 2002).

Areago doa terminologian alderdi diskurtsiboez duten garrantzia TTKren barruan: *Terminoak hitzak* dituen ezaugarri linguistikoak ditu: forma foniko eta grafikoa, egitura morfologiko bakuna edo konplexua, gramatika-karakterizazio

¹⁵ 'El grado de especialización de la comunicación condicione no sólo la cantidad de densidad terminológica de un texto, sino también la cantidad de variación expresiva para hacer referencia a un mismo concepto. Un texto altamente especializado suele ser preciso, conciso, sistemático; la terminología que utiliza tiende a la monosemia y a la univocidad. A medida que disminuye el grado de especialización, el discurso va adquiriendo características que lo acercan al discurso no especializado: en el plano de lo semántico, variación conceptual, redundancia, ambigüedad, falta de precisión estricta; en el plano formal, variación sinónímica de base léxica, pero sobre todo uso muy elevado de fórmulas parafrásticas que explican analíticamente el mismo concepto que en un nivel especializado se hace sintéticamente' (Cabré 1998:74).

bat eta esanahia¹⁶. *Terminoak hitzetatik* bereizten lagutzen digutenak, alderdi pragmatikoak dira. Pragmatikoki terminoak eta hitzak bereizten dira *i)* beren erabiltzaileengatik, *ii)* erabiliak diren testuinguruengatik *iii)* transmititzen dituzten gaiengatik eta *iv)* beren diskurtso motarengatik (Cabr  1999:26). Terminoak hitzak bezalakoak eta ez-bezalakoak dira. Terminoen izaera espezifikoa bere ezaugarri pragmatikoetan eta esanahia bideratzeko moduan datza (Cabr  2002: 5). *Terminoak hitzetatik* bereizten dituen balio terminologikoa, testuinguru pragmatikoan aktibatzen zaio unitate linguistikoari (Cabr  2002). Cabr k (1999:25) azaltzen digunez, unitate linguistiko bati balio terminologikoa diskurtsoren baldintzek ematen, aktibatzen, diote¹⁷.

Gaur egun terminologian diharduten askok defendatzen dute terminologian alderdi diskurtsiboak saihestezinak direla (Boulanger 1983; Cabr  1999, 2002; Ciapuscio 2003, Freixa 2003, Gaudin 1990; Guespin 1990, besteak beste). Alderdi horiek oraindik saihestezinagoak iruditzen zaizkit euskara bezalako hizkuntza gutxitu baten deskripzio terminologikoetan eta terminologia-produktuetan. Gorago ere esan bezala, terminologiaren jokaera diskurtsiboaren berri ematen duten deskripzio-lanek datu paregabeak eman diezazkiokete aldaeren harmonizaziorako erabakiak hartu behar dituenari, eta terminologia-lan aplikatueta diharduenari ere. Euskara ez diren gainerako hizkuntzen inguruko deskripzioek, ereduak eta jarraibideak erakusten dizkigute. Gure testugintza espezializatuan ditugun gabeziak eta beharrak detektatzen lagutzen digute. Euskararen deskripzioak ere, beharrezkoak dira: batetik, diskurtso espezializatuaren diagnosis egiteko, gabeziak eta beharrak aztertu ahal izateko eta, bestetik, orain arte garatu diren diskurtso-errutinak transmititzeko behar diren terminologia-produktuak diseinatzeko ere.

2. ALDAKORTASUNA EUSKARAZKO TESTU ZIENTIFIKOETAN

Aldakortasun diskurtsiboa deskribatu beharraz aritu naiz eta jarraian datoren ezinbesteko galdera dugu ia euskarazko testu espezializatueta deskriba daitekeen aldakortasun diskurtsiborik dagoen. Galdera horrexek eraman gintuen euskarazko testu zientifikoeta aldakortasun terminologikoa aztertzeraz (Zabala & Elordui & Martinez 2004¹⁸), aurreko atalean aipatutako ikuspuntu teoriko eta meto-

¹⁶ Alderdi horietan bereizten da *hitzatik* izenen erabileraren maiztasunean, jatorri greko-latinar duten formanteen erabileraren maiztasunean, eta egitura sintagmatikoen erabilerarenean ere. Horiek guztiak askoz maizago agertzen dira terminoetan, hitzetan baino.

¹⁷ Honela azaltzen digu Cabr k terminoaren aktibatze hori: 'Estas unidades, que no son inicialmente ni palabras ni t rminos sino s lo potencialmente t rminos o no t rminos, puede pertenecer a  mbitos distintos. El car cter de t rmino lo activan en funci n de su uso en un contexto y situaci n adecuados. Esta activaci n consiste en una selecci n de los m dulos de rasgos apropiados, que incluyen los rasgos morfosint cticos generales de la unidad y una serie de rasgos sem nticos y pr gmaticos especifcos que describen sus car cter de t rmino de un determinado  mbito' (1999:123).

¹⁸ Gorago esan bezala, atal honetan laburtzen dut Igone Zabala eta Mertxe Martinez ikerlarietara batera eginiko beste lan bat (ik. lan osoa in: Zabala & Elordui & Martinez (2004))

dologikoak gidari. Bi hipotesi nagusi genituen azterketa hasterakoan: a) euskararen normalizaziorik ezak zientzialarien diskurtso komunitatean ezartzen dituen zenbait baldintza direla-eta, aldakortasun asistematikoa izango zela nagusi testuetan. b) 1970etik garatu den prosa zientifikoa diskurtso-patroi zenbait garatuta izango zirela: diskurtsoaren eskakizunei erantzuten dieten aldaerak aurkitu behar genitu-ela aldaera diskurtsiboak, sistematikoak.

Azken horiek detektatu ahal izateko, abstrazio, espezialitate maila eta helburu desberdinak dituzten testuak aztertu ditugu: testu didaktikoak (eskola mailakoak eta unibertsitate mailakoak), testu dibulгатiboak (*Elhuyar Fundazioak* argitaratuak, *Egunkaria*, *Berria*) testu entziklopedikoak (*LUR Hiztegi Tematikoa*). Denak gene-ingeniaritzaren ingurukoak, testu mota sorta osoa baitago gai horretaz. Aldakortasuna aztertu dugu testuaren barneko aldaerak konparatuz (azterketa intratestuala) eta testu desberdinen artekoak konparatuz (azterketa intertestuala).

Aurreikusi genuen bezala, normalizaziorik ezarekin loturiko faktoreek azal dezakete corpusean dagoen aldakortasuna¹⁹ neurria handian, bereziki aldakortasun asistematikoa. Hainbat faktorek azal dezakete aldakortasun hori: i) Kode estandarren egonkortasun falta da lehenengo faktorea: estandarra/ez estandarra alternantzia da horren adibide bat (*kate-erreakzioa / katea-erreakzioa*)²⁰; ii) Bestalde, bi indar kontrajarrik sortararazi ohi dute aldakortasuna: batetik, espezialitate-hizkeraren erreferentzia-hizkuntzaren eredu linguistikoarekin izan ohi den menpekotasunak,

¹⁹ Mota desberdinetako alternantziak azaldu zaizkigu azterketa horretan. Freixaren (2003) sailkapen-eredua erabiliz honela sailkatu ditugu: ALDAERA GRAFIKOAK: ortografikoak (*kate-erreakzioa / katea-erreakzioa*), siglen osagaien hurrenkera aldaketak (*ADN /DNA*); gidoi/bereiz alternantziak (*DNA-kate / DNA kate*), termino-sigla alternantziak (*Polimerasaren kate-erreakzioa / PCR*) besteak beste. ALDAERA MORFOSINTAKTIKOAK: (I1/I2 menpekotasunezko / I2/I1) atribuziozko hitz elkartua (*ama-zelula / zelula ama*); I+I izen elkartua/ izlg + izena sintaxi segidak (*zelula-nukleo / zelularen nukleoa*); I+I izen elkartua / izena + erref. izenondoa sintaxi segida (*gene-terapia / terapia geniko*); I+I/ PS+I senkuentzia sintaktikoa (*gene-espresioa/ geneen espresioa*); izen elkartua/errotoria (*landare-hobekuntza / fitohobekuntza*); I-I/ izena +izenondoa /PS+I (*herentzia-gaixotasun/ gaixotasun hereditario/ herentziazko gaixotasun*). MURRIZKETA mota desberdinak: hedapenaren murrizketak (*izaki bizidunak / izakiak*); oinarriaren murrizketak (*izaki bizidunak / bizidunak*); kategorialdaketadunak (*eragile kartzinogeniko / kartzinogeno*); ondarezkoa / mailegua (*zelula hartzaile / errezeptore*). ALDAKETA LEXIKOAK unitate bakunetan: ondarezko bi formen artean (*txertatu / erantsi*); ondarezko forma bakuna/forma konplexua (*hari / harizpi*); ondarezko forma / mailegua (*bektore /garraiatzaile; bizidun / organismo*); ondarezko forma / forma kultua (*obuluernaldu / zigoto*). ALDAKETA LEXIKOAK unitate konplexuetan: aurrizki-aldaketak (*birkonbinatu / berkonbinatu*); atzizki-aldaketak (*klonatzeta / klonaketa*); hitz elkartuaren mugakizunaren aldaketa (*DNA-zati / DNA-segmentu*); hitz elkartuaren mugatzailearen aldaketa (*hazkuntza-ingurune / kultibo-ingurune*). Azkenez, ALDAKETA LEXIKOAK unitate polilexikoetan: oinarriaren aldaketak (*aztarna genetiko / arrasto genetiko*); hedapenaren aldaketak (*aztarna genetiko / aztarna geniko*); *gene* azpirakor /*gene errezesi-bo*; *transkriptasa alderantzikatua / alderantzizko traskriptasa*); oinarriaren eta hedapenaren aldaketak (*bakterio-genoma / bakterioaren DNA;ernaldutako obozitoa / obuluernaldua*).

²⁰ Ezin dugu ahaztu espezialitate-hizkerak euskaraz lexiko batuaren proposamena (Euskaltzaindia 2000) baino lehenago garatzen hasi zirela. Horrek azaltzen ditu neurri handian ikerketutako testuetako estandarra/ez-estandarra alternantziak.

edo autoreek maileguen alde erakusten dituzten preferentziek²¹, eta bestetik, kontrol soziolinguistikoak. Bi indar kontrajarri horien ondorio ohi dira ondarezko forma /mailegua alternantziak (*bektore / garraiatzaile*), baita I+I izen elkartua / izena + erref. izenondoa sintaxi-segida patrioiak (*gene-terapia / terapia geniko*); *iii*) Finkapen falta eta gehiegizko sorkuntza islatzen dituzten alternantziak ditugu: aurrizki- edo atzizki-aldaketak dauden kasuak lexikoaren finkapen faltarekin loturik daude gehien bat (*klonatzeko/klonaketa; birkonbinazio/berkonbinazio*); *iv*) Azkenik, aldakortasuna loturik dago testu-egileen kompetentzia gramatikal eta diskurtsiboarekin ere. Azterketa intratestualak agerian uzten du gaitasun gramatikal eta diskurtsibo oso desberdinak daudela testuen egileen artean. Batzuek gaitasun-hutsune nabarmenak erakusten dituzte eskakizun diskurtsiboei aterabideak emateko orduan. Ikus dezagun, bada, adibide bat: diskurtsoak hala eskaturik, autoreak dependentziatzeko konposatu gisa osatuta dagoen termino konplexu baten elementuak bereizi eta hirugarren elementu bat sartu behar dutenean, zenbait autorek posposizio baten bidez lotzen dituzte, euskaraz ohi bezala (*transmisio-gaixotasunak* baina *transmisio familiarreko gaixotasunak*). Horien ondoan ditugu eskakizun diskurtsiboei aterabideak emateko zailtasunak erakusten dituztenak eta, goiko kasuan, hiru elementudun izen elkartuak sortzera jotzen dutenak (*gene-transferentzi sistema*).

Baina, hipotesietan aurreikusten genuen bezala, aldakortasun horren ondoan, helburu diskurtsiboei erantzuten dien aldakortasuna ere aurkitu dugu azterketa horretan. Testuaren barmeko aldakortasunaren azterketan, besteak beste hurrengo helburu diskurtsiboak betetzen dituzten aldaerak deskribatu ditugu: *i*) hizketa tekniko-zientifikoak trinkotzeko duen joera erakusten diguten patrioiak: terminoa / sigla alternantzia (*Polimerasaren kate-erreakzioa / PCR*) eta murrizketa motak desberdinak (*izaki bizidun/bizidun; izaki bizidun/izaki*), adibidez *ii*) Unitate baten balio terminologikoa ezartzeko erabiltzen diren estrategiak erakusten dizkigutenak: forma baten balio espezializatua azpimarratzeko bere lehen agerketan komatxoak erabiltzea (*Sagu-kume hau terapia geniko baten "eraginpean" dago*), esaterako; *iii*) errepikapena saihesteko, edo argumentazioaren ikuspegia aldatzeko sortzen diren alternantziak (*bakteriogenoma/baterioaren DNA; ernaldutako obozitoa / obulu ernaldua*); *iv*) Testualizatzearen eskakizunen arabera egitura analitikoagoak edo sintetikoagoak erabiltzeko joera sistematikoak erakusten dizkigutenak: I+I/ PS+I senkuentzia sintaktikoa (*gene-espresioa / genearen espresioa*) motako alternantzia dugu horren adibide²².

Bestalde, azterketa intertestualak agerian uzten ditu ezberdintasunak testuaren espezializazio mailaren arabera eta partehartzaileen aditutasun mailaren arabera ere: tes-

²¹ Fenomeno hau testuinguru elebidunetan aztertu da bereziki. Zenbait autoreren arabera fenomeno honek hizkuntzen arteko ukipen-harreman desorekatua islatzen du (Gambier 1987). Guilbert-ek (1973) maileguen preferentzia termino psikosoziolinguistikoetan azaltzen du, eta ohartarazten digu espezialistak askotan nahiago izaten duela mailegatutako forma, bere ustez bakar-bakarrik maileguak transmititu dezakeelako informazio osoa, eta maileguak soilik ekar dezakeelako teknikan eta zientzian berebiziko garrantzia duen aurrerapen-kutsua.

²² Hitz elkartuen mugatzaileak (*gene*) beti izaten du interpretazio generikoa. Beraz, diskurtsoak elementu bat indibidualizatzea eskatzen duenean erreferentziadun PS bat erabiltzen da (*genearen, gene horren*).

tu-egileen diskurtso-komunitatearen arabera, ohitura diskurtsibo desberdinak hauteman daitezke. Gidoi/bereiz alternantzia dugu horren adibide: Euskara batuaren arauak menpekotasunezko izen elkartuak marratxoarekin edo bereiz idazteko aukera zabalik uzten du. Elhuyarren testuetan, zientzialarien testuetako ohitura bera ikusi dugu: marratxoa erabiltzen dute konposatuan harremana mugatzailea + mugakizuna edo mugakizuna + mugatzailea den desenbiguatu behar den kasuetan. *LUR* entziklopediatik eta prentsatik ateratako zenbait testutan, berriz, ez da erabiltzen marratxorik.

Hurbilketa bat baino ez da azterketa hau, baina agerian uzten du euskarazko diskurtso zientifikoaren garapen graduala gertatzen ari dela eta, espero izatekoa zenez, aldaera terminologikoak parametro soziopragmatikoen araberrako banaketa azaltzen hasi direla. Aldi berean, erakusten digu oraindik dispertsio terminologiko handia dagoela eta dispertsio horretan mota desberdinetako faktoreak hartu behar direla kontuan, hurrengo hauek besteak beste: euskararen estandarizazioa eta elabrazioa ia batera gertatu dira, testu-egileek historia soziolinguistikoko oso desberdinak dituzte, adituen arteko harreman-sareak geldoak dira²³ eta egungo terminologia-lanek eta kontrol soziolinguistikokoak dispertsioa areagotzen dute.

3. ONDORIO GISA: ALDAKORTASUNA TRATATZEKO ZENBAIT IRIZPIDE

Sarreran esan bezala, lan hau amaituko dut zenbait irizpide laburbilduz. Corpusaren normalizazioan aldakortasun terminologikoa tratatzeko kontuan izan beharrekoak dira irizpide hauek nire ustez. Irizpide hauetan, eta ondorio gisa, lehen atalean agertu ditudan ikuspuntu teorikoak eta bigarrean azaldu ditudan lan enpirikoaren ondorioak izango ditut kontuan:

1. Normalizazio-jardueraren barruan egiten diren terminologia-lanen helburua, eta aldaera terminologikoak finkatzeko arrazoi eta ardatz nagusia, hurrengo hau izan behar da: espezialitate-alor desberdinen diskurtso-komunitateetako kideek ezagutza espezializatua errepresentatzeko eta komunikatzeko behar dituzten terminologia eta terminologia-produktuak lortzea.
2. Adituek sortutako testuen deskripzioa izan behar da terminologia-lanen abia-burua, baita euskara bezala gutxituak diren hizkuntzen kasuan ere. Adituen testuetan azter ditzakegu gabezia eta behar terminologikoak, baina testuaren azterketak ematen digu aditu horiek garatutako patroi lexiko-diskurtsoen berri izateko aukera ere. Esparru horietako estatusa hobetzeko ezinbestekoak izango dira biak: bai esparru espezializatuetakoa erabiltzaileek behar dituzten terminologia-produktu egokiak diseinatu ahal izateko, eta bai orain arte garatu diren patroi diskurtsiboak finkatzen eta hedatzen laguntzeko terminologia-produktuak diseinatu ahal izateko ere.

²³ Harreman-sare geldoak izateak dakartzan ondorioez aritu gara lehenago Igone Zabala eta biok, Zabala & Elordui (2005) eta Elordui & Zabala (2005) lanetan.

2. Hizkuntza normalizatueta unitate terminologikoak aldakorrak dira, behar komunikatiboen arabera. Normalizazio-jarduerak komunikazio-egoera desberdinetarako aldaera desberdinak beharko direla kontuan hartu behar du: diskurtso mota desberdinen eskakizunak asetzeko aldaera terminologiko sorta osoak izan behar dituzte ikusmiran terminologia-lanek, eta aldaeren balioztatzean dihardutenek ere.
3. Terminologia-lanetan aldakortasuna tratatu ahal izateko, terminoak diskurtsoan aztertzen dituzten deskripzio-lanak behar dira: diskurtsoan terminoek dituzten balio errepresentatibo eta komunikatiboen arabera deskripzioak. Diskurtso-patroi horien deskripzioaren ondorioak garrantzitsuak izan daitezke terminologia finkatzeko eta hedatzeko ahaleginetan: erregulazioa testuinguruaren arabera egiteko aukerara hurbil gaitzakete.
4. Normalizazio-jarduerak, aldakortasun asistematikoa tratatzeko orduan, aldakortasun asistematikoaren saiheste automatikoan baino, aldakortasun horren harmonizazioan jarri beharko lituzke indarrak. Dispersio terminologikoa murrizteko ahaleginak egin behar dira, eta zalantzarik gabe ez-estandarrak eta areago ez-gramatikalak diren aldakiak dauden kasuetan. Baina, aldakortasun asistematikoa tratatzeko orduan gogoan izan behar dugu egungo aldakortasun asistematikoa terminologia-baliabideak lortzeko bidea izan daitekeela, diskurtso-egoera desberdinek eskatzen dituzten terminologia-baliabide askotarikoak izateko harrobia. Gainera eta amaitzeko esan terminologia testuetan (*in vivo*) aztertu ezean, zaila dela esaten asistematikoa den ala ez. Testuan aztertutako terminologiak emango digu (a)sistematikotasunaren berri.

4. BIBLIOGRAFIA

- Bailey, C.-J.N. 1975. "The new linguistic framework and language planning". *International Journal of the Sociology of language* 4, 153-7 or.
- Auger, P. 1994. "Pour un modèle variationniste de l'implantation terminologique dans les entreprises au Québec". In *Colloque sur la problématique de l'aménagement linguistique: Actes du Colloque*, 483-493 or. Quebec: OLF.
- Boulanger, J.-C. 1983. "Synonymie, néonymie et normalisation en terminologie". In Duquet-Picard, D. (arg.) *Problèmes de la définition et de la synonymie en terminologie. Actes du colloque international de terminologie*. 311-327 or. Quebec: Girsterm.
- Cabré, T. 1998. "Elementos para una teoría de la terminología: hacia un paradigma alternativo". *El lenguaje. Revista académica del Colegio de Traductores Públicos de la Ciudad de Buenos Aires*. 1/1, 59-78 or.
- Cabré, T. 1999. *La terminología. Representación y comunicación.: elementos para una teoría de base comunicativa y otros artículos*. Bartzelona: Institut Universitari de Lingüística Aplicada Universitat Pompeu Fabra.
- Cabré, T. 2002. "Terminología y lingüística: la teoría de las puertas". *Estudios de Lingüística del Español*. 16, 1-9. [Interneteko helbidea [http:// elies.rediris.es/elies16/Cabre.html](http://elies.rediris.es/elies16/Cabre.html); 2005-12-2an irakurria].
- Cabré, T. 2003. "Terminología y normalización lingüística" in X. Alberdi eta I.Ugarteburu (arg.) *Espezialitate-Hizkerak eta Terminologia: Jardunaldiak* EHUko Argitalpen Zerbitzua: 11-25.

- Ciapuscio, G. 2003. *Textos especializados y terminología*. Bartzelona: Institut Universitari de Lingüística Aplicada, Universitat Pompeu Fabra.
- Diaz Rojo, J.A. 2001. "La terminología médica: diversidad, norma y uso". *México Interamericano* 20, 34-38 or. [Interneteko helbidea <http://www.icps.org>; 2006-1-15ean irakurria).
- Elordui, A. eta Zabala, I. 2005. "Terminological Variation in Basque. Analysis of texts of different degrees of specialization". *SKY Journal of Linguistics* 18, 71-91 or.
- Euskaltzaindia. 2000. "Euskara Batua". *Euskera* 2000 (2).
- Ferguson, C. 1968. "Language development". In J. Fishman, C. Ferguson eta J. Das Gupta (arg.) *Language problems of developing nations*. New York: Wiley.
- Freixa, J. 2003. *La variació terminològica. Anàlisi de la variació denominativa en textos de diferent grau d'especialització de l'àrea de medi ambient*. Tesi-lana. Bartzelona: Universitat Pompeu Fabra.
- Fishman, J. 1991. *Reversing Language Shift. Theoretical and Empirical Foundations of Assistance to Threatened Languages*. Clevedon: Multilingual Matters LTD.
- Gambier, Y. 1987. "Problèmes terminologiques des pluies acides: pour une socio-terminologie". *Meta*, 32-3, 314-320 or.
- Gaudin, F. 1990. "Socioterminology and expert discourses" in H. Czap eta W. Nedobity (arg.) *Terminology and Knowledge Engineering. Proceeding. Second International Congress on Terminology and Knowledge Engineering. Applications*. 2-4 Oct. 1990. University of Tier, FRG. 2vols. Frankfurt: Indeks Verlag: 631-641 or.
- Guespin, L. 1990. "Socioterminology facing problems in standardization" in H. Czap eta W. Nedobity (arg.) *Terminology and Knowledge Engineering. Proceeding. Second International Congress on Terminology and Knowledge Engineering. Applications*. 2-4 Oct. 1990. University of Tier, FRG. 2vols. Frankfurt: Indeks Verlag: 642-647 or.
- Gutiérrez Rodilla B. 1998. *La ciencia empieza en la palabra. Análisis e historia del lenguaje científico*. Bartzelona: Península.
- Haugen, E. 1983. "The implementation of corpus planning: theory and practice". In J. Cobarrubias eta J. Fishman (arg.) 1983. *Progress in language planning: international perspectives*. La Haya: Mouton.
- Hoffmann, L. 1998 [1978]. *Lenguatges d'especialitat. Selecció de textos*. Bartzelona: Institut Universitari de Lingüística Aplicada, Universitat Pompeu Fabra.
- Neustupny, J.V. 1983. "Towards a paradigm for language planning". *Languages Planning Newsletter* 9.4, 1-4 or.
- Zabala, I. & Elordui, A. 2005. "Euskara zientifikoaren normalizazioa: hizkuntzalarien ekarpena". In J.M. Txurruka (arg.), *Euskera zientifiko-teknikoa: normalizaziotik homologazinora*. Bilbo: Mendebalde Kultur Alkartea. 15-53 or.
- Zabala, I. & Elordui, A. & Martínez, M. 2004. "Las variación terminológica en contextos sociolingüísticos minorizados: el caso de la lengua vasca". *RITERM Kongresua*. Bartzelona (argitara bidean).
- Wichter, S. 1994. *Experten-und Laienwortsätze. Umriss einer Lexikologie der Vertikalität*. Tübingen: Niemeyer.
- Wüster, E. 1998[1979]. *Introducción a la teoría general de la terminología y a la lexicografía terminológica*. M. T. Cabré (arg.) Bartzelona: Universitari de Lingüística Aplicada, Universitat Pompeu Fabra.

Morfologia lexikoa eta hizkera bereziak. *-tzaile* atzizkia: egile- eta tresna-atzizkia*

Antton Elozegi

Euskal Herriko Unibertsitatea

Artikulu honen helburua da *-tzaile* / *-le* atzizkiaren azterketan hainbat aldetatik sakontzen jarraitzea, eta bereziki azken hamarraldi hauetan, testu berezietan izan duen erabilera deskribatu gabeko batzuen berri ematea.

Horretarako, orain arteko gramatikari eta ikertzaileek euskal erator-atzizki hori(en) inguruan esandakotik abiatu, egungo testuetan gertatzen denaren berri ematen eta neurri batean azaltzen saiatuko naiz.

Erabilera denez azterkizun, corpusean, intuizio linguistikoan baino gehiago, oinarrituriko ikerlana da hau. Era guztietako erabilerak, espezialitate-testuetakoak barne, aztertu nahi direnez, eta aldaketaren berri eman dezaketen oraintsukoak, eta zaharragoak, azterkizun direnez, bi alderdi horiek jasotzen dituen XX. Mendeko Euskararen Corpusa (XX. MEC) baliatu dut; hainbat puntu egiaztatzeko Orotariko Euskal Hiztegi eta beste iturri batzuetara ere inoiz jo badut ere.

Corpusetik lanerako behar nituenak ateratzeko metodoa hauxe izan da. Hasteko, bukaeran '*-tzaile*' lema duten guztiak, garai eta mota guztietakoak, eskatu dira, eta emaitza, datu-base batean jaso, 7.273 erregistrokoa (bakoitzak *-tzaile* atzizkidun hitz bat duena) izan da. Datu-basean, XX. Mendeko Euskararen Corpusak eskaintzen dituen testuari buruzko zehaztasun guztiak jaso dira, eta zenbaki korrelatiboa jarri zaio erregistro bakoitzari.

Kopuru handiegia zenez, %30era murrizteko, zenbakiaren azken digitua, ausaz, 2, 5 edo 8 zutenak hautatu dira. 2.164 testu bereizi dira horrela.

Ondorengo lana, datu-basea eremuz hornitzea, eskuz egin behar izan da. *-tzaile* atzizkia duen hitzarekin batera, izen bat laguntzen duen izenondoa dela sumatu denean, izen hura ere jaso da, eta atributua denean, predikatzen deneko izena. Halaber, elkarte sintetiko baten osagai dela ikusi denean, elkarte osoa jaso dugu.

Ondoren, lema eta kategoria berdinekoak izanik testuingurua ere antzekoak zituztenak alde batera utzi eta, eragiketa horien ondoren, hasierako corpusa 812 erregistro desberdinetara murriztu dut. Halaz eta guztiz ere, datu-basean landu gabekoak ere gorde izanak ahalbideratu dit bilaketa osagarri batzuk egitea. Gainera bilaketa osagarri horien bidez egiaztatu ahal izan da hautaturiko %30 osotasunaren ordezkari ona zela, oso hitz gutxi geratu direlako kanpoan.

1. ABIAPUNTUA, LAN HIPOTESIA: BIBLIOGRAFIA

Lan honen abiapuntua, aurreko aztertzaileek egin dituzten deskribatze- eta azaltze-lanak izan dira. Ez dira ugariegi *-tzaile* atzizkia aztertu duten lanak. Nire uste apalean, garrantzitsuenak honako hauek lirake: Azkue (1923), Villasante (1974), eta Lafitte (1962) gramatikari “klasiko” deitu ditzakegunen artean, eta Azkarate (1991, 1995), Gràcia et al. (2000), eta Artiagoitia (2003), berriagoei dagokienez.

Nolabait laburbilduz azterlan horietan esandakoa, honako puntu hauek nabarmenduko ditut lana honen xedetarako:

- a) Hainbat (*-la*; *-tzaila*, *-tzale*, *-zale*, *-tale*) forma desberdineko atzizkiaren batasunaz eta banaketaz idatzitakotik, ideia orobiltzaile gisa hartuko dut funtzionamenduari eta esanahiari dagokienez atzizki bakarra balira bezala har daitezkeela; horretaz, ‘*-tzaile*’ atzizkia aipatzen dudan bakoitzean, forma haien guztien ordezkariatzat emango da.
- b) *-tzaile* atzizkia nagusiki izen-sortzailatzat jo dute, baina izenondoak sortzeko gaitasuna ukatu gabe.
- c) Atzizki honen oinarriko hitzaren kategoria gramatikala den bezainbatean, aho batez onartu da aditzoina dela.
- d) Aditzoin horren motari buruz, bi (edo hiru) argumentudun aditzei erantzen zaiela esan da, salbuespenak badaudela aitortuz.
- e) *-tzaile* atzizkia aditzoin bati erantsitakoan eratzen den hitzaren azpikategoriaz, oro har onartu da *+egile +bizidun* hitzak sortzen dituela

2. -TZAILE ATZIZKIDUN HITZEN KATEGORIA GRAMATIKALAZ

2.1. Izenen eta adjektiboen agerpenak

Autore gehienek, izenak eratzeko atzizkia dela esan dute, izenondoa ere izan daitezkeela ukatu gabe, baina Gràcia et al. (2000:492) liburuan azpimarratzen da *-tzaile* eratorriek izen eta adjektibo kategoriak oso modu zabal eta egonkorrean izaten dituztela.

Jakina da izen eta izenondo kategoriak kasu askotan ez direla garbi bereizten, eta are gehiago, izenondoak askotan izen bezala erabiltzen direla, baina trukagarritasun horrek mugak ere izaten dituela.

Lan honetan, izentzat hartuko dira aditz baten argumentu gisa joan daitezkeenak, edo postposizio baten oinarri modura ager daitezkeenak. Izenondoak, aldiz, izen baten adjuntu gisa hura modifikatuz, edo predikatu baten atributu funtzioan doazenak izango dira.

Hona landu den corpusaren emaitzak:

- A) Izen kategoriakoak: 377
- B) Izenondo kategoriakoa *iz* + *izond* egituran: 276.
- C) Izenondo kategoriakoak atributu funtzioan: 159 agerpen.

2.2. *-tzaile* eratorrien kategoria XX. mendeko garaien¹ arabera:

Hona, 1. taulan, hautaturiko corpusean, mendea banatu den bi aldietan, izenek eta izenondoek dituzten agerpenen kopuruak:

1. taula

Aldiak	Izenak	Izenondoak (iz+izond)	Izenondoak Atributu	Guztira
1900-1968	70	15	32	117
1969-1999	307	261	127	695
Guztira	377	276	159	812

Nabarmen agertzen da 1968 arteko aldiari, izen kategoriako *-tzaile* eratorriek nagusitasun handia dutela agerpen guztiekiko: 70 / 117, hau da %60 dira; eta, aldiari, 1969tik mendearen azkenera arte, gutxiengoa dira: 307 / 695 = %44,1.

Txanponaren beste aldean, izenondoaren alderantzizko aldaketan dugu: %40 lehen aldiari eta %56 bigarrean. Izenondoetan, izenaren adjuntu gisa, 1968 arte 15 / 117 = %12, eta 1969-1999 tartean 261 / 695 = 37,5; eta atributu moduan: 32 / 117 = %27,3 1969 arte, eta 127 / 695 = %18,3 bigarren denboraldian.

&Lan honen corpuseko agerpen desberdinak bakarrik kontuan hartu badituzte, eta maiztasunak landu ez badira ere, ondoriozta daiteke *-tzaile* eratorriak adjektibo moduan erabiltzea ez dela berria, baina adjektibo erabilera horrek nabarmen egin duela gora dela azken hamarraldietan.

Adjektibo horien motari buruz, salbuespenak ukatu gabe, esan daiteke izenondo kalifikatzaileak erreferentzialetatik bereizteko erabiltzen diren ezaugarriak betetzen dituztela.

Alde batetik graduatzailea onartzen dute, testuko adibide hauek erakusten duten bezala:

(1) *behartzaileago, billatzaileago, ekintzaileago, gordetzaileago, libratzaileago, integratzaileago*

Bestetik, izen abstraktuak eratzeko atzizkiak har ditzakete; corpusean adibide bakarrean (bozemailetasun) gertatu arren, ez dirudi ezintasunik legokeenik horrelakoak eratzeko. Eta predikatuan ere joan daitezke, gehien-gehienak.

¹ XX. MECn bereizten diren lau garaiak (1900-1939, 1940-1968, 1969-1990 eta 1991-1999) ia beti dikotomia argi bat erakusten dutenez, hau da, mendearen hasieratik 1968 arteko aldiari nahiko homogeneo agertzen dela, alde batetik, eta 1969tik bukaera artekoa ere gauza bera bestetik, binaka bildu dituzten garaioak.

Ondorio orokor gisa esan daiteke alde batetik Gràcia et al. (2000)-en azterketa guztiz egiaztatzen dela corpusean, alegia, *-tzaile* atzizkidun hitzak izenondo zein izen izan daitezkeela, eta bestalde, izenondoak sortzeko joera asko indartu dela azken urteotan.

3. *-TZAILE* ATZIZKIDUN HITZAREN OINARRIAZ

3.1. *-tzaile* eratorrien oinarri izan daitezkeen aditzoinak

Badirudi salbuespenik gabe egiaztatzen dela corpusean gramatikariek aho batez esan izan dutena: aditzoina da *-tzaile* atzizkidun hitzaren oinarria.

Esan behar da, hala ere, XX. Mendeko Euskararen Corpusean badirela, *-tzaile* bukaera daukaten lemen artean, besterik iradoki dezaketen ale ilun batzuk, zeinetan ez baita erraz igartzen *-tzaile* edo *-zale* den osagaia².

Halaber, esan da bi (edo hiru) argumentuko aditzek soilik onartzen dutela *-tzaile* atzizkia, eta baieztapen hori ere bermatuta agertzen da corpusean, baina hainbat ñabardura egin dakioko. Ezaguna da Mitxelenak Villasanteri egindako oharrean zioela aditza iragankor izatearen araua ez zela erabatekoa Iparraldean.

Gramatika sortzaileak Perlmutter-*ez* geroztik erabiltzen duen aditz iragangaitzen sailkapena baliatuz hobeto ulertzen dira aditz batzuen eta besteen jokabide desberdinak. Azkaratek (1995:42) dioen bezala aditz horiek, inergatiboak izaki, betetzen dute *-tzaile* atzizkiak galdatzen duen baldintza: lotzen zaion aditz oinarriak kanpo-argumentua behar du.

Corpusean³ agertzen dira horrelako bakan batzuk:

(2) *ibiltzale* (?), *joaile*, *mintzatzaile*

Badira bestalde, corpusean *-tzaile* eratorriak, aditz mailegatu inergatiboen gainean eraikiak, argumentu bakarrekoak izan arren laguntzaile diadikoa dutenak:

(3) *biratzaile*, *eskiatzaile*, *emigratzaile*, *migratzaile*, *mutatzaile*, *oszilatzaile*, *zirkulatzaile*

Horrelakoak, gauza ezaguna da, oso ugari daude: erdal aditzak mailegatzekoan, Alberdik (2001) dioen bezala, inguruko erdaretan *se* klitikorik ez duten aditz iragangaitz agentedunak joera handia baitute *du* laguntzailea hartzeko. Hor-taz, horien gainean *-tzaile* atzizkidun hitzak eratzeko ez dirudi inolako mugarik dagoenik.

² Gehienak mendearen hasierakoak dira. Nahaste horren arrazoietakoa bat da *-zale* izatea aztertzen ari garen atzizkiaren forma zabalduena (Lafitte 1962:209), lapurtera-behenafarreran.

³ OEHN sakoneko bilaketarik egin beharrik gabe: *barurtzaile* (*da ad.*), *dantzatzaile* (*da ad.*), *egoile*, *igerikatzaile*, *etorle*, *jile*, *joaile*, *paseatzaile*, *saltatzaile*,

Eta azkenik, badira *egin*-ekin egiten diren inergatiboetatik eratorritakoak, mu-
rriztapenik gabe har dezaketenak *-le (-tzaile)* atzizkia, baina ez dago horrelakorik
corpusean.

Esan dezakegu, hortaz, azterturiko corpusak berretsi egiten duela Azkaratek
(1995:42) formulatutakoa, alegia: *-tzaile* eratorriak, kanpo-argumentua (agente
zein esperimentatzaile) duten aditzen gainean eratzten direla, hau da, iragankorren
zein iragangaitz inakusatiboen gainean⁴, baina azterkizun legokeela noraino izan
daitezkeen emankorrek euskalki batzuetako *joaile*, *egoile* eta antzekoak.

3.2. *-tzaile* eratorrien oinarriaren aspektu lexikoaz

Aipamen laburra besterik ez bada, esan dezagun oinarriko aditzen aspektu
lexikoari dagokionez, corpusean Vendler-en araberako lau aspektuetako aditzak
aurki ditzakegula *-tzaile* eratorrien oinarri.

- A) Egoera-aditzak: *isolatzaile*, *dominatzaile*, *osatzaile*, *gordetzaile*
- B) Jardun-aditzak: *zaintzaile*, *ordenatzaile*, *harrikatzaile*
- C) Lorpen-aditzak: *jasotzaile*, *azaleratzaile*, *korotzaile*
- D) Gauzatze-aditzak: *eraikitzaile*, *birrintzaile*

Esan behar da bestalde, ez aditza baizik izen deberbala izateak, neurri handi
batean lausotu egiten duela aspektuaren ezaugarria.

Gure behaketa xume honek berretsi besterik ez du egiten Gràcia et al.
(2000:494) liburuan esandakoa. Halaz eta guztiz ere, azterketa sakonago batek
eman dezakeena ikusi arte ezin daiteke esan oinarritzko aditzaren aspektu nagusiak
-tzaile eratorrien eraketa baldintzatzen duen edo ez.

4. -TZAILE ERATORRIEN KANPO-ARGUMENTUA +BIZIDUN?

4.1. Planteamendua

Atal honetan eta hurrengoetan hainbat gai aztertuko dira *-tzaile* eratorriaren
oinarriko aditzaren kanpo argumentu subjektuaren azpikategoriaren inguruan.

Lehenik eta behin, abiapuntu harturik honen aurreko lanetan gaiari buruz esan-
dakoa, corpuseko emaitzekin alderatuko dut, beste aztergaiekin egin bezala.

-Tzaile atzizkiaz arduratu diren gramatikari klasikoen artean, badirudi gauzak
argi zeudela oinarri-aditzaren subjektua pertsona edo biziduna zela esaterakoan.
Honela, Azkuek *-tzaile* atzizkia “*Derivativos nominales agentes*” izeneko atalean
sartzen du; Lafittek “*Marque l’agent*” dio, eta Villasantek horrela deskribatzen du:

⁴ Corpusean azaltzen dira, hain zuzen, Azkaratek ezinezkoen adibidetzat ematen dituen bi aditzetik
(gertatu, agertu) eratorritako *-tzaile*duak baina salbuespenezkoak izateaz gain, oso interpretazio ilune-
koak dira inolako ondorioz ateratzeko.

“*Nombre agente de todos los verbos transitivos*”. Azken honen ‘agente’ hitzak zer esan nahi zuen zehazki ez dakigu, baina Villasantek proposaturiko adibide guztietan agenteak bizidunak dira.

Azkaratek aztergai berriak plazaratu ditu puntu honi buruz. Argitaratu gabeko lan batean, 1991ean, zioen *-tzaile* eratorria beste izen baten eskuinera agertzen denean “*“ia izenondo-funtzioa hartuz”, ‘egile’ adiera gordetzen dutela, baina eztabaidatzekoa dela sortzen den izena (izenzat hartu behar bada) [+gizakia] den ala ez.*”

Urte batzuk geroagoko lanean egile berak (Azkarate 1995-43) dio, ingelesezko *-er* eta espainierazko *-dor* atzizkiek ez bezala, euskaraz joera dela «“*agenteak*” adierazteko *-tzaile* atzizkia erabiltzea, eta tresnak izendatzeko *-garri Mendebalean, eta -gailu Ekialdean*».

Baieztafen hori XX. Mendeko Euskararen Corpusean egiaztatu nahi izan dut, eta emaitzak, ondoren ikusiko denez, hainbat puntualizazio egiteko bidea ematen du.

4.2. Corpuseko kopuruak

Ondoko taulan ikus daitezke lan honen corpuseko *-tzaile* eratorrien kategoriak \pm bizidun azpikategoriaren arabera banatuta.

2. Taula

	Izena		Izena izenondoa		Izenondo atributua	
	+ bizidun	-bizidun	+ bizidun	-bizidun	+ bizidun	-bizidun
1900-1968	67	3	6	9	22	10
1969-1999	240	67	56	205	94	33
Guztira	307	70	62	214	116	43

2. taulak honek nabarmen erakusten duen gauza da +bizidun azpikategoriakoak ugariena badira ere⁵ -bizidun azpikategoria oso kopurutsua dela *-tzaile* eratorrietan,

Bizidunak (barne hartuta bizidunen multzoak eta pertsonifikatutzat eman diren erakundeak), kategoria gramatikal guztiak barne, 485 dira corpusean. Bizigabeak,

⁵ Kontuan izan behar da lan honetan ez dudala kontuan hartu hitz bakoitzaren erabilera-maiztasuna. Kontuan hartuz gero, +bizidunen nagusitasuna erabatekoa izango litzateke. Zalantzarik gabe, kasu gehienetan *-tzaile* eratorriak +bizidun dira.

mota guztietakoak (gauza fisikoak eta tresnak, izaki abstraktuak eta sailkagaitzak) bildurik, 327 dira.

4.3. *-tzaile* atzizkidun hitzaren kategoriaren eta aditzoinaren subjektuaren \pm bizidun azpikategoria

Puntu labur honetan corpusean aurkitutako korrelazio baten berri eman nahi da: *-tzaile* atzizkidun hitzaren kategoria izena izatearen eta aditzoinaren subjektua +bizidun azpikategoriakoa izatearen artean dagoena.

Aurreko taulako (2.) kopuruak begiratuz, korrelazio nabarmen bat agertzen da. Alde batetik, izen kategoriakoak hein handi batean +bizidun dira, %81, eta oso txikian -bizidun (%19); eta bestetik, izenondo kategoriakoak izaki izen baten adjuntu gisa doazenak alderantzizko proportzioak daukate: %77 -bizidun eta %23 +bizidun. Izenondo izaki, atributu funtzioan doazenetan, berriz, proportzioak zeharo aldatzen dira, 43/ 159, hau da %27 (izenen kasuan dagoenaren antzekoa). Kontuan hartzekoa da, gainera, atributu funtzioan agertzen diren guztiei izenondo kategoria egotzi diegula, baina asko eta asko izentzat ere eman daitezkeela.

Interpretatzen saiatuko ez naizen korrelazio hori bat dator gorago aipatu den Miren Azkarateren aipuan esaten denarekin, alegia “*ia izenondo funtzioa*” hartzen dutenean eztabaidagarria dela bizidunak diren (eta izenak diren).

5. -TZAILE ERATORRIA IZEN BIZIGABEA DENEAN

5.1. Agentea eta tresna

Inguruko hizkuntzetan, oso emankor diren egile- edo tresna-atzizkiak: (*-dor* (espainieraz, katalanez,) *-(t)eur* (frantsesez), *-er* ingelesez edo nederlanderaz) lan ugariren aztergai izan dira morfologia lexikoan. Euskarazko *-tzailek* aipatu atzizkien antza handia erakusten duenez, hemengo ikertzailleek ere lan horiek hartzen dituzte erreferentziatzat.

Lehenik eta behin, *-tzaile* eratorrien balioa nagusiki agente izatera mugatzen ote den auzia argitze aldera, gogora dezagun Gràciak (1994-29), Benveniste aipatuz dioela izen bat agente gisa edo tresna gisa interpretatzea ez dela kontu linguistiko soila; zenbait kanpo-faktoreren (pragmatiko zein kulturalen) baitan dagoena baizik: une batean pertsona baten eginkizuna dena beste une edo tokian “tresna” batek egin dezake. Autore berari jarraiki (Gràcia, 1995-56) Marantz-engandik datorren bereizkuntza bat kontuan hartuko dut: tresna-izenen artean “*facilitating instruments*” (ekintza bat egitea bideratzen dutenak, baina ekintza modu autonomoan egin ezin zezaketenak) eta “*intermediary instruments*” (nolabait ekintza modu autonomoan egin dezaketenak) bereizten dituena.

5.2. Corpusean daudenak

Aurrerago ikusten genuen corpusean *-tzailedun* izenaren oinarrian dagoen aditzaren subjektua biziduna dela kasu gehienetan, baina ugari direla (%19) subjektu bizigabea dutenak. Honako 60 hauek daude landutako corpusean.

(4) <i>absorbatzaile</i>	<i>testu-antolatzaile</i>	<i>osasun adierazle</i>	<i>baldintzatzaile</i>
<i>berretzaile</i>	<i>berretzaile</i>	<i>biderkatzaile</i>	<i>determinatzaile</i>
<i>dilatatzzaile</i>	<i>diskriminatzaile</i>	<i>disolbatzaile</i>	<i>ebakitzzaile</i>
<i>eragile</i>	<i>eragile</i>	<i>erdiabatutzaile</i>	<i>erdibitzzaile</i>
<i>erdibitzzaile</i>	<i>ernatzaile</i>	<i>estimatzaile</i>	<i>finkatzaile</i>
<i>galdetzaile</i>	<i>hartzaile</i>	<i>hormona- hartzaile</i>	<i>min- hartzaile</i>
<i>hestekatzaile</i>	<i>indikatzzaile</i>	<i>inhibitzaile</i>	<i>isolatzaile</i>
<i>izendatzzaile</i>	<i>izendatzzaile</i>	<i>txori-izutzzaile</i>	<i>petrola karreatzale.</i>
<i>katalizatzaile</i>	<i>uger kentzaile</i>	<i>koloratzaile</i>	<i>irteera-kontrolatzaile</i>
<i>laguntzaile</i>	<i>laguntzaile</i>	<i>lurrin banatzaile</i>	<i>markatzaile</i>
<i>tumore- markatzaile</i>	<i>mugiarazle</i>	<i>nutritzaile</i>	<i>operatzaile</i>
<i>ordezkatzaile</i>	<i>ordezkatzaile</i>	<i>aro- osatzailea</i>	<i>oxidatzaile</i>
<i>sinbolizatzaile</i>	<i>tumore- sortzaile</i>	<i>amorio- suspertzaile</i>	<i>termostatizatzaile</i>
<i>traumatzaile</i>	<i>berbaldi- xahutzzaile</i>	<i>tentsio- zatitzaile</i>	<i>ukitzaile</i>
<i>zatitzaile</i>	<i>zenbakitzaile</i>	<i>zenbatzaile</i>	<i>tiro- zuzentzaile</i>

5.3. Ezaugarri kronologiko-pragmatikoak

Denak 1969z gerokoak dira, bat izan ezik. Esan daiteke gehien-gehienak berriki eraturikoak direla, eta askotan erraz igar daiteke zein erdal hitzen ordainetan moldatu diren: maileguzkoak ez badira, kalkoak dira gehienak. Bizpahiru izan ezik, edo hizkera bereziren bateko testuinguruan datoz, edo gutxienez, adiera espezializatukoak dira; ia gehienei ipin dakieke Kim., Mat., Bio., edo antzeko markaren bat.

Batzuk sail sistematikoetakoak dira:

- A) Matematikakoak: *berretzaile*, *biderkatzaile*, *izendatzzaile*, *zenbatzaile*, *zenbakitzaile*, *zatitzaile*, *ebakitzzaile*, *erdibitzzaile*.
- B) Gramatikakoak: *determinatzaile*, *laguntzaile*, *mugatzaile*, *graduatzzaile*, *mugatzaile*, *erakusle*, *zenbatzaile*.

5.4. *-tzaile* atzizkidun izen bizigabeak tradizioan. Ohar xumea

Aurreko ezaugarriek iradokitzen bide dute azken hamarraldietako berrikuntza baten aurrean gaudela, baina ondorio hori zuzena den egiaztatze aldera, ikerraldi arin bat egin dut Orotariko Euskal Hiztegiaren corpusean. Labur-labur azalduko ditut emaitzak.

Leizarragarengan esaldi batean (6) badira hiru *-tzaile* atzizkidun, zeinen erator-oinarriaren aditzaren subjektua bizigabea baita:

- (5) *Debozinoa berrretzen eta iratzartzen baiterauku, halatan iratzartzaille, orhoitzaille, eta egiazko Sainduen representatzaille bezala ohoratzen eta adoratzten ditugu imajinak.*

Axularren bi pasartetan ere (7), badirudi horrelakorik topatzen dela:

- (6) a. *Eta eztu hark egurrik ere behar, eta ez aitzinatzaillerik.*
b. *Zeren ezpaitugu orai; lehen bezala, iratzartzailerik eta geure eginbi-dearen eragillerik.*

Orotariko Euskal Hiztegian egindako bilaketak ere ale batzuk eman ditu.

Kasu batzuetan, definizioan erabiltzen den formulak aditzera ematen du oinarri-aditzaren subjektua bizigabea ere izan daitekeela:

- (7) a. *Batzaile: el (lo) que recoge*
b. *Bet(e/a)tzaile: (lo) que llena, cubre, satisfice*

Beste batzuetan, definizioak edo adibideak adierazten du bizigabetasuna hori:

- (8) *Eragile, emendatzaille, erakusle,*

Gaurko gramatika-lexikoan ugaritu diren *-tzaile* eratorri bizigabeek ere badute aurrekaririk Archuren *Bi mihiren gramatikan* irakur daitekeen *erakusle* hitzean. Badira beste hainbat, Larramendik sortu edo haren eraginez XIX. Mendean agertzen direnak.

Tradizio sendorik ez bada ere, esan daiteke XX. mendean sartu baino askoz lehenago ez zela debeku *-tzaile* eratorri bizigabea, tresna izan edo agente inper-sonala izan.

5.6. *-tzaile* / eta *-gailu* / atzizkien arteko lehia

Gorago aipatutako pasartean Miren Azkaratek (1995-45) dio tresna-izenak eratzeko *-garr*i eta *-gailu* atzizkietara jo duela euskarak eta xede horretarako *-gailu* orokortu dela hizkera estandarrean. Corpusean ikusi ondoren tresna-izentzat jo daitekeen *-tzaile* eratorri asko samar agertzen dela, ondorengo lerroetan saiatuko naiz azaltzen bi atzizkien erabileren arteko zenbait parekotasun eta desberdintasun.

5.6.1 *-gailu* atzizkidun hitzak XX. Mendeko Euskal Corpusean

Orain artekoan erabili ditugu bi aldietan *-gailu* eratorriek honelako agerpen-kopuruak ematen dituzte:

1900-1968: 26 agerpen
1969-1999: 1.210 agerpen

Lehen aldiko 26ak agepenetatik sei bakarrik dira desberdinak (*artagailu*, *eder-gailu*, *harrapailu*, *jostailu*, *ongailu*, *sendagailu*), eta horietan bakar batek (*jostailu* hitzak) beteko luke “tresna”-ren definizioa⁶, besteak oro har, aditzak adierazitako ekintza eragiten duten baliabide gisa hobeto defini daitezke eta.

Beste aldetik, aztertu ez ditudan bigarren aldikoetan esan behar da erdiak baino gehiago (garai bereko *-tzaile* eratorriek bezala) jatorria dutela “saio artikulua”, “saio liburu” edo “ikerketa lan” motetako testuetan. Horrek pentsarazten du, haiek bezala, berriak direla eta antzeko ezaugarri pragmatikoak izango dituztela.

5.6.2. *-tzaile / -gailu bikoteak xx. Mendeko Euskararen corpusean*⁷

3. taula

<i>-tzaile</i>	<i>-gailu</i>
ebakitzaile	ebakigailu
estekatzaile	estekailu
eusle	euskailu
gordetzaile	gordailu
hartzaila	(?) hargailu
isolatzaile	isolagailu
markatzaile	markagailu
ordenatzaile	ordenagailu
sortzaile	sorgailu
zatitzaile	zatigailu
zuzentzaile	zuzengailu

Bikote batzuetako aleak elkar trukagarri badira ere, beste batzuk ez dirudi hain erraz ipin daitezkeenik bata bestearen tokian. Hala *-tzailedunak* nola *-gailudunak*, ordea, erdal *-dor* eratorrien ordain izan daitezke. Ezkerreko zutabeko gehienek, ‘tresna’ edo ‘baliabide’ adieraz gainera, ‘agente’ adiera har dezakete bizidun bati erreferentzia egiten diotenean.

⁶ Azkaratek berak 1991ko lan argitaragabea, *-gailu* eratorri “zaharren” adibideak ematen dituenean ohartarazten du tresna adierazten ez dutenak ere badaudela. Nire ustez, hark proposatutako zerrendako gehienak tresnaren definiziotik kanpo geratuko liriateke.

⁷ Hiztegieta (OEH, ELH) beste bikote batzuk ere aurki daitezke.

5.6.3. -gailu eta -tzaile eratorriak elkarte sintetiko batean doazenean.

Hainbeste aldiz aipatu den lanean Azkaratek (1995:47) eztabaidatzen du zein izan daitekeen azalpenik hoberena *su-itzalgailu*, edo *erropa-garbigailuren* gramatikaltasunarentzat eta * *suaren itzalgailu* edo **arroparen garbigailuren* agramatikaltasunarentzat. Eztabaidagai horretan sartu gabe, haren gogoetak beste xede baterako erabiliko ditut: -*gailu* eta -*tzaile*-ren jokabide desberdinak azpimarratzeko.

Izan ere, corpusean badago adibide multzo aski hornitu bat zeinean -*tzaile* eratorria, oinarriko aditzaren barne argumentua den izen bizigabe batekin elkarturik datorren:

(9) *uger kentzaile, tumore- markatzaile, testu-antolatzaile, hormon- hartzaile, tumore- sortzaile, tiro- zuzentzaile, lurrin- banatzaile, tentsio- zatitzaile, amorio- suspertzaile, petrola- karreatzaile, berbaldi- xahutzaile, min- hartzaile, txori-izutzaile, osasun adierazle*

Nire ustez, -*gailu* eratorrietan ez bezala, (9)ko eratorrien oinarriko aditzaren barne argumentua sintaxian ere gauzatu daiteke, esanahia ez-ebentibotik ebentibora aldatzen bada ere:

(10) a. *uger-kentzailea* >> *ugerraren kentzailea*
 b. *tumore-markatzailea* >> *tumore(ar)en markatzailea*.

Gainera, elkarte sintetikoetan agertzen diren eratorri -bizidun horiek, interpretazio ebentiboa zein ez ebentiboa izan dezakete, +bizidunek bezala.

Beste aldetik, -*tzaile* atzizkidunak -*gailu* atzizkiarekin eratutakoak ez bezala, izen zein adjektibo izan daitezke, ondorengo atalean ikusiko den bezala.

6. -TZAILE ERATORRIA IZEN LAGUNTZEN DUEN IZENONDOA DENEAN

Aurrerago esan dugun bezala, Gràcia et al. (2000) liburuan irakur dezakegu -*tzaile* eratorrien adjektibo kategoria guztiz zabaldu eta egonkortzat eman dehar dela. Baina liburu horretako lerro guztiz zehatz baina labur batzuez at ez dugu ezagutzen -*tzaile* adjektibo eratorriei buruzko azterlanik. Corpusa arakatzeko ondoko horien presentzia oso kontuan hartzeko dela oharturik, bertako datu batzuk azaldu nahi nituzke atal honetan.

Esan bezala, bi funtziotan ager daiteke -*tzaile* eratorri adjektiboa: modifikatzen duen izen baten eskuinean, izenondo gisa, eta, atributu funtzioan. Bigarren multzokoek izenaren antzeko ezaugarri batzuk erakusten dituztenez, izen bizigabea laguntzen duten izenondoak aztertzeraz mugatuko naiz hemen, erraz beharrez.

6.1. Kopuruak eta agerpen garaien arabeko ezaugarri batzuk

Corpusean aurkitu ditugunak honela banatzen dira garaietan:

3. taula

Izena + izenondoa			
	+ bizidun	-bizidun	
1900-1968	6	9	15
1969-1999	56	205	261
Guztira	62	214	274

Nabarmena da, lehenago iruzkindu dugun bezala, bi garaien arteko desoreka: *-tzaile* eratorria izenondoa biderkatu egiten da bigarren aldian. Erabilera gehienbat berria da, aurreko garaietan debeku ez bazen ere.

Zein testu motatan agertzen diren *-tzaile* eratorriak izenondo modura galdetzen badugu, erantzuna izango da gehiengo handia, %71, espezialitate-testuak eduki izan ohi dituzten generoetan⁸ aurkitzen dugula. Bizigabeetan are gehiago, ehuneko hori %77ra iristen da.

6.2. Argumentu-egitura eta semantika

Izenondoak kanpo argumentu bat daukate, hark adierazten duen ezaugarria jasotzen duena. Aditzetik eratorritako adjektiboa denean, argumentu hori oinarriko aditzetik heredatzen da; horrek esan nahi du izenondoaren argumentu hori oinarriko aditzaren kanpo argumentua edo subjektua dela.

Iz + -tzaile izond segidaren balio semantikoa honelakoa izaten da oro har: N V-tzen duena

(11) *Jainko askatzaile = Jainko askatzen duena (askatzen duen Jainko)*

Gainerako *-tzaile* eratorriek bezala, izenondoek ere balio aktiboa daukate gehien-gehienetan. Balio aktibo hori, agente modura edo baliabide zein tresna gisa gauzatu daiteke.

Begira dezagun zer gertatzen den *-tzaile* izenondo eratorriaren kanpo argumentua izen + *bizidun* edo *-bizidun* den arabera.

6.2.1. Interpretazio semantiko 'arauzkoa' onartzen dutenak

Izan bizidun baten adjuntu diren *-tzaile* izenondoetan ia arazorik gabe aplika daiteke "N Vtzen duena" eskema.

⁸ Horrelakotzat jo ditut ondorengo testu mota hauek: administrazioa, ikasliburuak, ikerketa-lanak, eta saio artikulua zein liburuak. Espezializazio gabeko hizkera orokorraren ordezkariagotzat eman ditut poesia, antzerkia, literatur prosa, haur eta gazte literatura, zein egunkariak eta aldizkariak.

Batzuetan balio ebentiboa izango du, benetan hori egin duena (12a) besteetan, berriz, hori egiteko funtzioa (12b) edo joera (12c) duena, edo egoera-aditza bada, ezaugarri horren jabe dena (12d):

- (12) a. *haur erasotzaile, enpresa lizitatzaile,*
 b. *neska zaintzaile, sailburu koordinatzaile, enpresa hornitzaile, entitate erregulatzaile*
 c. *haur erasotzaile, kristau iraultzaile, aristokrazia menderatzaile, larba migratzaile*
 d. *narratzaile orojakile*

Corpuseko +bizidunetan kasu guztietan eskema betetzen dela dirudi; baina -tzaile izenondo eratorria izen bizigabe baten ondoan hura kalifikatuaz doanean, gauzak zailago bihurtzen dira eskema horretan sartzeko.

-tzaile adjektiboak laguntzen duen izena zerbait fisikoa denean (tresna, makina, gorputz-atala...) edo testua nahiz testu baten atala arazorik gabe sartzten dira aurreko esanahietan:

4. taula

Tresna / makina	Substantzia, produktua	Gorputzaren (edo izaki bidunaren) atala
<i>tresna neurtzaile</i>	<i>substantzia koloratzaile</i>	<i>muskulu hurbiltzaile</i>
<i>pirheliometro erregistraztaile</i>	<i>produktu desunfektatzaile</i>	<i>aho-aparatu miazkatzaile</i>
<i>ispilu distortsionatzaile</i>	<i>material isolatzaile</i>	<i>pabilioi bibratzaile</i>
<i>paper xurgatzailea</i>	<i>partikula kutsatzaile</i>	<i>alelo gainartzaile</i>
<i>ziri isolatzaile</i>	<i>ur purifikatzaile</i>	<i>organo zupatzaile</i>
<i>erloju konparatzaile</i>	<i>usain xahutzaile</i>	<i>mintz mugitzaile</i>

Esanahi horiek ez dira hain gardenak, baina eskema beretan sar ditzakegu corpusean aurkitutako beste batzuk, behain-behingo honako multzoetan bildu direnak:

5. taula

Testua edo testu atala:	Indar, ahal, ekintza...	Gramatika-elementua
<i>idazti argitzaile</i>	<i>Indar bateratzaile</i>	<i>Aditz laguntzaile</i>
<i>testu arautzaile</i>	<i>Indar irauktzaile</i>	<i>Forma laguntzaile</i>
<i>hitz sustengatzaile</i>	<i>Ekintza erregulatzaile</i>	<i>Kopula biltzaile</i>
<i>xedapen indargabetzaile</i>	<i>Mugimendu irauktzaile</i>	<i>Adejtibo nolakotzaile</i>
<i>oinarri erregulatzaile</i>	<i>Ahal kreatzaile</i>	

Eta corpusean aurkitutako beste asko ere, nahiz eta esan daitekeen, izen bizidunetik eta gauza fisikotik urruntzen garen heinean, interpretazioaren gardetasuna lausotu egiten dela:

(13) *antze orotzalle, ezaugarri bateratzaile, giro estaltzaile...*

6.2.2. Interpretagaitzak

Aurrekoen bidetik, badira batzuk, ia edozein parafrasi ohikotik ihes egiten dutenak:

- (14) *a. indukzioa, aztertzea,(...), metodo arrazonatzaile horren funtsezko kondizioak dira.*
c. forma ezartzaile duen poema hibaia halako bizia!
d. oso konbentzio narratzaile arruntak erabiliz
e. 2. art. iturri eta hierarkia arautzaileak.
f. horixe da beste bi ardatz normalizatzaileekin duen alde

Arauzko moduan parafraseatuz (a)-k “metodoak arrazonatzen du” edo “arrazonatzeko den metodoa”, emango luke, baina ez da hori (eman nahi zaion) esanahia, baizik eta “metodoaren funtsa arrazonatzea da” gisakoa. Gauzak urrutirago joan dira (e) adibidean, zeinean “hierarkiak arautzen du” uler zitekeen, baina, baina terminoa nondik datorren dakienak “arauen artean/ arautzerakoan hierarkia dago” ulertu beharko du.

Itzulpen txarrak tartean direla ezin da ukatu, baina kontuan hartzen badugu alde batetik Rainer Franz-ek espainierari buruz dioena (1999:4.602): “Hay sin embargo una tendencia reciente a predicar adjetivos en -dor/a de sustantivos que encajan en esta perifrasis [x que V] de manera menos natural: *efecto dinamizador “efecto que dinamiza”(?) (...)*”, eta bestetik zenbat “ereduzko” testutan aurkitzen diren “era berriko” *-tzaile* eratorriak, pentsatu beharko da ongi aztertzea merezi duen aldatetak gertatzen ari direla hor.

7. ONDORIO MODUKOAK

Lan honen emaitzak eztabaidagarriak izan arren, esan daiteke azken urteotako erabilera aztertzeak *-tzaile* atzizkiaren gaineko lan gehienetan ia oharkabean pasatako egitate batzuk erakutsi dizkigula. Bi nagusi azpimarratuko nituzke: *-tzaile* eratorri adjetibalen ugaritasuna alde batetik, eta eratorrien erreferentea hainbeste alditan bizigabea, eta tresna-izena izatea bestetik.

-tzaile eratorrientzako “justifikazio” bila filologiaren munduan egindako sarturtenaren emaitzak nire ustez bidea zabaltzen du pentsatu ahal izateko euskarak aspaldidanik izan duela baliabide hori, alegia, *-tzaile* atzizkia erabil zitekeela tresnaredo baliabide-izenak eratzeko, baina, ezagutzen ez diren arrazoi batzuk direlarik, baliabide hori oso gutxitan aktibatuta dela, harik eta azken hiruzpalau hamarkade-

tako euskararen eklosioak, beste aldatetekin batera, baliabide horren berpiztea edo aktibazioa ekarri duen arte. Eta euskararen garaldi honetan, beste generoei ezer kendu gabe, uste dugu espezialitateko hizkeren beharkizunak izan direla aldakuntza eta berrikuntza askoren akuilatzaile.

Zoritzarrez nire eta lan honen mugek ez didate utzi *-gailu* izen eratorrien eta izen bizigabea den *-tzaile* eratorrien arteko lehiaren eta banaketaren alderdi gehienak lantzen; ez eta, *-garri* izenondoarekikoak arakatzen. Langai ugari.

8. BIBLIOGRAFIA

- Alberdi, Xabier. 2003. "Euskal aditz mailegatuen erregimena: hurbilketa" in *Euskal Gramatikari eta Literaturari buruzko Ikerketak* ❖I. Mendearen Atarian. *Gramatika Gaiak* (Euskaltzaindia, IKER-14 (I)); 37-60. Bilbo: Euskaltzaindia
- Artiagoitia, Xabier. 2003. "The case of an enlightening, provoking and admirable Basque derivational suffix with implications for the theory of argument structure" in *Inquiries into the lexicon-syntax relations in Basque*. Supplements of the Anuario de Filología Vasca "Julio de Urquijo" 46: 185-222
- Azkarate, Miren. 1991. Irakaskuntza Proiektua. Argitaragabea
- Azkarate, Miren. 1995. "Sobre los compuestos de tipo sustantivo + sust/adj deverbal en euskera" in *De grammatica generativa* (40-50 or.)
- Azkue, R. M. 1923. *Morfología Vasca. I Liburukia. Los Afijos Vascos*. Bilbao: La Gran Enciclopedia Vasca 1969
- Gràcia, Lluïsa. 1995. "Los nombres agentivos en -dor y la noción de herencia en morfología." in P. Goenaga (arg.) *De Grammatica Generativa*, 51-66
- Gràcia, Lluïsa. et al. 2000. *Configuración morfológica y estructura argumental: léxico y diccionario*. Bilbo: EHUKo Argitalpen zerbitzua
- Lafitte, Pierre. 1962. *Grammaire Basque (nabarro-labourdin littéraire.)* Bayonne: Editions des "Amis du Musée basque" et "Ikas"
- Rainer, Franz, 1999, "La derivación adjetival" in Bosque Ignacio, Demonte Violeta, *Gramática descriptiva de la lengua española* Tomo 3 4595-
- Villasante, Luis. 1974. *Palabras vascas compuestas y derivadas*. Ed. Franciscana: Aránzazu, Oñate.
- Zabala, I. eta J.C.Odrizola. 1993. "Los complejos posposicionales en vasco". *Las fronteras de la composición en lenguas románicas y en vasco*. E. Pérez Gaztelu, I. Zabala eta L. Gràcia (arg.) Deustuko Unibertsitatea.

Filosofia alemana euskaraz eta euskara estandarra

Ibon Uribarri Zenekorta

EHU

1. SARRERA

Lan honek alemanetik euskarara itzulitako idazkien azterketa orokor bat egiteko eman diren lehen urratsak aurkeztu nahi ditu¹, bereziki filosofiaren arloan (zentzu zabalean hartuta). Itzulpengintzaren azterketa deskriptiboaren metodologiari jarraiki (Gideon Toury), egin den katalogazio lana aurkeztuko da lehenik, eta ondoren corpusak sortzeko irizpideak eta aurrelanak; eta horrekin batera horrek guztiak izan ditzakeen aplikazio batzuk aipatuko dira, jardunaldien gaiari eutsiz, hau da, espezialitate hizkera horren azterbideen eta estandarraren arteko lotura jorratuko da.

Idazki alemanek gure hizkuntzan izan duten isla jasotzen duen katalogoa osatu dugu azken bi urteotan, eta horren barne garai ezberdinak daude, testu mota ezberdinak, itzultzaile ezberdinak, etab. Katalogazio lana oraingoz liburuetara mugatu da gehienbat, haur eta gazte literatura baztertuz oraingoz. Katalogazio lan orokorrarekin batera bi alderdi aztertu dira bereziki, filosofia testuen itzulpena (filosofia era zabalean ulertuta, giza zientzietako saioaren pareko zerbaiten gisara) eta Schiller-en idazkien itzulpenak, idazlea hil zenetik 200 urte igaro direla eta (lan horrek Azkue, Mirande eta Labaien-ek arlo honetan egindako lana aztertzeko beta eman zuen, eta horrela lehen itzulpenen testuingurua deskribatzeko lanean aurrera egin ahal izan da).

Katalogazio lana ez dago osatuta. Gehienbat poesia eta haur eta gazte literatura dira oraindik zehazkiago aztertu beharreko arloak. Poesian Julen Urkizak egin duen lana hartu behar da oinarri gisa, eta haur eta gazte literaturan Manu Lopez Gaseni eta Xabier Etxanizek egindakoa. Katalogazioa osatzen denean, horrek hainbat ikerketa konkretu egiteko aukera emango du.

Gure hipotesia da alemana kontuan hartzeak eta alemanetik itzultzen dena kontuan hartzeak baduela interes berezi bat, alemana ez delako hizkuntza latinoan eta filosofia bezalako alor batean hizkuntzaren erabilera berezia delako eta horrek

¹ Alemana-euskara itzulpengintza alor oso berria da unibertsitate mailan, eta ondorioz eremu horretan egin diren ikerketak oso gutxi dira; alemanak berak ere ez du presentzia handirik izan unibertsitate mailan orain dela gutxi arte, eta alemana-euskara lotura ez da gehiegi landu.

erabilera berriak eskura diezazkiolako euskarari. Lan honen asmoa ez da hipotesia frogatzea, baizik eta frogabideak eta horien emankortasuna iradokitzea.

2. TESTUINGURU HISTORIKOA

Oso gutxi itzuli da euskarara, azken 30 urteotan ikusi dugu azkenik bene-tako ekimen jarraitu eta joria arlo honetan, baina aurretik emaitzak oso urriak izan ziren. Beñat Etxeparek lehen euskal liburua, *Linguae Vasconum Primitiae*, 1545 urtean argitaratu zuenetik 1879 arte 194 liburu besterik ez ziren argitaratu euskaraz, eta horietatik 93 itzulpenak ziren, beraz ia erdia, eta jatorrizko testuen antzera, gehienak erlijio-testuak. Lehen itzulpena Johannes Leizarragak egin zuen, *Jesus Christ gure Jaunaren Testamentu Berria*, 1571 urtean. Egun 1879 aurretik itzultitako guztia baino askoz gehiago itzultzen da euskarara urtero.

Errealitate horrek hainbat arazo nagusi izan ditugula adierazten du, estandarren falta horietako bat (liburu berbera euskalki ezberdinetara itzuli dela edo euskalkien arteko itzulpenak ere ikusi ditugu). Eta aldi berean, estandarra ez izateak oztopatu egin du itzulpenak askoz lehenagotik hizkuntzaren garapenean eta normalizazioan eragin handiagoa izatea.

XIX. mendearen amaierako kultur susperraldian agertzen dira lehen testu alemanen itzulpenak². Aurretik egin ziren itzulpenetan ez dago alemanaren aztarnarik, eta XX. mendearen hasieran agertzen dira zuzenean egindako lehen itzulpenak.

3. KATALOGOAREN DESKIPZIOA

Katalogoaren iturri nagusiak, aipatzen den bibliografia alde batera utzita, hauek dira: EHUko liburutegia eta REBIUN batetik, Azkue liburutegia, HABE liburutegia eta Sancho El Sabio liburutegia bestetik, eta ISBN eta Index translationum azkenik.

Aurkitu dugun lehen itzulpena hau da:

Bravanteco Genovevaren bicitz arrigarri miragarria, Cristobal Schmid-ec eguiñ eta eusquerara itzulia. (*Genovefa. Eine der schönsten und rührendsten Geschichten des Alterthums, neu erzählt für alle guten Menschen, besonders für Mütter und ihre Kinder*, Christoph von Schmid). Gregorio Arrue Rezola, 1885/1890/1905/1960. E. Lopez, (Itxaropena/Auñamendi).

Gregorio Azkue aski ezaguna da, bere garaiko itzultzaile emankorrenetakoa izan zen, baina ziurrenik ez zuen liburua alemanetik itzuli (ordurako bazegoen gaztelaniazko itzulpena, Bartzelonan argitaratu zen 1850ean). Ondoren ez dugu besterik aurkitu, 1915-1936 garaiko lehen itzulpen bolada garrantzitsura arte. He-

² Lehen lekukotza Arnold von Harff-ena litzateke, 1499 ingurukoa. Alemana-euskara hiztegitxo bat jaso zuen bere liburuan. ■kusi K. Mitxelena, *Textos Arcaicos Vascos*, Madril, 1960, 63 or.

men agertzen dira zuzenean egindako lehen itzulpenak, batzuk oraindik ere zeharka egiten diren arren.

- Meza santua zer dan (*Die Heilige Messe*, Martin Cochem), Pedro Miguel Uruzuno, 1915.
- Xabier'tar Prantzisko Deunaren bizitzlaburra, J.L. Schurhammer'tar Jorke'k egina (*Ein Xavierius Leben in Bildern*. Georg Schurhammer), Jakintza ikasle jesulagunak, 1925
- Abade-egunerako elizkizun ta otoitzak. A. Willbrordo Menke yaregilearen abadeak eginak eta alemaneratik euskerara, apostolu-bakuntzako R.M.A. abadeak itzuliak, R. M. Azkue, 1936.
- Apaiz osteguna eta aurrak A. Willbrordo Menkek alemanez idatzia ta. R.M.A.'k euskeraz yaria (*Der Priestersamstag und die Kinder*). R. M. Azkue, 1936.

Liburu horiek erlijio-liburuak dira, ordura arteko testu mota horren nagusitasunaren lekuko. Eta badago lotura berezi bat eremu horretan: erlijio gizon alemanek idatzitako testuak gero hemen beste erlijio gizonek itzuli dituzte, bereziki josulagunek. Ezaguna denez Urruzunok beste erlijio testuak ere itzuli zituen, eta zerrendako liburu horrena ez da ziurrenik itzulpen zuzena (gaztelaniazkoa Madrilen argitaratu zen 1906an).

Azkue are ezagunagoa da, baina berari buruz aurkitu dudana bibliografia osoan ia aipatu ere ez da egiten itzultzaile gisa egin zuen lana. Bi izenburu horietaz gain gaztelaniara ere itzuli zuen alemanetik. Gure azterketen arabera Azkuek itzuli zuen lehen aldiz zuzenean alemanetik euskarara, hain zuzen Schiller/Beethoven-en *Ode an die Freude* olerkia (1914), musikari zion zaletasunaren lekuko. Gainera, Euskaltzaindiak duen *Azkue artxiboan* Alemaniarekin eta alemanarekin izan zuen loturaren hainbat eta hainbat lekuko ditugu. Hemen gutxi batzuk aipatuko ditut (zehaztasun gehiagorako ikusi Urbarri 2005).

Adibidez, *Urlo* eta *Ortzuri* operen aurrelanak daude, eta pasarte batzuk hiru hizkuntzetan agertzen dira, euskaraz, alemanez eta gaztelaniaz. Edo Alemaniako irratia batean eman zuen hitzalditxo baten testua dago, "Die Basken und ihre Heimat" (Euskaldunak eta euren aberria).

Interesgarriagoa da ziurrenik alemana ikasteko ariketen artean gaztelania-alemana-euskara hiztegitxoak ere agertzen direla, eta horietan ikusten da Azkuek alemana erabiltzen duela euskarazko hitzak osatzeko eredu gisa³. Geroago alemanaren eta euskararen arteko lotura eta antzekotasunari buruzko artikulua bat ere idatzi zuen, "Coincidencias del "euskerá" con el alemán", lan nagusiago baten barne, *Estudio comparativo entre el vascuence y varias lenguas cultas* (1949). Hainbat hizkuntza hartzen ditu aztergai eta erkaketak egiterakoan alemanari eskaintzen dio arreta handiena.

³ Adibidez, Bigamia: birrezkontza= Doppel ehe; Jaculatoria: ziri-otoitz= Schussgebet.

Eta azkenik, Azkueren bi itzulpen horien data zehazteko informazioa ere badago bere paperen artean, liburuek ez baitute argitalpen urterik. Zentsoreari testu batzuk argitaratzeko baimena eskatuz bidalitako eskutitza aurkitu dugu (36.2.14), eta horrekin batera itzulpen horien zirriborroak agertzen dira. Gainera, 1936an antzeko testu bat itzuli zuen gaztelaniara, M. Schmidtmayer-en *Jueves sacerdotal en el año eclesiástico*. Eta itzulpen horien nondik norakoari buruzko informazioa ere badago artxiboan. Azkueren paperen artean “Kurze Chronik der Salvatorianner in Spanien” izenburua daraman idazki bat dago. Badirudi salbadoretar aleman batzuk Errioxara egin zuten bidai baten prestaketan bitartekari lanak egin zituela Azkuek, eta ziurrenik harreman horren ondorioz gero Willibrord Menke salbadoretarraren lantxo batzuk itzuli zituen euskarara.

Katalogoaren harira itzuliz, garai honetan agertzen dira erlijio-testuak ez diren lehen itzulpenak. Horrela, Heineren olerkien bilduma bat, haur literatura (Grimm anaiak eta Schmidt) eta lehen antzerki lana topatzen ditugu⁴.

- Heineren olerkiak (H. Heine), Joseba Arregi - Txingudi, 1927
- Grimm anayen berrogetamar ume-ipuin Legoaldik doitzeratik euskeratuta Ipolito Larrekoetxea - Legoaldi, 1929.
- Grimm anaien ipuina, Jose Altuna, 1929
- Ipuintxoak (*Märchen*, Christoph Schmidt), Gabriel Manterola, 1929
- Gillen Tell (Wilhelm Tell, Friedrich Schiller), Iñaki Goenaga, 1934/35

Azken itzulpen horrek amaiera ematen dio aro honi. Iñaki Goenagak egin zuen Belgikan Gerra hasi aurretik zuzenean alemanetik⁵, eta Gerra amaitu ondoren ez zuen beste itzulpenik eskaintzeko aukerarik izan (ikus Uribarri 2005). Itzulpenari dagokionez, jatorrizkoa nahiko hurbiletik jarraitzen du, prosaz, hori bai, ez bertsoan; eta garai hartan ohiko zen moduan gertaerak gurera egokitzen ditu neurri batean (danbolina aipatzen da adibidez; Larrakoetxeak Grimm anaien ipuinak itzulterakoan antzekoak egiten ditu, izenak euskaratuz, eta abar).

Bigarren bolada handia 1955ean hasten da eta 1980 arte garatzen da. Gerraren eten handiaren ondoren pixkanaka literatur ekoizpena bizkortzen da eta itzulpenak ere agertzen dira, atzerrian eta hemen bertan.

Antzerkiari eutsiz, Antonio Maria Labaienen lana azpimarratu behar da. Antzerkigile bera eta euskal antzerkiaren ikertzaile aldi berean, euskal antzerkia bizkortzeko eta modernizatzeko Brecht, Dürrenmatt eta Frisch-en lanak itzuli zituen, lan horiek nazioarte mailan gaurkotasun handia zuten garai batean. *Sue-mailleak* separata moduan aurkitu nuen Tolosan dagoen Labaien artxiboan⁶ eta

⁴ Lehentxoago Heineren olerki batzuk eta Grimm anaien ipuinak agertu ziren banaka aldizkarietan.

⁵ *Yakintza*, 8 (1934ko martxo/apirila), 89-103 orriak; 9 (1934ko maiatza/ekaina), 177-193 orriak; 10 (1934ko uztaila/abuztua), 263-275 orriak; 11-12 (1934ko iraila/abendua), 344-352 eta 418-424 orriak; 13-14 (1935eko urtarrila/apirila), 24-32 eta 105-113 orriak. Orain dela gutxi berrargitaratu du EIZIEK.

⁶ Labaien artxiboaren egoera ez da oso ona. Zati bat katalogatuta eta ongi gordeta dago, baina erdia baino gehiago Kultur Etxeko haur liburutegiko bazter batean dago, hautsez beteta eta katalogatu gabe.

hirugarren orriko oin-oharrean honela dio: “Biedermann und die Brandstifter 1962 Suhrkamp Verlag-Frankfurt am Main. Traducción española de M. González Haba. „Los incendiarios“. Revista Primer Acto, número 62. Madrid, 1965”. Eta horren ondorioz ez dago argi itzulpen zuzenak ote diren ala ez, testuen alderaketa zehatza egin arte ezingo da erabaki. Beste zenbait gauza ere idatzi ditu kultura alemanari buruz eta beste itzulpenak egin ditu Labaienek (Uribarri 2005).

- Bai esalea, ez esalea (*Der Jasager und Neinsager*, Bertolt Brecht), 1963
- Gizona eta kidea (*Der Doppelgänger*, Friedrich Dürrenmatt), 1963
- Su-emailleak (*Die Brandstifter*, Max Frisch), 1966

Poesiaren arloan Julen Urkizak egindako bibliografia lan izugarria hartu dugu oinarri. Horren arabera gehien itzuli diren idazleak hauexek dira: Heine (25 poema), Brecht (19 poema), Rilke (10 poema), Goethe (9 poema) eta Uhland (8 poema). Luis Arostegik itxuraz Hölderlinen hainbat lan itzuli du, baina ez dira argitaratu. Beste hainbat idazleren olerki bakanak ere badaude (Schiller, Chamisso, Mörike, Nietzsche, Hofmannsthal, Hesse, Fried, eta abar). Itzulpen gehienak 19. mendeko lanen itzulpenak dira.

Itzultzaile gisa Jon Mirande aipatu behar da, kultura alemanaren miresleak hainbat olerki itzuli zituen. Kultura alemanarekin lotura estua izan zuen, pentsamenduaren aldetik ere pentsalari alemanen eraginpean izan baitzen (Nietzsche, Schopenhauer, Spengler), Joxe Azurmendik argitu duenez. Gainera, itzulpenen garrantziaz jabetu zen eta hainbat hizkuntzatatiki itzuli zuen, bereziki alemanetik.

- Ba-nin adiskide bat (*Ich hatt' einen Kameraden*, Ludwig Uhland), 1950
- Mendi gallurretatik (*Aus hohen Bergen*, Fr. Nietzsche), 1952
- Hirur lili (*Drei lilien*), 1953
- Lekhoreko biziarena (*Ballade des äusseren Lebens*, Hugo von Hofmannsthal), 1954
- Erri-min (*Sehnsucht*, Friedrich Schiller), 1959
- Atzerriko neskatilla (*das Mädchen aus dem Fremde*, Friedrich Schiller), 1959

Eta prosa laburra ere itzuli zuen.

- Emakumetxo zâr ta gazteetaz (*Von alten und jungen weiblein*, Also sprach Zarathustra laneko zatitxoa, 1950 inguruan
- Legearen aitzinean (*Vor dem Gesetz*, Franz Kafka), 1954

Garai honetan erlijio kutsuko haurrentzako liburuak ekoizten dira oraindik ere elizgizonen arteko lotura horri jarraiki. Baina hauek izango dira azken izenburuak.

- Noni eta Mani: islandiar mutiko biren gertaldiak, (*Noni und Mani*, Jon Stefan Svensson), Placido Mujica Berraondo, 1952/1983
- Mendiko argia (*Das Licht der Berge*, Franz Weisser), Placido Mujica Berraondo, 1968/1983.
- Umeen Biblia (*Kinderbibel*), Jakob Ecker (Jaime Kerexeta), Verbo Divino, 1969.

Garai honetan literatur itzulpen bakarra topatu dugu.

— Itxura-aldaketa (*Die Verwandlung*, Franz Kafka), Xabier Kintana, 1970.

Garai honetako azken hamarkadan, eta garaiko giroari jarraiki, hainbat idazki politiko agertu ziren, idazki sozialista eta marxistak. Lehen begiratuan badirudi itzulpenak ez zirela zuzenean egiten, baina belaunaldi berri batek itzulpen mordoxka bat sortu zuen testu mota berri bati ekinez euskaraz. Batzuk atzerrian egin ziren, besteak hemen bertan eta azken horiek zentsurarekin egin zuten topo, ondorio ezberdinekin (ikusi 1. eranskina).

Hirugarren bolada 1980tik aurrerakoa litzateke. Egoera politikoaren aldaketak eta euskararen ofizialtasunak itzulpengintzaren izugarrizko susperraldia eragin dute azken 30 urteetan. Eta hori berehala nabaritu zen gure arloan.

Literatura Unibertsala ekimenaren barne 115 izenburutik 10 izenburu itzuli dira alemanetik, eta beraz bildumaren % 10etik gertu dabil testu alemanen kopurua. Lan gehienak 19. mendeko eta 20. mendeko lan kanonikoak dira. Itzultzaileen egoera aztertzen bada, ia denak bi itzultzaileen artean egin dituzte (ikusi zerrenda bigarren eranskinean).

Bilduma horretaz gain euskal argitaletxeek ere literatura alemana zabaldu dute, gehiegi ez bada izan ere. Hor, aurreko bildumarekin alderatuz, izenburu berriagoak nabaritzen dira, 20. mendekoak nagusitzen dira. Gehienak zuzenean itzultzen dira, baina ez denak. Eta, aipatutako bildumarekin alderatuz, itzultzaile gehiagok hartu du parte (ikusi lagin bat 3. eranskinean).

Poesia liburu gutxi batzuk ere aurkitu ditugu, denak Eduardo Gil Berak presatuak. Hölderlinen lanak dira batetik, eta nazien jazarpena jasan zuten olerkariak bestetik.

Poemak, Friedrich Hölderlin (Eduardo Gil Bera)

Hyperion, Friedrich Hölderlin (Eduardo Gil Bera)

Ezabatuak, hainbat idazle (Eduardo Gil Bera)

Haur eta gazte literaturan topatzen dira izenburu gehienak, hor ekoizpena oso handia baita (itzulpenak jatorrizkoak baino askoz ugariagoak dira). Baina hor arazo bat dugu, hau da, itzulpen gehienak ez direla zuzenean egiten. Euskal Herrikan kanpoko argitaletxe handiek lanak gaztelaniara itzultzen dituzte eta ondoren gaztelaniatik euskara (eta galegora eta katalanera). Badaude zuzenean egindako itzulpenak (Xabier Mendiguren Bereziartua eta Pello Zabaletak egindakoak bereziki), baina gutxi batzuk besterik ez dira. Hemen Manu Lopez Gaseni eta Xabier Etxanizek egindako lana hartu beharko litzateke oinarri alemanetik zer itzuli den zehazteko eta nola itzuli den argitzeko.

4. FILOSOFIA ALEMANA EUSKARAZ

Filosofian eta oro har giza zientzien arloan aurkitzen ditugu testu alemanen beste itzulpen mordoxka. Eta euskararen egoera, alde horretatik, nahiko ona da

eremu txikiko beste hizkuntza batzuekin alderatuz gero, hizkuntzaren erabilera orokor baten aldeko apustua islatzen baitu, beti gertatzen ez dena. Michael Croninek itzulpenak literaturaren eremura murriztea kritikatzan zuen Irlandako egoerari buruz idatzi zuen liburuan.

“The absence of a wider range of prose translation has attracted criticism (...). The failure to translate more works of philosophy, science, psychology means that there is greater difficulty in developing an autonomous intellectual life and community in Irish”, Cronin 1996: 189.

Pentsamenduaren historiako testu klasikoak itzultzeko programa nagusia *Klasikoak* da. *Literatura Unibertsala* eta *Klasikoak* alderatuz gero, bigarrenean jatorrizko alemanen proportzioa bikoiztu egiten da, % 20koa da (20 izenburu 100 liburuko bilduman, ikusi 4. eranskina). Filosofia aleman modernoaren ordezkari za zabala topatzen dugu, Lessing eta Kant hartuta abiapuntu gisa eta Freud eta Jung helmuga gisa. Argi dago asmoa ez dela egungo filosofia alemana euskarara ekartzea, baizik eta filosofiaren tradizio aleman indartsua ekartzea euskal kulturara, eta horrekin batera euskara alor honetan aritzeko oinarri sendoa sortu nahi da. Horrela, euskararen normalizazio prozesuan eragin nahi du bildumak, merkatuak betetzen ez duen eremu batean.

Prosa ez-narratiboa itzuli da eta itzultzen da hezkuntza-sistemaren eskakizunak betetzeko, baina esku-liburuak dira hor gehien agertzen direnak eta jatorrizko hizkuntzak bat edo bi besterik ez dira. *Klasikoak* bilduman hainbat hizkuntzatatik itzuli da (grekoa, latina, frantsesa, ingelesa, alemana, italiara, gaztelania), eta 30 itzultzaile eta berrikusle trebatu dira (5-6 itzultzaile ari dira orain arte alemanetik itzultzen). Azkenik, aipatu behar da testuak Internet-en eskuragarri egoteak eta CD formatuan agertu izanak ikerketa asko errazten duela.

Bestalde, *Jakin-Irakurgaiak* sortan ere agertu dira arlo honetako itzulpenak. 1997an hasita urtero hiru liburu argitaratzen dituzte, jatorrizkoak eta itzulpenak, filosofia eta antzeko gaietan. 18 liburutik 10 itzulpenak dira, eta horietatik 6 alemanetik itzultitakoak. Kopuru handi horren arrazoa berehala ulertzen da, arduradura Joxe Azurmendi dela argitzen bada, kultura alemanari arreta berezia eskaini eta eskaintzen dion pertsona.

- Kant eta Hegel. Gerra eta bakeaz gogoeta (Kant eta Hegelen testuak).
- Alderdi Komunistaren manifestua (*Der Manifest der kommunistischen Partei*, K. Marx/F. Engels).
- Ilusio baten etorkizuna (*Die Zukunft einer Illusion*, S. Freud).
- Musikaren filosofia (*Philosophie der Musik*, Theodor W. Adorno).
- Etika, zientzia eta antropologia (*Idazki hautatuak*, L. Wittgenstein).
- Poeta gazte bati idatziak (*Briefe an einen jungen Dichter*, R.M.Rilke).

Gaiak argialetxeak ere baditu hainbat itzulpen arlo honetan, giza zientziak eta natur zientziak jasoz.

- Etika protestantea eta kapitalismoaren izpiritua (*Die protestantische Ethik und der Geist des Kapitalismus*), Max Weber
- Eskuizkribuak: ekonomia eta filosofia (*Ökonomisch-philosophische Manuskripte*), Karl Marx
- Munduaz dudak ikuspegia (*Mein Weltbild*), Albert Einstein
- Naturaren irudia gaur egungo fisikan (*Das Naturbild der heutigen Physik*), Werner Heisenberg

Euskal Herriko Unibertsitatearen bibliografian begiratu ondoren bi izenburu besterik ez dira aurkitu, oso gutxi itzultzen da alemanetik.

- Tractatus logico-philosophicus, Ludwig Wittgenstein (José Luis Alvarez Santa Cristina), EHU, Bilbao, 1990 (ingelesetik itzulia)
- Autodeterminazioa morala: hezkuntza eta garapen ereduak balioen eremuan (*Moralische Selbstimmung*), Oser, Fritz/Wolfgagn Althof (Koldo Morales), EHU, 1998

Filosofia itzultzeak zailtasun bereziak ditu, filosofia bera itzulpen prozesu baten barne sortu eta garatu baita, eta beraz, filosofia testuak hizkuntzarteko eta kulturarteko testuak baitira. Gurean, prosa ez-narratiboaren tradizioa urria izanik, itzulpen horiek horrelako prosa sortu eta birsortzeko balio dute. Ez da terminologia kontua soilik, sintaxia eta estilistikarekin ere badu zer ikusia horrek.

Itzultzaileak askotan irakasleak dira, eta lehen itzulpena egiterakoan ez dute prestakuntzarik eta eskarmenturik arlo horretan; bestetan literatura itzultzaileak ditugu, filosofiaren ezagupen gutxi duten itzultzaileak beraz. Testu horiek irakasleek itzultzearen arrazoa ez da testuen ezagutza ona soilik, baizik eta hizkuntzaren ezagutza, orain dela gutxi arte ez baitziren asko alemana irakurtzeko gai ziren euskaldunak. Bi arazo nabaritu dira egoera horren ondorioz: irakasleek, prestakuntza gabezia dela eta, itzulpen egokiak egiteko arazoak dituzte (hitzez hitzeko itzulpenak); eta literatura itzultzaileek ez dute terminologia filosofikoa zehazki errespetatzen.

Eta beste arazo orokor bat ere badugu, anarkismo metodologikoa. Itzulpen horiek denak azken 15 urtetan egin dira, denbora-perspektibarik gabe askotan. Schopenhauer Kant baino lehenago itzuli da, Heidegger Hegel baino lehenago. Eta beraz, ez da izan aukerarik aurreko itzulpenetan egindako lana aztertzeko. Ondorioz, emaitzak askotarikoak dira, eta orain uste dugu badela garaia orain arte egindako lan handi hori zehazki aztertzeko, terminologia bateratzeko eta bestelako azterketak egiteko.

5. KATALOGOAZ HARATAGO. APLIKAZIOAK

Katalogoa edo corpus 0 deitzen dena osatu behar da lehenik, gorago esan denez. Gero corpus 1 deitzen dena (hots, azterketa egiteko hautatzen diren lanen zerrenda) sortu beharko da, eta ondoren corpus 2 deitzen dena, hau da, jatorrizkoa

eta itzulpena, formatu elektronikoa parekatuta (Wordsmith3 eta 4 erabiltzen ari gara oraingoz), azterketa zehatzak egin ahal izateko. Urrats horiek ematerakoan ezin da edozein testu aukeratu, baizik eta irizpide batzuen arabera egin behar da, gero horren gainean egindako ikerketak egoera baten benetako adierazgarri izan daitezten. Kasu batzuetan eskubideen arazoarekin egingo dugu topo, baina tira. Irizpideak hauek lirатеke:

- Kronologia. Ikerketaren helburua terminologia eta gramatikako kontuak aztertzea baldin bada, 1980tik aurrera itzultitako testuak aukeratu beharko lirатеke, normalizazio prozesua abian jarri ondoren sortutakoak.
- Itzultzaileak. Gutxi dira zuzenean alemanetik itzuli dutenak, eta beraz, horien guztien lanak hartu beharko lirатеke kontuan.
- Gaiak. Ikerketak bi hizkuntzen lotura aztertu nahiko balu, orduan ahal diren gai gehienak hartu beharko lirатеke kontuan: helduentzako literatura, haur eta gazte literatura, filosofia (poesia ez dugu guztiz baztertzen, baina zaila izango da halako azterketa batean kontuan hartzea). Ikerketak arlo berezi bat badu aztergai, adibidez, terminologia filosofikoa, orduan arlo horretako liburuak hartu beharko lirатеke, itzultzaile guztien lanak eta argialetxe guztiak kontuan hartuz.

Aplikazio konkretuei buruzko iradokizun batzuk egin ditzakegu. Batetik, aplikazio orokorrak ditugu gogoan: testu aleman itzulien corpusa bi hizkuntzen arteko analisi alderatzaile orokorra egiteko oinarri izan daiteke, gramatika alderatzaile bat egiteko ere bai; gainera, terminologiaren aldetik, hiztegi elebiduna sortzeko lantresna izan daiteke (oraingoz ez dago, nik dakidanez, alemana-euskara-alemana hiztegi erabilgarririk). Eta, gainera, azterketa konkretuagoak egiteko tresna izan daiteke corpusa. Hizkuntza alemanaren hainbat egitura nola itzuli diren azter daiteke, eta horrek euskara nola aberats dezakeen balioetsi daiteke. Adibidez, hitz konposatuaren gaia sistematikoki joratzeko aukera edukiko genuke, eta ondoren ikusiko litzateke hori euskararentzat eredugarri izan daitekeen⁷. Bestalde, UZEI bere garaian filosofia hiztegi bat egin zuen, alemana kontuan hartu gabe hala ere. Eta orain, filosofiaren eremuan bildu den testu masa hori baliagarri litzateke filosofiako hiztegi eleaniztun txukun bat egiteko. Argi dagoela iruditzen zaigu azterketa eta lan horiek denek estandarren garapenean eta erabileran ere eragiten dezaketela. Eta azkenik, horrek guztiak gero alemanaren didaktikan eta itzulpeningintzaren didaktikan izan lezake aplikazioa.

Amaitzeko, alemana kontuan hartzeak duen interesa azpimarratu nahi dut. Behin baino gehiagotan entzun dugu alemana eredu interesgarria litzatekeela euskararen zenbait arazo konpontzeko lanean. Itzulpenen bidez alemanaren eta euskararen artean sortu den lotura hori izango litzateke abiapuntu egokia lan horri ekiteko. Izan ere, horixe da falta dena, lanari ekitea, eta alemana eta euskararen ar-

⁷ *Gesellschaftsmodell* badugu, gaztelaniaren paradigmatic igaro ondoren “eredu sozial” sortzen zaigu, baina agian “gizarte-eredu” sor zitekeen zuzen-zuzenean.

teko lotura horren abantaila teorikoei buruz hitz egin beharrean lotura hori benetan aztertzea eta horren emankortasuna neurtzea⁸.

1. Eranskina

- Lan alokatua ta kapitala. Alokairua. Prezioa eta irabazia (*Lohnarbeit und Kapital*, Karl Marx), Xabier Kintana, 1971.
- Sozialismoaren aurrerabidea utopiatik zientziara (*die Entwicklung des Sozialismus von Utopie zur Wissenschaft*, Friedrich Engels), 1972.
- Louis Bonaparteren Brumairearen hamazortzia (*der achte Brumaire des Louis Napoleon*, Karl Marx), Jakoba Onaindia Baseta/Otar, 1973.
- Komunista Alderdiaren agiria (*Manifest der kommunistischen Partei*, Engels/Marx), Irrintzi, 1971.
- Alderdi komunistaren manifestua (*Manifest der kommunistischen Partei*, Engels/Marx), 1974.
- Alderdi komunistaren manifestua (*Manifest der kommunistischen Partei*, Engels/Marx), Xabier Kintana, 1980 (2004. urtean berrargitaratu da).

2. Eranskina

- Ipuin fantastikoak (*An anthology of tales*), E.T.A. Hoffmann (Antton Garikano)
- Anton Camenzind, Hermann Hesse (Xabier Mendiguren)
- Herioa Venezian (*Der Tod in Venedig*), Thomas Mann (Xabier Mendiguren)
- Hautapen-ahaidetasunak (*Die Wahlverwandschaften*). J.W. von Goethe, (Xabier Mendiguren)
- Michael Kolhass, Heinrich von Kleist (Xabier Mendiguren)
- Katua eta sagua (*Katz und Maus*), Günter Grass (Xabier Mendiguren)

⁸ Kepa Altonagak jardunaldietan kritikatu egin du hemen proposatzen dugun hori. Teutonizazioaren orde z plebifikazioa proposatzen du. Ezin dut Kepa Altonagaren proposamenarekin bat egin, hainbat arrazoiengatik: 1. Teutonizazioak, itxuraz, maileguak hartu beharrean hitzak alemanaren baitatik sortzeko jarrera adierazi nahi du, garbizaletasuna, beraz, baina ez da egia alemanak mailegurik ez duela hartzen, asko eta asko hartzen ditu, baina aldi berean bere paradigma propioari eutsi dio, eta bi bide horien aberastasuna bildu du; 2. Plebifikazio deitzen dena, azken finean bikoiztasun elitista baten emaitza da, ingelesaren bidetik: herri-ingelesa hizkera arrunterako eta latin-ingelesa jakintzarako; 3. Terminologia hori bera, teutonizazioa eta plebifikazioa, erabat desegokia iruditzen zaigu. Teutoia, *deutsch* (doitxera) hain zuzen herri-hizkuntza, plebe-hizkuntza da, eta alemanak hainbat termino bere paradigmatic sortzeak hain zuzen eragiten du aditua ez denak ere termino horiek ulertu ahal izatea neurri batean, eta beraz, ikasien eta plebearen arteko etena erabatekoa ez izatea. Are gutxiago ulertzen dugu Kepa Altonagak proposatzen duen homologazioaren ideia, baina kontua oraingoz horrela utziko dugu.

- Peter Schlemihls-en istorio miresgarria (*Peter Schlemihls wundersame Geschichte*), A. von Chamisso (Antton Garikano)
- Törless ikaslearen nahasmenduak (*Die Verwirrungen des Zöglings Törless*), Robert Musil (Koldo Morales)
- Berlin Alexanderplatz, Alfred Döblin (Antton Garikano)
- Bederatzietatik bederatzietara (*Zwischen neun und neun*), Leo Perutz (Antton Garikano).
- Antologia (Erzählungen), Franz Kafka (Naroa Zubillaga). Bidean.

3. Eranskina

- Estepako otsoa (*Der Steppenwolf*), Hermann Hesse (Tr. Pello Zabaleta)
- Pailazo baten aburuak (*Ansichten eines Clowns*), Heinrich Böll (Tr. Jose Antonio Azpiroz)
- Katharina Blumen ohore galdua (*Die verlorene Ehre von Katharina Blum*), Heinrich Böll (Tr. Pello Zabaleta)
- Prozesua (*Der Prozess*), Franz Kafka (Tr. Antton Garikano)
- Homo faber, Max Frisch (Tr. Joxe Austin Arrieta)
- Matxura (*Die Panne*), Friedrich Dürrenmatt (Tr. Xabier Mendiguren)
- Hareetako gizona (*Der Sandmann*), E.T.A. Hoffmann (Tr. Pello Zabaleta)
- Keuner jaunaren kondairak (*Geschichten vom Herrn Keuner*), Bertolt Brecht (Tr. Joxerra Garzia)
- Batzarra Telgten (*Treffen in Telgte*), Günter Grass (Tr. Andolin Eguzkitza)
- Xake nobela (*Schachnovelle*), Stefan Zweig (Tr. Xabier Mendiguren)

4. Eranskina

- Honela mintzatu zen zaratustra (*Also sprach Zarathustra*), F. Nietzsche
- Naturako nahimena (*Der Wille in der Natur*), A. Schopenhauer
- Ateismoa Kristautasunean (*Atheismus im Christentum*), E. Bloch
- Izpiritu-Zientzietarako sarrera (*Einleitung in die Geisteswissenschaften*), W. Dilthey
- Hizkuntzaren jatorriari buruzko tratatua (*Abhandlung über den Ursprung der Sprache*), J. G. Herder
- Prolegomenoak (*Prolegomena zu einer jeden künftigen Metaphysik die als Wissenschaft wird auftreten können*), I. Kant
- Psikoanaliaren aurkezpena, S. Freud
- Mistika-liburuak (*Testuen bilduma*), J. Eckhart/J. Tauler
- Moralaren genealogia (*Genealogie der Moral*), F. Nietzsche
- Santu dena (*Das Heilige*), R. Otto
- Arrazoimen hutsaren kritika (*Kritik der reinen Vernunft*), I. Kant

- Mundua nahimen eta errepresentazio gisa (*Die Welt als Wille und Vorstellung*), A. Schopenhauer
- Idazti hautatuak (*Testuen bilduma*), W. von Humboldt
- Idazti hautatuak (*Testuen bilduma*), G. E. Lessing
- Niaren eta inkontzientearen arteko harremanak (*Die Beziehungen zwischen dem Ich und dem Unbewußten*), C.G. Jung.
- Idazlan hautatuak (*Testuen bilduma*), Karl Marx
- Artelanaren jatorria eta beste (*Der Ursprungs des Kunstwerks and other writings*), Martin Heidegger
- Arrazoimen praktikoaren kritika (*Kritik der praktischen Vernunft*), I. Kant
- Gogoaren fenomenologia (*Die Phänomenologie des Geistes*), G. W. F. Hegel

BIBLIOGRAFIA

- Cronin, Michael (1996). *Translating Ireland* (Cork: Cork University Press).
- López Gaseni, José Manuel. 2000. *Euskarara itzulitako haur eta gazte literatura: funtzioak, eraginak eta itzulpen-estrategiak*. Bilbao: Universidad del País Vasco, Servicio Editorial = Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua.
- López Gaseni, José Manuel. 2005. *Autoitzulpengintza euskal haur eta gazte literaturan*. Donostia: Utrisque Vasconiae.
- López Gaseni, José Manuel/Etxaniz Erle, Xabier. 2004. *90eko Haur eta Gazte Literatura*. Iruñea: Pamiela.
- Mendiguren Bereziartu, Xabier. 1983. *Itzulpen-teoriazko ezagupenak*. Lazkao: Pax.
- Mendiguren Bereziartu, Xabier. 1995. *Euskal itzulpengintzaren historia laburra*. Donostia: Elkar.
- Mendiguren Bereziartu, Xabier. 1992. *Itzulpengintza: historia eta teoria*. Donostia: Elkar.
- Uribarri, Ibon (2005). “Schiller euskaraz”, in *Senez* 28, 53-76 or. (<http://www.eizie.org/Argitalpenak/Senez/20051219>).
- Urkiza, Julen (1999). *Euskal bertso eta olerkien bilduma* (Markina: Euskalerriko Karmeldarrak).
- Urkiza, Julen (2004). “Olerkari alemaniarak euskaraz”, in *Hegats* 35 (<http://www.idazleak.org/argitalpenak/hegats/hegats35.pdf>).
- Zabaleta, Josu. 1984. *Euskal itzulpenaren antologia*. Lazkao: Pax.

Euskara-gaztelania terminologia Elebidunaren Erauzle Automatikoa

Itzulpen-memoretatik terminologia elebiduna automatikoki erauzteko prototipoa

Antton Gurrutxaga, Xabier Saralegi, Sahats Ugartetxea

Elhuyar Fundazioa

Iñaki Alegria

IXA taldea

1. SARRERA

Artikulu honetan, Elhuyar Fundazioak eta IXA taldeak terminologia-erauzketan elebidunaren alorrean egindako ikerkuntza- eta garapen-lanak aurkeztuko ditugu. Proiektu honen helburuak da es-eu itzulpen-memoretatik termino baliokideen bikoteak automatikoki erauzteko teknikak lantzea eta teknika horiek implementatuz prototipo bat garatzea. Helburu hori ikertze-alar zabalago baten baitan kokatuta dago. Izan ere, itzulpen-memoriak corpus eleaniztunen eta, zehatzago, corpus paraleloen kasu partikular bat dira; bestetik, terminoa hizkuntza-unitate mota bat da, azpimultzo bat. Beraz, bi hizkuntzako termino baliokideak erauztea baliokidetza lexikalen erauzketaren alorreko kasu partikular bat da.

2. MOTIBAZIOA ETA INTERESA

Informazioaren Gizartean eleaniztasunak duen garrantzia kontuan harturik, bereziki nabarmentzekoak dira testu edo corpus paraleloen ustiaketak eskaini ditzakeen aukera berriak. Corpus paraleloak interes handikoak dira, hizkuntzen arteko baliokidetzei buruzko informazio asko atera daitekeelako bertatik. Informazioa alor askotan da baliagarria: hiztegegintza elebiduna, terminologia, itzulpen automatikoa, itzulpengintzari laguntzeko tresnak, itzulpengintzaren teoria eta praktika, hizkuntza-irakaskuntza, hizkuntzalaritza kontrastiboa...

Aplikazio askotan behar diren baliabide lexikal eleaniztunen edo, gehienetan, elebidunak eskuratzeko, lehen aukera da erabiltzea argitaraturik dauden edo eskuragarri diren hiztegi elebidunak, datu-base terminologikoak, ezagutza-base eleaniztunen (Euskal WordNet) eta abar. Horrek muga batzuk ditu, ordea. Hain zuzen ere, hainbat autorek erakutsi du hiztegiaren biltzen den informazio lexikal eleaniztuna eta testuetan dagoena ez datozela beti bat, batez ere, hizkuntza azkar garatzen eta

aberasten delako, eta testuetako baliokidetzak lexikal asko oraindik ere hiztegiatar heldu ez direlako, batik bat espezializatuak badira.

Horrek guztiak baliabideak testuetatik bertatik erazteko beharra jartzen du agerian. Hizkuntza Teknologien bidez, informazio elebidun hori erazteko teknikak garatzeko aukera dago. Hizkuntza Teknologien beste hainbat alorretan bezala, honetan ere euskararen izaerak, hau da, hizkuntza eranskaria izateak, teknika linguistikoak erabiltzera behartu gaitu (teknika estatistikoekin konbinatuta, jakina), testu gordinaren gaineko teknika estatistiko hutsen emaitzak barreiatuak izaten direlako.

3. CORPUS ELEANIZTUNAK: DEFINIZIOA ETA MOTAK

Corpus eleaniztunak honela defini litezke: *Zenbait parametroren arabera ezaugarri komunak agertzen dituzten bi hizkuntzatarako edo gehiagotako testu-bildumak.*

Bi corpus eleaniztun mota nagusi daude:

- *Corpus paraleloa*: eduki ‘bera’ duten testuez osatuak, ia beti jatorrizko testu batez eta beste hizkuntza batera edo batzuetara egindako itzulpenez osatutako testu-multzoa da. *Bitestu* ere esaten zaie
- *Corpus konparagarria*: corpus eleaniztuna osatzen duten testuak bata bestearen itzulpen ez direnean, baina hainbat ezaugarri komun dituztenean (eremua, generoa, denbora-bitartea, komunikazio-helburua...)

Corpus paraleloen kasu bakunena, eta ohikoena, testu-bikoteez osatutako corpus elebiduna da. Corpora osatzen duten testu-osagaien artean baliokidetzak ezartzen direnean, corpus paralelo ‘parekatuak’ direla esaten da.

4. CORPUS PARALELOAK

4.1 Parekatzea

Corpus paraleloak hizkuntza bakoitzeko testuen artean dagoen parekatze-mailaren arabera bereizten dira. Parekatzea (*alignment*) honela defini daiteke:

“Aligning consist in finding correspondences, in bilingual parallel corpora, between textual segments that are translation equivalents.” (Kraif, 2002b)

“By ‘align’ is meant the association of chunks of text in the one document with their translation or equivalent text in the other document”. (Somers)

Parekatzearen kontzeptuan sakontzeko, lehen egitekoa itzulpen-baliokidetzak bera zer den argitzea da. Hein handian, autore gehienak ados daude baliokidetzak ezaugarri globala dela, funtzionala, hau da, maila pragmatikoan edo ‘komunikatiboan’ ezarri behar dela. Dena den, ikuspegi horretatik ezar litekeen lehen baliokidetzak-maila testu-mailakoa bera izan liteke. Baina, egia izanik ere, baieztapen hori ez

da oso praktikoa, eta gehiago zehatu edo ‘zatikatu’ beharra aitortu ohi da. Zatikatzeko horren gakoa ‘itzulpen-unitatea’ da (*translation unit*).

Itzulpen-unitatea zer den eta unitateok nola sailka daitezkeen aztertzerakoan, Joseba Abaituak egindako lanean oinarritu gara (Abaitua, 1997). Hemen, oinarritzeko ideiak baizik ez ditugu aditzera emango. Vinay eta Darbelnet-ek honela definitu zuten itzulpen-unitatea:

“The smallest segment of the utterance where the cohesion of sings is that they cannot be translated separately.” (Vinay *et al.*, 1958)

Nolanahi ere, itzulpen-baliokidetzaren kontzeptua erlatiboa da. Adibidez, baliokideak diren testu- edo esaldi-unitateen barnean baliokide ‘atomikoagoak’ ere egon daitezke. Hona hemen Abaituak baliokidetzat duen itzulpen-unitatea, ‘unidad de traducción fraseológica’ delakoa definitzean (Abaitua, 1997):

<UTF_1>Mediante la Orden Foral de referencia se ha dispuesto lo siguiente:
<UTF_1>Aipameneko Foru Aginduaren bidez honako hau xedatu da
Bistan da hor esalditik beherako baliokidetzak ere ezar daitezkeela:

Orden Foral ↔ *Foru Agindua*
Se ha dispuesto ↔ *xedatu da*

Erlatibotasun horren baitan, aipatu adibideotako bi ikuspegiak izan daitezke egokiak, aztergaia, proiektuaren helburua edo aplikazioa zein diren.

4.2. Parekatze-mailak

Lehenago adierazi dugu corpus paraleloak parekatze-mailaren arabera bereizten direla. Hauek dira parekatze-maila ohikoak:

- Dokumentuak: erakunde, enpresa eta abarren dokumentu-biltegi egitura-tuak; Web gune eleaniztunak...
- Esaldiak (1:n): itzulpen-memoriak (TMX), TEI P4 ereduaren arabera parekatuak... Dokumentu-bikote elebidunak automatikoki parekatzeko tresnak badaude, eta aipatzekoa da, zer esanik ez, euskararako berariazko sistema garatzeko egin den lana (Casillas *et al.*, 2004) Esalditik beherako itzulpen-unitateak
 - Unitate lexikalak
 - Hitz bakunen artekoak (1:1) (*one-to-one alignment*)
 - Unitate lexikalen artekoak (n:m): hitzak, terminoak, lokuzioak, kolokazioak...
 - Entitateak (izen bereziak; datak)
 - Bestelako diskurtso-unitateak: formulismoak, itzulpen-txantiloak...

5. CORPUS PARALELOEN USTIAKETA

5.1. Helburuak: parekatzea vs erauzketa

Hizkuntza Teknologien ikuspegitik, hau da helburu interesgarriena: *corpus paraleloan dagoen informazio inplizitua ustiatzea/esplizitatzea*. Horren aplikazio nagusiak dira baliabide lexikalak eratzea (hainbat zereginetarako behar direnak: hiztegi-gintza, ezagutza-base eleaniztunak, informazio-erauzketa eleaniztuna...) eta itzulpen automatiko zein lagundutako sistemak hobetzea.

Ikusi dugunez, esplizitate-lan hori baliokidetzak ezarriz egiten da, eta maila askotakoa izan daiteke. Proiektu honetan, esalditik beherako unitateen arteko baliokidetzak izan ditugu jomuga. Helburu horrekin garatu diren sistemak, gehiengotan, esaldi-mailan parekatutako corpus paraleloetatik abiatzen dira, eta bi emaitza-mota izan ohi dituzte:

- Hitzez hitzeko parekatzea (*full word alignment*)
- Baliokidetzak lexikalak erauztea: lexikoi elebidunak


Hitzez hitzeko parekatzea egiten denean, helburua da jatorriko testuko eta itzulpeneko osagaien artean itzulpen-baliokidetzan oinarritutako parekatze ‘osoa’ egitea (*full word alignment, high resolution alignment*). Beraz, esalditik beherako unitatetan zatikatzen dira testuak, itzulpen-baliokidetzan oinarrituta. Horrek esan nahi du, adibidez, itzuli den zerbait ezin dela parekatu gabe utzi, eta zerbait itzuli ez denean ‘null’ elementua esleituko zaiola itzulpen-testuan. Parekatzen diren esaldi-atalak, ikuspegi linguistikotik, era askotakoak izan daitezke (perpaus nagusiak menpekoak, sintagma osoak, sintagma-atalak, esapideak...). Gainera, ezartzen diren parekatzeak itzulpenaren testuinguruan dira esanguratsuak, eta, itzulpen-estrategiak desberdinak izan daitezkeenez, batzuetan, baliokidetzak itzulpen jakin baten testuingurura mugatuta egon daitezke.

Beste ikuspegia corpus paralelotik baliokidetzak lexikalak ‘erauztea’ da. Oraingoan, kontzeptu giltzarria baliokidetzak lexikala da (*lexical correspondence*). Honela definitu da:

“A relation of denotational (conceptual, extra-linguistic) equivalence between two lexical units in the context of two segments that are translation equivalents.” (Kraif, 2002b)

Baliokidetzak horiek hizkuntza-unitateen artekoak dira, eta, beraz, segmentazioa egiteko irizpidea elebakarra da lehendabizi (Kraif, 2002b). Hizkuntza-unitate lexikalen arteko baliokidetzak maila denotazionalan ezartzen dira, eta, berez, testuinguru aniztatan dira baliagarri, ez soilik prozesatzen ari den esaldi-bikoteen testuinguruan. Horrek guztiak berekin dakar estrategia honetan ez dela nahitaezkoa testuko elementu guztiak parekatzea (Merkel & Ahrenberg, 1999; Kraif, 2002a; Tiedemann, 2003).


Hurrengo adibidean, argiago ikus daiteke hori:



1. irudia

Itzulpen-unitateen ezin parekatuzko zatiak (biribilen barnekoak).

Gezien bidez loturik ageri dira ezar daitezkeen esalditik beherako itzulpen-unitateak. Biribilez inguratuak, ordea, ezin dira parekatu. Horren arrazoi nagusia da ez direla itzulpen-unitate 'atomikoak', hau da, itzulpen-unitate handiago batzuen zatiak direla, itzulpen-baliokidetzaren gaineko esaldi-atalen artean gertatzen baita. Hurrengo irudian, urdindurik ageri dira itzulpen-unitate horiek.



2. irudia

Erabateko parekatzea

Beraz, erabateko parekatzea egin ahal izateko, horiek dira ezarri beharreko itzulpen-baliokidetzak. Bistan da itzulpen-unitate horietako batzuetan badirela unitate lexikalen arteko baliokidetzak. Baliabide lexikalen erauzketaren ikuspegitik, berriz, horietan dira interesgarriak. Terminologiara bideratutako erauzketa batean, honakook lirarteke xedea:


Proiektu honetan, baliokidetzak lexikalak erauztearen bidetik heldu diogu corpus paraleloen ustiatetari. Esan gabe doa, ustiatze-modu bata zein bestea dira interesgarriak, aplikazioa zein den.¹ Baliabideen erabilgarritasuna eta aplikazio-eremuen aniztasuna gogoan izanik, erauzketa-tresna egitea lehenetsi dugu.

¹ Nolanahi ere, aitortu beharra dago corpus paraleloak ustiatzeko proposatu diren metodologietan azaldu ditugun bi helburuak ez direla beti argi bereizten. Izan ere, ingelesezko *word alignment* terminoa erabiltzen duten autore asko baliokidetzak lexikalen erauzketan ari dira.

5.1. Metodologiak

Hitzez hitzeko parekatzerako zein baliokidetza lexikalak erauzteko egin diren saiakuntzak eta garatu diren sistemak bi metodo nagusitan oinarrituta daude (Hiemstra, 1999: 15; Tiedemann, 2003: 12):

- Elkartze-neurrietan oinarrituak
- Estimazioan oinarrituak (itzulpen-eredu probabilitistikoetan)



3. irudia
Terminologia-unitateen erauzketa

Bi eredu horiek teknika estatistikoetan oinarrituta daude. Zenbait autorek (Tiedemann, 2003: 23) bestelako metodo batzuk ere bereizten dituzte (*alternative alignment models*). Horrelakoak hibridoak izaten dira; eskuarki, lehen urratsetan elkartze-neurriak erabiltzen dituzte, eta gero estimazio-metodoren iteratibo bat erabili ohi dute emaitzak hobarentzeko.

Elkartze-neurriek (*AM, associations measures*) bi gertakariren arteko menpekotasuna neurtzen dute. Bestela esanda, AMen bidez, hitz-bikote edo 'bigrama' multzo batetik (w_1, w_2) korrelazio handia duten bikoteak identifikatzen dira. 'Korrelazio' diogunean, elkarrekin agertzeko edo gertatzeko 'joeraz' ari gara, hau da, hitz bakoitzaren maiztasuna kontuan harturik, zoriz legokiekeen baino maiztasun handiagoz agertzea elkarren ondoan (Evert, 2005).

Esaldi mailan parekatutako corpus paraleloen kasuan, bigrama hau da: hizkuntza bateko esaldi edo 'segmentu' bateko unitate batez eta beste hizkuntzako segmentuko unitate batez osatutako bikotea. Printzipioz, segmentu bakoitzeko unitate baten baliokide hautagaia beste segmentuko edozein unitate izan daiteke.

Bigarren motako metodoak itzulpen automatikoko sistema estatistikoetan erabili izan dira batez ere (Brown *et al.* 1993; Dagan *et al.*, 1993). Ildo horretako garapen ezagunenetakoa GIZA++ sistema da (Och *et al.*, 2000). Metodo horren prozedura da segmentu (perpau) baliokideen arteko probabilitatea adierazten duen eredu bat maximizatzea. Segmentu baliokideetako hitzen arteko probabilitateak ereduaren parametroak dira, hau da, hitz bat bestearen itzulpena izateko probabilitatea. Eredu honen datuak osagabeak badira ere, EM algoritmoaren bidez estima daitezke ereduaren parametroak.

Horiez gain, zenbait heuristiko eta prozedura ere konbinatu ohi dira metodo horiekin:

- Kognatuak (edo 'sustraiakideak'): antz handia duten hizkuntza desberdinetako hitzak dira kognatuak (etimologia berekoak, kultur hitzak; maileguak). Adibidez:

biomasa / biomasa; ictioplancton / iktioplankton; arrastre / arraste

Bi hitzen arteko kognatu-neurria kalkulatzeko, antza (*string similarity*) neurtu behar da. Horretarako, Dice koefizientea edo LCSR (*longest common sub-sequence ratio*) erabili ohi dira (Tiedemann, 2003). Bestetik, hizkuntza bakoitzaren grafiak eragindako desberdintasunen eragina gutxitzearen, arau fonologikoak erabil daitezke. Gaztelania eta euskararen artean, adibidez:

-c ↔ -k-; -ns- ↔ -nts-; r ↔ err-

- Itzulpen-unitatearen bi segmentuak hautagai bakar banaz osatuak izatea: izenburuak, zerrendetako itemak...; horrelakoak baliokide 'segurutzat' jo daitezke, eta erauzte-prozesuaren lehen urratsean balioetsi
- Teknika linguistikoak: helburua izan daiteke, batetik, hizkuntza bakoitzeko hautagaiak ezaugarri morfosintaktikoaren arabera zedarritzea; bestetik, bi hizkuntzetako hautagaien arteko baliokidetzak kategoriaren edo eredu morfosintaktikoaren iragazkitik igaroaraztea
- Posizioa kontuan hartzea: euskara eta gaztelaniaren kasuan, ez du informazio baliagarria ematen, hizkuntza horien ordena kanonikoa aski desberdina baita

- Corpusetik kanpoko baliabideak erabiltzea (hiztegiak): prozesamendu-denbora gutxitzeko, baliabide horietan ez dauden baliokidetza berrien bilaketan kontzentratzeko...

Aipatu beharra dago, azkenik, hitz anitzeko unitateen arazoa. Sistema askotan, hasierako urratsa hitz bakunen arteko baliokidetzak erauzteak izaten da. Hor geldituz gero, prozedura kamutsa da, hizkuntzan hain ohikoak diren hitz anitzeko unitateak aintzat hartzen ez direlako; are gehiago terminologiak ari garela, non terminoen erdia baino gehiago hitz anitzekoak baitira (Alegria *et al.*, 2004b).

Elkartze-neurrien bidezko sistemetan, bi teknika nagusi erabili dira:

- Hizkuntza bakoitzeko hitz anitzeko unitateak aldezturik identifikatu, eta ondoren parekatzea
- Hitz anitzeko unitateak parekatu ahala identifikatzea ('on the fly')

Azkenaren aldaera bat da, hitz bakunen arteko hiztegi probabilistiko batetik abiatuta, sistemak ondoz ondoko hitz-multzoak osatu eta probabilitatea edo elkartze-neurri jakin bat berrestimatzeko, urratsez urrats, maximizatu arte (Melamed, 2001: 125).

6. HELBURUA

Corpus paraleloetatik baliokidetza lexikalak erauzteko lanen azpimultzo bat landu dugu:

- Baliokidetza-mota: terminologia
- Corpus-mota (lehengaia): itzulpen-memoriak (TMX)

Termino-motako baliokideez dihardugunean, honelako baliokidetza-motez ari gara:

- Hitz bakunak (*palangre ó trefza*)
- Hitz anitzeko unitateak
 - Sintagma-unitate terminologikoak (kontzeptu-adierazleak): *arte de cerco* ⇔ *inguraketa-sare*; *rendimiento máximo sostenible* ⇔ *gehienezko errendimendu jasangarri*


7. METODOLOGIAREN AZALPEN OROKORRA

Lehenik, erauzte-estrategia bat hautatu da. Honakoa da horren garapena:

- Hautagaien aurretiko erauzketa elebakarra, eta gero baliokideak bilatzea

- Hizkuntza bakoitzeko hautagaiak erauzte
- Segmentu bereko hautagaien bigramak sortzea (baliokidetza-hautagaien bikoteak)
- Bigramen baliokidetza-neurriak kalkulatzeko
- Elkartze-neurriak (MI, Dice, t neurria, khi karratua, egiantz-arrazoia)
- Kognatu-neurria
 - Baliokide-bikote onenak hautatzeko algoritmoa egikaritzea

Beraz, gure estrategiaren lehen ezaugarri nagusia izan da hizkuntza bakoitzeko termino hautagaiak bereiz detektatzea, eta, ondoren, itzulpen-memoriako <tu> unitate bereko segmentuetan ageri direnak konbinatzea, hautagai-bikoteak lortzeko; gero, hautagai-bikote bakoitzaren informazioa (elkartze-neurriak eta kognatu-neurria) konputatu, eta, azkenik, informazio hori erabiliz, baliokide-hautagai onenak hautatzeko algoritmoa aplikatzen da. Ondoren, erauzte-estrategia hori gauzatzeko urratsez urratseko prozesua zehaztu da. Hau da erauzte-prozesuaren diagrama orokorra:



4. irudia

Baliokidetzak erauzteko prozesua


Hurrengo ataletan, prozesu horren urratsak xeheago azalduko ditugu.

8. ERAUZTE-PROZESUA

Lehen urratsa da itzulpen-memoriaren hizkuntza bakoitzeko atalak bereiz prozesatzeko bereizketa. Hori egiteko, XPath lengoia erabiltzen duten Perl scriptak egin dira. Hortik aurrera, atal bakoitzaren prozesamenduari ekiten zaio.

8.1. Itzulpen-memorien prozesatze linguistikoa

Euskarazko testuaprosesatzeko, IXA taldeak garatutako EUSTAGGER lematizazioaile/etiketatzailea erabili dugu. EUSTAGGERek eskaintzen duen informazio linguistikotik, lema, kategoria eta kasua gorde dira. Informazio hori beharrezkoa da hurrengo urratsean, termino hautagaien erauzketan, eredu morfosintaktikoaren araberako hitz-segidak (termino hautagaiak) detektatzeko eta hautagai horien forma kanonikoak (*forma* lema* erako sintagmak) emateko.



5. irudia

EUSTAGGERren informazioa

Gaztelaniazko testua prozesatzeko, UPCko *Centre de Technologies i Aplicacions del Llenguatge i la Parla* (TALP) eta Bartzelonako Unibertsitateko *Centre de Llenguatge i Computació* erakundeek garatutako *Freeling* software libreko paketea erabili dugu (Carreras *et al.*, 2004) (<http://garraf.epsevg.upc.es/freeling/>). *Freeling*-ek testu-hitzen (*token*-en) lema eta kategoria ematen ditu lehen urratsean (analisi morfologikoan), eta, analisi bat baino gehiago dagoenean, analisi bakoitzaren probabilitatea ere ematen du. Beheko pantailan, 'POS tagging' (kategoria-etiketaztea) aukera erabili da lema eta kategoria bikote bakarra esleitzeko testu-hitz bakoitzari.

8.2. Termino hautagaien detekzioa

8.2.1. Euskarazko hautagaiak: Erauzterm

Euskarazko termino hautagaiak detektatzeko, HIZKING21en garatu dugun *Erauzterm* prototipoa erabili dugu (Alegria *et al.*, 2004a, 2004b, 2005). *Erauzterm*-ek analisi linguistikoa eta estatistikoa hartzen ditu bere baitan, eta termino hautagaiak, horien forma kanonikoa, eredu morfosintaktikoa eta informazio estatistikoa ematen ditu. Horrez gain, termino-aldera mota batzuk lantzen ditu, eta aldaerak elkarren artean erlazionatu. *Erauzterm*-en bidez, itzulpen-memoriaren euskarazko segmentu bakoitzean egon daitezkeen termino-hautagaiak erauz ditzakegu.

FreeLing 1.2
AN OPEN-SOURCE SUITE OF LANGUAGE ANALYZERS

Write your sentences
Los caladeros de anchoa están agotados

Analysis options

- Multiword detection
- Number recognition
- Date/Time recognition
- Named Entity detection
- Quantities, ratios, and percentages

Select language Spanish **Select output** PoS Tagging

Analysis Results

Los el DA0MPO
caladeros caladero NCMP000
de de SPS00
anchoa anchoa NCF500
están estar VMIP3PO
agotados agotado AQ0MPP

6. irudia

FreeLing etiketzailearen informazioa

Terminologia Erazuzter-en ikusita - Mezua

Eitakategia Edizioa Buzi Joan Lagar-markak Trosngak Leioa Laguntza

Altera Berritu <http://131.96.102.225:8005/XML/ErazuzTerminologiaIkusitaTag2.htm> Baitu Inprimatu

Ebera Lastar-markak Mandratekot Mandratestore Mandrateonline Google

Hautatu erabilera

Eredu motasuntakikoa

Aflababa Mardaxona M3 M4 LR CN5 Dick TScore ChSR Eicari TScoreP MGR MR LRR RFR

Hitz bakarrekoak: N

NADHaren oxidatze	AprepN	2	0,95	T/EWIC	
UQH2 Uq	NN	2	0,95	T/EWIC	
proteien gradiente	AprepN	2	0,95	T/EWIC	
18-13b Ird	NN	2	0,95	T/EWIC	
el zitokromoa	NN	2	0,95	T/EWIC	
zitolasmako NADH	AprepN	1	0,95	T/EWIC	
pirubato deshidrogenasa	NN	2	0,95	T/EWIC	
NADH deshidrogenasa	NN	2	0,95	T/EWIC	
oxidazio/ereduzio	NN	2	0,95	T/EWIC	
zitokromoen hemo	AprepN	1	0,95	T/EWIC	
oxidazio-bidexidar	NN	2	0,92	T/EWIC	
kilihol	NN	2	0,92	T/EWIC	
elektroiaren fluxua	AprepN	3	0,92	T/EWIC	
Mitokondrioko elektroi-fluxua	AprepN	1	0,92	T/EWIC	
O2-irako elektroi-fluxua	NNN	1	0,92	T/EWIC	
eremaketa elektroi-fluxua	AprepN	1	0,91	T/EWIC	
elektroi-transporta gida	AprepN	1	0,91	T/EWIC	
mitokondrioko elektroi-fluxua	AprepN	1	0,91	T/EWIC	
eremaketa	NN	2	0,91	T/EWIC	

... (2) Malden beheakot **elektroi-fluxua** honen eskura jarritako **ener...**

...n eraja zurgatzen duten **elektroi-fluxua** nasiero eranga dieten pigmentuek **er...**

...etara transferitzen dute **elektroi-fluxua** zenbait trantsilatan **energia** baren...

... Mitokondrioko **elektroi-fluxua** ...

... esk. Pe. S taldeetok **elektroi-fluxua** inhibitzen dute(18-4 **mitokondrioko** Teula.

...rd). Armas katearen etan **elektroi-fluxua** bideko koraplatua den honetako **er...**

...lexuan zehar dagoen c **elektroi-fluxua** O2-irako proteien zitokrometik mugitendü.

... Amaketa **elektroi-fluxua** isturko ATParen zuztea.

...uko bioga: arnas katean **elektroi-fluxua** nola bitartezko du zeharzteko **energia**...

...ren prozesua osont **elektroi-fluxua** eraginez sortzen diren deskribatuko, al...

...ismotikoa: protei-gradiente **elektroi-fluxua** eta fosforilazioa

7. irudia

Erazuzter-en interfazea

8.3. Hautagai-bikoteen sorkuntza

Linguistikoki prozesatutako hizkuntza bakoitzeko memoria-atalak batu ondoren, <tu> itzulpen-unitate bereko hizkuntza bakoitzeko hautagaiak konbinatu egiten dira, hautagai-bikoteak edo bigramak osatzeko. Horiek datu-base erlazional batean biltegitratzen dira, eta ondoren bikote bakoitzaren informazioa kalkulatzen da: elkar-tze-neurriak eta kognatu-neurria.

Hitz anitzeko hautagaien bikoteen kognatu-neurria kalkulatzeko, karakterekate osoak kontuan hartu ohi dira, eta gerta daiteke, hizkuntzen izaerak hartararuta, osagaien ordena bera ez izatea. Adibidez, *Inteneteko konexio / conexión a Internet*. Egokiagoa dirudi, hortaz, osagai bakunen arteko kognatu-neurria kalkulatzeko, eta kognatu-neurri handieneko konbinazioa hautatzea termino osoen artekoa kalkulatzeko, behar diren ordena-aldaketak eginda.

8.4. Baliokide onenak hautatzeko algoritmoa

Hautagai-bikote bakoitzaren informazioa bildutakoan, algoritmoaren zeregina da, informazio hori erabiliz, hautagai-bikote onenak hautatzea. Baliokidetzak lexikalak erauzteko egin diren lan gehienetan, oinarritzko hipotesia izan da corpus paraleloan hizkuntza bateko hitzek itzulpen edo baliokide bakarra dutela beste hizkuntzan (Fung, 1998). Autore gehienek aitortzen dute hipotesi hori oso gutxitan betetzen dela, baina hurbilketa egokia izan daitekeela helburu askotarako, batik bat esparru mugatu edo espezializatuetan erabili nahi diren sistemetarako. Horiek horrela, eta hurbilketa mugatua dela jakinik ere, jatorrizko hizkuntzako hautagai batek hautagai-bikoteen datu-basean dituen baliokide posible guztietatik 'onena' hautatzea izan da erabili den algoritmoaren estrategia.

Oro har, bi algoritmo-mota erabili dira (Matsumoto *et al.*, 2000):

- EM algoritmoan oinarrituak (*Expectation Maximization*): iteratiboak
- Urratsez urratseko algoritmoak ('greedy' algoritmoak): urrats bakoitzean 'hautatzen' diren baliokideak ez dira sartzen hurrengo urratsean; batzuetan, neurriak berriz kalkulatzen dira

Lehen azaldu dugu EM algoritmoa itzulpen-eredu probabilitikoetan erabili dela batik bat. Elkartze-neurrien bidezko sistemetan ere saiakuntzak egin dira (Kupiec, 1993; Hiemstra, 1999, Melamed, 2001).

Proiektu honetan, urratsez urratseko algoritmo bat erabili dugu. Horrelakoen abantaila nagusia sinpletasuna eta azkartasuna da; desabantaila izan daiteke, urrats batean hautatzen diren baliokidetzak ez direla berraztertzen. Hau da inplementatu den algoritmoaren eskema:

- 1:1 segmentuak (baliokide hautagaiek segmentu oso bana hartzen dutenean)


- Kognatu-neurri handiko bikoteak (LCSR > 0,8)
- Gainerako bikoteak: elkartze-neurrien balioen arabera *competitive linking algorithm* (Melamed, 2001) edo *meilleur affectation biunivoque* (Kraif, 2002a) prozedurak:
 - Balio handieneko elkartze-neurria duen es_i - eu_j bikotea hartu eta egiaztatu eu_j - es_i ere balio handienekoa dela
 - es_i eta eu_j horien gainerako bigramak baztertu
 - Hurrengo balio handieneko bikotea hautatu eta aurreko urratsak egin, bigramen-multzoa hustu arte

9. ERABILTZAILEAREN LAN-INTERFAZEA

Erabiltzailearen interfazearen helburua da erabiltzaileak erauzketaren emaitzak aztertzeko eta kudeatzeko aukera izatea. Erabiltzaileari eskaintzen zaizkion aukerak:

- Erauzketa-corpora hautatzea
- Emaitzak hainbat neurri estatistikoren arabera bistaratzea
- Zenbait atalaseren arabera iragazteko aukera: neurri estatistikoa, maiztasuna, baliokide-kopurua
- Baliokidetzen testuingurua bistaratzea
- Baliokidetzak balioesteko eta esportatzeko aukera

Honelakoa da diseinatu den erabiltzaile-interfazea:




9. irudia

Erauaketaren emaitzak ikusteko eta lantzeko interfazea

10. EBALUAZIOA

Saiakuntzak bi corpusekin egin ditugu: AZTI (1.889 segmentu; es: 36.990 hitz; eu: 25.589 hitz); Euskaltel (10.900 seg.; es: 153.163 hitz; eu: 110.165 hitz). Corpus horietatik automatikoki egindako erauzketa ebaluatzeko, baliokidetzak eskuz landu dira. Erauzketa XML editore batean egin da (Morphon XML-Editor 1.4 eta CSS estilo orrialde bat). Hau da prestatu dugun erauzte-interfazea:




10. irudia

IMetatik baliokidetzak eskuz markatzeko lan-interfazea

Esku-erauzketa egitean, kontuan hartu behar dira 8.4 atalean onartu dugun baliokide bakarraren lan-hipotesiak ezartzen dituen mugak. Esaterako, AZTIren itzulpen-memorian gaztelaniazko *pesquería* terminoa bi kontzepturen adierazlea da eta hauek dira euskarazko baliokideak: *jarduera = arrantza*; eta tokia = *arrantza-tokia, arrantza-leku*. Baliokide bakarraren hipotesiak ezin ditu polisemia- eta sinonimia-erlazioak tratatu, ezta termino-aldaerak ere; beraz, ebaluazioak ezarritako elburuei erantzun diezaion, eskuz erauzten diren baliokidetzetatik bakarra hartu da kontuan: maiztasun handienekoa. Tresnaren etorkizuneko garapenean, muga hau gainditzeko prozedura ikertu eta inplementatuko dugu. Esku-erauzketan agerian gelditzen dira, halaber, 5.1 atalean azaldu ditugun arazoak: itzultze-baliokidetzak termino-mailakoak ez izatea (*En 2001 los desembarcos superaron las 2.200 t. ó 2001. urtean 2.200 tona baino gehiago lehorreratu ziren*), elipsiak, itzuli gabeko pasarteak...

11. EMAITZAK


Bi corpusak automatikoki prozesatu ondoren, erauzketaren emaitza aztertu dugu, eta zuzentzat jo ditugun baliokide-bikoteak baliotsi. Hurrengo bi irudietan ikus daiteke nola aldatzen den doitasuna (bikote zuzenen ehunekoa) tresnak ematen duen baliokidetza-kopuruaren arabera. Doitasuna neurtzean, *Freeling*-ek ematen duen lema-egitura hartu da kontuan, eta ez terminoaren berezko forma kanonikoa.² Ebaluazioan erabili diren elkartze-neurri estatistikoetatik, egiantz-arrazoiak (LR) izan ditu emaitza onenak, eta horien araberrako emaitzak irudikatu ditugu. Lerro bertikalek algoritmoaren urratsen arteko mugak adierazten dituzte; hurrenez hurren, lehenak 1:1 segmentuen urratsean lortzen diren baliokideen amaiera, eta bigarrenak kognatu-neurrien bidezko erauzketak itzultzen dituzten baliokideen amaiera; hortik aurrera, elkartze-neurrien bidezko baliokideak.



11. irudia

AZTiren itzulpen-memoriaren erauzketa automatikoaren emaitzak

² Adibidez, *bases de datos* testu-formaren terminoaren forma kanonikoa *base de datos* da. Hau da, lehen osagaiaren flexioak ez du eraginik forma kanonikoan, baina bigarrenarenak bai. Hala ere, *Freeling*-etik lortzen den sintagma lematizatua *base de dato* da. Proiektuaren hurrengo garapenetan, aurre egingo diogu forma kanonikoa doiago erauzteari; horretarako, terminoaren ereduaren araberrako erregelak formulatuko dira, eta corpuseko bertako informazio estatistikoa ere erabiltzeko asmoa dago. Euskararen kasuan, ez dago horrelako arazorik, flexioa beti amaieran dagoelako eta terminoak *forma** lema moduan erauzten direlako zuzenean.



12. irudia

Euskaltel-en itzulpen-memoriaren erazketa automatikoaren emaitzak

Doitasun-datuak aski onak dira. 1:1 segmentuetako hautagaiak, aurrez ikusi dugun bezala, oso baliokide seguruak dira; bestetik, bistan da emaitza onak lortzen direla kognatu-neurria > 0,8 duten hautagaiak baliokidetzat jota. Hurrengo adibidean, argi ikusten da hitz anitzeko terminoen kognatu-neurria kalkulatzeko proposatu dugun sistema egokia dela alderantzizko ordenako terminoetarako ere:

Corpus paraleloen nabigatzailea

Sartu corpus bat: Hautatu indize bat: Neurrirako atalasea: Maitasunerako atalasea:
 Hautagai kopururako atalasea:

Hitz anitzeko terminoak: Termino bakunak: Esportatu

nesta I.R.	nesta I.R.	6	kognatua	T	🔍
informatica I.R.	informatica I.R.	6	kognatua	T	🔍
condicion I.R.	condicion I.R.	6	kognatua	T	🔍
experiencia I.R.	experiencia I.R.	5	kognatua	T	🔍
operadore_de_telecomunicacion I.R.	telecomunicazio-operadore I.R.	5	kognatua	T	🔍
aspiraciona I.R.	aspiraciona I.R.	5	kognatua	T	🔍
gestion I.R.	gestio I.R.	5	kognatua	T	🔍
transferencia_de_dado I.R.	datu-transferentzia I.R.	5	kognatua	T	🔍
sincronizacion I.R.	sinkronizazio I.R.	5	kognatua	T	🔍
escurria I.R.	eskurria I.R.	5	kognatua	T	🔍
accion I.R.	akzio I.R.	5	kognatua	T	🔍
secreto I.R.	sekrutu I.R.	5	kognatua	T	🔍

Que Euskaltel, S.A. se ha constituido como **operadore de telecomunicacion** en el Pais Vasco, siendo su vocacion, además de la propiamente empresarial, la de mantener un alto grado de compromiso con el País, participando en el desarrollo tecnológico del mismo y en el acceso de la sociedad en general a **servicios avanzados de telecomunicación**. I

Euskaltel, SA Euskal Herrian **telekomunikazio operadore** bihurtu dela, eta empresa-helburuak dituen arren, Euskal Herriaren konpromiso-mailarik gorenari eusteko helburua ere baduela. Herriaren teknologiko garapenean parte hartuz eta gizarte osoari **telekomunikazio-zerbitzu aurreratuak** irabide eraztuz. I

Adquirir una visión particularizada de los **operadores de telecomunicacion**, estrategias, estructura organizativa, sistema de gestión, etc. I

telekomunikazio-operadore buruzko ikuspegi zehatzak izaten; **estrategiak, antolaketa-egitura, gestio-sistema, etab ...** I

13. irudia

Kognatuen erazketa

Bestetik, erazte-estrategia egokia da osagai-kopuru desberdineko termino baliokideak erazteko. Hurrengo adibidean, 1:2 luzera-erlazioko adibide bat dago ikusgai (*ingreso ó diru-sarrera*):

ingreso I.R.	diru-sarrera I.R.	51 23420	T
ingresos I.R.	diru-sarreriak I.R.	51 13711	T
Principales elementos y partidas de inversiones, ingresos y gastos	libertsio, diru-sarrera eta gastuen elementu eta partida nagusiak		
La proporción de las rentas e ingresos de la Fundación que, dentro de los límites legales, destina el Patronato a incrementar la dotación de la Fundación.	Patronatuak, legeko mugen barruan, Fundazioaren zuzkidura handitzeko bideratzen dituen Fundazioaren errenta eta diru-sarreren proportzioa		
La adscripción del patrimonio fundacional a la consecución del objeto y fines de la Fundación tiene carácter común e indivisible, esto es, sin asignación de partes o cuotas, iguales o desiguales, del patrimonio, rentas o ingresos de la Fundación a cada uno de ellos.	Fundazioaren xedea eta helburuak betetzeko egin den sorerako ondorearen esleipena erakidea eta zehaztua da, hau da, xede edo helburu bakoitzari ezin izango zaiotziko Fundazioaren ondarea, errentak edo diru-sarreriak zati edo kuota berdinetan nahiz ezberdinetan esleitu.		
A la realización de sus fines la Fundación destinará, en el plazo de tres años a partir del momento de su obtención, al menos el 70 % de las rentas netas y otros ingresos que se obtengan por cualquier concepto, deducidos en su caso los impuestos correspondientes a los mismos.	Fundazioak edozein kontzepturengatik lortzen diren errenta garbien eta bestelako diru-sarreriak %70 gutxienez, dagozkien zergak kendu ondoren, bere sorerako helburuak betetzeko bideratuko ditu, lortzen diren unetik zenbatetan hasi eta hiru urteko epean barnean.		
	Emantzatzeko diru-sarreriak sorerarako zuzkidura handitzeko bideratu		

14. irudia

n:m baliokidetzen erazketa

Estaldua-datuak, berriz, apalagoak dira (% 50 ingurukoak).³ Horren arrazoi posibleak:

— Estalduran eragina duten prozesu-kate bat dago:

- Hizkuntza bakoitzeko analisi linguistikoan egiten diren lematizazio edo kategoria-esleitze desegokiak
- Hizkuntza bakoitzeko hautagaien detekzioan atzematen ez diren terminoak; adibidez, euskarazko termino-eredu konplexu batzuk ez daude gramatikan; gaztelaniaz, Freeling-ek *de* ez diren preposizio-sintagmak ez ditu aurreko <grup_non> sintagmen azpian sartzen; horretara, *mortalidad por pesca* ez du termino-hautagaitzat jotzen, *mortalidad* hutsa baizik; horren ondorioz, *mortalidad ó arrantza-hilkortasun* moduko baliokidetzak erazten dira. Horrek eragina du estalduran zein doitasunean

³ Nolanahi ere, argitu behar da estaldura hori doitasun jakin baterako dela, alegia, estaldura handitu daitekeela, baina doitasunaren kaltetan.

- Esku-erazketaren arazoez mintzatu garenean azaldu ditugun arazo batzuek eragina dute estalduran: IS ez diren termino-ereduak, juntadura, elipsia...
- Hizkuntza bateko habiatuak elkartze-neurri handiagoa eman dezake hautagai osoak baino (hizkuntza batean termino bakarra izaki, bestean bat baino gehiago daudenean, baina osagai bat komuna denean). Adibideak: *cuota mensual ó hileko/hileroko/hilabeteko cuota*; erazketan hautagai osoak (sintagma luzeenak) eta habiatuak kontuan hartzen direnez, elkartze-neurri handiena osagai komunak eman dezake (*kuota-k*), eta baliokidetzat 'onena' hau izan daiteke: *cuota mensual ó cuota*. Hurrengo irudian, arazo horren adibide bat dago. Erauzi den baliokidetzat *dirección ó helbide elektroniko* da. Euskarazko *helbide elektroniko* terminoaren eskuinean dagoen 'R' estekan sakatuta, horren baliokide hautagai guztiak bistaritzen dira. Bistan da gaztelaniaz *dirección de correo* eta *dirección de correo electrónico* direla testuko baliokideak. Habiatuak kontuan hartu ditugunez, *dirección* da elkartze-neurri handiena ematen duena:

dirección	helbide elektroniko	46 32194		
correo_electronico	helbide elektroniko	24 63765		
configuracion	helbide elektroniko	20 03237		
direccion_de_correo	helbide elektroniko	19 45248		
direccion_de_correo_electronico	helbide elektroniko	10 56289		
programa_de_correo	helbide elektroniko	9 09713		
configuracion	helbide elektroniko	8 37101		
cliente_de_internet	helbide elektroniko	8 26346		

confirmamos que dispone habilitado el Servicio Antivirus de Euskaltel para la siguiente dirección de correo electrónico: I

Si utiliza el programa de correo electrónico Netscape Messenger para que se aplique el servicio antivirus en su dirección de correo debe modificar la configuración siguiendo los pasos que le indicamos a continuación: I

Si utiliza el programa de correo electrónico Outlook Express para que se aplique el servicio antivirus en su dirección de correo debe modificar la configuración siguiendo los pasos que le indicamos a continuación: I

Cada línea que visualiza corresponde a la configuración de una dirección de correo: I

el nombre que tiene antes de @ en su dirección de correo electrónico, también en minúsculas: I

el nombre que tiene antes de @ en su dirección de correo electrónico, también

¡Zure helbide elektronikoari antibirus zerbitzua aplikatzeko Netscape Messenger programa erabiltzen baduzun, aldatu egin behar duzu haren konfigurazioa, honako pauso hauek emanez: I

¡Zure helbide elektronikoari antibirus zerbitzua aplikatzeko Outlook Express programa erabiltzen baduzun, aldatu egin behar duzu haren konfigurazioa, honako pauso hauek emanez: I

(Ikusten duzun lerro bakoitza helbide elektroniko baten konfigurazioari dagokio): I

zure helbide elektronikoari @ ikurraren aurretik duzun izena, hori ere letra xehez idatzita: I

zure helbide elektronikoari @ ikurraren aurretik duzun izena, hori ere letra xehez idatzita; ondoren, sakatu e

15. irudia

Euskarazko *helbide elektroniko* terminoaren baliokide hautagaien informazioa

- Zeharkako elkartzearen fenomenoak (*indirect association*; Melamed, 2001). Arazo hau hitz bakunen erazketarekin lotu izan da, eta kolokazioen eragina izaten da. Kolokazio-fenomenoa izan gabe ere, gerta daiteke, batez ere corpusa oso handia eta heterogeneoa ez bada, bi hitz segmentu gehienetan elkarrekin agertzea, eta berdin gertatzea beste hizkuntzako baliokideekin. Horien arteko baliokidetzat gurrutzatuak gerta daitezke

Gure ondorioa da estaldura handitzeko lehen neurriak prozesu linguistikoe-tan hartu behar direla (euskarazko eredu morfosintaktikoen multzoa handitzea; *Freeling*-en irteera prozesatzea; aldaeren tratamendua...).

12. ONDORIOAK

Itzulpen-memoretatik terminologia elebiduna automatikoki erauzteko prototipoa garatu dugu. Prototipoak prozesu osoa automatizatzen du: itzulpen-memoria TMX formatuan kargatzen denetik, erabiltzailearen interfazean emaitzak bistaratu arte. Sistemak automatikoki egiten ditu hasierako eta amaierako urrats horien arteko urrats guztiak.

Erabiltzailearen interfaze erabilgarri eta intuitibo bat ere implementatu da. Horri esker, erabiltzaileak erauzketaren emaitzak azter ditzake, eta aukera du hainbat neurri estatistikoren arabera emaitzak lortzeko eta zenbait atalaseren arabera iragazteko (neurri estatistikoa, maiztasuna, baliokide-kopurua); horrekin batera, baliokidetzen testuingurua bistaraz dezake, eta baliokidetzak balioesteko eta esportatzeko aukera ere badago.

Erauzte-prozesuaren emaitzen ebaluazioak erakutsi du, batetik, estaldura hobetu beharra dagoela, eta, bestetik, urratsez urratseko algoritmoaren portaera ere hobetzea komeni dela. Hobekuntza horiek nola egin daitezkeen ere aurreikusi da, eta proiektuaren etorkizuneko garapenean ekingo zaie lan horiei.

BIBLIOGRAFIA

- Abaitua, J. 1997. Segmentos y unidades de traducción.. [<http://www.serv-inf.deusto.es/abaitua/konzeptu/12uutts.htm>]; 06-02-14an irakurria]
- Alegria, I., Gurrutxaga, A., Lizaso, P., Saralegi, X., Ugartetxea, S. & Urizar, R. 2004a. "Linguistic and Statistical Approaches to Basque Term Extraction." In *GLAT-2004: The Production Of Specialized Texts*. [http://ixa.si.ehu.es/Ixa/Argitalpenak/Artikuluak/1079630425/publikoak/Term_Erauzketa.pdf]; 06-02-14an irakurria]
- Alegria, I., Gurrutxaga, A., Lizaso, P., Saralegi, X., Ugartetxea, S. & Urizar, R. 2004b. "A Xml-Based Term Extraction Tool for Basque." In *LREC2004: 4 Th International Conference On Language Resources And Evaluation*. [http://ixa.si.ehu.es/Ixa/Argitalpenak/Artikuluak/1078851980/publikoak/Erauzterm_LREC]; 06-02-14an irakurria]
- Alegria, I., Gurrutxaga, A., Saralegi, X., & Ugartetxea, S. 2005. "Erauzterm: euskarazko terminoak erauzteko tresna erdiautomatikoa." In *Mendebalde Kultur Alkartea, IX. Jardunaldiak: Euskera zientifiko-teknikoa*. [<http://www.mendebalde.com/modulos/usuariosFtp/conexion/archi146A.pdf>]; 06-02-14an irakurria]
- Brown, P.F., Della Pietra, S., Della Pietra, V.J. & Mercer, R.J. 1993. "The Mathematic of Statistical Machine Translation: Parameter Estimation." In *Computational Linguistics* 19-2. 263-311. orr.
- Carreras, X., Chao, I., Padró, L., & Padró, M. 2004. "FreeLing: An Open-Source Suite of Language Analyzers" In *Proceedings of the 4th International Conference on Language Resources and Evaluation (LREC'04)*. Lisboa.

- Casillas, A., Fernández, I. & Martínez, R. 2004. "Sentence alignment for spanish-basque bitexts: word correspondences vs. markup similarity." In *Fifth International Conference on Intelligent Text Processing and Computational Linguistics - CICLing*. Seul.
- Dagan, I., Church, K. & Gale, W. 1993. "Robust bilingual word alignment for machine aided translation." In *Proceedings of the Workshop on Very Large Corpora (WVLC)*. 1-8. orr.
- Estopá, R. 1999. *Extracció de terminologia: elements per a la construcció d'un SEACUSE (Sistema d'Extracció Automàtica de Candidats a Unitats de Significació Especialitzada)*. Doktore-tesia. Bartzelona: IULA-Universidad Pompeu Fabra.
- Evert, S. 2005. *Computational Approaches to Collocations*. [www.v.collocations.de; 06-02-14an irakurria]
- Fung, P. 1998. "A Statistical View on Bilingual Lexicon Extraction: from Parallel Corpora to Non-parallel Corpora". In *Lecture Notes in Artificial Intelligence AMTA 98.*, Springer Publisher, 1998, vol 1529, 1-17. orr.
- Hiemstra, D. 1996. *Using statistical methods to create a bilingual dictionary*. Master's Thesis, University of Twente. [http://wwwhome.cs.utwente.nl/~hiemstra/papers/hiemstra96.pdf; 06-02-14an irakurria]
- Kraif, O. 2002a. "Méthodes de filtrage pour l'extraction d'un lexique bilingue à partir d'un corpus aligné." *Alignement lexical dans les corpus multilingues, Lexicométrica*, Jean Véronis ed. [http://www.cavi.univ-paris3.fr/lexicométrica/thema/thema6.htm; 06-02-14an irakurria]
- Kraif, O. 2002b. "Translation alignment and lexical correspondence." In: Altenberg, B. & Granger, S. (ed.) *Lexis in Contrast*. Amsterdam: John Benjamins.
- Kupiec, J. 1993: "An Algorithm for finding Noun Phrase Correspondences in Bilingual Corpora." In *31st Annual Meeting of the Association for Computational Linguistics* 17-22. Columbus, Ohio.
- Matsumoto, Y. & Utsuro, T. 2000. "Lexical Knowledge Acquisition." In DALE, R. et al. (ed.). *Handbook of Natural Language Processing*. New York/Basel: Marcel Dekker, Inc. 563-610 orr.
- Melamed, I.D. 2001. *Empirical Methods for Exploiting Parallel Texts*. MIT Press.
- Merkel, M. & Ahrenberg, L. 1999. *Evaluating Word Alignment Systems*. PLUG report. [http://www.ida.liu.se/~magne/publications/eval-plug.pdf; 06-02-14an irakurria]
- Nevado, F., Casacuberta, F. & Landa, L. 2004. "Translation memories enrichment by statistical bilingual segmentation." In *Proceedings of the IV International Conference on Language Resources and Evaluation - LREC2004*, 1. orr. Lisboa. [http://prhlt.iti.es/papers/2004/Nevado04a.pdf; 06-02-14an irakurria]
- Somers, H. *Bilingual Parallel Corpora and Language Engineering*. [http://www.emille.lancs.ac.uk/lesal/somers.pdf; 06-02-14an irakurria]
- Tiedemann, J. 2003. *Recycling Translations. Extraction of Lexical Data from Parallel Corpora and their Application in Natural Language Processing*. Doktore-tesia. Uppsala: Acta Universitatis Upsaliensis. [http://stp.ling.uu.se/~joerg/phd/html/; 06-02-14an irakurria]
- Vinay, J.P. & Darbelnet, J. 1958 *Stylistique comparée du français et de l'anglais: Méthode de traduction*. Paris: Didier.

Zenbait gogoeta euskal definizioen idazkeraz

Xabier Alberdi Larizgoitia

Euskal Herriko Unibertsitatea

SARRERA

Definizioa zera da hizkuntzalaritzaren eremuan: adierazpen bat, kontzeptu baten deskripzioa ematen duena eta deskribaturiko kontzeptu hori kontzeptu-sistema baten barruko gainerako kontzeptuetatik bereizten duena¹. Beraz, kontzeptu bat definitzeko, kontzeptuaren azterketatik abiatu beharra dago. Lehenik, kontzeptuaren ezaugarri batzuk hautatu behar dira: ezaugarri erkide jakin batzuk eta ezaugarri bereizgarri jakin batzuk. Bigarrenik, hizkuntza-eragiketa baten bidez, ezaugarri hautatuok predikatuen (atributuen) bidez kontzeptualizatzen dira eta atribuzioaren bitartez atxikitzen zaizkie objektuei. Uste baino eragiketa kontzeptual konplexuagoa gauzatzen da zerbait definitzen den bakoitzean.

Kontua da definizioaren eragiketa etengabe burutzen dela azalpenezko testuetan: ez terminologian bakarrik, baita era guztietako testu teknikoetan ere. Garrantzi eta maiztasun handiko eragiketa dugu, beraz; baina egia da orobat euskarazko definizio asko eta asko deseroso edo ulergaitz gertatzen zaizkiola irakurleari: sarri askotan, kateatuta bezala geratzen da irakurlea definizioetako sare ilunen artean. Eta hori guztia arrazoi desberdinengatik gertatzen da: definizio baten aurrean dagoela jakiteko bide-seinale behar bezain argiak eman ez zaizkiolako; definigaia non bukatzen den eta definizioa non hasten den ez dakielako; mintzagaia (definigaia) eta aditza elkarrengandik oso urrunduta ageri direlako; inguruko erdaren joskera etenik gabea modu mimetikoan kalkatzen delako...

Definizioen auzi honi gagozkiola, uste dut ezin aproposagoak direla Ibon Sarasolaren hitz hauek:

“Gaur euskararen arazoa ez da Euskaltzaindiaren arauak betetzen diren ala ez; hori hirugarren arazoa izango da. Gaur euskararen arazoa da, euskara komunikatiboa egiten asmatzea.” (Ibon Sarasola, Argia: 2004-II-15, 1931. alea)

¹ Honela definitzen du GDTk zer den definizioa hizkuntzalaritzaren eremuan (ikus GDT bibliografian): “Énoncé qui décrit une notion et qui permet de la différencier des autres notions à l’intérieur d’un système notionnel.”

Hain zuzen ere, nire lan hau bete-betean kokatzen da hizkuntza egoki edo komunikatiboa bilatzeko lan-ildo horretan. Alde batetik, definizio “antikomunikatiboen” auzia kokatzen ahaleginduko naiz: zer definizio mota iruditzen zaizkidan antikomunikatibo eta zergatik gertatzen den hori esplikatzen ahaleginduko naiz; bestetik, definizio komunikatibo(ago)en funtsa zertan den esplikatzen saiatuko naiz.

Definizio batzuekin zera gertatzen da: irakurlearen ezagutzari edo intuizioari esker gauzatzen da komunikazioa, eta ez testuak adierazi behar duena garbiro adierazten duelako. Nolabait esateko, euskara gaizto horretara ohitu dira edo ohituarazi ditugu irakurleak, eta, nire iritziz, ez da bidezkoa irakurleari halako gainzama eta ordainsaria ezartzea. Testu teknikoak nahiko konplexuak izaten dira berez, eta ez da inola ere bidezkoa konplexutasun kontzeptual horri idazkera narrasak eragindako zailtasunak eranstea.

Asko aldatzen da definizioen idazkera erabil-eremuaren arabera. Izan ere, terminogintzan bada tradizio bat, neurri handi batean hiztegegintzatik jaso duguna eta baldintza formal batzuk ezarri ohi dizkiguna. Besterik da, ordea, terminogintzatik kanpo: terminogintzaz besteko testuetan oso bestelakoak dira definizio baten betebeharrak. Lan honen 7. atalean erakusten denez, bigarren testu mota horretan askoz ere askatasun eta baliabide gehiago ditu eskura testugileak.

Oso oker ez banabil, azalpenezko testuetan, hiztegegintzan eta terminologian definizioak emateko erabili ohi diren baliabideen bilketa eta azterketa xehea egiteko daude oraindik. Hain zuzen ere, artikulua hau ekarpen txiki bat da, oraindik ere egiteko dagoen lan eskeraren erakusgarri xume bat.

1. TERMINOLOGIAKO DEFINIZIOEN ADIERAZPENA: IDAZKERAREN ALDETIKO BETEBEHAR ETA GOMENDIOAK

Terminoen idazkerari bagazokio, terminologia eta terminografia zordun dira, oro har, lexikografiako tradizioko ereduarekiko: alegia, lexikografian hitzak definitzeko erabili izan diren idazkerari buruzko gomendioetariko asko bereganatu ditu terminologiak².

Oro har, gomendio nagusi hauek eman ohi dira terminoen definizioak idazteko (Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila 2002: 40-42; Cabré 1993: 211-213):

- a. Zuzentasuna: hizkuntza zuzena erabili behar da definizioetan.
- b. Egokitasuna: lanaren helburuaren eta hartzaileen arabera egokitu behar dira definizioen konplexutasuna, teknizismo-maila eta idazkera³.

² Cabré-k dioenez, “[las definiciones] deben respetar los principios de la lexicografía en lo que respecta a su presentación formal” (Cabré 1993: 211).

³ Betebeharraren ondorioen artean nabarmentzekoa da Cabré-k aipatzen duen hau: “en una definición deben utilizarse palabras conocidas por los usuarios en general, o, si se utilizan vocablos más específicos, estos deben figurar como términos definidos dentro del trabajo (...)” (Cabré 1993: 212).

- c. Definizio zehatzak idatzi behar dira, gehiegi luzatu gabe. Ahal denean, esaldi bakarreko definizioak erabiltzea komeni da, barneko punturik gabe, konzeptu berari buruzko ezaugarri guztiak batera ikusi ahal izateko.

(1) ZESAREA. Abdomeneko pareta eta umetoki-pareta ebakiz fetua amaren sabeletik kanporatzeko egiten den ebakuntza. [Euskalterm: medikuntza/pediatría]

Hala ere, badira salbuespenak (alegia, definizio guztiak ez dira esaldi bakarrekoak):

(2) OFIZIOZKO ABOKATU. Elkargoaren bidez izendatutako *letradua*. Askotan, doako defentsa onartzen zaion prozesuko alderdiaren letradua. [Euskalterm: Zuzenbidea / Zuzenbide Prozesala]

- d. Gramatika-baliokidetasuna (Alvar 1993: 109, 121): definitu beharreko terminoak (lemak edo sarrerak) eta definizioen hasieran eman ohi den deskriptoreak⁴ kategoria gramatikal berekoak izan behar dute (Cabré 1993: 212)⁵. Numeroari dagokionez ere, definigaiaren numero bera izan behar du deskriptoreak. Hala ere, plural lexikalizatuen kasuan, esaterako, zilegi da *talde*, *multzo* eta antzeko izen multzokariak erabiltzea.

(3) OFIZIOZKO ABOKATU. Elkargoaren bidez izendatutako letradua (...)

(4) a. abortatu. Haurdunaldia eten (...) [Erizaintzako Hiztegia]
b. # abortatu. Haurdunaldia etetea [desegokia]⁶

(5) baliabide propioak. Europako Erkidegoaren aurrekontua finantzatzeko Erkidegoarentzat esleitura dauden baliabideak (...)

(6) autoak. Prozesuko idazki, dokumentu eta materialen *multzoa*. [Zuzenbide Prozesala]

- e. Joskera-baliokidetasuna (Alvar 1993: 122-124): askotan, definizioetan ez da erabiltzen hitz bakar bat (sinonimo bat) deskriptore gisa, parafrasi luze bat baizik; bada, halako kasuetan ere joskera-baliokidetasuna egon behar du sarrerako terminoaren eta parafrasiaren artean⁷. Hurrengo definizioetan,

⁴ “Deskriptorea definizioa idazteko sarrera-hitza da, eta definitutako terminoa baino generikoagoa izan behar du kontzeptuarki. (...) Deskriptorea, beraz, definizioaren burua da, eta inguruan biltzen ditu kontzeptuari buruzko ezaugarri espezifikoak” (Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila 2002: 39-40).

⁵ “(...) el propósito de equivalencia sintáctica —que presenta quiebras en diversas categorías de palabras, especialmente en los adjetivos— es, en los diccionarios españoles, visiblemente firme en lo que respecta a los nombres y a los verbos. Todos los nombres aparecen definidos por medio de un nombre o de una perífrasis substantiva, y todos los verbos aparecen definidos por medio de un verbo o de una perífrasis verbal (...)” (Seco 1979: 184).

⁶ Artikulu honetako adibideetan, “#” ikurra erabili dut definizioa edo esaldia desegokia iruditzen zaidala adierazteko.

⁷ “(...) the definition usually has the form of an endocentric phrase. Since lexical units of a language are defined in the same language, it follows that the grammatical status of the defined lexical unit: a substantive will be defined by a substantival construction [...], a transitive verb basically by another transitive verb or a syntactically equivalent construction [...], etc., according to the respective system of the language in question” (Zgusta 1971: 258, in Alvar 1993: 123).

esaterako, joskera-baliokidetasuna dago (edo parekotasuna, behinik behin) definigaietan eta definizioan erabilitako egituren artean:

(7) EUROPAKO BATZORDEA. Europako Erkidegoan gobernu-funtzioa betetzen duen eta Erkidegoaren interesak ordezkatzeko dituen estatuz gaindiko erakundea.

(8) adimen urriko. Adimen urritasuna duena. (...) [Erizaintzako hiztegia]
Ildo beretik, definizio honetan, aditz-izen bat egokitu zaio sarrerako aditz-izenari.

(9) bat EGITE. Oinarrizko egintza juridiko batean aldaketa bat ezartzen duen eta, ondorioz, oinarrizko egintza hura indargabetzen duen egintza berri bat *onar-tzea*.

Irizpide formalei begira, beraz, ez litzateke egokia, nolakotasuna edo egoera adierazten duen izen bati aditz-izen bat esleitzea definizioan:

(10) a. ADIMEN-URRITASUN. Normala baino adimen maila txikiagoa izateak dakarren *egoera*. (...) [Erizaintzako hiztegia]

b. # ADIMEN-URRITASUN. Normala baino adimen maila txikiagoa *izatea*. (...)

- f. Semantikaren aldetik deskriptoreak bere barnean hartu behar du termino definitua. Bestalde, definizioz, baliokidetasun semantikoa (lexikografian) edo kontzeptuala (terminologian) egon behar du definigaiaren eta haren deskribapenaren artean.
- g. Definizioa, gainera, testu korrituan termino definitua bera ordezketo modukoa izatea komeni da⁸.
- h. Aurretik definituta dagoen kontzepturen bati erreferentzia egin nahi bazaio definizioan, termino lehenetsia erabiliko da.
- i. Ez da definizio tautologikorik egin behar. Definizioak ez dira terminoa osatzen duten hitzak errepikatuz osatu behar.

(11) # AKUSAZIO-IDAIZKI. Akusazioa jasotzen duen idazkia

Horrek ez du esan nahi terminoaren osagaiak ezin direla definizioan agertu: terminoaren erroa batzuetan terminoaren generikoa izaten da, eta, deskriptorea denez, definizioaren oinarri izaten da.

(12) AUZITEGI GORENA. Erakunde judizialaren gailurrean dagoen eta Estatu osoan jurisdikzioa duen *auzitegia*. [Euskalterm: Zuzenbidea / Zuzenbide Prozesala]

- j. Ez da definizio zirkularrik egin behar:

(13) a. # HARRIDURA. Harritzearen ondorioa

b. # HARRITU. Harridura sortzea

⁸ Nire uste apalean, baldintza hori, beste ezer baino areago, “desideratum” bat da, lexikografiatik jasoa. Terminologian gutxitan betetzen da.

- k. Definitu beharreko terminoaren parafraasi hutsak —terminotik beretik ondoriozta daitekeen informazioa ezertan osatzen ez dutenak— saihestu behar dira definizioetan:

(14) # NEWTONEN METODOA. Newtonek asmatutako metodoa

- l. Terminologiako definizioetan hizkuntzalaritzaren metahizkuntzako esapide hauek eta antzekoak saihestu behar dira⁹:

(15) a. X: “Termino bat da, (...) izendatzen duena (...)”

b. X: “Izen hau erabiltzen da ...”

c. X: “Adjektibo honek...”

d. X: “(...) -(e)z esaten da”¹⁰

- m. Ez da aipatu behar kontzeptuaren jakintza-eremua. Izan ere, terminologia-lan bakoitza, ezinbestean, espezializazio-eremu jakin batean kokaturik dago.

- n. Definizioan ez da sinonimia-erlaziorik aipatu behar:

(16) # BEREIZKERIA. “(...) *Diskriminazio* ere esaten zaio”.

- o. Definizioaren bidez, kontzeptua zer den deskribatu behar da, eta ez, kontzeptua zer ez den. Bestela esanda, ez da ezeztapena erabili behar termino bat definitzeko.

(17) a. # ZUHAITZ HOSTOERORKOR. Hostoiraunkorra ez den zuhaitza

b. ZUHAITZ HOSTOERORKOR. Urte-sasoi kaltegarrian hostoak galtzen dituen zuhaitza

2. EUSKARAZKO DEFINIZIOEN IDAZKERA: DESKRIPTOREA AURRERATZEKO GOMENDIOA ETA APOSIZIOKO ERLATIBO GIBELERATUEN ERABILERA (AHARI. IZ. ARDIAREN ARRA, ADAR BIRIBILKATUAK DITUENA.)

Oker ez banago, gure artean Kaltzakortari (1997) eta Españari (1998) zor dizkiegu definizioen idazkerari buruzko lehen hausnarketa eta proposamen esplizituak.

⁹ Lexikografian nekez saihestu daiteke erabat metahizkuntzaren erabilera: gramatika-hitzak (preposizioak, juntagailuak, izenordainak, eta abar) “definitzean”, esate baterako, baldin halako hitzak definitzerik badago, ia ezinbestean erabili behar da metahizkuntza (ikus Alvar, 1993: 32-33). Baina terminologian ez dago metahizkuntza hori erabili beharrik.

¹⁰ Sarasolak (1997: 75) erakutsi duenez, “esaten da” esapidea, gaztelaniazko hiztegi-gintzaren ezauzgarri bat besterik ez da.

Kaltzakortak egitura sintetikoa salatu (18) eta haren ordezkari definizioetan egitura analitikoa erabiltzea aldeztu zuen (19):

(18) # Ekintza, gertaera, erabaki edo horrelakoren bat egia dela baieztatzen duen idatzizko aitortpen ofiziala *da egiaztagiria*

- (19) (a) Egiaztagiria da *idatzizko aitortpen ofizial bat* baieztatzen duena ekintza, gertaera, erabaki edo horrelakoren bat egia dela.
 (b) Egiaztagiria da *idatzizko aitortpen bat* ofiziala, ...
 (c) Egiaztagiria da *aitortpen bat* idatzizkoa, ofiziala eta ...
 (d) Egiaztagiria *idatzizko aitortpen ofizial bat* da ...
 (e) Egiaztagiria *idatzizko aitortpen bat* da ofiziala, ...
 (f) Egiaztagiria *aitortpen bat* da idatzizkoa, ofiziala, ...
 (...)

Ildo beretik, Mogelen *Peru Abarka* eta Kirikiñoren *Egunekoa* oinarri hartuta, gomendio hau plazaratu zuen Españak —definizio luzeak idazteko, batik bat—:

- (20) a. Zer da hori [*interview*]?
 b. Ingeles itz bat, alkar-ikustea esan gura dauana [Kirikiño: *Egunekoa*]
- (21) a. mintzagaia + definigai laburtua¹¹ + *izan* + ezaugarri bereziak + aditza (-na)
 b. (Interview) (ingeles itz bat) (da), (alkar ikustea) (esan gura dauana)

Eredu horri jarraituz, (22) modukoak saihestu eta (23) modukoak idaztea proposatu zuen Españak:

(22) # ENPRESA. Produkzioko faktore eta baliabideak, lana, kapitala eta natur baliabideak, konbinatzen dituen *produkzioko unitate ekonomiko(a) (bat) da*, geroago merkatuan salduko diren ondasunak eta zerbitzuak ekoizteko.

(23) ENPRESA. *Produkzioko unitate ekonomiko(a) (bat) da*, produkzioko faktore eta baliabideak (lana, kapitala eta natur baliabideak) *konbinatzen dituena*, eta bere helburua da merkatuan salduko diren ondasunak eta zerbitzuak ekoiztea.

Nire iritziz, euskarazko definizioen idazkerari buruzko hausnarketa teorikoan aurrerapauso erabakigarria izan da egitura analitikoaren aldeko apostua: hots, deskriptorea (deskribapenaren muina) aurreratzeko eta aposiziobidea (erlatibo aposatua) erabiltzeko gomendioa. Deskriptorearen balio generikoa murriztera eta zehaztera dator aposizioa, eta, horrenbestez, hiperonimia bidezko definizio “aristotelikoaren” (Bosque, 1982: 106) paradigma nagusia betetzera¹²:

X = Y (hiperonimoa) + ezaugarri bereizgarriak

¹¹ ‘Deskriptorea’, alegia.

¹² Bidenabar, gaineratu dezadan murrizgarria dela erlatibo arruntaren (-n/-na) balio nagusietariko bat (Euskaltzaindia 1999: 235-240).

3. EUSKAL HIZTEGIAK AUZITAN: *SUSTATUKO* 2002KO EZTABAIDA

Urte batzuk geroago, eztabaida adierazgarri bat piztu zen *Sustatun* euskal hiztegi-tako definizioen idazkeraren inguruan¹³. Laburbilduta, eztabaidaren muina zera zen: batzuen salaketaren arabera, antikomunikatiboa da euskal hiztegi-tako definizioen idazkera, eta, arazoa konpontzeko, ia modu sistematikoan aurreratu behar da informazioaren muina, deskriptorea, alegia.

Nire iritziz, salaketa hura ez zen guztiz bidezkoa izan. Batetik, euskal hiztegi guztiak berdintzen zituelako. Bestetik, Sarasolaren *Euskal Hiztegia* —euskarazko lexikografiako lehen hiztegi teknikoki zaindua eta eredugarria— salaketa orokor horren susmopean jartzen zuelako.

Salaketa haren funtsarekin eta aldarrikapen nagusiarekin —informazioaren muina aurreratzeko gomendioarekin— ados egonda ere, ezin egon ninteke ados eztabaida hartan erabilitako adibideekin eta aldarrikapen nagusiaren aplikazioarekin. Izan ere, eztabaida hartan honelako definizioak salatu ziren, “antikomunikatiboa” zirelakoan edo:

(24) *LOTSA*. Ohorea galtzeak, egin hutsak, hartu den irainak, edota herabeta-sunak sortzen duen sentimen mingarria.

(25) *SAIL*. Ereiteko nahiz zerbait landatzeko egokitu eta prestatzen den lur zatia.

Nire iritziz, komunikazioaren eta euskararen gramatikaren ikuspegitik, horrelako definizioak ez dira arazo, nahiz eta hobetu daitezkeen¹⁴. Alegia, nire us-tez, deskriptorea aurreratzeko gomendioa ezin da lege bihurtu, ezta itsumustuan aplikatu. Hau da, gomendio hori benetako komunikazio-zailtasunak ditugunerako —bereziki, esaldi luzeegiak ditugunerako— gorde behar da. Laburtuz, eztabaidaren harian Petrirenak esan zuen bezala, komunikagarritasuna lortzeko ahalegin horretan oreka bilatu behar da eta ez alferrik tradizioa eta euskal joskera iraulikatu.

*Euskal Hiztegi*a itzuliz, bide-urratzaile iruditzen zait Sarasola, bai deskriptorea aurreratzeko gomendioari dagokionez, bai bestelako alderdi teknikoei dagokienez. Hona adibide bat, askoren artean hautatua:

(26) *ABARKA*. *iz.* ([XI ea.], *1562, 1571). Euskal Herrian erabili ohi den larruzko (eta egun baita ere gomazko) *oinetakoa*, batez ere oinaren azpialdea *ba-besten duena*, soka baten bidez zangoaren behealdean *lotzen dena*.

Beraz, ez zait iruditzen bidezkoa euskal hiztegi guztiak zaku berean sartzea: lehenik, garia eta lastoa bereizten ikasi behar genuke; bigarrenik, bide-urratzaile

¹³ <http://www.sustatu.com/1037528708>

¹⁴ Egokiagoak iruditzen zaizkit, esaterako, eztabaida haren harian Patxi Petrirenak proposatu zituenak:

SAIL. Lur zatia, ereiteko edo landatzeko egokitua. / Zerbait ereiten edo landatzen den lur zatia. / Lur landua, nekazaritzakoa.

LOTSA. Sentimen mingarria, ohorea galtzeak, huts egiteak, besteren irainek edo norberaren herabeta-sunak sortua.

izan direnei beren ekarpena aitortzen eta ezagutzen ikasi behar genuke. Eta, alde horretatik, “Mitxelenaren paradigmako” euskal hiztegi guztiak dira —baita entziklopedia-hiztegiak ere—, aldez edo moldez, *Euskal Hiztegiaren zordun*¹⁵.

Nire aburuz, honelako definizioak jarri behar dira auzitan:

(27) # MATXINSALTO iz. ZOOL. Jauzi egiteko moldatuta dauden atzeko hanka luze eta sendoak dituzten ortopteroen ordenako intsektuez esaten da. [Harluxet Hiztegi Entziklopedikoa]

Konparatu bedi aurreko definizioa *Euskal Hiztegiak* ematen duenarekin:

(28) MATXINSALTO. iz. (...) *Intsektu jauzikaria*, berde horixka, otiaren antzekoa baina alorretan *kalterik egiten ez duena* (...).

Konpara bitez, halaber, bi definizio-moldeok:

(29) ZESAREA. Abdomeneko pareta eta umetoki-pareta ebakiz fetua amaren sabeletik kanporatzeko *egiten den ebakuntza*. [Euskalterm: medikuntza/pediatria]

(30) ZESAREA. iz. *Ebakuntza mota*; sabelaldeko paretan eta umetoki-paretan ebaki bana eginez fetua, plazenta eta obulu-mintzak amaren sabeletik *ateratzean datza*. [Erizaintzako Hiztegia]

Laburbilduta, definizioei bagagozkie, ez dut uste euskara hutsezko hiztegi guztiak zaku berean sartzekoak direnik. Eredugarri deritzot *Euskal Hiztegiari*, bai lexikografiaren ikuspegitik, bai definizioak emateko moldeari dagokionez ere: akatsak akats, oro har, eredu bikaina eskaini digu Sarasolak bere hiztegian, ondorengo euskal hiztegiatako definizio kalkatuek argi frogatzen duten bezala.

4. ESALDI BAKARRAREN GOMENDIOA: ERREZETEN ARRISKUA

Inguruko lexikografia-tradizioak eta, terminologiaren esparruan, ISO 704 arauak ezarri duten irizpidearen arabera (supra 1c azpiatala), *ahal denean*, esaldi bakarrek definizioak erabiltzea gomendatzen da. Batzuek, ordea, arau bihurtu dute gomendio hori, eta definizioak emateko garaian —are terminografiaren alorrean ere— esaldi bakarra erabiltzera behartzen dute beren burua, sen onaren eta tradizioaren aurka. Batzuek honelako definizioak eman dituzte, gomendio orokorren irakurketa estu eta oker batek hartaraturik¹⁶:

(31) # EUROPAKO BILTZARRA. Europar Batasunaren zabalkunde-prozesua bideratzeko helburua duen *biltzar edo foroa, urtean bitan biltzen dena*: (...)

¹⁵ Sarasolak berak aitortu duenez (Sarasola 1997:73), “Zer esanik ez beste hiztegi hauen egileak — Mitxelenaren paradigmako hiztegien egileez ari da— nirekin hitz egin ondoren oinarritu zirela *Hautalanerako-an*”.

¹⁶ Terminologia Batzordean landutako *Europako Hiztegiaren* lehenengo idatzalditik atereak dira lehenengo lekuan ageri diren adibideak. Bigarren edo hirugarren lekuan, berriz, testu zuzenduak edo nik proposatuak ageri dira.

(32) EUROPAKO BILTZARRA. Europar Batasunaren zabalkunde-prozesua bideratzeko (helburua duen) *biltzar edo foroa*. *Urtean bitan biltzen da: (...)*

(33) # OSOKO BILKURA. Europako Erkidegoetako *Justizia Auzitegia osatzen duten epaile guztiez osatutako bilkura*, Auzitegiaren Estatutuek aurreikusten duten *kasu jakin batzuetan biltzen dena*.

(34) OSOKO BILKURA: Europako Erkidegoetako *Justizia Auzitegiko epaile guztiek osatzen duten bilkura*. Auzitegiaren Estatutuek aurreikusten duten *kasu jakin batzuetan biltzen da*.

(35) # EURODAC. Hatz-markak biltzeko eta kudeatzeko *sistema*, asilo-eskabi-deak aztertzeko tresna lagungarri gisa erabiltzeko *helburua duena*.

(36) a. EURODAC: Hatz-markak biltzeko eta kudeatzeko *sistema*. Asilo-eskabideak aztertzeko tresna lagungarri gisa *erabiltzeko sortu zen*.

b. EURODAC: Hatz-markak biltzeko eta kudeatzeko *sistema*; asilo-eskabideak aztertzeko tresna lagungarri gisa *erabiltzeko sortu zen*.

c. EURODAC: Hatz-markak biltzeko eta kudeatzeko *sistema*, asilo-eskabideak aztertzeko tresna lagungarri gisa *erabiltzeko sortua*.

(37) # ECOFIN KONTSEILUA. Europar Batasuneko estatuetako ekonomia eta finantzetako ministroek osatutako *kontseilua*, Ekonomia eta Diru Batasunari dagozkion gaiak *eztabaidatzeko* eta ekonomiaren arloko politikak *koordinatzeko helburua duena*.

(38) ECOFIN KONTSEILUA. Europar Batasuneko estatuetako ekonomia- eta finantza-ministroek osatzen duten *kontseilua*. Ekonomia eta Diru Batasunari dagozkion gaiak *eztabaidatzea* eta ekonomiaren arloko politikak *koordinatzea du helburu*.

(39) # EUROPAKO ERKIDEGOETAKO JUSTIZIA AUZITEGIA. Europako Erkidegoko Zuzenbidea interpretatu eta aplikatzeko ardura daukan *Erkidegoko justizia-erakundea, egoitza Luxenburgon duena. (...)*

(40) a. EUROPAKO ERKIDEGOETAKO JUSTIZIA AUZITEGIA: Europako Erkidegoko Zuzenbidea interpretatzeko eta aplikatzeko ardura duen *Erkidegoko justizia-erakundea. Luxenburgon du egoitza. (...)*

b. EUROPAKO ERKIDEGOETAKO JUSTIZIA AUZITEGIA. *Erkidegoko justizia-erakundea*, Europako Erkidegoko Zuzenbidea interpretatzeko eta aplikatzeko *ardura duena. Luxenburgon du egoitza. (...)*

(41) # ESKUALDEETAKO LANTALDEA: Eskualdeetako eta tokian tokiko erakundeetako 222 ordezkari *osatutako organo aholku-emailea, hainbat arlotan kontsulta egin behar zaiona. (...)*

(42) ESKUALDEETAKO LANTALDEA: Eskualdeetako eta tokian tokiko erakundeetako 222 ordezkari *osatzen duten organo aholku-emailea. Hainbat arlotan eskatu behar zaio aholkua. (...)*

(43) # EUROPAKO ESPARRU EKONOMIKOA: Europar Batasuneko lurralde osoa eta Europako Merkataritza Askeko Elkarteko (EFTAko) herrialdeak, Suitza salbu, hartzen dituen *barne-merkatua, 1994an indarrean jarri zena*.

- (44) a. EUROPAKO ESPARRU EKONOMIKOA: Europar Batasuneko lurralde osoa eta Europako Merkataritza Askeko Elkarteko (EFTAko) herrialdeak, Suitza salbu, hartzen dituen *barne-merkatua*. 1994an jarri zen indarrean.
- b. EUROPAKO ESPARRU EKONOMIKOA. *Barne-merkatua*, Europar Batasuneko lurralde osoa eta Europako Merkataritza Askeko Elkarteko (EFTAko) herrialdeak —Suitza salbu— hartzen dituena. 1994an jarri zen indarrean.

(45) # EUROPAR BATASUNeko OINARRIZKO ESKUBIDEEN GUTUNA. Duintasunaren, Askatasunaren, Berdintasunaren, Elkartasunaren, Hiritartasunaren eta Justiziaren inguruko oinarrizko eskubideak definitzen dituen *agiria*, 2004an sinatua eta zazpi kapitulutuan egituratutako 54 artikulua dituena.

(46) EUROPAR BATASUNeko OINARRIZKO ESKUBIDEEN GUTUNA. Duintasunaren, Askatasunaren, Berdintasunaren, Elkartasunaren, Hiritartasunaren eta Justiziaren inguruko oinarrizko eskubideak definitzen dituen *agiria*. 2004an sinatu zen, eta 54 artikulua ditu, zazpi kapitulutuan egituratuak.

(47) # GEOMETRIA ALDAKORREKO EUROPA. Europaren batasuna bideratzeko *metodo berezia*, integrazio-egituran desberdintasun gaindiezinak daudela aitortzen duena, desberdintasun horren arabera *estatu-talde bereziak* eratzeko aukera eskainiz.

(48) GEOMETRIA ALDAKORREKO EUROPA: Europaren batasuna bideratzeko *metodo berezia*, integrazio-egituran desberdintasun gaindiezinak daudela aitortzen duena. Desberdintasun horien arabera *estatu-talde bereziak* eratzeko aukera eskaintzen du.

Nire uste apalean, “definizioak esaldi bakarrean emateko gomendioa” tentu gehiagoz hartu behar da terminografian, lexikografian baino. Izan ere, terminografian, sarritan, definizio hutsa baino zerbait gehiago eskaintzen da: definigaiari dagokion sarreran, definizioaren muin edo funtsarekin batean, argibide osagarriak eta bigarren mailako xehetasunak eman ohi dira. Horregatik “hausten da” hainbestetan terminologia-lanetan esaldi bakarraren gomendioa.

Ondorioa begien bistakoa da: ondo berezi behar dira terminologia-lanetan definizioa bera eta bigarren mailako argibide osagarriak. Hots, ez dago, hainbeste argibide esaldi bakarrean ematerik; are gehiago, nire iritziz, ez da zilegi definizioaren muina —definizioa bera— eta informazio gehigarria esaldi bakarrean ematea. Eta, hain zuzen ere, nahasketa hori ageri da goian aipaturiko definizio batzuetan. Honako definizio honetan, adibidez (errepikaturik ematen dugu adibidea), “kasu jakin batzuetan biltzea” ez da inola ere *osoko bilkura* kontzeptuaren funtsezko ezaugarria.

(49) # OSOKO BILKURA: Europako Erkidegoetako *Justizia Auzitegia osatzen duten epaile guztiez osatutako bilkura*, Auzitegiaren Estatutuek aurreikusten duten *kasu jakin batzuetan biltzen dena*.

(50) OSOKO BILKURA: Europako Erkidegoetako *Justizia Auzitegiko epaile guztiez osatzen duten bilkura*. Auzitegiaren Estatutuek aurreikusten duten *kasu jakin batzuetan biltzen da*.

Bestalde, nire iritziz, terminografian beste inon baino zilegiago da esaldi bakarraren gomendioa haustea. Izan ere, ISO 704 arauaren arabera (17. or.), espezialitate-hiztegietan sarrera bakoitzaren mikroegitura guztiz agerikoa da:

“A *terminological entry* shall be composed of a statement explaining what the *concept* is. The statement is made up of a subject, copula and predicate. The subject is the *designation*, the copula is understood to be the verb “is” and the predicate constitutes the *definition*. Typographical conventions, such as a colon, a dash or by starting a new line of text, introduce the beginning of the predicate”.

Alegia, honelako zerbait dugu sarrera guztietan:

(51) definigaia / definizioa (+ argibide osagarriak)

Beraz, ohiturazko hitzarmen tipografikoen argitan, agerikoa da zein den mintzagaia (definigaia), eta agerikoa da, orobat, ondoren datorren guztia mintzagai edo definigai horri dagokion predikatua dela. Hau da, goiko (49/50) definizioetara itzulita, behin mintzagaia (*osoko bilkura*) ondo ezarrita utzi ondoren, eta behin definizioaren muina garbi ezarri ondoren (... *Justizia Auzitegiko epaile guztiek osatzen duten bilkura*), ez dut inolako eragozpenik ikusten — subjektua errepikatu gabe — predikatu berriak gaineratzeko (... *kasu jakin batzuetan biltzen da*). Puntuazioari dagokionez, gainera, predikatu gehigarri horiek “puntua” erabiliz edo “puntu eta koma” erabiliz gaineratu daitezke, eta predikatuen arteko loturaren araberak erabakitzen da puntuazio-zeinua.

(52) OSOKO BILKURA. Europako Erkidegoetako *Justizia Auzitegiko epaile guztiek osatzen duten bilkura*; Auzitegiaren Estatutuek aurreikusten duten *kasu jakin batzuetan biltzen da*.

(53) ABDUKZIO. iz. Gorputz atal baten mugimendua; dagokion giharra uzkur-tzean, gorputzaren ardatzetik urruntzen du atal hori. [Erizaintzako Hiztegia]

(54) ADENOMA. iz. Guruinen antzeko egitura duen epitelio-ehuneko tumorra; ez-kaltegarria, gehienetan. Epitelio-ehuneko espazioak ditu ezaugarri. [Erizaintzako Hiztegia]

Aitortu beharra daukat, hala ere, orain arte nik aldeztu dudana malgutasuna — alegia, zenbaitetan, salbuespen gisa, esaldi bat baino gehiago erabiltzea definizioen idazkeran — ez datorrela guztiz bat terminologia-lanerako emandako irizpide teorikoekin. Izan ere, teoriaren arabera, ahal bezain laburra eta behar bezain konplexua izan behar du definizioak. Alde horretatik, definizio konplexuek perpaus bat baino gehiago eduki ditzakete barnean, baina ez perpaus beregainik, eta, deskripzioaren argibide gehigarriak aparteko oharretan eman behar dira¹⁷. Hala ere, praktikan, uste dut terminologia-lanetan maizegi gaineratzen direla argibide gehigarriak. Ondorioz, bitatik bat: edo funtsezko ezaugarrietara mugatu behar dira definizioak eta esaldi bakarraren bidez adierazi; edo, bestela, esaldi bat baino

¹⁷ “Complex *definitions* can contain several dependent clauses, but carefully written *definitions* contain only that information which makes the *concept* unique. Any additional descriptive information deemed necessary should be included in a *note*.” (ISO 704, 18. or.)

gehiago erabili beharra dago. Bestelako nahasketa edo erdibideak oso arriskutsuak iruditzen zaizkit.

Laburbilduz, euskarazko definizioen idazkeraren historia laburrean deskriptorea aurreratzea eta aposiziobidea erabiltzea —hots, egitura analitikoaren emankortasun eta argitasunaz jabetzea— aurrerapauso handia izan bada ere, azken bolada honetan, esaldi bakarraren gomendioaren irakurketa itsu batek definizioen idazkera behartuak eragin ditu. Nire iritziz, esaldi bakarraren murriztapena tentu handiz hartu behar da; are gehiago terminografian. Era berean, —eta hau aurreko baieztapenaren beste aldea da— erlatibo aposatuaren estrategia neurritz eta modu orekatuan erabiltzean dago definizio komunikatiboen gakoak.

5. HELBURUA, DEFINIZIOETAN: BERRIRO ERE, KLIXE

ERREPIKAKORREN ARRISKUA ($X, \dots -T(Z)EA$ HELBURU DUENA;
 $X, \dots -T(Z)EKO$ HELBURUA DUENA)

Hasieran esan dugun bezala, definizioaren bidez termino batek izendatzen duen kontzeptua deskribatzen da. Terminografian, ‘intentsiozko’ definizioa bilatzen da gehienetan: alegia, kontzeptuaren ezaugarri bereizgarriak eman ohi dira, delako kontzeptu hori kontzeptu-sistema jakin baten barruan kokatzeko eta sistemako gainerako kontzeptuetatik bereizteko¹⁸. Bada, intentsiozko definizioetan, gutxienik, bi mota hauek bereizten dira: egiturazkoak eta funtzionalak. Egiturazko definizioetan, kontzeptuaren egitura deskribatzen da. Definizio funtzioaletan, kontzeptuaren funtzioa edo zertarakoa zehaztuz egiten da deskripzioa.

Definizio funtzionala maiz erabiltzen da terminologia-lanetan, eta eremu askotan, gainera. Inguruko erdaretan, oro har, nahiko finkatuta dauzkate era horretako definizioak emateko esamoldeak. Horretarako, helburuzko perpausak erabiltzen dira sarritan, baina baita erlatibozkoak edo egitura nominalizatuak ere:

(55) ASPIRATEUR PORTATIF. *Aspirateur qu'on utilise dans les parcs pour enlever les papiers et autres petits objets qui traînent.* [GDT: garbiketa]

(56) CRAYON À MINE. *Crayon dont la mine est essentiellement constituée de graphite, généralement employé pour écrire, dessiner ou tracer sur des matériaux tels que du papier.* [GDT: bulegoa]

(57) BIENS ET SERVICES. *Produits matériels et immatériels de l'activité économique, dont la finalité est la satisfaction directe ou indirecte d'un besoin.* [GDT: administrazio publikoa / politika- eta gizarte-ekonomia]

(58) ORGANISATION. *Action ayant pour objet de créer et d'agencer les éléments d'une structure, de déterminer leurs relations en vue d'un rendement optimal (compte tenu de la finalité de cette structure et du comportement des personnes*

¹⁸ Hedadurazko definizioan (ingelesez, ‘extensional definition’), ostera, kontzeptu baten hedadura osatzen duten izaki guztiak enumeratzen dira: *PLANETA. Merkurio, Marte, Lurra, Neptuno (...) dira eguzki-sistemako planetak.* Taxonomia landu eta hertsia duten eremuetan dira erabilgari halako definizioak (García de Quesada, 2001).

qui en font partie) et *de veiller* à l'adaptation et à l'amélioration de la structure par un contrôle constant. [GDT: kudeaketa]

(59) EURODAC. *système pour la comparaison des empreintes digitales aux fins de l'application efficace de la convention de Dublin*. [Eurodicautom: Europako Batasuna]

Euskaraz ere baditugu zenbait egitura eta baliabide, helburua adierazteko. Baina batzuek modu sistematiko eta errepikakorrean jotzen dute “X, ...-t(z)ea helburu duena” eta “X, ... -t(z)eko helburua duena” egituretara, beste aukerarik ez balego bezala. Esaldi luze eta konplexuetan, monotonia eta —are okerragoa dena— ordena antikomunikatiboa dira gehiegizko joera horren ondorioak, ondorengo adibideetan ikus daitekeenez¹⁹. Hona hemen estilo errepikakor hori saihesteko estrategia batzuk.

Zenbaitetan, juntadura edo justaposizioa erabil daiteke, huts-hutsik, erlatibo aposatuaren ordezt:

(60) EUROPAKO INBERTSIO BANKUA. Europar Batasuneko *finantza-erakunde nagusia*, kohesio ekonomiko eta sozialaren bitartez, Batasuneko lurraldean garapen orekatua *bideratzea helburu duena*.

(61) EUROPAKO INBERTSIO BANKUA. Europar Batasuneko *finantza-erakunde nagusia da eta*, kohesio ekonomiko eta sozialaren bitartez, Batasuneko lurraldean garapen orekatua *bideratzea du helburu*.

(62) # ECOFIN KONTSEILUA. Europar Batasuneko estatuetako ekonomia eta finantzetako ministroek osatutako *kontseilua*, Ekonomia eta Diru Batasunari dagozkion gaiak *eztabaidatzeko* eta ekonomiaren arloko politikak *koordinatzeko helburua duena*.

(63) ECOFIN KONTSEILUA. Europar Batasuneko estatuetako ekonomia- eta finantza-ministroek osatzen duten *kontseilua*; Ekonomia eta Diru Batasunari dagozkion gaiak *eztabaidatzea* eta ekonomiaren arloko politikak *koordinatzea ditu helburu*.

Beste batzuetan, kataforiko bat erabiltzea —*hau(ek)*— eta *helburu* hitza aurreratzea da konponbidea:

(64) # ATZERRIARI ETA SEGURTASUNARI BURUZKO POLITIKA BATERATUA. Atzerriari eta segurtasunari buruzko gaietan Europar Batasunaren ekintza bateratua *lortzea*, Batasunaren segurtasun-modu guztiak *indartzea*, nazioarteko bakea eta segurtasuna *zaintzea*, nazioarteko lankidetzat *sustatzea*, demokrazia eta zuzenbideko estatua *garatzea eta indartzea*, eta giza eskubideak eta oinarritzko askatasunak *errespetatzea helburu duen politika*. Europar Batasunaren bigarren zutabea eratzen du.

(65) ATZERRIARI ETA SEGURTASUNARI BURUZKO POLITIKA BATERATUA. Atzerriari eta segurtasunari buruzko gaietan *helburu hauek dituen politika*: Europar Batasunaren ekintza bateratua *lortzea*; Batasunaren segurtasun-modu guztiak

¹⁹ *Euskal Hiztegian*, esaterako, definizio banaka batzuetan soilik erabili ditu Sarasolak “X, -tzea helburu duena” esamoldea edo haren gisakoak.

indartzea; nazioarteko bakea eta segurtasuna *zaintzea*; nazioarteko lankidetzaz *sustatzea*; demokrazia eta zuzenbideko estatua *garatzea eta indartzea*; eta giza eskubideak eta oinarriko askatasunak *errespetatzea*. Europar Batasunaren (politikaren) bigarren zutabea da.

Beste aukera bat, aposizio-bideaz baliatzea da (“X, (...) -*t(z)eko sortua / -t(z)eko eratua...*”):

(66) # EURODAC. Hatz-markak biltzeko eta kudeatzeko *sistema*, asilo-eskabi-deak aztertzeko tresna lagungarri gisa *erabiltzeko helburua duena*.

(67) EURODAC. Hatz-markak biltzeko eta kudeatzeko *sistema*, asilo-eskabi-deak aztertzeko tresna lagungarri gisa *erabiltzeko sortua*.

Helburua adierazten duen sintagma oso luzea ez bada, aski izan daiteke “-*t(z)eko + izena*” segidaz eta puntuazio egokiaz baliatzea:

(68) # EUROPAKO INBERTSIO FUNTSA. Europar Batasunean inbertsioa *sustatzea helburu duen funtza*, epe luzerako bermeak emanez eta enpresen kapitalean partaidetza eskuratzuz *lan egiten duena*.

(69) EUROPAKO INBERTSIO FUNTSA. Europar Batasunean inbertsioa *sustatzeko funtza*; epe luzerako bermeak emanez eta enpresen kapitalean partaidetza eskuratzuz *lan egiten du*.

(70) # ECOFIN KONTSEILUA. Europar Batasuneko estatuetako ekonomia eta finantzetako ministroek osatutako *kontseilua*, Ekonomia eta Diru Batasunari dagozkion gaiak *eztabaidatzeko* eta ekonomiaren arloko politikak *koordinatzeko helburua duena*.

(71) ECOFIN KONTSEILUA. Europar Batasuneko estatuetako ekonomia- eta finantza-ministroek osatzen duten *kontseilua*; Ekonomia eta Diru Batasunari dagozkion gaiak *eztabaidatzea* eta ekonomiaren arloko politikak *koordinatzea ditu helburu*.

Azkenik, beste estrategia bat, galdegaiaren “legearen” salbuespen edo lizentziaztat har daitekeena, Espainiak definizioetarako proposaturikoa da (1998): “(*haren/beraren*) *helburua da + galdegaia*”. Iparraldeko *Herria* astekarian maiz erabiltzen dute hurrenkera hori²⁰, eta guztiz erabilgarria iruditzen zait euskara estandar jasorako: bereziki, esaldiaren jarraitutasuna zaindu nahi denean; definizioetan, adibidez.

(72) # ESKUALDE GARAPENEN EUROPAKO FUNTSA. Europako Erkidegoko eskualde-politikako *finantza-tresna nagusia*, eskualdeen arteko desoreka nabarmenenak *zuzentzea helburu duena*, eskualdeen garapenean *parte hartuz* eta gainbeheran dauden industria-eskualdeak *birmoldatuz*.

(73) eskualde garapeneko Europako funtza. Europako Erkidegoko eskualde-politikako finantza-tresna nagusia; haren helburua da eskualdeen arteko desoreka nabarmenenak *zuzentzea*, eskualdeen garapenean parte hartuz eta gainbeheran dauden industria-eskualdeak *birmoldatuz*.

²⁰ 2001-2005 aldian, “*helburua da (+ galdegaia)*” hurrenkerearen 42 agerraldi eman dizkit *Ereduzko prosa gaur* corpus-arakatzailleak (<http://www.ehu.es/euskara-orria/euskara/ereduzkoa/>; 2005-XI-28).

6. DEFINIZIOETAKO PERPAUS ERLATIBOAK: IDAZKERA ARINTZEKO ESTRATEGIAK

Sarritan, definizioak beste hizkuntza batetik itzultzen dira, zuzenean edo zeharka. Hitzez hitzeko itzulpen horietan behar baino gehiagotan eta modu mime-tikoan jotzen da perpaus erlatiboetara (Biguri, 1994). Goragoko (27) adibidea eka-rriko dut hona, erlatibo ustelez jositako estilo antikomunikatiboaren adierazgarri:

(74) # MATXINSALTO iz. ZOOL. Jauzi egiteko moldatuta *dauden* atzeko hanka luze eta sendoak *dituzten* ortopteroen ordenako intsektuez esaten da. [Harluxet Hiztegi Entziklopedikoa]

Ondorioa begien bistan dago: premiarik gabe handitzen da atzerakarga, eta euskara gaiztoa sortzen. Ikus ditzagun erlatiboazko egitura astun horiek arintzeko estrategia batzuk.

Batzuetan, baldintzazko perpausa erabil daiteke erlatiboaren orde:

(75) BALIO BEREKO ONDORIOA DUEN NEURRI. Europako Erkidegoko estatuek *egiten duten eta*, zuzenean nahiz zeharka, benetan zein ahalez, Erkidegoko barne-merkataritzea *oztopa dezakeen* merkataritzari buruzko arautegi oro.

(76) BALIO BEREKO ONDORIOA DUEN NEURRI. Europako Erkidegoko estatuek merkataritzari buruz *egiten duten arautegi oztopatzaile oro, baldin eta*, zuzenean nahiz zeharka, benetan zein ahalez, Erkidegoko barne-merkataritzea *oztopa badezake*.

(77) *K* ZENBAKI ERREALAK GOITIK BORNATURIKO SEGIDA. Gai guztiak *K* baino txikiagoak edo *K*-ren berdinak dituen segida.

(78) *K* ZENBAKI ERREALAK GOITIK BORNATURIKO SEGIDA. *Segida bat K zenbaki errealak goitik bornaturik dago(ela esaten da), baldin* gai guztiak *K* baino txikiagoak edo *K*-ren berdinak *badira*²¹.

Beste batzuetan, zehargaldera da joskera arintzeko bidea (García 2003: 127-128):

(79) # BOTO-HAZTAPEN. *Estatu bakoitzari dagozkion boto-kopurua* estatu horretako biztanleriaren arabera *zehazten den boto-sistema*.

(80) BOTO-HAZTAPEN. *Boto-sistema*, biztanleriaren arabera *estatu bakoitzari zenbat boto dagozkion zehazten duena*.

(81) # KARTAN JARRITAKO EUROPA. Europaren batasuna bideratzeko metodo berezia, *estatu bakoitzari parte hartu nahi duen esparru politikoa hautatzeko aukera ematen diona*, menu baten modura.

(82) KARTAN JARRITAKO EUROPA. Europaren batasuna bideratzeko metodo berezia. *Estatu bakoitzari aukera ematen dio, menu batean bezala, zein esparru politikotan parte hartu nahi duen erabakitzeko*.

²¹ Matematikaren arloko adibide honetan (Etxebarriari 2005:304), hurbilago gaude testugintzatik terminogintzatik baino. Izan ere, definigai testuaren harian txertaturik dago: “*X (...) bornaturik dago-ela esaten da, baldin (...)*”.

Zenbaitetan, alferreko erlatiboak kenduz arintzen dira erlatibo-kateak:

(83) # OSOKO BILKURA. Europako Erkidegoetako *Justizia Auzitegia osatzen duten epaile guztiez osatutako bilkura*, Auzitegiaren Estatutuek aurreikusten duten kasu jakin batzuetan *biltzen dena*.

(84) OSOKO BILKURA. Europako Erkidegoetako *Justizia Auzitegiko epaile guztiek osatzen duten bilkura*. Auzitegiaren Estatutuek aurreikusten duten kasu jakin batzuetan *biltzen da*.

Alferreko erlatiboen artean aipamen berezia merezi dute “-t(z)ean datzan egintza” moduko esapideek:

(85) # GOMENDIO. Bete nahiz aldatu behar den *portaera jakin bati buruzko iradokizunak adieraztean datzan egintza*, arautzailea izan arren loteslea ez dena.

(86) GOMENDIO. *Adierazpen mota bat*, gauzatu edo aldatu beharreko portaera jakin bati buruzko *iradokizunak ematen dituena*; egintza arautzailea den arren, ez da loteslea.

Ahal dela, subjektua eta objektua biltzen dituen adizkia erabiltzea komeni da perpaus erlatiboan (*den > duen*):

(87) # BOTO-HAZTAPEN. Estatu bakoitzari dagokion boto-kopurua estatu horretako biztanleriaren arabera *zehazten den boto-sistema*.

(88) BOTO-HAZTAPEN. Biztanleriaren arabera estatu bakoitzari zenbat boto dagozkion *zehazten duen boto-sistema*.

Kontuz ibili behar da antzematen zailak diren iraganeko erlatiboekin eta aspektuarekin:

(89) # ECU. 1979an Europako Diru Sistemako funtsezko osagai moduan *sortu zen diru artifiziala*, Batasuneko estatu-diru guztiak proportzioan ordezkatzeko zituena, *estatu bakoitzaren ekonomiak zeukan pisuaren arabera*. Euroak ordeztu zuen 1999ko urtarrilaren leian.

(90) ECU. *Diru artifiziala*, 1979an Europako Diru Sistemaren funtsezko osagai moduan *sortua*; proportzioan ordezkatzeko zituena Batasuneko estatu-diru guztiak, *estatu bakoitzeko ekonomiaren pisuaren arabera*. Euroak ordeztu zuen 1999ko urtarrilaren leian.

(91) ESTATU BURUJABE BERRIA. Sobietar Errepublika Sozialisten Batasuna hautsi eta gero, Estatu Burujabeen Erkidegoa (EBE) izeneko antolakunde federatuan *bildu ziren hamabi estatuez osatutako taldea* (Armenia...).

(92) ESTATU BURUJABE BERRIA. Sobietar Errepublika Sozialisten Batasuna hautsi eta gero, Estatu Burujabeen Erkidegoa (EBE) izeneko antolakunde federatuan *bil dutako hamabi estatuen taldea* (Armenia...).

(93) # MUGAZ HARAINDIKO LANKIDETZA. Europar Batasunaren barneko zein kanpoko mugen bi aldeetara dauden eskualdeetako erakundeek zuzenean *garatutako* edozein lankidetza.

(94) MUGAZ HARAINDIKO LANKIDETZA. Europar Batasunaren barneko zein kanpoko mugen bi aldeetan dauden eskualdeetako erakundeek zuzenean *garatzen duten* edozein lankidetza.

(95) # NIZAKO ADIERAZPENA. Kontseilu Europarrak Europar Batasunaren etorkizunari buruz 2000ko abenduan *onartutako adierazpena*, erakundeen erreforman sakontzeko prozesua *zehazten zuena*.

(96) NIZAKO ADIERAZPENA. Kontseilu Europarrak Europar Batasunaren etorkizunari buruz 2000ko abenduan *onartutako adierazpena*, erakundeen erreforman sakontzeko prozesua *zehaztu zuena*.

Bukatzeko, gogoraz dezagun *ZEIN BAIT*- erlatibo “klasikoak” muga age-rikoak dituela definizioen idazkerari begira. Autore batzuen iritziz, balio ez-murrizgarria adierazteko baizik ezin dira erabili *ZEIN*-erlatiboak. Iritziak iritzi, EGLÜren arabera (Euskaltzaindia 1999: 235-240), *ZEIN*-erlatiboek balio hauek har ditzakete:

- a) Gehienetan balio ez-murrizgarria izaten dute.
- b) Batzuetan —bereziki aurrekariak determinatzaile mugagabea (*bat*) duenean—, balio murrizgarria (baina ez mugagarria) har dezakete (98).
- c) Aurrekariak determinatzaile mugatzailea (*-a*) izanik berezko erreferentziarik edo balio generikorik ez duenean, nekez izan dezakete balio mugagarria (99), non ez dagokion izenordain erlatiboari funtzio adberbial bat (100).

(97) ZENBAKIZKO SEGIDA. *Funtzio bat da*, aldagai independentea zenbaki arrunta *duena* eta aldagai dependentea zenbaki erreala.

(98) a. ZENBAKIZKO SEGIDA. *Funtzio BAT da*, *zeinean* aldagai independentea zenbaki arrunta baita eta aldagai dependentea zenbaki erreala²².

b. ZENBAKIZKO SEGIDA. *Funtzio BAT da*, *zeinak* aldagai independentea zenbaki arrunta baitu eta aldagai dependentea zenbaki erreala.²³

(99) ZENBAKIZKO SEGIDA. **FuntzioA da*, *zeinak* aldagai independentea zenbaki arrunta baitu eta aldagai dependentea zenbaki erreala.

(100) “Zeren hauk dira *leihoak eta portaleak*, *zeinetarik* bekhatu guztiak (...) arimen barrena sartzen baitira”. (Axular: *Gero*, 256).²⁴

7. HIZTEGIGINTZAZ KANPOKO DEFINIZIOAK ETA “X DA Y”

LIZENTZIAREN AUZIA: *PIRAMIDEAK ZIREN SEPULTURA SUERTE BATZUK...*

Gai honen inguruan, lehenengo eta behin, zera utzi behar da agerian: definizio-etako osagaien ordenaren auzia “ohiko testugintzan” gertatzen da eta ez terminologian edo terminogintzan; terminogintzan ez da halako auzirik sortzen, egiunezko irizpide formal batzuei esker predikazioa ageriko aditzik gabe gauzatzen delako:

²² Etxebarria-tik (2005: 303) jaso dut adibidea, eta zertxobait moldatu.

²³ Literatura-tradizioan ez dira falta horrelako definizioak. Hona adibide bat: “*Konfirmazionia da Sakramentu bat zuñek* Espiritu Sainiaren graziak oro emaiten beiteizkv, eta khiristi oso egiten beikvtv.” (Izenik gabe. *Zuberoako Katexima* (1872)).

²⁴ Ikus Euskaltzaindiko Gramatika-batzordea (2004: 239-240).

(101) LERRO ZUZENA. Bi punturen arteko tarterik laburrena
[definigai] [definizioa (predikatua)]

Terminogintzatik kanpo, ordea, aspaldikoa da testugile, itzultzaile eta idazleen artean definizioetako osagaien hurrenkerarekiko kezka:

(102) definigai (X) + predikatua (Y) + *da*
(103) definigai (X) + *da* + predikatua (Y)
(104) predikatua (Y) + *da* + definigai (X)

Alegia, zilegi ote da gaurko euskara estandarrean definizioetan lizentzia hartzea galdegaiaren legeari dagokionez eta “X *da* Y” ordena erabiltzea (106)?

(105) *Lerro zuzena* bi punturen arteko tarterik laburrena *da*.
(106) *Lerro zuzena da* bi punturen arteko tarterik laburrena.

2005ean, lizentzia horren erabileraren gainean irizpen bat emateko eskatu zitzaion Euskaltzaindiari, eta Gramatika-batzordearen erantzuna guztiz zuhurra izan da. Hona, labur-labur, batzordeak aurreratutakoa²⁵:

1. Galdegaiaren legea halako malgutasun batez aplikatu behar da; alegia, ez dago zertan aruari bete-betean lotzen ez zaion adibidea arbuiatu edo gaitzetsi. Nolanahi ere, gramatikaren bertsio osatuan (*EGO*) gomendio zehatzagoak emango ditu batzordeak auzi honen gainean.
2. Ordena-kontuak ez dira erabakitzen gramatikaren arabera, pragmatikaren arabera baizik. Beraz, testugileen erabilerak erakutsiko du etorkizunean zein moldek egiten duen bidea eta zein geratzen den bazterrean.
3. Azkenik, ohar hauek gaineratzen ditu batzordeak:
 - a. Bereizketa garbia egin behar da definizioen eta gainerako atribuzioen artean.
 - b. Definizio batean ongi bereizi behar da zein den definigai eta zein definizioa.
 - c. Definizioek nolabaiteko marka behar dute, testuaren hartzailea jakinaren gainean uzteko definizio baten aurrean dagoela: elementu kataforikoren bat, bi puntuak, doinu berezia ahozko jardunean, eta abar.

Guztiz aintzat hartzekoa da Gramatika-batzordearen (3a) oharra. Izan ere, “X *da* Y” lizentziatzeko ordena noranahi zabaltzen bada, nekez bereiziko ditugu atribuzioa eta definizioa, biek ala biek itxura bera baitute (“A *da* B”)²⁶.

(107) Epaimahaiburua da ordezkari gorena
a. Epaimahaiburua zera da: ordezkari gorena [definizioa: Zer da epaimahaiburua?]

²⁵ 2005eko irailaren 16ko ohiko bileran izan zuen aztergai Gramatika-batzordeak definizioetako lizentziaren auzia.

²⁶ Ikus Garzia (1997: 241).

- b. Ordezkeri gorenara da epaimahaiburu(a) [atribuzioa: Zein da epaimahaiburu?]
- b. Epaimahaiburua da ordezkeri gorenara [atribuzioa: Zein da ordezkeri gorenara?]

Bistan dagoenez, definizio laburretan ordena ez da erabakigarria izaten — konpara bitez goragoko (105) eta (106) —. Beraz, nire ustez, halakoetan, aukeran, hobe dugu galdegaiaren legea betetzea (*Lerro zuzena bi punturen arteko tarterik laburrena da*).

Zenbaitetan —predikatu luze eta korapilatsua duten definizioetan, batik bat— onargarria da, nire ustez, “X da Y” lizentziatzeko ordena erabiltzea. Garziak (1997: 241) dioenez, “Egia esan, Axularren eta klasikorik finenen sintaxia bedekintzea baino ez litzateke (...)”:

(108) *Piramidea edo Piramideak*²⁷ ziren sepultura suerte batzuk, pilare, harroin, edo thonba laur kantoinetako gora ailxatu batzuk, egin ahal zitezkeien gorenak, ondoan zabal eta puntan mehar. (Axular; *Gero*).

(109) Laburrago: *Fedia da* ikusi eztoguna sinistutia. (Astarloa; *Urteko domeka guztietarako berbaldia*).

(110) *Barruko, edo arimako adorazioa da* bera ezagututia geure Jaun, geure ongile, eta egilatza, eta geu bere eskubakaz eginiko kriaturatza. *Da* beragan bakarrik sinistutia, (...) (Astarloa; *Urteko domeka guztietarako berbaldia*).

(111) *Eleiza da* Fededun, edo Sinisle guzien batzarrea ta batasuna; edo *da* Jainko egiazkoa, beraren Lege egiazkoak erakusten duan bezala, serbitzatzen duen, Fededunen bilguma junta, edo Kongregazioa. *Eleiza da* bat, Santua, Katolikoa, Apostolikoa. *Da* asko alkargana buru baten azpian ongi ta behar dan bezala batutzea, ta *da azkenik*, *Jesu *Kristo buru duan, gorpuz bat. (Ubillos. *Kristau berri-ekarlea*).

(112) Ta ote dakizu zein dignidade andi, ta goia dan lege onetako izatea? *Da Kristaua dignidade bat, zuri ematen dizuna* Jaungoiko beraren Semearen izena, ta izatea S *Juanek dionez: qq. *Da* *Jesu-Kristoren beraren senide izatea, ta *Jesu-Kristorekin berarekin Zeruko Erreñuaren heredero geratzea. (Aguirre Asteasu, *Erakusaldiak*).

(113) Erakus dizazkiogun orain hiru paradigмок ofizioko gizon bati, *ofiziotikoa da* hizkuntza franko, ahalik gehienak, nola aldatu diren dakiena (...) (Mixelena, *Idazlan hautatuak*).

Esanak esan, guztiz engainagarria da pentsatzea “X da Y” lizentziatzeko hurrenkeran dagoela definizioen idazkera-arazo guztien edo gehienen konponbidea. Izan ere, definizio ilun batek iluna izaten segituko du, definizioaren osagaien ordena gorabehera:

(114) # MATXINSALTOA DA jauzi egiteko moldatuta dauden atzeko hanka luze eta sendoak dituzten ortopteroen ordenako *intsektua*.

²⁷ Azpimarratzekoa da, nolani ere, Garziak ongi ohartarazi duenez, letra inisial larriz ematen duela Axularrek definigaia (*Piramidea edo Piramideak ziren...*).

(115) # MATXINSALTOA jauzi egiteko moldatuta dauden atzeko hanka luze eta sendoak dituzten ortofteroen ordenako *intsektua* DA.

(116) # Jauzi egiteko moldatuta dauden atzeko hanka luze eta sendoak dituzten ortofteroen ordenako *intsektua* DA MATXINSALTOA.

Definizio egoki baten giltzarria ez datza, besterik gabe, “X” [definigaiia], “Y” [predikatua=definizioa] eta “da” osagaien hurrenkeran. Gorago erakutsi dugun bezala (2. atala), predikatuaren (definizioaren) luzera eta antolamendua ere erabakigarriak dira: zenbat eta predikatua (definizioa) korapilatsuagoa izan, orduan eta zailtasun gehiago izango ditugu esaldia prozesatzeko. Horregatik ez dugu batere arazorik, ordena gorabehera, definizio labur eta ongi antolatuekin:

(117) MATXINSALTOA DA *intsektu jauzikari bat*, berde horixka, otiaren anzekoa baina alorretan *kalterik egiten ez duena* (...)

(118) MATXINSALTOA *intsektu jauzikari bat* DA, berde horixka, otiaren anzekoa baina alorretan *kalterik egiten ez duena* (...)

Edozein modutan ere, kontuan hartu behar da euskaraz ere predikazio prototipikoa (“X Y da” / “X da Y” / “Y da X”) ez dela definizioaren adierazpide bakarra. Izan ere, hiztegegintzatik — eta itzulpengintzatik — kanpo bestelako askatasuna eta aberastasuna ditugu definizioaren eragiketa kontzeptuala gauzatzeko eta adierazteko. Alegia, “X Y da” oinarritzko predikazioaz gainera, badira beste ordena eta baliabide batzuk zerbait definitzeko. Hona baliabide horietako batzuk:

a) *DERITZO/DERITZA* (*Yri X deritzo; X deritzo Yri; ...*)

(119) Prentsan, argazki edo irudiren baten azpiko testuari “oin” *deritzo*. (Joxerra Gartzia: *Egonean doazen geziak*, 160. or.)

(120) ASANBLADA *deritzo* guztion onerako zer egin behar den eta zer ez deliberatzen duen giza taldeari. (*Herritarra*, 104. or.)

(121) Gauza desberdinei deitura desberdinen ematearren, ‘*tirano*’ *erraten diot errege aginpidea usurpatzen duenari, eta ‘despota’ botere subiranoaren usurpatzaileari*. Legeen arabera gobernatzeko, legeen kontra gobernamenduan jartzen dena da tiranoa. (*Gizarte-Hitzarmena*, Klasikoak, 117. or.)

(122) Bi kurba jarraituren arteko kota-desberdintasunari *tarte deritzo*.

Zenbaitetan, deskripzio luze baten ondoren eta aparteko esaldi batean ageri dira horrelako esapideak (*deritzo / esaten zaiio...*), baina erakusle anaforiko batez uztartzuz aurreko deskripzioa (definizioa) eta definigaiia (... *Gobernamendu era horri X deitzen zaiio*):

(123) Lehen-lehenik, subiranoak populu osoaren edo populuaren parte handienaren gomendiotan utz dezake gobernamendua, halako gisaz non hiritarretan partikular baino magistratu gehiago baita. *Gobernamendu era honi ‘Demokrazia’ deritza*. (*Gizarte-Hitzarmena*, Klasikoak, 95. or.)

b) GALDE-ERANTZUNA: ZER DA X? (BADA,) Y (DA), (...) -NA.

(124) Zer da birtutea? Ondo bizitzeko laguntzen digun doai bat, gure bizi-moduari dagozkion obra onak erraz egitera mugitzen gaituana. (0326 Gerriko Kristau Dotriña 1_ Lib).

(125) Zer da nagitasuna? Jaungoikoaren serbizioarako, eta gure animen onerako edo salbaziorako obra onak egiteko igitasuna, atzerapena edo gogoaren urritasuna. (0326 Gerriko Kristau Dotriña 1_ Lib).

c) ZER DA X? BADA, [X-K] ESAN NAHI DU Y...

(126) Zein da bigarren birtute kardinala? Justizia. Eta zer da justizia? Era askotara hitz au aditu diteke; bada generalkiro aditzen bada, esan nai du, birtute guziak edukitzea; Jaungoikoaren eta projimoaren amorio egiazkoa bere biotzean edukitzea, Jaungoikoaren adiskide izatea, eta aren grazian egotea; (...) (0326 Gerriko Kristau Dotriña 1_ Lib).

d) X HITZAREN BIDEZ Y IZENDATZEN DA ...

(127) "Metafisika" hitzaren bitartez izadiaz harago dagoenaz arduratzen den diziplina izendatzen da.

e) X-REN DEFINIZIO BAT HAU IZAN DAITEKE: ...

(128) Teknikaren definizio bat hau izan daiteke: (...)

f) (...) HONELA DEFINITZEN DA X: Y...

(129) (...) honela defini daiteke administrazio-zuzenbidea: herri-administrazioaren kokapen juridiko berezia arautzen duen estatu barruko zuzenbide publikoaren adarra (Gómez Ferrer). (X. Arzoz: *Administrazio Zuzenbidea*, eskuizkribua).

g) X (, HAIN ZUZEN,) ZERA DA: Y...

(130) Mutazioa bat gertatzea zera da: nola edo halako aldaketa izatea informazio genetikoan, hots, testu genetikoa osatzen duen base-katean: letra baten ordeztze bat agertzea, letrak gehitu nahiz galtzea, sekuentzia haustea, letrak iraultzea, lekuz aldatzea, tartekatzea, eta abar. (F. Jacob: *Sagua, eulia eta gizakia*, 58. or.; J. Garziak euskaratua).

h) (...) X HITZ HAUETAN BILTZEN DA: (...)

(131) Beraz, baldin haren muiari ez dagokiona bazterrean uzten bada, ikusiko da gizarte paktua hitz hauetan biltzen dela: gutarik bakoitzak (...) (*Gizarte-Hitzarmena*, Klasikoak, 45. or.)

Bidenabar, kalko okertzat hartu behar dira *X Y BEZALA DEFINITZEN DA eta antzekoak:

(132) (...) *non, pertsona elebiduna, lau hizkuntz gaitasunetako bakoitzean, hots, ulertu, hitz egin, irakurri eta idaztekoan *gutxieneko gaitasuna duen hura bezala definitzen baitu*.

i) X EZ DA Y: EZ DA Y' BESTERIK // X EZ DA Y, AITZITIK Y' / ...

Beste batzuetan alderantziz jokutzen da definizioetan: lehenik zerbait zer ez den adierazten da, eta gero, zer den. Hona adibide zenbait:

(133) *Isats horratik ez da gorputza: ez da gorputzarentzat kalte gehiegirik gabe motz daitekeen eraskin luzea edo laburra besterik*. (Mitxelena, *Idazlan hautatuak*).

(134) Saussurek eta ondorengoek diotena hauxe da, gutxi gorabehera: *hizkuntza bat ez dela handik eta hemendik bildurikako gai pila, aitzitik sistema bat, bere egitura duen sistema, eta sistema horren elementuek sistematik hartzen dutela beren izatea eta beren izaera, ez sistemak elementuetarik*. (Mitxelena, *Idazlan hautatuak*).

j) X EZ DA Y BAIZIK

(135) *Euskal hitza ez da* hemen, behinola Euskaltzindiak erabaki zuenari gagozkiola, aspaldidanik euskaldunok darabilgun hitza *baizik*, datorren lekutik datorrela. (Mitxelena, *Idazlan hautatuak*).

(136) *Gure berezitasuna ez da* europartasunaren hezur-mamiei usain eta kolore berexi antzekoa ematen dien larmintz mehea *baizik*. (Mitxelena, *Idazlan hautatuak*).

(137) Sustraietaraino bagoaz, *ez du hitz honek ['isomorfismo'] besterik esan nahi*, hizkuntzaren alde batek bestearekin, hizkuntza batek beste batzuekin, halako antz eta egitea baduela *baizik*. (Mitxelena, *Idazlan hautatuak*).

Euskaltzaindiko Gramatika-batzordeak ohartarazi duenez, ondo bereizi behar da zerbait definitzerakoan zein den definigai eta zein den definizioa. Eta bereizketa hori gauzatzeko modu bat tarteki egokiak sartzea da:

k) TARTEKIAK:

X, (HALAKOREN) DEFINIZIOAREN ARABERA, Y DA

X, HALAKOK DIOENEZ, Y DA

X, HAIN ZUZEN, Y DA

X, AZKEN BATEAN, Y DA

X, BERAZ, Y DA

(138) # Agiri publikoak notarioak edo enplegatu publiko eskudunak legeak agindutako solemnitateekin eskuesten dituenak dira.

(139) # Agiri publikoak dira notarioak edo enplegatu publiko eskudunak legeak agindutako solemnitateekin eskuesten dituenak.

(140) Agiri publikoak, *hain zuzen*, notarioak edo enplegatu publiko eskudunak legeak agindutako solemnitateekin eskuesten dituenak dira²⁸.

(141) # Definizio hedatu batek dioenez, administrazioa legegintza, jurisdikzioa edo gobernuaz ez den estatuko jarduerak da.

(142) Administrazioa, *definizio hedatu batek dioenez*, legegintza, jurisdikzioa edo gobernuaz ez den estatuko jarduerak da.

Letra etzana edo komatxoak erabiltzea da definigaia eta definizioa elkarrengandik bereizteko beste estrategia egoki bat.

l) LETRA ETZANA EDO KOMATXOEN ERABILERA:

(143) *Legegintza* legeak ematea da; *jurisdikzioa* herritarren arteko eta administrazioarekiko auziak ebazteaz arduratzen da; eta *gobernuaz* barruko eta kanpoko politika, administrazio zibila eta militarra zuzentzea da (hala dio, behintzat, EKren 97. artikulua). (X. Arzoz: *Administrazio Zuzenbidea*, eskuizkribua).

(144) Guretzat, "*errainua*" da guztiok itsatsirik daramaguna eta harako Peter Schlemihl hark galdu omen zuena. (Mixelena, *Idazlan Guztiak*²⁹).

m) Y DA X

Zenbaitetan, "Y DA X" ordena markatuaren bidez bereiz daitezke ondoen non bukatzen den definizioa eta non hasten den definigaia, betiere predikatua (Y = definizioa bera) asko luzatzen ez bada³⁰:

(145) # Definizio hedatu batek dioenez, administrazioa legegintza, jurisdikzioa edo gobernuaz ez den estatuko jarduerak da.

(146) Definizio hedatu batek dioenez, legegintza, jurisdikzioa edo gobernuaz ez den estatuko jarduerak *da administrazioa*. (X. Arzoz: *Administrazio Zuzenbidea*, eskuizkribua).

(147) *Zentzu arruntean, indarkeriaren bidez, justiziaz eta legeez konturik egin gabe, gobernatzen duen erregea da tiranoa. Adiera hertsian, eskurik gabe errege aginpidea hartzen duen partikularra da*. Horrela aditzen zuten grekoek 'tirano' hitza. Legitimoak ez ziren printze gaiztoentzat eta onentzat berdin erabiltzen zuten. Halatan 'tiranoa' eta 'usurpatore' arras sinonimo diren bi hitz dira. (*Gizarte-Hitzarmena*, Klasikoak, 117. or.)

²⁸ Eusko Legebiltzarreko Itzulpen Zerbitzuak prestatutako txostenetik (2005) jaso eta egokitu ditut goiko adibideak.

²⁹ Ohar bedi irakurlea adibide honetan "X da Y" lizentziaz baliatu dela Mixelena, baina mintzagai edo definigaia komatxoaren bidez bereiziz.

³⁰ Garziak (1997: 239) ongi dioenez "Garbi dago, hala ere, definizioa luzatzen eta konplexuagotzen bada, gero eta desegokiagoa dela molde hori ["Y DA X"], (amaieran baitator) ezagutzen ez dugun definigai batez ari garelako denbora luzeegian, eta ez baitakigu zein markotan kokatu informazio hori...".

n) Y DA X, (ETA) EZ Y'

Sarritan, baieztapenari ezeztapena darraio; alegia, lehenik zerbait zer den esan ostean, zerbait hori zer ez den zehazten da: “Y da X, (eta) ez Y’”. Hona Mitxelena adibide bat:

(148) Azken iturburuen ardura hiztegi etimologjiko bati dagokio, ez hizkuntza ahoz nahiz izkribuz darabilenari. *Mintzabide eta adierazpide da honentzat hizkuntza, ez historia eta prehistorietako harremanen jakinbide.* (Mitxelena, *Idazlan hautatuak*).

ñ) X Y-Z ARDURATZEN DA / Y-Z ARDURATZEN DA X...

Y AZTERTZEN DU X-K / X-K Y AZTERTZEN DU...

Uste baino sarriago, definizio “inplizituak” ematen dira. Alegia, zerbait zer den adierazi beharrean, zerbait horrek zer egiten duen, zer duen aztergai, zertaz arduratzen den... adierazten da. Hots, *Ezagutza aztertzen duen diziplina filosofikoa da epistemologia* definizio agerikoaren ordez *Ezagutza aztertzen du epistemologiak* definizio inplizitua ematen da.

(149) Genetikak organismoen planoan *aztertzen du*; leinu germinalak transmitituriko gene sorta batek dauka bere baitan plano hori, eta haren arabera definitzen da geroko organismoaren arkitektura. (*Sagua, eulia eta gizakia < Ereduzko Prosa Gaur*).

(150) Lehena izadiak *arduratzen da*, bere ezagutza esperientzian (in concreto) aplika daitekeen heinean; bigarrena, esperientzia oro gaintitzen duen esperientziaren objektuen elkarloturaz. (*Arrazoimen hutsaren kritika < Ereduzko Prosa Gaur*).

o) DESKRIPZIO XEHEA

Bestalde, askotan deskripzio zehatz baten bidez adierazten da gauza bat zer den. Horretarako, mintzagai (definigai) bera duten esaldi bat baino gehiago kateatzen dira paragrafo berean:

(151) *Administrazioa* ‘ekintza’ da. *Administrazioa* estatuko botere aktiboa da; gainerako botereak adierazleak dira soilik, hots, adierazpenak baino ez dituzte ematen, orokorrak (legegileak) edo zehatzak (botere judizialak). *Administrazioa* adierazpen horiek betetzeaz arduratzen da. *Haren* ekintza-objektua oso zabala da: gizarte-bizitza osoa. *Administrazioa* gizartearen eta gizarteko gizabanakoaren kontuez arduratzen da. (X. Arzoz: *Administrazio zuzenbidea*).

Aurreko paragrafoetan, definitzeko baliabideen inbentario xehe-xehea egiteko inolako asmorik gabe bada ere, zera utzi nahi izan dugu agerian: terminogintzatik kanpo, askatasun handi samarra eta uste baino baliabide gehiago ditu testugileak zerbait zer den adierazteko, beti “X da Y” predikazio soilera mugatu gabe. Izan ere, “X da Y” joskeraren soiltasun eta bereizgarri falta direla medio, oso anbiguo eta nahasgarri gerta daitezke halako hurrenkeran oinarrituriko definizioak.

Nolanahi ere, egia da —“X da Y” lizentzia alde batera utziz gero— orain arte erakutsi ditugun baliabideetatik asko nahiko “mugatuak” direla inguruko erdaretan dabilen joskera-eredu ohikoena imitatzeke. Izan ere, definizioak ematean, inguruko erdarek esaldi bakarreko joskera luze eta etenik gabea dute gogokoen, eta joskera-eredu horretara nekez baizik ez da hurbiltzen euskara. Hala eta guztiz ere, euskaraz definizioak joskera jarraituan emateko dugun eragozpen hori abantaila bihur daiteke: kataforak eta “bi puntuak” erabiliz, esate baterako, testu ulergarriagoak lortuko ditugu, joskera etenik gabea erabiliz baino; hobeto bereiziko ditugu definizioa eta atribuzioa, eta, orobat, definigaia eta definizioa; gainera, irakurleari seinale argiagoak emango dizkiogu definizio baten aurrean dagoela jakiteko eta testuaren norabideaz jabetzeko³¹.

BIBLIOGRAFIA

- Alvar, M. 1993. *Lexicografía descriptiva*. Barcelona: Bibliograf.
- Biguri, K. (1994), “Erdarazko erlatiboan itzulpenaz”, *Senex*, 10. urtea, 1994: 37-71
- Bosque, I. 1982. “Sobre la teoría de la definición lexicográfica”, *Verba*, 9, 105-123.
- Cabré, T. 1993. *La terminología. Teoría, metodología, aplicaciones*. Barcelona: Antártida/Empúries.
- EHUko Euskara Zerbitzua; EHUko Erizaintza Eskola (2005): *Erizaintzako hiztegia*. Bilbo: EHUko Argitalpen Zerbitzua.
- España, E. 1998. “Defini dezagun geure burua”, *Administrazioa Euskaraz*, 20. zenbakia.
- Etxebarria, J.R. 2004. “Naturala al da matematikaren arloko definizioetan erabiltzen dugun euskara?” in *Euskera Zientifiko-teknikoa: Normalizaziotik Homologazinarora. IX. Jardunaldiak*, 295-317. Bilbo: Mendebalde Euskal Kultur Elkarte.
- Ereduzko prosa gaur*: <http://www.ehu.es/euskara-orria/euskara/ereduzkoa/araka.html>
- Euskaltzaindia (Gramatika Batzordea). 2004. *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak-V (Mendeko Perpausak-I)*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila. 2002. *Terminologia-lanaren metodologiako eskuliburua*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila. 2002. *Terminologia-lanaren metodologiako eskuliburua*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Eusko Jaurlaritzako Itzulpen Zerbitzua. 2005. *Gaztelania formaletik euskarara itzultzeko estrategiak*. Eskuizkribu argitaragabea.
- García, J. 2003. “Modifikatzaileen metaketa izen-sintagma barruan”, *Espezialitate-Hizkerak eta Terminologia: Jardunaldiak*. 113-131. Bilbo: Euskal Herriko Argitalpen Zerbitzua.
- García de Quesada, M. 2001. *Estructura definicional terminográfica en el subdominio de la oncología clínica*. in *Estudios de lingüística española*, vo. 14. (<http://elies.rediris.es/elies14/index.html#indice>).
- Garzia, J. 1997. *Joskera lantegi*. Donostia: IVAP.
- GDT (*Le Grand Dictionnaire Terminologique*): http://www.granddictionnaire.com/btml/fra/r_motclef/index1024_1.asp

³¹ Ikus Garzia (1997: 245-246).

ISO 704. 2000. *Terminology work. Principles and methods = Travail terminologique. Principes et méthodes*. Geneva: ISO.

Kaltzakorta, M. 1997. "Definizioak ematen", *Administrazioa Euskaraz*, 16. zenbakia.

Sarasola, I. 1997. "Euskal hiztegitzaren eta terminologiaren inguruan", *Nazioarteko Terminologia Biltzarra*, 69-86 or., Donostia: IVAP-UZEI.

Zgusta, L. *Manual of Lexicography*. Praga-La Haya-Paris.

Gaztelaniazko agindu- edota betebehar-balioko geroaldiaren ordainak euskarazko administrazio-testuetan

Axun Aierbe Mendizabal

Euskal Herriko Unibertsitatea

1. AGINDU- EDO TA BETEBEHAR-BALIOKO GEROALDIA GAZTELANIA ESTANDARREAN

Gaztelaniazko indikatiboko geroaldiak, geroa adierazteaz gain, agindu- edo betebehar-balioa ere badu, eta aginduak emateko erabiltzen da; eta ezezko perpausetan, berriz, debekuak adierazteko. Gaztelaniazko gramatika orokorretan, erabilera horiek jaso izan direnetan, esan ohi da nagusiki bigarren pertsonan baliatzen dela (Gili Gaya 1979: 165; Garrido Medina 1999: 3.919-3.920), hirugarren pertsonan ere noizbehinka ager daitekeela adierazi arren (Real Academia Española 1991: 362).

Gili Gayak diosku, gaztelaniazko geroaldiaren jatorriaz mintzo delarik, aditz-perifraasi bat zela hasieran eta egintza bat gauzatzeko orainaldiko betebeharra adierazten zuela; eta ondoren, betebehar-esanahi horretatik geroaldi soila adieraztera igaro zela. Betebehar-adiera horren aztarnatzat du egun agindu-balioko geroalditzat jotzen dena, eta nagusiki bigarren pertsonan baliatzen dela diosku, eta bereziki debekuak adierazteko erabilia dela (Gili Gaya 1979: 165). Honako adibide hauek eman ditu, besteak beste¹:

1. Me traerás el pañuelo.
2. No matarás.

Garrido Medinak, berriz, berbaldian ageri diren aginterazko perpausaz mintzo delarik, aginduak emateko zeharkako prozeduren artean jasotzen du geroaldia baliatzea; izan ere, entzulea den subjektuarentzat geroaldiko ekintza denez, agindu edo eskari gisara uler daiteke. Nolanahi ere, geroaldia baliatuz eman dituen adibideetan ezezko perpausak soilik aurki genitzake, eta hortaz, agindu horiek debekuak direla baieztatu genezake. Debekuak direla-eta, Garrido Medinak dio testu formaletan indikatiboko geroaldia baliatuz adierazten direla, eta (2)an emaniko adibide bera erabili du erakusgarritzat (Garrido Medina 1999: 3.919-3.920).

¹ Azpimarrak gureak dira adibide gehienetan.

RAEren Gramatika-batzordeak dio agindua edo debekua denbora- edo leku-zehaztapenik gabe ematen bada, agintera geroaldiak ordezka dezakeela bigarren pertsonan²; eta hirugarren pertsonan, berriz, geroaldia balia daitekeela, denbora-eta leku-zehaztapen eta guzti, erabilera hori oso ohikoa ez den arren³ (Real Academia Española 1991: 362).

2. BESTE HIZKUNTZA BATZUETAKO GEROALDIAREN BALIO DEONTIKOAZ

Beste hizkuntza batzuetan ere geroaldia agindu-balioaz edo balio deontikoaz erabiltzen denez, bai bigarren bai hirugarren pertsonan, hainbat lekukotasun bildu nahi izan ditugu hona:

a) Frantsesez, esate baterako, Grevissek dioenez, geroaldia erabil daiteke agintera geroaldiko balioaz adierazteko, eta baita agindu bat edo eskari bat leunago adierazteko ere (GREVISSE 1980: 844):

3. Vous ferez tenir cette lettre à monsieur X.

Era berean, *devoir* aditza edo antzekoren bat erabil daitekeela dio (GREVISSE 1980: 844):

4. Son procès doit passer prochainement.

b) Ingelesezt, berriz, *will* nahiz *shall* laguntzaileak erabiltzen dira adiera honetan. *Will* laguntzaileari dagokionez, bigarren pertsonako subjektu egile bati aginduak emateko edo eskariak egiteko baliatzen da, eta lagunarteko hizkeran, berriz, *be going* erabiltzen da balio berarekin (Huddleston & Pullum 2002: 194):

5. You will report back for duty on Friday morning.

6. You're going to go out there and give them all you've got.

Eta *shall* laguntzailea ere erabiltzen da balio deontikoaz, Huddlestonek eta Pullumek emaniko adibide honetan ikus daitekeen gisan:

7. The committee shall meet at least four times per year.

Bestalde, baiezko perpausetan *must* erabiltzen da ingelesez behar deontikoa adierazteko (Huddleston & Pullum 2002: 182).

² Adibide guztiak erlijio-arlokoak dira: "*Amarás a tu Dios sobre todas las cosas; No matarás; No jurarás en vano*".

³ Honako adibide hauek dakartza: "*Me traerás la respuesta; Irá usted; Vendrán ustedes a las diez*". Ikus daitekeen bezala, geroaldia hirugarren pertsonan baliatzeaz emaniko adibide guztietan bigarren pertsonakoa da subjektua, azken bi adibideetan ageri den aditzaren forma hirugarren pertsonakoa izan arren, *usted(es)* erabilera formaleko bigarren pertsonako izenordain singularrari eta pluralari baitagozkio adizkiak.

c) Italiaraz ere, Renzik eta Salvik diotenez, geroaldiak dituen balio modalen artean, balio deontikoa ere badu, eta aginduetan, ordenantzetan eta antzekoetan baliatzen da (Renzi & Salvi 1991: 116):

8. D'ora innanzi, i trasgressori pagheranno il doppio della penale fissata in precedenza.

d) Katalanez ere badu balio hori geroaldiak Pérez Saldanyak dioenez, izan ere, egile batek kontrolaturiko gertaeretan, geroaldiak subjektuaren ezaugarrien araberrako ñabardurak izan ditzake, eta horien artean, agindu-balioa hartzen du solaskidearekin identifikatzen bada (9) eta betebehar-balioa, berriz, orokorra bada (10, 11 eta 12) (Pérez Saldanya 2002: 2.636):

9. Diràs a la mare que me n'he hagut d'anar, ¿d'acord?

10. No mataràs.

11. Honraràs pare i mare.

12. Els sol·licitants lliuraran el full d'inscripció a la secretaria.

Atal honetan, nabarmentzekoa da gramatika orokorretatik jaso ditugun hainbat adibide administrazio-arlokoak direla, hala nola, ingelesezko azken adibidea, italiarazkoa eta katalanezko azkena. Administrazio-arloko adibide horiek guztiak hirugarren pertsonakoak dira; aldiz, hizkuntza orokorrekoak eta erlijio-arlotik jasotakoak bigarren pertsonakoak dira, ñabardura horren berri, gehienetan, berariaz ematen ez bada ere.

3. GEROALDIA ETA AGINDU- EDOTA BETEBEHAR-BALIOA EUSKAL GRAMATIKETAN

Euskaraz, betebeharra adierazteko 'aditza + *behar izan/ukan*' motako perifrasiak gramatiketan jaso ez ezik, luze-zabal deskribatu badira ere⁴, ez da gauza bera gertatzen debekuak eta aginduak adierazteko geroaldia erabiltzeaz bibliografiak dioena aztertzerakoan. Lafittek, geroaldiaren bigarren mailako erabileren artean, bigarren pertsonan emaniko adibide batzuk jaso ditu, eta geroaldia erabiliz aginduak, errekuak eta beste adieraz daitezkeela baieztatu du tankera honetako perpausetan (Lafitte 1987: 375): *bertzerena ebatsiko ez duzu* — ezezkoa izanik, debekuzkoen artean sailkatuko genukeena, laugarren atalean eginiko sailkapena kontuan harturik — edo *Jauna, ene othoitza onhartuko duzu* gisakoetan.

4. ADMINISTRAZIOKO TESTUETAKO ERABILERA GAZTELANIAZ

Administrazioko testuetan hainbat baliabide ditugu aginduak emateko eta betebeharrak adierazteko, baina ez da ohikoena —ez gaztelaniaz eta ezta euska-

⁴ Esate baterako, Euskaltzaindiaren gramatiketan nahiz Hualdek eta Ortiz de Urbinak argitaratu emantiko *A Grammar of Basque* liburuan azalpen zehatzak aurki daitezke.

raz⁵ ere— agintera erabiltzea. Nolanahi ere, euskarazko erabileraz mintzatu aurretik, gaztelaniazko erabilerari lotuko gatzaizkio.

Testuotan, oso ohikoa da geroaldia agintera-balioan erabiltzea hirugarren pertsonan, eta horrela jasota dago *Manual de estilo del lenguaje administrativo* liburuan, esaterako. Geroaldiaren bidez, agindua beteko den ziurtasuna adierazten dela esaten da eskuliburu horretan, eta geroaldi soilaren bidez nahiz ‘*deber* + infinitibo’ gisako perifrasiari berri ematen du, *deber* aditza geroaldian dela (Ministerio de Administraciones Públicas 1997: 95):

13. Los artistas extranjeros designarán el representante a que se refiere...
14. Deberá cumplimentarse...

Nolanahi ere, Calvo Ramos da gaztelaniazko erabileraz luze-zabalen mintzatu dena; izan ere, betebeharrak adierazteko, perifrasiarekin gain, agintera, agindu-balioko indikatiboko geroaldia eta indikatiboko orainaldia baliatzen direla dio (Calvo Ramos 1980: 149). Agindu-balioko geroaldiaz esana du aginduak nahiz debekuak adierazteko bigarren eta hirugarren pertsona singularrean eta pluralean ager daitekeela, eta geroaldia baliatzeak agindutakoa beteko den ziurtasuna adierazten duela (Calvo Ramos 1980: 150), eta gainera, aginduak emateko baliatzen diren hiru formen artean, geroaldia dela erabiliena:

“De las tres formas del mandato: imperativo, futuro y presente de indicativo, son los futuros de mandato los que aparecen con mayor frecuencia en el lenguaje administrativo. Están en construcciones activas o pasivas con ‘ser’ o acompañados del ‘se’ impersonal o pasivo reflejo” (Calvo Ramos 1980: 150).

Horrela, bada, hiru azpimultzo osa genitzake agindu-balioko geroaldia erabiltzerakoan:

a) Debekuak adierazteko, ezezko perpausetan:

15. Los estudiantes que realicen prácticas no tendrán, en ningún caso, relación laboral o vinculación de cualquier otro tipo, con la institución/empresa y por dicha actividad no tendrán ninguna remuneración.

Azpimultzo honetan, oso ohikoak dira ‘*no poder* + infinitibo’ gisako perifrasiak osatutakoak, *poder* aditza geroaldian dela:

16. No podrán ser beneficiarios quienes se hallen incurso en alguna de las causas establecidas en el apartado 5 del artículo 50 del Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco.

b) Geroaldi soila, baiezko perpausetan:

17. El alumno solicitará la ayuda según el modelo del Anexo I ante el director del centro docente donde curse los estudios.

⁵ Alabaina, bereziki testu juridikoetan (Justizia Administrazioaren ediktuetan) aginterazko hainbat aditz ageri dira: ohikoan ‘bitez’ laguntzailea dutenak eta, batez ere, ‘bedi’ laguntzailea dutenak dira.

c) Betebeharra adierazten duen ‘aditz + infinitibo’ gisako perifrasi baliatuz: ‘*deber* + infinitibo’ perifrasi eta antzekoetan, *deber* edo gisa bereko aditza —edo, batzuetan, parafraasi— geroaldian dela: ‘*haber de* + infinitiboa’, ‘*tener que* + infinitiboa’, ‘*tener la obligación de* + infinitiboa’... Adib.:

18. Las actividades a subvencionar deberán iniciarse en el ejercicio en el que se solicite la ayuda.
19. Las condiciones para poder acceder a las ayudas habrán de mantenerse hasta la liquidación de la subvención concedida.
20. Las entidades beneficiarias tendrán que estar al corriente de sus obligaciones tributarias.
21. Las empresas y/o asociaciones solicitantes tendrán la obligación de comunicar a SPRI, S.A. cualquier solicitud u obtención de subvención o ayuda referida al mismo proyecto.

5. ADMINISTRAZIO-TESTUETAKO ERABILERA BESTE HIZKUNTZA BATZUETAN

Gramatika orokorretan aipaturiko adibideez gain (7, 8 eta 12an jaso ditugu), administrazioko testuetan —eta testu juridikoetan— agindu-balioko geroaldia erabiltzea egoki ote den aztertu du zenbait egilek; izan ere, anbiguotasuna da aginduak adierazteko geroaldia erabiltzeari ikusi ohi zaion arrisku nagusia. Katalanez gertatzen denaz bereziki —eta frantsesez gertatzen denaz, bidenabar—, Duartek diosku bai katalanez bai frantsesez geroaldia erabili ordez, orainaldia baliatu izan dutela —‘*haber de* + infinitibo’ gisako perifrasieta katalanez⁶—, eta horrela lehentasuna ematen zaiola irakurlearen edo erabiltzailearen ikuspegiari, eta testua idazten duena bigarren mailan geratzen dela:

Sorprèn que puguin existir usos verbals específics o d’aparició especialment freqüent en el llenguatge jurídic, perquè de fet els altres llenguatges d’especialitat no presenten en general comportaments verbals específics. Vegem-ne, però, alguns casos. El present mantingut s’utilitza en català (i en francès) habitualment en la redacció de normes, ja que es considera que és preferible que el text sigui llegit tot-hora des de la perspectiva de present i d’actualitat del lector o l’usuari i no des de la perspectiva de futur del redactor respecte al moment de l’aprovació. En castellà, en canvi, s’hi prefereix el futur, sovint amb un valor d’obligació (que en català és preferible de substituir en textos legals i disposicions pel present o per les perífrasis d’obligació), que pot arribar a crear dificultats d’interpretació entre la simple referència a fets futurs o el valor prescriptiu (Duarte 1993: 66).

Bide horretatik, hainbat aholku eta adibide aurkitu ditugu, esaterako, Kataluniako Generalitatek testu juridiko eta administratiboak idazteko emanikoak; hain zu-

⁶ Orainaldiko perifrasi horri *present mantingut* deritza katalanez, eta gaztelaniaz *presente mantenido* darabilte perifrasi hori izendatzeko.

zen ere, 22b-ko aukera⁷ da katalanerako gomendatzen dutena edo 23b proposatzen dute 23a-ren itzulpentzat⁸:

- 22a Als procediments que no tinguin establert un termini concret per emetre una resolució, se'ls aplicarà el règim previst a... (NR)
- 22b Als procediments que no tinguin establert un termini concret per emetre una resolució, se'ls ha d'aplicar el règim previst a... (R)
- 23a Las providencias, los autos y las sentencias serán dictados dentro del plazo que la ley establezca.
- 23b Les provisions, les interlocutòries i les sentències s'han de dictar dins el termini que la llei estableixi.

Gaztelaniaz ere antzeko aholkuen berri jaso dugu. Esate baterako, Leiva Fernández-ek (Hego Amerikako) gaztelaniarako proposatua da honako hau:

· El tiempo del verbo que se utilice en la redacción de las leyes y normas jurídicas inferiores debe ser presente del indicativo.

En la redacción de las leyes en español el tiempo futuro solo debe usarse cuando sea futuro respecto a otro referido en la misma oración o artículo.

Incluso se sugiere el uso del verbo en tiempo presente hasta cuando se exponen los trámites sucesivos de un proceso: “presentada la demanda, se da traslado de ella”; “disuelta la sociedad, se procede a su liquidación...”

Esta conclusión varía según el idioma de que se trate. En francés y catalán suele usarse el presente mantenido, y en inglés el futuro.

En todo caso es fundamental mantener en todo el texto de la norma la misma regla en orden al tiempo del verbo (Leiva Fernández 1999).

Italieraz, Fortisek dioenez, estilo burokratikoaren ezaugarrietako bat da indikatiboko geroaldia baliatzea betebeharra adierazteko. Geroaldiaren ordeztu, aginterako aditz bat edo *dovere* aditzarekin osaturiko egituraren bat ere balia daitekeela dio (Fortis 2005: 73):

- 24. I candidati si presenteranno alle ore...
- 25. Le imprese interessate faranno pervenire la propria offerta...
- 26. Il dichiarante vorrà indicare...

Egile honen hitzetan ere, Duartek bezalaxe, geroaldia erabiltzeak anbiguotasuna sor dezake, gerta baitaiteke irakurlea ez ohartzea agindu bat dela, eta geroaldi soila dela interpreta baitezake.

6. ADMINISTRAZIOKO TESTUETAKO ERABILERA EUSKARAZ

Administrazioeko euskarazko testuetan aski normala da geroaldia hirugarren pertsonan baliatzea aginduak eta betebeharrak adierazteko, eta HAEEK deskribatu

⁷ Interneteko helbide honetatik jasoa: <http://194.179.95.2/justicia/llengua/criteris/redadoc/funcio.htm>

⁸ Interneteko helbide honetatik jasoa: http://www.gencat.net/justicia/serveis/linguistic/suport/fon-ts/lleng_juridic/18

ez ezik proposatu ere egiten du gaztelaniazko geroaldiaren ordainetarako euskaraz ere geroaldia baliatzea (HAEE 1994: 131):

Gaztelaniaz geroaldiak izan dezake agintera kutsua edo esanahia, eta gainera administrazioko idazkietan askotan erabiltzen da. Hona hemen adibide batzuk:

La solicitud irá acompañada de la siguiente documentación...

Eskabideari agiri horiek erantsiko zaizkio...

Eskabideari agiri horiek erantsi beharko zaizkio...

La citada Comisión se constituirá en un plazo no superior a cuatro meses...

... lau hilabete igaro baino lehen eratuko da batzorde hori.

... lau hilabete igaro baino lehen eratu beharko da batzorde hori.

Gaztelaniaz bezalaxe geroaldiak euskaraz badu edo izan dezake aginte-kutsua; beraz, adibideetan ikus daitezkeen bi itzulpen-moduak zuzenak dira, eta hortaz, bata zein bestea erabil daiteke (HAEE 1994: 131).

Geroaldiaren erabilera hori dela bide, Euskara Juridikoaren Mintegia ez dator bat HAEEK proposaturikoarekin. Batetik, “betebeharra adierazteko, «behar» aditza erabiliko dugu, edo «behar izan». Geroaldiak ez du betebeharra adierazten eta” (Urrutia & Lobera 1995: 203) esana dute Euskara Juridikoaren Mintegikoek. Gainera, lege-teknikan aditu direnek esanikoak ere aintzat harturik, ondoko baieztape-nak egin dituzte:

Aditz nagusi guztiak indikatibozko orainaldian jarri behar dira, orainaldiak indarrean iraun eta gaur egungo egoera deskribatzen duelako. Gainera, lege xedapenak indarrean sartzen den unetik aurrera aplikazio iraunkorra du eta iraunkortasuna oso ondo islatzen du orainaldiak. Geroaldia, beraz, etorkizuneko ekintzak edo egoerak adierazteko erabiliko da. Batzuetan, batez ere Administrazioaren betebeharrak adierazteko, geroaldia jasan daiteke (Urrutia & Lobera 1995: 204).

Azkenaldi honetan, HAEEK proposamen zehatza egin du betebeharrak adierazterakoan euskaraz balia daitezkeen ordainetarako, eta zerrendan lehenengo aukera gisara geroaldia proposatu du eta ondoren datoz ‘(behar-)beharrezkoal nahitaezkoalderrigorre(z)koa izan...’, ‘behar/beharko’, ‘-t(z)eko(ak) izan’, ‘-tu beharra izan’, ‘-tu beharre(t)an egon’ eta beste hainbat aukera (HAEE 2005: 158-159). HAEEK 2003an egin zuen proposamen zehatzaren arabera, ‘aditza + behar’ perifrasi da egokiena betebeharra adierazteko “beharra hain zorrotza ez denean”, eta geroaldia, berriz, agindu zorrotzak eta nahitaezko jarraibideak emateko (HAEE 2003: 125). 2005eko azken proposamen-zerrendan ez du zehaztu 2003an zorrotzatasunaren arabera eginiko mailakatzea. Honako proposamen mailakatu hau egin zuen 2003an:

Graduazio bat egiten ausartuko gara:

— Behar / beharko / behar izango erabili, adierazten den beharra hain zorrotza ez denean (zenbaitetan, baldintza bat agertuko zaigu aurretik):

- [...]
- Dirulaguntza eskuratu nahi duenak ondoko hau egin **beharko** du: eskaera-orria bete, sarrera eman, ziurtagirien kopiak aurkeztu... [Hori eska-

tzen zaio baldin eta helburua lortu nahi badu, baina, azken finean, bere esku dago hori dena egitea].

- Ekonomia Batzordeak hartu **behar** du erabaki hori. [Berari dagokio, baina bere esku dago hartzea ala ez].
- Kasuan kasuko aditza geroaldian erabili, agindu zorrotza denean edo nahitaezko jarraibideak ematen direnean; hau da, esaten dena nahitaez bete behar denean:
- Karguak honela izendatuko dira:... [Egin egingo da eta, gainera, modu horretara].
 - Hemendik aurrera zuen arteko bilerak lan-orduetatik kanpo egingo dituzue, eta ez lan-orduetan.
 - Hiri arteko errepideetan oinezkoek beti zirkulatuko dute galtzadaren ezkerreko bazter-bazterretik.
 - Gidariak ibilgailua geldituko dute oinezkoren batek galtzada gurutzatu nahi duela ikustean.
- *Izan* aditza orainaldian erabili, betebeharrari “errealitate” kutsu handiagoa eman nahi diozunean. Adibideetan ikusi dugunez, zenbaitetan, orainaldia erabiltzen da beharrak adierazteko. Orainaldia errealitatearekin lotzen da eta, nolabait esateko, dagoeneko ezarrita dagoen arau orokorra edo adierazten da:
- Langileak dira, zuzenean, izapideen erantzule. (30/1992 Legea) [Langileena da, nahitaez, erantzukizun hori] (HAEE 2003: 125-126).

Bestalde, euskarazko testuetan, geroaldiaz gain, ‘aditza + *behar izan/ukan*’ perifrasiarekin oso erabilia da orainaldian nahiz geroaldian. Eskuaratean dugun corpusean ikusi ahal izan dugunez, gaztelaniaz egin ditugun bigarren eta hirugarren azpimultzoetako aditzak euskaratzerakoan, zenbaitetan pare-pareko egitura baliatzen bada ere, ez da beti gordetzen egitura bera, eta hainbatetan multzoak trukaturik emana dago ordaina: hau da, gaztelaniazko geroaldiaren ordean, euskaraz geroaldia nahiz ‘aditza + *behar*’ gisako perifrasiarekin agertzen da; eta gaztelaniazko ‘*deber* + aditza’ perifrasiaren ordean, berriz, askotan euskarazko perifrasiarekin baliatzen da eta beste batzuetan —askoz gutxiagotan— geroaldi soila erabiltzen da. Bestalde, gaztelaniaz ‘*deber* + aditza’ perifrasiarekin dugunetan, batzuetan orainaldian ageri da, baina askotan geroaldian, eta euskaratzerakoan, berriz, askotan kideko ordaina baliatzen bada ere, ez da beti hala izaten, aldiari dagokionez bederen, gaztelaniaz *deber* aditza orainaldian egon arren, ‘aditza + *beharko/behar izango*’ ordaina ageri baita hainbatetan, eta alderantzizkoa ere gertatzen baita batzuetan. Hona hemen zenbait adibide itzulpen-motaren arabera sailkatutakoak:

6.1. Kideko ordainak, gaztelaniaz eta euskaraz⁹:

Ohikoena kideko ordaina ematea da, eta ugarienak dira sail honetako adibi-deak¹⁰, erdietan baino gehiagotan gertatzen baita pare-parekoak izatea gaztelaniazko eta euskarazko aditzak, bai geroaldi soila ageri denean baita aditz-perifrasia ageri denean ere:

GAZTELANIAZ

El abono de las ayudas concedidas se realizará de una sola vez, tras la resolución de la convocatoria, remitiendo el importe total a los centros donde cursen los estudios los alumnos beneficiarios. Los centros realizarán de una sola vez el pago a los alumnos a la resolución de la convocatoria. El centro deberá justificar el abono de estas ayudas a la Delegación Territorial de Educación...

Desestimar el resto de peticiones, considerando las limitaciones presupuestarias, los criterios de prioridad establecidos para cada modalidad de ayuda en la Orden de convocatoria o la falta de la documentación que debe acompañar a la solicitud.

La delimitación de la zona en la que se debe prestar el suministro, así como los compromisos de expansión de la red del solicitante en dicha zona se determinan por el plano n.º 2 del proyecto.

EUSKARAZ

Izendatu diren diru-laguntzen ordainketa aldi batean egingo da, deialdiari ebazpena eman ondoren. Ikasle onuradunek ikasketak egiten dituzten zentroetara bidaliko da diru-zenbateko osoa. Zentroek dena batera ordainduko diete ikasleei, deialdiari ebazpena emandakoan. Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzaren aurrean justifikatu beharko du zentroak ordaindu izana...

Gainontzeko eskabideei ezezkoa ematea, kontuan izanik ondokoak: aurrekontu-mugak, deialdia egiteko aginduan laguntza-modalitate bakoitzerako ezarritako lehentasun-irizpideak edo eskabidearekin aurkeztu behar den dokumentazioa faltatzea.

Gas hornidura egin behar den eremuaren mugak eta eskatzaileak eremu horretan sarea zabaltzeko hartutako konpromisoak proiektuko 2. planoan zehaztu dira.

6.2. Gaztelaniazko geroaldiaren ordainetan, perifrasi euskaraz:

Gaztelaniazko geroaldiaren ordainetan, askotan euskaraz perifrasi dugu ordainetan, eta gehienetan perifrasi geroaldian badago ere, batzuetan orainaldian ageri da:

⁹ Adibideak Interneten html formatuan dauden aldizkari ofizialetako testuetatik kopiatuz eskuratu dira. Anbiguotasuna izan dezakeen adibideren batean berariaz adierazi badugu ere, ez ditugu akatsak banan-banan markatu.

¹⁰ Komunikazioaren mugak direla-eta, sail bakoitzeko bizpahiru adibide emango ditugu, baina horrek ez du esan nahi maiztasun bera dutenik azpialdetan deskribatutako aukera guztiak.

GAZTELANIAZ

Los beneficiarios de las ayudas facilitarán cuanta información les sea requerida por la Oficina de Control Económico y el Tribunal Vasco de Cuentas Públicas...

En caso de resolución, las partes determinarán las condiciones para la finalización y pago de los trabajos que se hallen en ejecución.

Los interesados dirigirán sus solicitudes, en las que harán constar sus datos personales y destino actual, a la Dirección de Servicios del Departamento de Transportes y Obras Públicas dentro del plazo de 15 días hábiles...

Las referidas pruebas versarán sobre las materias contenidas en el programa que figura como anexo I a la presente Orden y consistirán en la contestación de un cuestionario de 31 preguntas tipo test. Para su superación se exigirá el acierto de al menos 24 preguntas.

EUSKARAZ

Kontrol Ekonomikoko Bulegoak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak [...] informaziorik eskatuz gero, diru-laguntzen onuradunek eman egin beharko diete informazio hori.

Hitzarmena hausten bada, zein baldintzatan bukatu, eta burutzen ari diren lanak nola ordaindu erabaki beharko dute aldeek.

Parte hartu nahi dutenek Garraio eta Herri Lan Saileko Zerbitzu Zuzendaritzara bidali beharko dituzte eskabideak, [...] hamabost egun balioduneko epean, eta eskabidean datu pertsonalak eta lanpostua egun non duten adierazi beharko dute.

Aipaturiko azterketak agindu honen I. eranskin gisa agertzen den programan bildutako gaiiei buruzkoak izango dira. Azterketan test moduko 31 itauneko galdesorta bati erantzun beharko zaio. Azterketak gainditzeko, gutxienez 24 galderatan asmatu behar da.

6.3. **Gaztelaniazko perifrasiaren ordainetan, geroaldia euskaraz:**

Ez da oso ohikoa gaztelaniazko perifrasiaren ordainetan, euskaraz geroaldia baliatzea, baina aukera hori ere ageri da batzuetan:

GAZTELANIAZ

Así mismo, deberá comunicar al citado órgano la modificación de cualquier circunstancia [...] que se haya tenido en cuenta para la concesión de la subvención.

EUSKARAZ

Diru-laguntza emateko kontuan izan den edozein egoeratan [...] aldaketarik gertatu bada ere, horren berri emango zaio aipatutako organoari.

GAZTELANIAZ

EUSKARAZ

Si se detectaran errores, el Ayuntamiento deberá comunicarlo al Departamento de Transportes y Obras Públicas en el plazo máximo de cinco días, para que, en igual plazo, sean subsanados.

Las solicitudes deberán presentarse en la Dirección de Planificación, Participación y Control Ambiental del Departamento de Ordenación del Territorio y Medio Ambiente...

Okerrik sumatuz gero, Udalak Gerraio eta Herri Lan Sailari jakinaraziko dio, gehienez ere bost eguneko epean, eta beste hainbesteko epea izango du okerra zuzentzeko.

Eskabidean [sic] honako toki haue-tan aurkeztuko dira: Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saileko Ingurumenaren Plangintza, Partaidetza eta Kontrolerako Zuzendaritzan...

6.4. Perifrasietan, orainaldia eta geroaldia trukaturik:

Gaztelaniaz nahiz euskaraz, bietan perifrasi baliatu arren, aditzaren aldiari erreparatuz gero, gehienetan bi hizkuntzetan aldi bera ageri bada ere, ez da beti aldi bera baliatzen bietan eta hizkuntza batean geroaldia dugunean, beste hizkuntzan orainaldia ageri da batzuetan:

GAZTELANIAZ

EUSKARAZ

Los estudiantes de Selectividad del distrito vasco que han solicitado el ingreso en la UPV/EHU para el curso 2005-2006 deben confirmar dicha solicitud para mantenerla o modificarla según sus deseos en las siguientes fechas y oficinas:

Que el alumno tenga que desplazarse obligatoriamente por no existir centro público en su localidad o este carezca de plazas, en cuyo caso deberá estar escolarizado en el centro público que le corresponda por área de influencia.

Hautaprobak euskal barrutian gaindituta izanda 2005-2006 ikasturtean EHU n sartzeko eskaria egin duten ikasleek berretsi egin beharko dute eskaria, lehengoari eusteko edo aldaketak egiteko. Hori honako toki eta egunetan egin beharko dute:

Lekuz aldatu beharra izatea ikasleak bere herrian ikastetxe publikorik ez duelako, edo, izanda ere, plazarik ez egotea; kasu horretan, eragin-eremuaren arabera dagokion ikastetxe publikoan egon behar du eskolatuta.

6.5. Bestelako ordainak

Badira, bestalde, zenbait adibide ohiko itzulbidetzat har genitzakeenetatik at geratzen direnak, hots, geroaldirik edo beharra adierazten duen aditz-perifrasirik baliatu gabe emaniko ordainak. Hori dela-eta, azken multzo honetan bildu ditugu

gaztelaniatzko perifrasiaren ordainetan, *edin* eta *ezan* laguntzaileak dituzten aditzak edo *-tzeko* baliatuz emaniko ordainak.

GAZTELANIAZ

Lo que se hace público para conocimiento de los interesados, a quienes debe servir de notificación individual, con las siguientes advertencias:

La delimitación de la zona en la que se debe prestar el suministro, así como los compromisos de expansión de la red del solicitante en dicha zona se determinan por el plano n.º 01 de fecha 2004.1.

EUSKARAZ

Interesatuek jakin dezaten azaltzen da jendaurrean hori guztia, interesatuek norbanako jakinarazpentzat har dezaten, eta honako hau ohartarazten zaie:

Gasa banatzeko eremuaren mugaketa eta eskatzaileak eremu horretan sarea zabaltzeko hartutako konpromisoak 2004ko maiatzeko data daukan 01 zenbakiko planoan zehaztu dira.

7. ONDORIO GISARA

Ondorio orokor gisara baieztza genezake geroaldiaren betebeharrak-hori hirugarren pertsonan ohikoa ez denez, ez dagoela deskribatuta gramatika orokor gehienetan —eta, beraz, ezta berariaz debekatuta ere—. Baina, bigarren pertsonan erabilia hizkuntza estandarrekota ere baden baliabide hau —gramatika orokorretan bigarren mailakotzat hartu arren—, hirugarren pertsonan erabilia administrazioko testuetako hizkeraren ezaugarritzat jo ohi da gaztelaniaz, eta euskaraz ere, erabile-ra kontuan harturik, antzeko zerbait gertatzen da.

Nolanahi ere, nabarmena da ez dagoela adostasunik euskarari buruzko bibliografian, HAEEK eta Euskara Juridikoaren Mintegiak eginiko proposamenen artean, 6. atalean adierazi bezala. HAEEK onartu ez ezik proposatu ere egiten du geroaldia betebeharrak-haliorekin erabiltzea¹¹; aldiz, Euskara Juridikoaren Mintegiak dio, erabiltzekotan ere, administrazioaren betebeharrak adierazteko soilik baliatu behar litzatekeela. Adibideetan ikus daitekeenez, batzuetan administrazioaren betebeharrak badira ere, gehienetan ez dira administrazioaren betebeharrak geroaldiaren bidez adierazitakoak¹².

BIBLIOGRAFIA

- Calvo Ramos, L. 1980. *Introducción al estudio del lenguaje administrativo*. Madril: Gredos.
Duarte, C. 1993. "El llenguatge administratiu i jurídic". In Duarte, C. *Llengua i administració*. Bartzelona: Columna. 55-69. or.

¹¹ Oraindik goizegi da 2003an eginiko proposamen mailakatuaren eragina aztertu ahal izateko.

¹² Aurkitu ditugun zenbait adibidetan ez da erraza betebeharra den ala geroa soilik adierazten den bereiztea. Anbiguotasuna testuinguruak argitzen du askotan, baina adibide luzeak saihestearren, zalan-tzarako biderik uzten ez dutenak ekarri ditugun hona.

- Fortis, D. 2005. "Il Linguaggio amministrativo italiano". *Revista de Llengua i Dret*, 43, 47-114. or.
- Garrido Medina, J. 1999. "Los actos de habla. Las oraciones imperativas". In Bosque, I. & V. Demonte (zuz.) *Gramática Descriptiva de la Lengua Española*. Madril: Espasa Calpe. 3.879-3.928. or.
- Gili Gaya, S. 1961. *Curso superior de sintaxis española*. Bartzelona: Vox (1979: 12. argitalpena).
- Grevisse, M. 1980. *Le bon usage: Grammaire française avec des remarques sur la langue française d'aujourd'hui*. Paris-Gembloux: Duculot.
- HAAE. 1994. *Hizkera argiaren bidetik*. Gasteiz: Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea.
- HAAE. 2003. *Galdezka: Euskarazko zalantzei erantzunez*. Gasteiz: Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea.
- HAAE. 2005. *IVAPeko estilo liburua*. Gasteiz: Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea.
- Huddleston, R. & G. K. Pullum. 2002. *The Cambridge Grammar of the English Language*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Laffite, P. 1944. *Grammaire basque (Navarro-Labourdin littéraire)*. Donostia: Elkar 1987.
- Leiva Fernández, L. 1999. "Técnica Legislativa en el Momento Actual: El Uso de las Check Listed".
[Interneteko helbidea http://www.congreso.gob.pe/comisiones/1998/r_codigos/mdeloinv.htm]
- Ministerio de Administraciones Públicas. 1990. *Manual de estilo del lenguaje administrativo*. Madril: Ministerio de Administraciones Públicas (1997: 6. berrargitaraldi berrikusi eta zuzendua).
- Pérez Saldanya, M. 2002. "Les relations temporals i aspectuals". In Solà, J., M.R. Lloret, J. Mascaró & M. Pérez Saldanya (zuz.) *Gramàtica del català contemporani*. Bartzelona: Empúries. 2.567-2.662. or.
- Real Academia Española. 1973. *Esbozo de una nueva gramática de la lengua española*. Madril: Espasa-Calpe (1991: 13. berrargitaraldia).
- Renza, L. & G. SALVI. 1991. *Grande grammatica italiana di consultazione. II. I sintagmi verbale, aggettivale, avverbiale. La subordinazione*. Bolonia: Il Mulino.
- Urrutia, A. & G. Lobera. 1995. *Euskara, Zuzenbidearen hizkera*. Bilbao: Deustuko Unibertsitatea.

Magnitude fisikoen neurrien deklinabidea eta joskera

José Ramón Etxebarria

Magnitude fisikoen neurrien adierazpide sinbolikoa nahiko ongi araututik dago gaur egun, eta zientzia-gaiei buruzko aldizkarietan adostasun handia lortu da horien idazkerari dagokionez. Zehatzago hitz eginez, magnitude fisikoen unitateen laburdurak nazioarteko onarpena dutela esan dezakegu; horregatik, euskarari dagokionez, arau horiek ikasi eta bete besterik ez dago, ene ustez. Egia esanda, gure artean ez da arazorik sortu neurrien idazkera sinbolikoa gauzatzean; alegia, neurriak zenbakien eta unitateen laburdurekin idaztean adostasun ia erabatekoa dago, euskara arruntean erabiltzen diren arauen ondoriozko bizpahiru ñabardura alde batera utzita. Hain justu, Euskararen Aholku Batzordeak berriki argitaratu duen *Ortotipografia* izeneko liburu interesgarrian¹, besteren artean, hainbat aholku/arau azaltzen dira ikasmaterialen prestaketan dihardugunontzat, eta horien artean magnitude fisikoen neurrien adierazpide sinbolikoari buruzkoak ere badira, gehienbat nazioarteko arauetan oinarriturikoak. Oro har, ados gaude bertan adierazitakoekin, lan honetan aipatuko ditugun ñabardura batzuk gorabehera.

Arazoak, ordea, neurri horiek euskarazko egituretan eta testuetan integratzean azaltzen dira (hots, irakurtzean eta testuen barruan idaztean), zeren orduan euskarara egokitu behar baititugu, edota euskara bera egokitu behar baitugu ordura arte ohikoak izan ez diren esamoldeak sortzeko. Hain zuzen ere, bi arlotan agertuko zaizkigu problemak: batetik, deklinabide-atzizkiak gehitzen ditugunean eta, bestetik, deklinaturiko neurri unitatedunak esaldien barneko beste hitzekin lotzen ditugunean. Neurrien deklinabidea eta joskera izango dira, hortaz, euskaraz bereziki egokitu eta erabaki beharko ditugunak.

1. NEURRIAK SINBOLOEN BIDEZ IDAZTEKO ARAU OROKORRA ETA NEURRIEN DEKLINABIDEA

Magnitude fisikoen neurriak *zenbatzailea + unitatearen izena* motako izen-sintagma dira. Hortaz, neurriaren adierazpideari dagozkion zenbakiak eta unita-

¹ Zubimendi, J. R., *Ortotipografia. Ikasmaterialaren Aholku Batzordea. Estilo-liburuaren lehen atala*, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Vitoria-Gasteiz (2004).

te-sinboloak osaturiko izen-sintagma deklinatu egiten da bere osotasunean, euskarazko izen-sintagmekin egin ohi den moduan, nahiz eta, gehienetan, unitatearen izena era sinbolikoan adierazten den, nazioarteko sinboloak erabiliz. Zernahi gisaz, unitatearen izena sinbolo bidez idaztean, bada arau orokor bat, erabiltzaileen adostasuna bereganatu duena. Preseski, arau hori da azken urteotan ohikoa izan dena eta *Ortotipografia* liburuan proposatzen dena, honako hau preseski: «*deklinabide-atzizkia sinboloaren ondoren idazten da, unitate-sinboloari marratxoz erantsita*». Hona hemen zenbait adibide:

15 km-ra, 5 kg-ko, 3 N/cm²-tik, 7 kW-ekoa...

Arau horrek sortzen duen arazo bakarra, unitatearen izenaren amaierako letra dela-eta atzizkiari kasu batzuetan lotu beharreko *e* epentetikoa da, hots, 5 kg-ko eta 7 kW-ekoa kasuetan zergatik batean *-e-* idatzi eta bestean *ez*. Irtenbidea euskarazko deklinabidean dago, hitz arrunten kasuan hitza bokalez edo kontsonantez bukatzen den hartu behar baita kontuan *e* epentetikoa sartzeko edo *ez* sartzeko. Agerikoa denez, erantzuna ere bide beretik doa, zeren *bost kilogramo* denez, deklinatzean *bost kilogramoko* behar baitu, eta *zazpi kilowatt* denez, ordea, *zazpi kilowatteko* behar-ko baitu. Hortaz, honelaxe idatziko ditugu:

5 kg-ko baina 7 kW-eko

Horraino ados. Nolanahi den, arazoa sortzen da 1 zenbakiarekin. Izan ere, neurriaren balioa zenbaki horren bidez adierazten dugunean, alderantziz jokatzeko baitugu euskaraz neurria bere osotasunean idazteko eta irakurtzeko. Hain justu, idazteko orduan euskaraz ere nazioarteko araua beteko dugu², baina irakurtzeko orduan euskara arruntean erabiltzen den joskeraz baliatuko gara, hots:

«1 kg» idatziko dugu, baina «*kilogramo bat*» irakurriko dugu.

Beraz, zer jokabide hartuko dugu deklinabide-atzizkia gehitzean? Geure praktikan neurriak irakurtzean euskararen joskera erabiltzen dugunez, logikoa dirudi atzizkiekin ere horrela jokatzea. Horren arabera, «*kilogramo bateko*» esaten dugunez, «1 kg-eko» idatzi beharko genuke, *e* epentetikoa eta guzti, izatez *-eko* baita *bat* hitzari gehituriko atzizkia. Hain zuzen, bertan puntu hau espresuki azaltzen ez bada ere, inplizituki horixe da *Ortotipografia* liburuan proposatzen dena, horrelaxe agertzen baita testu barruko adibideetan, hala nola kasu hauetan:

Makila bakoitza 50 cm-koa bada, zenbat makila sartuko dira 1 km-ean?
Kilo laurdenak 40 euro balio baditu, zenbat balio du 1 kg-ek?
5 € lituzke orduan, 1 €-en ordez

Nik neure zalantzak ditut erabaki horri buruz, baina bego horretan, zeren, gauza bat erabaki zein bestea erabaki, beti egongo baita antisimetria bat idaztearen

² Nazioarteko arauan, lehenik balioa adierazten duen zenbakia, ondoren hutsarte bat eta azkenik unitatearen laburdura idatzi behar dira, ordena horretan. Eta irakurri ere, ordena berean irakurtzen dira sinboloak gure inguruko hizkuntza nagusietan.

eta irakurtzearen artean. Beraz, kasu horretan honelaxe idatzi beharko dira neurri deklinatuak:

1 km-ean, 1 kg-ek, 1 €-en, 1 cm-eko...

Honelatan, bada, orain arteko proposamenetan, ia-ia erabateko adostasuna dagoela esan dezakegu. Ikasmateriala idazten dihardugunok eta erabiltzaileok ados gaude arau horiek betetzeko orduan. Dena den, hurrengo azpiatalean ikusiko dugunez, horrekin ez da kontua bukatzen; izan ere, unitatedun neurriak esaldietan kokatzean arazoak azalduko dira eta joskerazko irtenbide desberdinen arteko zalantzak agertuko zaizkigu, esamolde estandarrik aurkitzeko orduan; zalantzak, esamoldeak euskara zuzen eta egokizkoak diren jakiteko, eta zalantzak, irtenbide egokienak aukeratzeko.

2. NEURRIAK ADIERAZTEAN SORTZEN DIREN JOSKERAZKO ARAZOAK ETA AUKERAK

Ohiko esamoldeak era deklaratioan egiten direnean —alegia, objektuen edo magnitudeen neurriak zein diren era zuzenean adierazi nahi dugunean—, era desberdinetako esamoldeak erabiltzen dira, jarraian adieraziko ditugunak.

Ene ustez, esamolde horiei dagokienez, bi motatako arazoak ditugu planteaturik: batetik, argitu beharra dugu ea esamolde horiek guztiak egokiak diren euskaraz edota horietako batzuk gramatikaren ikuspuntutik desegokiak diren, eta bestetik, erabaki egin beharko dugu ea horien arteko esamolderen bat bultzatzea eta nagusi modura finkatzea komeni den (izatez, arlo jakinetan horietako batzuk nagusitzen ari direla dirudi). Gauzak horrela, ikasmaterialetan noizbait erabilitako erak sailkatuko ditut, aukerak zein diren kontuan hartzeko eta ondoren horien azterketa egiteko. Hona hemen esamoldeak sailkatuak:

- 1a Kalea 500 m luze da / (?) Kalea 500 m da³
- 1b Kalea 500 m-koa da
- 1c Kaleak 500 m du/ditu
- 1d Kaleak 500 m-ko luzera du
- 1e * Kaleak 500 m neurtzen du⁴
- 2a Azalera 18 dm² da / Presioa 40 N/cm² baliokoa da
- 2b Azalera 18 dm²-koa da / Presioa 40 N/cm²-koa da
- 2c Gainazalaren azalera 18 dm² balio du/ditu / Balbulako presioak 40 N/cm² balio du/ditu

Aurreko esamoldeetan, gramatika-izaeraz gain, fisikaren ikuspuntutik oso kontuan hartzekoa da hitzen semantika. Izan ere, esaldi horien subjektuak bi kategoria oso desberdinetakoak dira. Horregatik, bi multzo nagusitan sailkatu

³ Kasu honetan, esaldi hori zalantzazkotzat dudala adierazi nahi dut (?) ikurra aurretik jarritz.

⁴ Hemen, esamoldea desegokia dela adierazi nahi dut * zeinua jarritz.

ditut (1 eta 2 multzoak), bakoitzean kasu desberdinak kontsideratuz. Preseski, lehenengo bost esaldietako subjektua neurtua den objektuaren izena da (kasu honetan, *kalea*) eta posible da, neurria zehazteaz gain, neurri mota ere zehaztea; os-tera, azken hiru esaldietako subjektua neurturiko magnitudearen izen abstraktua da (*azalera*, *presioa*), hots magnitudearen izaera zehazturik dago lehen unetik. Beraz, semantikaren ikuspegitik, oso desberdinak dira esaldiak, baita fisikaren ikuspuntutik ere. Eta horrek desberdin egiten ditu baita joskerari dagokionez ere; esate baterako, hori dela eta, posible da lehenengo lau esaldietan (hots, 1 multzokoetan) magnitudeari buruzko erreferentzia egitea, honelaxe hain zuzen:

- 1a Kalea 500 m **luze** da / kalea 10 m **zabal** da / Igerilekua 2 m **sakon** da
- 1b Kalea 500 m-koa da **luzean/luzeran**
- 1c Kaleak 500 m du **luzean/luzeran**
- 1d Kaleak 500 m-ko **luzera** du

Ordea, erreferentzia hori sobera dago azken hiru esaldietan, magnitudea bera aipatzen baita (*azalera*, *presioa*), nahiz eta magnitudearen aurretik zein objekturi dagokion zehatz daitekeen (*gainazalaren azalera*, *balbularen/balbulako presioa*). Ohar berezia merezi du bosgarren esamoldeak. Ene ustez, azken urteotan jendar-tean zabalduz doan laugarren esamolde hori desegokia da, erdaratiko kalko ez-beharrezko baten emaitza baita. Hain zuzen, horrexegatik jarri diot * zeinua aurrean, desegokia dela adierazteko⁵.

Honelatan, bada, esandako bereizketa semantikoa kontuan izanda, joskerari dagokionez, zortzi egitura hauek erabiltzen dira (edo erabil daitezke) neurriak adieraztean:

- 1a. «Objektuaren izena + neurria + (magnitudeari buruzko adjektiboa) + da»
Kalea 500 m luze da.
(?) Kalea 500 m da
- 1b. «Objektuaren izena + neurria + -(e)koa + da»
Kalea 500 m-koa da
- 1c. «Objektuaren izena ergatiboan + neurria + du/ditu»
Kaleak 500 m du/ditu
- 1d. «Objektuaren izena ergatiboan + neurria + -(e)ko + magnitudearen izena + du»
Kaleak 10 m-ko zabalera du
- 1e. * «Objektuaren izena ergatiboan + neurria + neurtzen du/ditu»
* Kaleak 500 m neurtzen du/ditu
- 2a. «Magnitudearen izena + neurria + (baliokoa) + da»
Presioa 40 N/cm² da
Presioa 40 N/cm² baliokoa da

⁵ Badakit *Hiztegi Batuan* Euskaltzaindiak erdi-onartuta daukala hemen kritikoki aipatu dugun erabilera; eta “erdi-onartuta” diot, zeren testuan bertan bestelako forma hobetsia aipatzen baitu. Hain zuzen ere, era honetan aipatzen da *neurtu* hitza: “**neurtu**, neur, neurtzen. *du* ad.: *zerbaiten luze-zabala neurtu*; *soka horrek bost metro neurtzen du*: h. *soka hori bost metro luze da*”. Testu horretan h. laburdurak “Hobe (forma hobetsia ondokoa da)” esan nahi du.

- 2b. «*Magnitudearen izena + neurria + -(e)koa + da*»
 Azalera 18 dm²-koa da
 Presioa 40 N/cm²-koa da
- 2c. «*Magnitudearen izena ergatiboan + neurria + balio dulditu*»
 Gainazalaren azalera 18 dm² balio du/ditu
 Balbulako presioak 40 N/cm² balio du / * Presioak 40 N/cm² du (!!!)

Aurreko bereizketa argigarria gerta daiteke, sarri euskaraz «jatorragotzat» hartzen den esamoldearen izaera kontuan hartzen denean. Esate baterako, *Ortopografia* lanean *-(e)ko* atzizkirik gabeko forma erabilienak aurkezten ditu, kasu guztietan *Orotariko Euskal Hiztegiko* corpusetik harturiko adibideak aipatuz. Dena den, adibide horiek aurreko irizpidearen arabera aztertuz gero, guztiak lehenengo motakoak direla konturatuko gara; alegia, guztien egitura 1a motakoa da. Hots, objektuaren izena da esaldiaren subjektua (nahiz eta kasu batzuetan elipsia egiten den) eta esaldian magnitudearen izaerari dagokion adjektiboa (edo erreferentzia egiten duen hitza) azaltzen da. Hona hemen liburu horretan aipaturiko adibideak (letrakera lodia guk jarritakoa da):

380 metro **luze** zan eta 290 metro **zabal** (Anabitarte)
 amabi-amalauna metro **luze** (Erkiaga)
 ogei bat metro **luze** / bazan hamasei metro **luze** (Munita)
 Zenbat legua **bide** egin biar dozak? (Otxolua)
 24 ordutan 20 legua **bide** egin (Orixe)
 bost legua **bide** baizik ez zegoan (Lardizabal)
 zortzi legua **bide** dagoelarik batetik bestera (Iztueta)

Zer esanik ez, esamolde hori euskara onekoa da, «jatorra» nahi bada, baina arazoak ditu mota desberdinetako magnitudeetara hedatzeko, ez baitago argi zein izan daitekeen magnitudeari dagokion erreferentziazko adjektiboa edo hitza. Izan ere, aurreko esaldiak aztertuz kontura gaitezkeenez, kasu guztietan aipatzen den magnitudea *luzera* da (analisi dimentsionalean, [L]). Horregatik erraz egiten zaigu erreferentzia (*luze, zabal, sakon, bide, garai...*) aurkitzea⁶. Baina zer erreferentziazko hitz erabil ote dezakegu beste edozein magnitude fisiko adierazteko, kasurako, azalera, bolumena, presioa, indarra, erresistentzia elektrikoa... adierazteko? Ez dirudi hortik irtenbiderik dagoenik. Eta ez pentsa eguneroko bizitzan gutxi erabiltzen diren edo fisikaren arloan soilik erabiltzen diren magnitudeez ari garenik. Esate baterako, hor dugu aditzaren ikuspuntutik ere hainbat arazo sortzen dizkigun *pisua*. Zer adjektibo erabili beharko genuke pisua adierazten duen esamoldean? Honelaxe esan behako ote genuke?

Mikel 70 kg **astun** da (??) / Mikel 70 kg da (!!)

⁶ Angeluak ere mota honetako unitateak dira deklinabideari dagokionez (nahiz dimentsio gabeak izan, [L⁰]). Hain zuzen, “angelu hori 45° **zabal** da” esan daiteke, angeluek planoak harturiko eskualdearen “zabalera” adierazten baitu. Dirudenez, esamolde hori magnitude geometriko linealen kasuan aplikatu daiteke soilik.

Ziur asko, kasu horretan bestelako esamoldea aukeratuko genuke, adibidez hauetariko bat:

- Mikelek 70 kg du/ditu
- Mikelen pisua 70 kg-koa da
- Mikelek 70 kg-ko pisua du
- * Mikelek 70 kg pisatzen du

Itxura batean, gaur egun, azken esamolde hori lekua irabazten ari da jendearen ahoan, nahiz eta, sailkapeneko 1e motakoa izanik, kalko desegokitizat hartzen dudana. Horregatik jarri diot * zeinua; izan ere, lan honetan zergatikoa aztertuko ez dudana arren, baztertu egin beharko genukeela deritzot.

Esandakoaren arabera, ene ustez, soluzio estandarra(k) proposatzeko orduan, oso kontuan eduki beharko dugu esamoldearen *hedagarritasuna*. Hain zuzen ere, horixe da 1a motako egiturak duen arazo nagusia —luzera kenduta, bestelako magnitudeetarako hedagarria ez izatea, alegia—, eta ziurrenik ere horrexegatik saiatu dira erabiltzaileak bestelako esamoldeak bilatzen, edozein magnitudearen kasuan baliagarriak izan daitezkeenak.

Zernahi gisaz, aurreko esaldiak ez dira soilik esaldi nagusi modura agertzen. Gehiago oraindik, ikasmaterialetako testuetan gehienetan menpeko esaldi modura agertzen dira, bereziki problemen enuntziatuetan, eta horrelakoetan alderantzizko ordenako esamoldeak erabiltzen dira. Honako hauek, preseski:

- 1a «*Neurria + (magnitudeari buruzko adjektiboa) + den + objektuaren izena*»
500 m luze den kalea / (?) 500 m den kalea
- 1b «*Neurria + -(e)koa + den + objektuaren izena*» / «*Neurria + -(e)ko + objektuaren izena*»
500 m-koa den kalea / 500 m-ko kalea
- 1c. «*Neurria + dul/dituen + objektuaren izena*» / «*Neurria + -(e)ko + objektuaren izena*»
500 m duen/dituen kalea / 500 m-ko kalea
- 1d. «*Neurria + -(e)ko + magnitudearen izena + duen + objektuaren izena*» /
«*Neurria + -(e)ko + magnitudearen izena + -(e)ko + objektuaren izena*» /
«*Neurria + -(e)ko + magnitudearen izena + -dun + objektuaren izena*»
10 m-ko zabalera duen kalea / 10 m-ko zabalera kalea /
10 m-ko zabalera duen kalea⁷
- 1e * «*Neurria + neurtzen duen + objektuaren izena*»
* 500 m neurtzen duen kalea
- 2a. «*Neurria + (baliokoa) + den + magnitudearen izena*»
40 N/cm² baliokoa den presioa / (?) 40 N/cm² den presioa
- 2b. «*Neurria + -(e)koa + den + magnitudearen izena*» /
«*Neurria + -(e)ko + magnitudearen izena*»

⁷ Deklinabidean sortzen diren -ko atzizkiaren errepikapenak ekiditeko, sarri -ko eta -dun atzizkiak konbinatzen dira hitzen segidetan. Esate baterako, “buruko ile luzedun neska”, “elurrezko esku zuridun panpina”. Honetaz, M. Azkaratek eta P. Altunak 1992an argitaraturiko lana kontsulta daiteke: “-ko/-dun atzizkiez”, Iker 6.

- 18 dm²-koa den azalera / 18 dm²-ko azalera
 40 N/cm²-koa den presioa / 40 N/cm²-ko presioa
 2c. «*Neurria + balio duen + magnitudearen izena*»
 18 dm² balio duen azalera / 40 N/cm² balio duen presioa

Dena dela, eguneroko praktikan ikusten dudanez, irakaskuntzako erabiltzaileen artean kasu honetan joera dago perifrasiak saihesteko, eta aditzik gabeko formak erabiltzeko, bereziki hauek:

- 1b/1c. 500 m-ko kalea
 1d. 10 m-ko zabalera / 10 m-ko zabalera duen kalea
 2b. 18 dm²-ko azalera / 40 N/cm²-ko presioa

Ikus daitekeenez, kasu guztietan *-e(ko)* atzizkiaren bidezko esamoldeak hobesten dira praktikan. Horrek ez du esan nahi bestelako esamoldeak ere erabiltzen ez direnik, eta baldintza jakin batzuetan hobestekoak ez direnik.

Ikasmaterialaren prestakuntzarako aholkuak ematen hasita gaudenez (aholkuak entzuteko inor badago, behintzat), badirudi egokia litzatekeela esamolde horien estandarizatorako erabakiak hartzea edo gomendioak ematea, testuak idazleek eta erabiltzaileek zer egin jakin dezaten. Nik neuk esango nuke esamolde guztiek dutela beren lekua euskara estandarrean, 1e motako esamoldeek izan ezik; horiek kalko desegokitzat hartuko nituzke, eta ahalegina egingo nuke ikasmaterialetatik kentzeko (besterik da, erabiltzaileen artean erabaki hori praktikan kontuan hartuko ote den). Halaber, alde batera utziko nituzke (?) sinboloekin markaturiko esamoldeak.

Dena den, hedagarritasunaren printzipioa kontuan hartuta, agian esamolderik malguenak 1b, 1d, 2b eta 2c esamoldeak dira esaldi nagusietan, eta 1b, 1d eta 2b esamoldeak menpeko esaldien kasuan. Alegia, esaldi nagusietan esamolde hauek:

- 1b Kalea 10 m-koa da
 1d Kaleak 10 m-ko zabalera du / Balbulak 5 atm-ko presioa du
 2b Presioa 40 N/cm²-koa da
 2c Presioa 40 N/cm² balio du

eta menpeko esaldietan honako hauek:

- 1b 10 m-koa den kalea
 1d 10 m-ko zabalera duen kalea / 10 m-ko zabalera duen kalea
 5 atm-ko presioa duen balbula / 5 atm-ko presioa duen balbula
 2b 5 atm-ko presioa

Horrek ez du esan nahi besteak erabili behar ez direnik, baizik eta aukeratu-tako esamoldeak magnitude fisiko guztien kasuan erabili daitezkeela. Hortik dator praktikotasuna; baita nire proposamena ere. Edonola ere, gai hau gehiago eztabaidatzeko premia dagoela uste dut, eta jardunaldi hauek abiapuntu egokia izan daitezke horretarako, gomendioak ahalik eta gehien zehazteko bidean.

3. IRAKURBIDE LINEALA VS. IRAKURBIDE ANALITIKOA⁸

Normalean, unitate bakunen kasuan ($[A]$ motako unitateak) ez da arazo berezirik sortzen, eta aski da aurreko azpiatalean adierazitako jarraibideak kontuan izatea. Unitate konposatuak direnean, ordea, problemak sortzen dira unitatearen beraren irakurbidea esaldi barruan integratzeko (bereziki, $[A]/[B]$ eta $[A]/[B] \cdot [C]$ motako unitateen kasuan)⁹. Arazoa nolakoa den konturatzeko, bi adibide hauek hartuko ditugu abiapuntu modura:

10 m/s-ko abiadura
40 N/cm²-ko presioa

Lehenengoaren kasuan, irakurbide analitiko bat eta bi irakurbide lineal ditugu aukeran, honako hauek hain justu:

10 m/s-ko abiadura → segundoko hamar metroko abiadura (irakurbide analitikoa)
hamar metro segundoko(ko) abiadura (irakurbide lineala - I)
hamar metro zati segundoko abiadura (irakurbide lineala - II)

Lehenak euskarazko joskera jatorrarekin jokutzen du, eta, agian horregatik, kasu horretan ez da arazo handiegirik sortzen, adierazpen sinbolikoak irakurtzeko linealtasunaren araua hankaz gora uzten duela izan ezik¹⁰. Hain zuzen, *Ortotipografia* liburuan irakurbide analitikoaren aldeko apostua egiten dela dirudi, gutxienez tartean deklinabideko atzizkiak daudenean, honako testu honetatik ondoriozta daitekeenez:

- Honela irakurri behar dira abiaduraren kontuak:

Zenbat galderari dagokionean (hots, absolutiboan), 6 m/s irakurtzeko, bietara esan daiteke: “segundoko sei metro» nahiz «sei metro segundoko”. Berdin-berdin jokatuko da km/h sinboloarekin: 100 km/h «orduko ehun kilometro» nahiz «ehun kilometro orduko”.

Neurri-izen horiek deklinabide-atzizkia daramatenean, ordea, ez dago irakurketaren ordena aldatzeko aukerarik. Honela irakurri behar dira: 6 m/s-tik «segundoko sei metrotik», 4 m/s-ra «segundoko lau metrora», 100 km/h-an «orduko ehun kilometroan»...

Jakina, *zenbateko* galderari dagokionean, *-e(ko)* erantsi behar zaio: 6 m/s-ko abiadura «segundoko sei metroko abiadura» da, eta abar.

(*Ortotipografia*, 42-43. or.)

⁸ Zalantza izan dut izendapen hauek aukeratzeko orduan. “Irakurbide lineala” erabili ordez, agian, “irakurbide trinkoa” edo “irakurbide teknikoa” erabil daiteke, zeren horrekin adierazi nahi baita teknikan eta teknikarien artean modu trinko eta praktikoa adierazi nahi dela unitatea; hots, ez hainbeste gramatikaren legeen arabera, sinbologiak markatzen duen bidetik baizik. Bestalde, “Irakurbide analitikoa” erabili ordez, “azalpeneko irakurbidea” ere erabili izan dut inoiz; izan ere, irakurbide hori azalpenak ematean erabiltzen baita, unitatearen esanahia esplikatu nahi denean.

⁹ Egitura dimentsional desberdinetakoa unitateen sailkapenari buruz, ikus Ensunza, M., Etxebarria, J. R. eta Iturbe, J: *Zientzia eta Teknikarako Euskara. Zenbait hizkuntza-baliabide*, UEU, Bilbo (2001).

¹⁰ Ensunza, M., *Ikur eta zeinu bidezko adierazpen matematiko-fisikoen irakurbidea. Bilakaera historikoaren azterketa eta zenbait proposamen berri*, Tesi Doktorala, UPV-EHU, Bilbo, 2001.

Honaino aipamena. Dena den, ene iritziz, lan horretan salbuespenezko tramendua ematen zaio *abiadura* magnitudeari, alde batera utziz problema bera dutela $[A]/[B]$ eta $[A]/[B] \cdot [C]$ motako unitate guztiek. Bestalde, esan gabe baina, irakurbide analitikoaz ari direla uste dut; eta irakurbide linealaren posibilitatea ez dutela kontsideratzen. Ostera, uste dut magnitude guztientzako irtenbide komuna bilatzen saiatu behar dela, salbuespenezko irtenbideak kasu berezietarako utziz; horregatik, irtenbide lineala erabiltzea komeni dela uste dut, mota bereko unitate guztien kasurako hedagarria delako hain justu. Eta horrelaxe planteatzen dut, jakin arren abiadura bizitza arruntean ageri den magnitudea dela, eta horregatik kasu horretan salbuespena ere egin beharko dela, agian. Dena dela, erabakiaren irtenbidea irakurbide lineala eta irakurbide analitikoa, biak, onartzetik etor daiteke, testuaren sortzailearen eskuetan utziz noiz irakurbide lineala erabili eta noiz analitikoa, esamoldearen korapilotasuna kontuan hartuta.

Preseski, bigarren adibidearen kasuan, irakurbide analitikoa korapilatuagoa da (baita kontzeptualki ere) eta bi irakurbide linealetatik badirudi bigarrena dela arau modura edozein kasutan errazen moldatzen dena, alegia, hiru hauetako azkena:

40 N/cm²-ko presioa → zentimetro karratu bakoitzeko 40 newtoneko presioa¹¹
 berrogei newton zentimetro karratuko(ko) presioa (I)
 berrogei newton zati zentimetro karratuko presioa (II)

Nik neuk bigarren motako irakurbide linealaren baliagarritasuna praktikan egiaztatu dut edonolako unitate konposatuak erabiltzean. Uste dut soluzio ona dela, beti ere kontuan izanik eremu teknikoan ari garela (ahaztu gabe irakurbide analitikoa, noski, egokia eta argigarria den kasuetan). Horregatik, horixe proposatzen dut irakurbide tekniko modura unitate konposatuen kasuan. Praktikan esamolde malguia dela adierazteko, hona hemen zenbait adibide:

10 m/s-ko abiadura → 10 metro zati segundoko abiadura
 40 N/cm²-ko presioa → 40 newton zati zentimetro karratuko presioa
 11,5 kg/dm³-ko dentsitatea → 11,5 kilogramo zati dezimetro kubikoko densitatea
 8,854·10⁻¹² C/V·m-ko permitibitatea → 8,854·10⁻¹² coulomb zati volt bider metroko permitibitatea

¹¹ Arazo kontzeptual bat sortzen da, dena den, irakurketa analitiko honetan, zeren azalpena ematean “zentimetro karratu bakoitzeko 40 newtoneko **presioa**” esatean oker baikabiltza, izan ere 40 newtoneko **indarra** esan beharko baikenuke, zehaztasunaren izenean. Bestalde, logika berberari jarraituz, aurretik aipatu dugun abiaduraren irakurbide analitikoan gauza bertsua gertatuko litzateke, eta kontzeptualki hitz eginez, “segundoko hamar metroko **abiadura**” esan ordez, “segundoko hamar metroko **lekualdatzea**” edo horrelako zerbait esan beharko genuke. Horra hor beste arrazoi bat irakurbide lineala hobesteko.

4. NEURRIEN BALIOA EZAGUTZEKO GALDERAK

Puntu honetara iritsita, interesgarria izan daiteke neurri-esamoldeei inplizituki dagozkien galderak zein diren ikustea eta horien zuzentasun eta egokitasunari buruzko zalantzak argitzea. Bide ona izan daiteke horretarako lehenago 2. atalean azaldutako sailkapenez baliatzea, esamolde bakoitzari zein galdera dagokion finkatzeko.

4.1. Galderak egiteko hainbat aukera

Lehenago egindako sailkapenean oinarriturik, esamolde bakoitzaren atzean inplizituki dagoen galdera zein den ikus dezakegu. Hara:

1a. Kalea 500 m luze da	Zenbat metro luze da kalea?
(?) Kalea 500 m da	(?) Zenbat da kalea?
1b. Kalea 500 m-koa da	Zenbatekoa da kalea?
1c. Kaleak 500 m du/ditu	Zenbat metro du ditu kaleak?
1d. Kaleak 10 m-ko zabalera du	Zer zabalera du kaleak?
	Zenbat metroko zabalera du kaleak?
	Zenbateko zabalera du kaleak?
1e. * Kaleak 500 m neurtzen du/ditu	* Zenbat neurtzen du kaleak?
2a. Presioa 40 N/cm ² da	Zenbat da presioa?
	Zein da presioa?
Presioa 40 N/cm ² baliokoa da	Zer baliokoa da presioa?
2b. Azalera 18 dm ² -koa da	Zenbat dm ² -koa da azalera?
	Zenbatekoa da azalera?
	Zenbatekoa da azalera dm ² -tan?
2c. Presioak 40 N/cm ² balio du	Zenbat balio du presioak?

Kasu batzuetan eztabaidatzekoa da ea zein den benetan azpian dagoen galdera, esate baterako, 2b esamoldeko kasuan. Esan nahi baita, ea galdera «zenbat dm²-koa» den ala «zenbatekoa» den ala «zenbatekoa den dm²-tan». Nik neuk lehenengo aukera hobesten dut, pentsatuz «zenbatekoa» horrek bestelako erabilera ere baduela euskaraz, 4.3. azpiatalean aipatuko dudan bezala.

Hortaz, hainbeste posibilitate daude. Dena den, testu teknikoan praktikan badirudi horietako batzuk nagusitzen ari direla, lehenago ere aipatu dugun bezala; preseski 1c, 2b eta 2c motakoak. Zer esanik ez, 1a forma ere erabiltzekoa da, baina bere testuinguru mugatuan. Zernahi gisaz, nik neuk aukera modura utziko nituzke guztiak, kalko desegokitzen dauzkadan 1e motakoak bazterturik.

4.2. Zenbat metro luze?/

Zenbat kilo irin? Zenbat litro ur?

Esamolde hauek tradizio luzea dute euskaraz. Hala ere, erabilera mugatua dute, zeren, lehenago ere esan dugunez, magnitude jakin batzuetan bakarrik erabil

baitaitezke. Horri dagokionez, interesgarria da konturatzea nolakoak diren esamolde hauetan agertzen diren magnitude fisikoak. Preseski, testuetan agertzen diren adibideak aztertutik ikusten denez, eguneroko bizitzako neurriekin zerikusirik dutenak dira guztiak: luzerak, azalerak eta angeluak batetik, eta masak (edo pisuak) eta edukierak bestetik.

Gainetik eginiko begirada batean bi esamolde horiek egitura berekoak direla dirudien arren, sakonago begiratu, bi motatakoak direla kontura gaitezke. Izan ere, *zenbat metro luze?* motako esamoldeetan neurriarekin batera neurtua den objektuaren kalitate bati dagokion adjektibo bat (*luze, zabal, sakon...*) agertzen da. Ostera, *zenbat kilo irin?* motako esamoldeetan materialaren izena edo substantzia-izena (*irin, ur...*) agertzen da, era mugagabea. Horretan bereizten dira, nahiz egitura analogoa duten.¹²

Lehen motakoak objektu baten magnitude geometrikoei buruzkoak dira (luzerak, gehienbat). Gainera, esamolde horietan beti agertzen da objektu bat, zeinari buruzko neurria adierazten den. Hona hemen zenbait adibide, galderaren erantzunari dagozkionak:

Kalea 500 m luze da
Bidea 10 m zabal da
Igerilekua 2 m sakon da

Hauxe da esamolde horien egitura:

Objektuaren izena + neurria + (magnitudeari buruzko adjektiboa) + da

Ikus daitekeenez, 2. atalean aztertutiko 1a motako esamoldeari dagozkio, eta han esandakoak aplikatu daitezke zuzenean.

Bigarren motakoak materialen kantitateekin erabiltzen dira, masa/pisuak eta bolumenak (alegia, magnitude estentsiboak) adierazteko bereziki, zer materialen kantitateak neurtu diren espresuki azalduz. Zoritxarrez, hori dela eta, ez dirudi esamolde horiek hedagarriak direnik bestelako magnitudeen kasuan. Nolanahi den, bigarren motako esamolde horiek erabilera oso zabala dute zientziaren arlo jakinetan, hala nola kimikan, zeren pisuak¹³ eta edukierak behin eta berriro adierazten baitira gai kimikoen konposizioak aipatzen direnean. Hona hemen zenbait adibide:

30 g amonio nitrato 100 ml uretan disolbatu dira
500 l aire lehor
9 g helio, 12 g karbono dioxido eta 20 g nitrogeno dituen nahastea

Bigarren motako esamolde horien egitura beti da honelakoa:

¹² Honetaz, ikus liburu hau: Zabala, I. eta Odriozola, J. C., *Izen-sintagma*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua, Leioa (1992). Aztertzen ari garen gaiari dagokionez, bereziki interesgarria da liburu horretako 2.1. azpiatala, zeinean zenbatzaileek izen zenbakarriekin eta izen ez-zenbakarri neurgarriekin duten erabilera aztertzen baita, *bi litro ur* eta *bi zentilitro azido sulfuriko* erako esamoldeak aipatuz.

¹³ Zehatzago esanda, masak dira, baina ohituraz pisutzat hartzen dira.

zenbakia + unitatearen sinboloa + materialaren izena

eta gehienetan mugagabean deklinatzen dira.

Bestalde, kontuan hartu behar da neurria biltzen duen esamolde osoa izen-sintagma dela, eta multzo osoak hartzen duela deklinabide-atzizkia, honako adibide hauetan ikus daitekeen bezala:

[100 ml ur]etan disolbatu dira
[5 kg sagar]rek [3 kg madari]k adina balio dute

Preseski, izen-sintagma horiek nabarmentzeko, aurreko adibideetan kortxete barruan bildu ditugu, deklinabide-atzizkia kortxetetik kanpo jarritz.

Beraz, baldintza horietan guztiz egokiak dira esamolde horiek, eta, inolako zalantzarik gabe, erabili beharrekoak.

4.3. Zenbatekoa da torlojua?

Lehenago *zenbat metroko/zenbateko* bikoteari buruz esandakoak gorabehera, teknikan bada kasu berezi bat zeinean «*zenbatekoa*» galdera egiten den zuzenean¹⁴. Hain zuzen ere, kontuan izan behar da teknikaren arloan hainbat elementuren neurriak estandarizatuta daudela, zehazkiago esateko, DIN edo ISO arauen kasuan gertatzen den legez. Arau horiek kontuan hartuz, neurri jakineko objektuak fabrikatzen dira bakarrik; esate baterako, torlojuen kasuan 1,6; 2; 2,5; 3; 4... milimetroko diametroak dituzten torlojuak fabrikatzen dira, eta ez 1,8 milimetroko diametrokoak. Hortaz, egokia da «*zenbatekoa da torloju hori?*» galdetzea, eta horixe da, izatez, kasu horretan nagusitzen den joera. Horregatik, neurri jakineko objektuen kasuan, alegia, neurri estandarrak edo arautuak dituzten objektuen kasuan, «*zenbateko*» galdetzea proposatuko nuke eta horri dagozkion formak bultzatzea, lehenago

2b. torlojua 4 mm-koa da Zenbatekoa da torlojua?¹⁵

Horrek ez du esan nahi lehenago proposaturiko aukerak erabat baztertzekoak direnik, eta egitura hori eta galdetzeko era hori desegokiak direnik bestelako neurri estadarizatu gabekoen kasuan. Nik neuk bere horretan utziko nituzke 2b motako esamolde guztiak aukeran, praktikan oso baliagarriak izaten baitira hainbat zirkunstantzian. Honelaxe:

¹⁴ Erabilera berezi honetaz ikus Azkune, I., "Neurto aditzaren erregimenaz", *Euskera* 39 (1994, 3).

¹⁵ Nolanahi den, torlojuen kasuan esamoldeak askoz konplexuak izan daitezke praktikan, zeren diametroaz gain bestelako ezaugarriak ere adierazi nahi izaten baitira askotan, mota honetako segidak sortuz: "4 mm-ko diametroa, 25 cm-ko luzera, hari metrikoa eta buru hexagonala dituen torlojua". Izan ere, torlojuen kasuan kontuan hartu beharreko ezaugarri bakarra ez da diametroa, horrez gain kontuan hartu behar izaten baitira luzera eta hari-mota ere, besteren artean. Hori dela eta, batzuetan egokiagoa da informazioa beste era batean adieraztea, honelaxe adibidez: "Behar dugun torlojuaren ezaugarriak hauexek dira: diametroa: 4 mm; luzera: 25 cm; haria: metrikoa; burua: hexagonala".

Ere eta auresuposizioa hizkera berezituetan

Ainara Ondarra Artieda

Euskal Herriko Unibertsitatea

Komunikazio hau lan zabalago baten atal bat da. Lan luze horretan *ere* osagaiaren gramatika eta pragmatika aztertuko ditugu, hain zuzen *ere* osagaia pragmatika eta gramatikaren arteko zubi gisa arakatu nahirik.

Lehenengo eta behin bi hitz, esparruan adituak ez direnei pragmatika eta gramatika bereizten laguntzeko: gramatikak hizkuntza-ahaldmen abstraktua aztertzen du, egin daitezkeen eta ezin egin daitezkeen perpausak deskribatuz edo auresanez. Hizkuntza-ahaldmen horri eman ohi zaion formalizazioa, perpausako osagaien arteko egitura-harremanetan oinarriturik dago. Era labur batean esanda, hizkuntza-zeinuen arteko harremanak aztertzen dira gramatikan, eta bai bakarkako zeinuak perpaus bilakatzeko arauak ere.

Pragmatikak, komunikazio-egoerarekin moldatuta hizkuntzari ematen zaizkion erabilera mota desberdinak aztertzen ditu. Pragmatikak ez dauka gramatikaren pareko formalizazio bat gaur egun, baina esan daiteke ikuspegi horretatik perpaus desberdinetako osagaien arteko harremanak aztertzen direla, egiturazkoak ez diren harremanak, eta egiturazkoak diren beste harreman batzuk ere. Labur esanda, hizkuntza-zeinuen eta erabiltzaileen arteko harremanak aztertzen dira (Renkena 1993) edo, gure interes bizia pizten duen beste ikuspegi batetik, banakako perpausak testu bilakatzeko dituzten arauak (Hallyday & Hasan 1976).

Hizkuntza-baliabide asko bezala, *ere* bi ikuspegietatik aztertu behar da. Kongresuaren helburu nagusietara makurtuz, *ere* osagaiak daramatzan auresuposizioak izango ditugu aztergai komunikazio honetan. Izan ere, *ere* osagaiaren pragmatika-funtzio nagusia harreman estuetan dago egiazkotzat ematen denarekin eta egiazkotzat jotzen ez denarekin. Bestetik, ez dago esan beharrik erabilera berezituaren kontzeptua bera pragmatikari dagokiola bete-betean.

Edonola, gramatika-esparruan ari direnek formalizatu egin beharko dute adibidez (1a) bezalako perpausak edo (1a) bezalako hurrenkerak sortzeko ezintasuna, Lakak (1990:&1.2.1) gramatika sortzailearen tresneriarekin egin duenaren antzera.

1a *Euskarak preposiziorik erabiltzen ez du.

1b Euskarak ez du preposiziorik erabiltzen.

Bestalde, (2)koan hiru perpaus zuzen ditugu, baina hala ere, testuinguru zabalago bat ez dugunean, ez da haien arteko loturarik sumatzen, edo bestela, testu

ezegokitzat joko lukete euskaldun askok. Perpaus-zerrenda baten kideetako batzuk direla esan dezakegu, hau da, ez daukagu benetako testurik.

2 #Euskarak ez du preposiziorik erabiltzen.
Euskarak oso aurrizki gutxi du/Euskarak dauzka preposizio gutxi.
Ez da uste bezain erraza.

(2)ko perpausak testu bihurtzen dituzten hainbat pragmatika-baliabide daude, nola edo hala definitu izan diren funtzio batzuk dituztenak:

3a Euskarak ez du preposiziorik.
3b Euskarak ez du preposiziorik erabiltzen.
Gainera, (euskarak) oso aurrizki gutxi dauka.
#Gainera euskarak dauzka aurrizki gutxi.
Hala eta guzti, hau ez da uste bezain erraza.

(3)koan pragmatika-funtzioak dituzten hainbat hizkuntza-baliabide ageri dira. Lehenengo eta behin, *gainera* eta *hala eta guzti* lokailuak ez daude gramatikan arautuak baina bistan da perpausen arteko logika-harreman bat iradokitzen diotela esparruan aditua zein ez aditua den irakurleari. Bigarrenik, *hau* erakusleak anafora modura jokutzen du, hau da, aurreko perpausetan erreferentzia egiten dio aurrean esandakoari. Bukatzeko, euskaldun guztiok dakigu (3)ko "Euskarak dauzka aurrizki gutxi" perpaus zuzena izan arren ez dela testuinguru honetan perpaus egokia. Labur esanda, aurretik jakintzat ematen dena ez dator bat perpaus horretan sumatzen denarekin. Komunikazio honetan ikustekoa daukagu noraino egiten duen bat *ere* osagaiak pragmatika-funtzioa duten (3)ko pragmatika-baliabideekin, hau da noraino egiten duen lokailu, anafora eta auresuposizio lana.

1. ERE EZ DA LOKAILU BAT

Euskaltzaindia zuzen ibili da lokailuak deskribatzean: gramatikak arautu ez arren perpausen arteko logika-harremanak adierazten dituzten hizkuntza-baliabideak aztertu dituzte. Alde horretatik, ondo bete ditu gramatikak bezala pragmatikak ere behar dituen formalizazio-beharrak, Hallyday & Hasan (Hallyday & Hasan 1976) bezalako lanek sakonki aztertu dituztenak. Hala ere, definizioari ez dio estuki eutsi lokailuen artean *ere* sartu duenean (Euskaltzaindia 1990:&2.1).

Dena den, egia da logika-harremanak zein diren ere ez dagoela guztiz garbi, eta emendioa, hau da *ere*-k eta *eta* juntagailuak adierazten dutena logika-harreman-tzat har badaiteke, *ere* lokailu bat izango litzateke

2. ERE EZ DA ZENBATZAILA BAT, BAINA AURESUPOSIZIO BAT DARAMA

Anafora zabal eta sakon aztertu duten lan batek (García Azkoaga 2004:&7.1) aurreko zerbaiti erreferentzia egiteko modu bat ikusi du *ere* osagaien. Esan deza-

gun erreferentziakidetasuna zentzu hertsian ulertuta, *ere* osagaiak ez duela inongo erreferentziarik, ez behintzak izen-sintagmek eta antzerako sintaxi-egiturek duten erreferentzia. Beraz, *ere* osagaiak ez du pragmatikako anafora-funtzioa zentzu hertsian.

Sánchez-ek (Sánchez 1999) auresuposizio-zenbatzailetzat jo du gaztelanien *también* osagaia. Termino honen bi osagaiak aztertuko ditugu. Lehenengo eta behin, ezin dugu *ere* zenbatzailetzat hartu, edo ezin diogu behintzat zenbatzaile gramatika-kategoria eman. Zentzu hertsian *ere* osagaiak ez ditu zenbatzaile baten gramatika-funtzioak betetzen, baina ez du era berean esanguraren gaineko eragin berbera ere:

- 4a Euskarak hamabost postposizio erabiltzen ditu.
- 4b Euskarak postposizioak ere erabiltzen ditu.
- 4b'' Euskarak $x \neq$ postposizioak erabiltzen ditu.
- 4c Euskarak ere postposizioak erabiltzen ditu.
- 4c'' $X \neq$ euskarak postposizioak erabiltzen ditu.
- 4d $\#$ Euskarak postposizioak erabiltzen ditu ere.
- 4d'' $X \neq$ euskarak postposizioak erabiltzen ditu.
- 4d''' Euskarak $x \neq$ postposizioak erabiltzen ditu.

Denok dakigu zenbatzaileak (4a)koan dakarren ondorioa: *postposizio* izen bakar batez aritu beharrean, $X=15$ postposizioz ari gara. (4b)koan ordea, ez dugu *postposizio* izena zenbakitu, hau da, ez gara X postposizioz ari. Horren azalpena emateko, (4b'')ko formalizazioa gauzatu liteke: "Euskarak $x \neq$ postposizioak erabiltzen ditu". Bide batez, zenbatzaileek barne-egitura berezia dakarkioten izen-sintagmari, eta gainera, aditzean bertan ere islatzen da zenbaki-komunztadura. *Ere* osagaiak ez dauka horrelako eraginik ez izen-sintagmaren barne-egituran, ez eta aditzarekiko komunztaduran ere.

Formalizazio honek duen itxurari jarraiki, gaztelaniaz *también* osagaiari egokituriko deizioaren bigarren osagaira jota, azter dezagun auresuposizioa, bai baitirudi *ere* osagaiaren pragmatika-funtzioa hurbil dabilela horretatik: zerbait auresuposatu. Termino hau ez da hizkera berezitu batean behar den bezain zehatz eta zorrotz erabili eta hortxe daukagu gure zereginetako bat: onartuko dugu *ere* daraman (4b)ko hori egia esateko, (4b'') ere egia izan behar dela. Hor dela eta, egokia iruditzen zaigu Elhuyarren Hiztegi Modernoak (Elhuyar Fundazioa 2000) ematen duen azalpena: "Asertzio bat egia izan dadin egiazkoa izan behar duen haren barruko adierazpena".

Azter ditugun auresuposiziorako eman dugun (4b'')ko formalizazioaren bidetik, (4c) eta (4d) perpausetarako formalizazioak. (4c)koarenak ez du inongo eragozpenik, (4c)koan ikus daitekeen bezala. Zer auresuposatzen ote da ordea (4d) horretan? (4d'') ala (4d''')? Agian (4d''') erantzungo lukete euskaldun askok baina idazleak ziurtasuna ote du bata ala bestea auresuposatzen dela? Edo maila abstraktuetatik jaitsita, ez-gramatikaltasunik ez dakarren *ere* horrek behar bezalako loturarik egiten du aurreko perpausekin, eta lagundu egiten ote du irakurlea postposizioak/aurrizkiak (4d'') ulertzen ala euskarak/japonierak (4d''') ulertzen?

Araugintza lana jar liteke orain abian baina guk *ere* osagaiaren beste ikuspegi bat aztertzeari ekingo diogu hemen.

3. *ERE*-K BESARKADURA TXIKIA DAUKA, HAINBAT LOKAILUK (ETA ZENBATZAILEK) BEZALA

Lokailuen artean, besarkadura handikoak eta besarkadura txikikoak bereizi izan dira. Besarkadura handia daukate, adibidez, *beraz* edo *dena dela* lokailuek, perpaus osoa besarkatzen baitute:

5 Euskarak postposizioak erabiltzen ditu. Beraz, auzi honetan ezin dugu gaztelaniarekin batera aipatu.

(5) adibidean *beraz* lokailuak jarraian duen perpaus osoa besarkatzen du, hau da, jarraian duen perpaus osoari eragiten dio, nolabait aurrekoaren ondorio dela adieraziz.

Besarkadura txikikoak dira, ordea, *aldiz* edo *berriz* bezalakoak. Hauek perpausoko osagai bati bakarrik eragiten baitiote:

6 Euskarak postposizioak erabiltzen ditu. Gaztelaniak aldiz preposizioak ditu.

Beraz/aldiz bereizketa dugu hemen zeregin nagusia: lehenengoak, perpausen arteko logika-harreman bat iradokitzen du, eta bigarrenak ere hala egiten du, biak baitira lokailuak. Bigarrenak ordea, perpausen arteko esparruari dagokion harreman hori perpaus barrura eraman eta osagai jakin bati atxikitzen diola dirudi. Guxtienez esan daiteke *euskarak* eta *gaztelaniak* osagaiek, perpaus banatan kokaturik egonda ere, harreman berezia dutela haien artean.

Bestalde, besarkadura kontu guztietan bezala, hurrenkerak zeregin funtsezkoa dauka hemen, dagoeneko perpausaren sintaxian gero eta *barrurago* ari garelarik.

7 *Euskarak postposizioak erabiltzen ditu. Gaztelaniak ez aldiz.

Oso azpimarratzekoa da *ere* osagaiak esparru honetan duen joserak: 1) Hainbat lokailuk bezala besarkadura txikia du, aurreko ataletan iradoki dugunaren arabera (Euskaltzaindia 1990), 2) lokailuek ez bezala, aurrean deskribatutako auresuposizioa darama, 3) (8b)ko debekatua du, besarkadura handiko lokailuek ez bezala.

8a Euskarak postposizioak erabiltzen ditu. Japonierak ere hala egiten du.

8b *Euskarak postposizioak erabiltzen ditu. Ere japonierak hala egiten du.¹

Besarkadura kontua azalduta, hobeto uler daitezke lehen ikusi ditugun auresuposizio sortak:

9a Euskarak ere postposizioak erabiltzen ditu.

9a” Japonierak postposizioak erabiltzen ditu.

¹ Nahiz eta [Ere japonierak] prosodikoki elkartuta ahoskatu.

- 9b Euskarak postposizioak ere erabiltzen ditu.
9b'' Euskarak aurrizkiak erabiltzen ditu.

4. ERE ETA GALDEGAI/MINTZAGAI SISTEMA

Jo dezagun orain hiru tankeratako hausnarketak elkartzeko aldera: aurreuposizioa, informazio berria/zaharra eta galdegai/mintzagai sistema.

Lehengo eta behin, galdegai bakunen ereduaren deskribapenarekin bat datoz lan gehienak, normalizazio aurreko lanetatik hasi (Altube 1929), Euskaltzaindiaren (Euskaltzaindia 1987) lanetatik pasa, eta gramatika sortzaileko tresneria erabiltzen duten lan sakonetaraino helduta (Ortiz de Urbina 2004; Ortiz de Urbina & Etxepare 2004)².

Euskara "burua azken" hizkuntza bat da eta horrekin batera, gramatika mailako hurrenkerari dagokionez, behintzat, euskarak subjektua/objektua/aditza hizkuntza dela esan ohi da. Hurrenkera neutro bat dagoela onar daitekeen neurrian, horixe da euskararen hurrenkera neutroa, (10a)koan jaso. Edonola, euskarak, adibidez ingelesak ez bezala, joera du hurrenkera pragmatika-helburuekin erabiltzeko eta (10b-d) ere gramatikalak dira:

- 10a Euskarak postposizioak erabiltzen ditu.
10b Postposizioak **euskarak** erabiltzen ditu (ez gaztelaniak).
10b'' X≠postposizioak Y≠euskarak erabiltzen ditu.
10c **Euskarak** erabiltzen ditu postposizioak (ez gaztelaniak).
10c'' Xk erabiltzen ditu postposizioak.
10d **Postposizioak** erabiltzen ditu euskarak (ez preposizioak).
10e Euskarak erabiltzen ditu **postposizioak**.

Hizkuntzetan zehar deitu izan den *fokoak*, gure galdegaiak alegia, galde-hitzen eta zenbatzaileen hainbat sintaxi-ezaugarri erakusten ditu. Besteak beste, aditzaren aurrean kokatzen da (adibideetan, letra beltzez), eta askotan perpausak galdegaia/aditza bikotea dute hasiera-hasieran (10c-d). Aditz atzeko galdegai bakunak ez dira erabat ohikoak, baina ez dira ez-gramatikalak (10e). Oso azpimarratzekoa da galdegaiaren eta galde-hitzen arteko antzekotasuna:

- 11a Postposizioak **zein hizkuntzak** erabiltzen ditu?
11b **Zein hizkuntzak** erabiltzen ditu postposizioak?
11c **Zer** erabiltzen du euskarak?
11d Euskarak erabiltzen duela **zer**? (elkarrizketetan)

² Aurreko lanetan eta bestetik Osa (1990) eta Hildagorenak (...) bezalako lanetan, garbi adierazten da batetik galdegaiaren tamainak eta bestetik hizkuntza mailak eragin eragiten diola testuan ontzat ematen dugun hurrenkera-ereduari, baina funtsean aztertu nahi dugunak dagoen-dagoenean dirau. Hala ere, aldaera hauen inguruko zerbait bildu dugu testuan, galdegaia eta galde-hitzak erkatzen ditugunean.

Bestalde, topikoa dugu, hau da gure mintzagaia, aurreko adibideetan azpimarratuta azaltzen dena. Ez da lan samurra honen definizioa egitea, baina argi esan dezagun ezin dela bakarrik kokapen baten bidez definitu (Gómez Txurruka 2001). Izan ere, Euskaltzaindiak mintzagai hanpatua deritzo perpaus hasieran eta galdegaiaren aurrean kokatzen denari —(10b)koan bi azpimarratzen— eta mintzagai ez-hanpatuari perpaus bukaeran kokatzen denari —(10c-d)koetan azpimarra bakarrez—.

Aurreko guztia dela-eta, azpimarratu beharrekoa da bibliografiak ez duela zalantzarik egiten honelako osagaietarako perpausaren egituraren toki bat esleitzeko unean. Hor, bat dator galde-hitzekin duten antzekotasunarekin, baina edonola esan dezagun batetik sistema honek pragmatika-funtzioa duela baina bestetik, gainontzeko pragmatika-funtzioek ez bezala egiturazko oinarri bat duela.

Orain arte gramatika-tradizioak eta are deskribapen modernoak esandakoa. Gure benetako aztergaia *ere* delarik, uztartu egin beharko dugu sistema hau auresuposizioen ikuspegiarekin, eta bai informazio berria/informazio zaharra delako bereizketarekin.

Har dezagun adibide bakar bat aurkezpena errazteko. (10b)koan, "Postposizioak Xk erabiltzen ditu" ematen da jakintzat. Ikus daitekeenez, *postposizioak* dugu informazio zaharra eta *euskarak* berria. Dena dela, honek ez du esan nahi galdegaia beti informazio berria eta mintzagaia zaharra izango direnik. Galdegaiak informazio berria izateko joera badu ere, zaharra ere izan daiteke; mintzagaia ere, ikusiko dugun bezala, zaharra zein berria izan daiteke.

Har dezagun gure aztergai nagusia, *ere* alegia: *ere*-ren ezker aldean geratzen dena, hau da, *ere*-k besarkatzen duena mintzagaitzat hartu behar dugula dio Euskaltzaindiak, bai lehen proposizioko osagaia mintzagai denean (12b) eta bai galdegai denean ere (12a) (Osa 1990):

12a **Euskarak** erabiltzen ditu postposizioak. **Japonierak ere** hala egiten du.

12b **Postposizioak** euskarak erabiltzen ditu. **Deklinabide-markak ere** euskararenak dira.

Baina hona gure ustez ekarpen garrantzitsua: ezkerreko osagaia mintzagai bihurtzen badu ere, mintzagai hori informazio berria izango da beti. Kontuan izan, *ere*-k auresuposizioa dakarrela berarekin eta auresuposatutako horri berria den zerbait gehituz: (12a)n "Xk hala egiten du" eta (12b)n "X euskararena da" dira auresuposizioak eta auresuposizio hauei zerbait gehitzen die *ere*-k: "Xk+japonierak" (12a)n, eta "X+deklinabide-markak" (12b)n. Auresuposizioa berez informazio berriaren seinale bada, zer esanik ez *ere*-k gehitzen duen informazioa. Eta horrek berdin balio du mintzagai hanpatuetarako (12a) zein ez-hanpatuetarako (13).

13 Postposizioak erabiltzen ditu euskarak. Euskararenak dira **deklinabide-markak ere**.

Horrela ba, beste desberdintasun bat du *ere* osagaiak besarkadura txikiko lokaluekin:

14 *Euskarak postposizioak erabiltzen ditu. Preposizioak erabiltzen ditu **gaztelaniak aldiz**.

5. LABURBILDUZ

Ere osagaiak zubi-lana egiten du nabarmen, gramatikaren eta pragmatikaren aztergaitzat hartu izan direnen artean. Gure ustez hori garrantzitsua da, hizkuntza-ahalmena eta hizkuntza-erabilerak direlako ikuspegien arteko tira-birari argi izpi bat dakarkion neurrian. Emendiozko harremana logika-harremantzat hartzen den neurrian, lokailutzat har genezake, areago, besarkadura txikiko lokailua izango litzateke, baina ereduzko lokailu horiek ez bezala, mintzagai hanpatuari zein ez hanpatuari lotzen zaio. Horrekin batera, ikusia dugu mintzagai horrek *ere* osagaiarekin batera informazio berria daramala beti. Gainera, baztertu egin ditugu *ere* zenbataileek bezala jokatzeko hipotesia edo anafora-funtzioa duelako hipotesia. Batetik ez dio inola ere aurreko osagai bati erreferentziarik egiten, eta bestetik ez du inola ere zenbakitze-eraginik besarkatzen duen osagaiaren gainean, ez izen-sintagmaren barne-egituran eta esanahian. Bukatzeko, egia da perpaus batek duen auresuposizioari gehigarri bat eransten diola, "postposizioak euskarak erabiltzen ditu" perpausa eta "postposizioak euskarak ere erabiltzen ditu" perpausak alderatuta ikus daitekeen bezala: lehenengoan hizkuntza batek postposizioak erabiltzen dituela ematen da jakintzat. Bigarrenean, euskara ez den hizkuntza batek erabiltzen duela ematen da jakintzat.

6. BIBLIOGRAFIA

- Altube, S. 1929. *Erderismos*. Sorta.
- Elhuyar Fundazioa, 2000. *Euskal Hiztegi Modernoa*. Elhuyar/Elkarlanean.
- Euskaltzaindia, 1987. *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak-I (eranskina)*. Bilbo:
- Euskaltzaindia, 1990. *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak-III (lokailuak)*. Bilbo:
- García Azkoaga, I. 2004. *Kohesio anaforikoa hiru testu generotan. Adinaren arabera azterketa*. Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.
- Gómez Txurruka, I. 2001. *Foco y tema. Una aproximación discursiva*. Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.
- Hallyday, M.A.K. & Hasan, R. 1976. *Cohesion in English*. London: Longman. 1994.
- Hidalgo, B. 1994. *Hitzen ordena euskaraz*.
- Laka, I. 1990. "Negation in Syntax: On the Nature of Functional Categories and Projections". In ASJU, XXV-1, 65-136or., 1991.
- Ortiz de Urbina, J. 2004. "Word order". In J.I.Hualde & J.Ortiz de Urbina (ed.) *A grammar of Basque*.
- Ortiz de Urbina, J. & Etxepare R. 2004. "Focalization". In J.I.Hualde & J.Ortiz de Urbina (ed.) *A grammar of Basque*.
- Osa, E. 1990. *Euskararen hizordena komunikazio zereginen arabera*. Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.
- Renkena, J. 1993. *Introducción a los estudios sobre el discurso*. Barcelona: Editorial Gedisa. 2004.
- Sánchez López, C. 1999. Los cuantificadores: Clases de cuantificadores y estructuras cuantificativas. In *Gramática Descriptiva de la Lengua Española I*, 1025-1128or.

Espezialitateko hizkeren irakaskuntza: ikuspegi didaktikoa

Joseba Ezeiza Ramos

Izenburuak adierazten duenari jarraiki, hurrengo lerroetan gogoeta bat egingo dut ikuspegi didaktikoak espezialitateko hizkeraren diziplinari egin ahal dion ekarpenari buruz.

Gaiak helduleku asko ditu eta ikuspegi ugari barneratzen ditu. Haatik, lan honen asmoa ez da horiek guztiak agortzea. Gehienbat, agerian utzi nahi dut nolako kezak mahaigaineratzen dituen ikuspegi honek eta, ondorioz, nolako erronkak ekartzen dizkien espezialitateko hizkerez arduratzen diren diziplinei.

Hasteko, espezialitateko hizkeren irakaskuntzaren historiari gainbegiratu bat emango diot. Horretarako, bost mugarri izango dituen ibilbidea proposatuko dut. Nire asmoa hauxe da: paradigma garaikidearen eraikuntza nola gertatu den bistartzea.

Ondoren, espezialitateko hizkeren irakaskuntzaren paradigma berriaren ezauzgarri nagusiak aurkeztuko ditut; horrekin batera, ikuskera honek berekin dakartzan eskakizun eta eginbeharretako hainbat ere nabarmenduko ditut.

Azkenik, espezialitateko hizkeren irakaskuntzarako programak diseinatzeko eredu bat aurkeztuko dut, besteak beste, Alemaniako *Siemens* enpresan eta Alemaniako *University of Applied Sciences* unibertsitatean baliatu dena.

1. IKUSMIRA ZABALA ESPEZIALITATEKO HIZKEREN IRAKASKUNTZAREN HISTORIAN ZEHAR

Xede berezietako hizkeren inguruko kezka lehenagokoa den arren (ikus Sánchez, 1992; Elozegi, 2003; Carkin, 2005), espezialitateko hizkeren didaktikaren inguruko lanen muga kronologikoa xx. mendearen erdi-aldean jarri behar dugu (Aguirre, 2004): 1960. urtearen hamarkadan, edo.

Berez, lehen urratsak Bigarren Mundu-Gerra amaitu berritan eman ziren; baina, espezialitateko hizkeren didaktikak ez zuen berriazko izatea lortu harik eta hizkuntzaren zientziek (jabekuntzaren inguruko teoriek, psikolinguistikak eta soziolinguistikak, gehienbat) nolabaiteko euskarri teorikoa eskaini zioten arte. Handik aurrera Hizkuntzalaritza Aplikatuak hartu zuen espezialitateko hizkerak eta berauen irakaskuntza ikertzeko eta garatzeko ardura.

Ahalegin honen lehen emaitzak berehala heldu ziren; hala ere, lanik oparoenak 1980. hamarkadatik aurrera egin dira (ikus Carkin, 2005 eta Master, 2005). Denbora honetan, hainbat ekarpen esanguratsu egin dira eta, horiei esker, didaktikari buruzko ikuskera nabarmen aldatu da. Adituen arabera (ikus Hutchinson eta Waters, 1987; Dudley-Evans eta St. John, 1998; eta Aguirre, 2004), aldabide hori bost etapa nagusitan egin da. Ikus dezagun zein diren bakoitzaren ezaugarri nagusiak.

I. Hizkuntzaren sistema jomuga. 1960. urtearen hamarkadan, espezialitateko hizkeraren ikaskuntza alfabetatze prozesu gisa ulertzen zen (“alfabetatze teknikoa”). Espezialitateko hizkerari autonomia handia egozten zitzaion eta, horregatik, ulertzen zen arlo honetako irakaskuntza-programen jomuga hauxe behar zuela izan: espezialitateko hizkeraren deskribapen lexiko eta gramatikala. Ondorioz, garai honetako lanek lehentasunezko arreta eskaintzen zieten “hiztun arruntei” nolabaiteko “zailtasunak” eragiten bide zizkieten osagai linguistikoei: erro kultuei, maileguei, eraikuntza sintagmatiko konplexuei...

Garai honetako kezka nagusiak zein ziren ondo antzeman daiteke Lerot-en aldarrikapen honetan:

Los profesores deben formarse al menos en fonética y ortografía, en morfología flexiva y derivacional y en la sintaxis (de posición, de dependencias, de conectores lógicos y de marcas de enunciación) en su lengua (sincrónica e histórica) y en todas las otras posibles (vivas y muertas): ¿cómo abordar los estudios especializados si no se dispone de instrumentos conceptuales para hacerlo? (Lerot, 1997: 203-204).

II. Espezialitateko hizkeraren ikuspegi funtzionala. 1970. urtearen hamarkadan espezialitateko hizkerari berariazko izaera diskurtsiboa aitortu zitzaion

No hay ningún cuerpo de conocimiento independiente del lenguaje que lo inscribe en documentos o lo transporta al intercambio verbal. [...] El conocimiento científico no tiene valor hasta que se intercambia, los escritos científicos no cumplen ninguna función hasta que son leídos. La experiencia de la lectura de documentos científicos confiere a esos documentos su validez científica; mientras no tiene lugar esa experiencia, el documento no tiene valor para la ciencia (Locke, 1997: 132).

Aintzatespen honi esker, hurbilpen lexiko-gramatikalaren zurruntasuna malgutu eta espezialitateko testuen ezaugarri erretorikoen azterketari ekin zitzaion.

Ildo honetan egindako lanek agerian utzi zuten espezialitateek testu-era espezifikoa baliatzen dituela; baita diskurtsoak egituratzeko eta mamitzeko baliabide bereziak ere. Hortik, zera ondorioztatu zen: “testu bidezko irakaskuntza” (Ikus, Feez, 1998; Celce-Murcia eta Olshtain, 2005) aukera didaktiko egokia izan zitekeela espezialitateko hizkeren programetarako.

En cuanto a la estructuración del aprendizaje, [...] la organización en torno a tipos textuales, en lugar de la temática, permite una repetición significativa que facilita el aprendizaje y la aprehensión de la relevancia de elementos macro-

textuales. Estos tipos textuales deberían responder con mayor realismo al abanico de tareas con que se enfrentan los profesionales. En cuanto a las tareas de aprendizaje propiamente dichas, [...], trabajar previamente el aparato científico de representación y la terminología redundante en beneficios para todo el proceso y no sólo mejora la comprensión y el uso de la terminología, sino que redundante en un mejor aprendizaje (Muñoz, 2002: 80).

III. Espezialitateko hizkera diskurtso gisa. Diskurtsoaren inguruko lanen eskutik, 1980. urtearen hamarkadan, ikuskera komunikatiboa baliatzen hasiko da hizkuntzen didaktika (ikus Bachman eta Palmer, 1996; Orwig, 1999; McGroarty eta Taguchi, 2005). Hurbilpen honen ekarpenik esanguratsuen hau izan zen: bistaratzeari espezialitateko testuen artean nolabaiteko estratifikazioa zegoela, beti ere komunikazio-egoera zedarrizten duten aldagaien arabera.

Todo texto es el resultado de un comportamiento verbal concreto, realizado por un agente situado en las coordenadas del espacio y del tiempo. Por tanto, todo texto procede de un acto realizado en un contexto físico. [...] En un segundo plano, la producción de cualquier texto se sitúa en el marco de la actividad de una formación social, y más precisamente en el marco de una forma de interacción comunicativa que implica el mundo social (normas, valores, reglas, etc.) y el mundo subjetivo (imagen que alguien da de sí mismo al actuar) (Bronckart, 1996: 60).

Ikuskera honetan, espezialitateko hizkeran trebatzeak eduki lexiko, gramatikal eta testualak ikastea baino zerbait gehiago eskatuko du: gainera, testuinguruarekiko nolabaiteko sentikortasuna ere garatu beharko da.

Para acercarse a este lenguaje hay que contar con las distintas situaciones comunicativas que pueden darse y con los protagonistas del acto de comunicación.

Además, del mensaje en sí, el emisor, el receptor, el canal utilizado, el código en que está cifrado el mensaje y su contenido. Porque hay, desde luego, un lenguaje científico destinado a la comunicación entre especialistas; pero, existe, igualmente otra modalidad para aquellas situaciones en que se habla de asuntos científicos, no entre profesionales, sino cuando el receptor del mensaje es el público en general. Como también es posible que la comunicación se produzca entre científicos, no en un congreso o en una reunión estrictamente técnica, sino en el laboratorio donde ambos trabajan, y se encuentran casualmente en lo que podríamos calificar como intercambio “familiar” (Gutiérrez, 2005: 20).

Ikuskeran honetan, ikasteko modua ere berraztertuko da. Proposatuko diren ereduak berriak, besteak beste, “testuinguruaren” garrantzia azpimarratzen hasiko dira.

La ciencia es un proceso social y como tal se adoptan formas de hablar, razonar, analizar y escribir aprendidos en comunidad. Enseñar ciencia también es enseñar a hablar de ciencia en el idioma que le es propio, a partir de los modelos y recursos que ha generado y que genera esta comunidad. Las ideas se configuran en unos patrones temáticos que consisten en una red de interrelaciones entre los conceptos científicos, en un campo semántico específico del área de ciencias (Lemke, 1997).

Aurrerantzean, espezialitateko hizkeraren ikaskuntzak hiru osagai izango ditu: osagai hartzailea (“alfabetatze teknikoa”), berreraikitzailea (“testu bidezko irakaskuntza”) eta “testuinguratua” (“irakaskuntza komunikatiboa”).

IV. Espezialitateko komunikazioaren osagai kognitibo eta soziokulturala. 1990eko hamarkadan beste bi dimentsiori hasi zitzairen arreta jartzen.

Batetik, pragmatikaren eta psikolinguistikaren esparruetan egindako lanek bistaratu zuten komunikazioak, osagai kognitibo bat ere barneratzen duela.

El sentido de un texto no nos viene dado, sino que lo construimos, entonces su objetivación no es un proceso único fijado de una vez para siempre.

Efectivamente, dicha objetivación se basa en la objetividad material del texto, pero no es ésta la que la fundamenta y garantiza (Rastier, 1989: 19, in Bronckart, 1996: 91).

Modu berean, ikusker a psikosozialak agerian utzi zuen komunikaziorako gaitasuna “ekintza-gaitasuna” dela, gehienbat.

La verdadera sustancia de la lengua, no está constituida por un sistema abstracto de formas lingüísticas, ni por la enunciación monológica aislada, ni por el acto psicofisiológico de su producción, sino por el fenómeno social de la interacción verbal, realizada a través de la enunciación y de las enunciaciones. La interacción verbal constituye, así, la realidad fundamental de la lengua (Bajtín, 1977: 135-136 in Bronckart, 1996: 89).

Aldagai kognitiboaren garrantzia edozein komunikazio-eragiketetan nabarmena bada, are nabarmenagoa da espezialitateko komunikazioaren eremuan:

Los grandes descubrimientos científicos son verdaderos cambios semánticos, pues sólo podemos hablar del mundo que observamos cuando hay estructuras cognitivas y sistemas de discurso que dan forma a esas significaciones (Galán eta Montero, 2002: 36).

Bestalde, ez da burua askorik hautsi behar, espezialitateko hizkeran egiten diren komunikazio-prozesuetan osagai soziala antzemateko.

Si se quiere conseguir una caracterización aceptable del lenguaje científico, es necesario contemplarlo con una visión amplia. Por esa razón, aquí se va a considerar como lenguaje científico ‘todo’ mecanismo utilizado para la comunicación cuyo tema tenga que ver con cualquier ámbito de la ciencia, ya se produzca esta comunicación exclusivamente entre especialistas o entre ellos y el gran público, sea cual sea la situación en que esa comunicación se produce y el canal —oral o escrito— elegido para establecerla (Gutiérrez, 2005: 22).

Ildo honetan, agerian geratu zen irakaskuntza programek ahalegina egin behar zutela hizkuntzaren egiturazko dimentsiotik harantzago ere heltzeko:

Si se centra la atención exclusivamente en el estudio de la estructura de los modelos de texto y de los elementos que le dan cohesión y coherencia, podemos conseguir un texto formalmente bien construido, pero es posible que si se analiza desde la óptica de la disciplina esta construcción aparentemente correcta no se

traduzca en una mejora de la capacidad de razonar, de relacionar, de explicar, de aplicar conocimientos, de describir, de argumentar, en definitiva, que no haya servido para aprender, que es lo que justamente se pretendía (Prat, 2000: 52).

Garbi gelditu zen, halaber, zein zen jarraitu beharreko bidea: komunikazioaren “berariazkotasuna” — xedea, prozesu semantikoak, prozesu pragmatikoak — aintzat hartuko duen eredu didaktikoa:

La comunicación humana es una actividad intencional: desde la perspectiva del emisor, si no hay intención comunicativa, no hay comunicación; y desde la perspectiva del destinatario, la interpretación requiere el reconocimiento del a intención del emisor (Escandell, 2005: 27).

Honek ondorio zuzenak izango ditu espezialitateko hizkeraren didaktikan:

Los profesores deben presentar el lenguaje de los científicos como un producto humano [...]. Los profesores deben proponerse usar su propia voz interpretativa para reconstruir el lenguaje de los científicos, presentándolo deliberadamente en diferentes formas, y cuidando que sus estudiantes también lo hagan. Deben prestar atención a la voz interpretativa de los estudiantes y animarles a utilizarla, y deben responder persona a persona (Sutton, 1997: 29).

V. Ikaskuntza-prozesua, metodologiaren ardatz. Ibilbide honetan XXI. mendera iritsi gara; baita ere etapa berri baten atarira.

Kezka berria hauxe da: argitzea nola eragiten duten norbanakoaren aldagaiak eta irakaskuntzaren testuinguruak ikaskuntza prozesuetan.

Unibertsitate mailako programei bagagozkie, espezialitateko hizkeren ikaskuntza, beste gaitasun profesionalen eskuratze-prozesuekin alderatzen da; beti ere, gaitasun komunikatiboak dituen berezitasunak ahaztu gabe (Bachman eta Palmer, 1996; Europako Kontseilua, 2001; Ezeiza, 2002 eta 2003).

Hainbat dira, une honetan gaitasun profesionalen garapena egituratzeko baliatzen diren ereduak (Kolb, 1984; Le Boterf, 2000; Korthagen, 2001; Ricento, 2005).

Baina, ñabardurak ñabardura, guztiek ikaskuntzaren arrakasta hiru aldagairi egozten diete: ikaskuntzak esanguratsua, aktiboa eta elkarreragilea behar du izan.

Horrek zera esan nahi du: espezialitateko hizkeraren irakaskuntza, plangintza orokorrago batean txertatu behar dela, eta integrazio-lan horretan lotura sendoak bilatu behar direla ikaskuntza-planak barneratzen dituen beste arlo eta eginkizunekin. Arrazoibidea, Wasenbergekin eskaintzen digu gogoeta honetan:


El conocimiento es una representación mental (necesariamente finita) de una complejidad (presuntamente infinita) capaz de atravesar la realidad para alcanzar otra mente. [...]. Pero todo conocimiento necesita, para cruzar la realidad, convertirse él en un pedazo de realidad. Existen prestigiosas maneras de hacerlo: libros, partituras, conferencias, conciertos, museos, esculturas, pinturas, películas, programas de radio o televisión... cada una de estas vías tiene un elemento transportador de conocimiento que le es esencial, una unidad que, genéricamente, podemos llamar palabra de conocimiento (Wagensberg, 2003: 43).

Ikuskera honek espezialitateko hizkeraz arduratzen diren diziplinei balio erantsia egotzen die; paradigmaztat har daitekeen marko teoriko-praktiko batek eskaintzen duen aintzatespena.

Izan ere, espezialitateko hizkeren irakaskuntzaren jomuga, ez da, honenbestez, bere horretan agortzen: espezialitateko hizkuntza funtsezkoa da ikaskuntzarako, ezagutzaren eraikuntzarako, ikasleak unibertsitateko ibilbidean bizi behar duen garapen epistemologikorako eta, azken batean, ezagutzaren gizartean egokiro moldatzeko (ikus Perry, 1981; Calvet, 1997; Serra eta Caballer, 1997; Sutton, 1997; Cabré, 2002; eta Muñoz, 2002).

2. PARADIGMA BERRIA: ERRONKA BERRIAK

Honaino, azaletik aurkeztuta, espezialitateko hizkeren irakaskuntzan egindako bidea. Bilakaera honetan, nabarmen aldatu dira adituen kezkek; nabarmen aldatu dira, halaber, irakaskuntza-programak osatzeko irizpideak.



1.2. Paradigma garaikidearen dimensio teorikoa

Ibilbide honetan, paradigma oso bat eraiki eta sendotu da: ikuskera zabalagoa izango duen paradigma bat.

Alboan duguna izango litzateke paradigma horren dimensio teorikoaren ikuspegi bat:

Ikuspegi berriak, ondorio teoriko eta praktiko hainbat ditu. Horietako batzuk bistaratzeko, gainbegiratu bat emango diegu hizkuntzen irakaskuntzarako programen kudeaketarako funtsezkoak diren hiru galderari paradigma honek ematen dizkien erantzunei.

2.1. Zein da irakaskuntzaren objektua?

Lehen galdera hau diziplinaren corpusari dagokio eta, espezialitateko hizkeren kasuan, berauen ikerketa, definizioa eta deskribapena barneratzen du.


Esandakoagatik, paradigma berriak “gaitasun komunikatiboa” aldarrikatzen du jomuga nagusi gisa. Bachman eta Palmerren eredu (1996) aintzat hartzen badugu, horrek esan nahi du, espezialitateko hizkeraren corpus pedagogikoak eratzeko orduan, gutxienik, hiru maila hartu beharko direla aintzat.

- **Pragmatikoa:** dimentsio soziolinguistikoa eta dimentsio funtzionala.
- **Egiturazkoa:** dimentsio testuala eta dimentsio gramatikala.
- **Lexiko-semantiko:** aurreko biak giltzatzen dituena.

Eredu honi jarraiki, hauek dira espezialitateko hizkeren irakaskuntzaren corpusa egituratuko duten aldagaiak:

- **Espezialitateak berezko dituen gaitasun orokorrak:** beren zereginetan gaitasun ezberdinak baliatzen baititu “matematikari” batek, “enpresa-kudeatzaile” batek; “abokatu” batek; “kirol teknikari” batek...
- **Esparru komunikatiboa:** komunikazioa ez baita modu berean gertatzen esparru akademikoan, esparru profesionalean, komunikabideen esparruan...
- **Solaskideak:** ez baita berdin aditua, adituarekin komunikatzea; edo aditua, ikaslearekin aritzea; edo ikaslea, adituarekin; ... Garrantzitsua izan daiteke, halaber, kontuan hartzea solaskideen jatorri kulturala eta hizkuntza-maila.
- **Asmoa:** ez baita gauza bera informazioa ematea, argibideak ematea, konbentzitzen saiatzea, kritika egitea, portaera jakina eragitea...
- **Euskarriak:** ezberdintasun nabarmenak baitituzte ahozko komunikazioak, komunikazio idatziak, ikus-entzutezkoak, hipertestualak, multimedia bidezkoak...
- **Testu-era:** espezialitate bakoitzak berariazko testuak ditu eta.
- **Estiloa:** joskera-moldeak, ortotipografia, baliabide morfologikoen hautabi-deak...
- **Hiztegia:** hiztegi teknikoak, lexiko sorkuntzarako bideak, lokuzioak eta formulak...

Begien aurrean dugun eskema orokor hau behar komunikatiboen auditoriak egiteko erabil liteke. Modu berean, “meta-corpusak” eratzeko ere izan daiteke baliagarria; hau da, dokumentuen eta kontsultarako baliabideen biltegiak sortzeko eta antolatzeko ere izan daiteke egokia.



2.1. Corpus pedagogikoak eratzeko irizpideak

Dirección <http://www.ehu.es/euskara-orrria/euskara/consultas/consultas.l> Ir

EUSKARA ERREKTOREORDETZA >> Castellano

EHUko KONTULTAGUNEAK EHUZ KAHIPKO KONTULTAGUNEAK

KONTULTAGUNEA **EHUko Kontultagunak**

- EHUko PROSA GAUR:** Egile hautatuak testu hautatuak osatutako corpus hau era askotara kontultatzeko aukera eskaintzen zaila euskara landua erabilibili nahi duen orori.
- EHUKU:** Euskarazko irakazkuntzan jarduteak sortzen dituen hizkuntza zalaizteir erantzuteko, sareko aholkularitza sistema da hau.
- TXOH:** Testu zuzenketen datu-basea.
- AZDardak:** AZDardak, EHUko langileei administrazio agiriak euskaraz idatzen laguntzeko on-line sistema da:
 - AZDardak (on-line):** aplikazioan zehar nabigatzeko aukera.
 - AZDardak (pdf):** aplikazioaren eskuliburua jaiatzeko aukera.
- Terminologia Digitalak:** On line kontultatzeko moduko hiztegiak eta itzulpenen testu etebideak eskaintzen dituen atala duzu hau. Hurrengoetan badago ere, proba gisa zartu diren lehen materialakikus ditzaitez.
- EHUko Irizpideak:** EHUko ikastegiak, saien eta jakintza-erleak izenak biltzen dituzko dokumentu berrak. Berrakide **Terminologia** datu-basean era berrakideak nahi dutun itena. Irizpideak 2004ko otsailaren 3ko Gobernu Kontsuluan onartu zen eta 2004ko martxoaren 9an argitaratu zen **EHA**-n.
- Testu Oinarriak:** EHUko irakazkuntzako zerbitzu da, eta ikasmaterialen hizkuntza kalitatea bermatzen laguntzea du helburu.
- Euskarriko Hiztegia:** Paperean eta Cd-ROM euskarrian argitaratu aurretik, sarean egozgarria da Erantzutako Hiztegiaren behin-behineko argitalpena. Iradokitzen edo oharren bat bidali nahi izanez egon, "oharrak" atalari duzu hiztegiaren helbide elektronikoa.

Nor-zer garen
 Zer eskaintzen dizugun
 Euskara EHUan
 Euskara Zerbitzua
 Kontultagunea
 Delaladiak
 Euskara Probak
 Barne zerbitzuak
 Ikastaroak
 Txostenak
 Arauak
 Argitalpenak
 Estekak

Bibliografian ez dira falta azken ideia honen aldeko arrazoibideak (Conrad, 2005; Hinkel, 2005; Larsen-Freeman, 2005; Liddicoat, 2005). Bestalde, gero eta ugariagoak dira ildo honetan abian jarritako esperientzia berritzaileak (ikus Díaz eta Ruggia, 2004; Gómez de Enterría, 2004; Álvarez, 2005; Gutiérrez, 2005; Lin, 2005; Penadés, 2005).

Geure artean ere, hortxe ditugu, besteak beste, EHU-ren Euskara Institutuak (<http://www.ehu.es/euskara-orria/>) kudeatzen dituen eredu-zko prosaren corpora eta testu zuzenketarako datu-basea.

Edota HABEK hornitzen duen “dokumentu-biltegia” (www.habe.org/dokumentubiltegia).

The screenshot shows the HABE search interface. The search form is titled "bilatzailea" and includes the following fields and options:

- Hitza gokoak: Zientzia
- Data (uuuu-hh-ee):
- Dokumentu zenbakia:
- Idatzia/Audioa/Bideoa/Ariketa (dropdown)
- Maila guztiak (dropdown)
- Testu mota guztiak (dropdown)
- Euskara guztiak (dropdown)
- Iraupen muga (dropdown)
- Hitz kopuru muga (dropdown)
- Dokumentu biltegian bilatu (button)

Below the search form, it indicates "279 fitxa aurkitu dira" and shows a list of results under the "Berrienak" tab. The results are as follows:

Berrienak	Orenak	Jaitisienak
1. Telefono mugikorak ez lantzeak indikatuz(0405) 17-10-2005. J. Urtasun. (00:03:31), 2. maila 1-1-1-1-1 (82 desk.)		
2. Planito bideratzaileak(0495) 14-10-2005. Aitor Harte. (407 hitz), 3. maila 1-1-1-1 (81 desk.)		
3. Lantzeak gurean erabiltzen duten(0891) 13-10-2005. Ana Galarraga. (440 hitz), 3. maila 1-1-1-1-1-1 (83 desk.)		
4. Niretzat bideratzaileak(0876) 05-10-2005. Silvia Fabea. (840 hitz), 3. maila 1-1-1-1-1 (43 desk.)		
5. Oatza 18 000 urteko aitzorora Faria Arzen(0872) 04-10-2005. Berta Korta. (424 hitz), 2. maila (22 desk.)		
6. Diktatzeak erabiltzen dituzten(0814) 10-08-2005. Aitor Harte. (808 hitz), 2. maila (14 desk.)		
7. Antzinararen bideratzaileak eta da erabiltzen(0803) 02-08-2005. Ana Galarraga. (1018 hitz), 3. maila (21 desk.)		
8. Niretzat bideratzaileak eta lantzeak(0775) 22-07-2005. Aitor Harte. (887 hitz), 3. maila (82 desk.)		
9. Komunikazio bideratzaileak(0756) 19-07-2005. Ana Galarraga. (887 hitz), 3. maila (73 desk.)		
10. Erabiltzen dituzten bideratzaileak(0755) 19-07-2005. M. Aizola, A. Argola. (527 hitz), 2. maila (20 desk.)		
11. Bideratzaileak erabiltzen dituzten(0750) 18-07-2005. J. Garita. (80:02:50), 2. maila (21 desk.)		
12. Bideratzaileak erabiltzen dituzten(0734) 20-06-2005. Ana Galarraga. (874 hitz), 3. maila 1-1-1-1 (21 desk.)		
13. Mugikorra eta erabiltzen dituzten(0735) 20-06-2005. Aitor Harte. (877 hitz), 2. maila (65 desk.)		
14. Zientzia bideratzaileak(0640) 09-06-2005. Eider Carlon. (176 hitz), 2. maila (42 desk.)		
15. Bideratzaileak erabiltzen dituzten(0670) 05-06-2005. (00:02:28), 2. maila (8 desk.)		

Baita, IVEF-SHEE-en urteetan zehar egindako terminologia-basea:

Espezialitateko hizkeren irakaskuntzaren arloan ere egin dira saiakera batzuk. Hona hemen, adibide gisa, ideia honen aplikazio bat “Justizia Administrazioa” eta “Administrazio Orokorreko” euskara irakasteko ikastaro telematikoetarako sortua (Ezeiza, 2004-a, b eta c).

2.2. Zein da irakaskuntzaren testuingurua?

Bigarren galdera hau ikaskuntza-prozesuaren egiturari dagokio. Irakaskuntza-egitasmo guztiek ez diote ikasleari baldintza berberak eskaintzen bere gaitasuna areagotzeko. Bestalde, baldintza horiek ez dira, beti, onuragarriak.

Lehenago esan dugunez, paradigma garaikidearen irizpideei jarraiki, gure planteamendu didaktikoei ahalbidetu behar dute ikaskuntza-prozesua esanguratsua, aktiboa eta burujabea izan dadin, ahalik eta hein handienera. Ze ondorio ditu honek irakaskuntzaren planifikazioan?

Lehenik eta behin, Ikas-prozesua “esanguratsua” izango bada, identitate-aldaketa bat eragin beharko du ikaslearengan. Hau da, lagundu beharko dio, arian-arian, bere burua idioleko berriaren hitzun gisa irudikatzen. Ricento-ren ereduaren arabera (2005: 904), prozesu honek hainbat etapa barneratuko lituzke: “adituen ahotsak” bereganatzea (imitazioa); “barne-ahotsa” piztea (ekimena); norberaren ahalbide eta mugak doitzea (kontrola); eta, bere burutik jardutea (sormena).

Bestalde, Alberici eta Serreri-ren hitzak erabiliz (2005: 81) ikas-prozesu “aktiboak” hiru ezaugarri izango ditu: “autoeragilea”, “proaktiboa” eta “orientatzailea” edo “estrategikoa” izango da. Horrek zera esan nahi du: lehenik eta behin, ikasleari lagunduko diola bere ahalbideei atarramenturik handiena ateratzen; ondoren, helburu lorgarriak proposatuko dizkiola; eta, horrenbestez, helburu horiek erdiesteko estrategiak pentsatzeko eta probatzeko eskatuko diola.


Azkenik, Van Lier-ek proposatutako ereduaren arabera (1996), hitzun “burujabeak” hiru ezaugarri izango ditu: “kontzientzia” —hizkuntzarekiko sentiberatasuna—; “autonomia” —erabakiak hartzeko eta ondorioak ateratzeko ahalbidea—; eta, “atarramentua” —“benetako” esperientzien bidez eskuratua—.

Idea hauetatik, didaktikarako funtsezkoak diren lau irizpide orokor eratorren dira

- a) Ikaslea “Ekintzara” bultzatu beharko da baldintza pedagogiko neurtuetan;
- b) Ikasleari aukera eskaini behar zaio testuinguru ezberdinetan jarduteko.
- c) Ikasleari testu eredugarriak eman beharko zaizkio langai.
- d) Adierazgarriak diren item lexiko eta gramatikalak nabarmendu dira.

Nola lortu liteke baldintza hauek gutxienik aintzat hartuko dituen ikaskuntza-egitura bat unibertsitatean?


Bide bat baino gehiago baliatu daitezke. ingurune birtualak, adibidez, oso ahalbide interesgarriak eskaintzen ditu. Beste tresna bat joko handia ematen duena “portafolioa” da. Portafolioak gurera berriki iritsi badira ere, urteak dira AEB-n baliatzen direla.



2.2. Irakaskuntza-eredua

Eredu komertzial bat interneteko helbide honetan ikus daiteke: <http://kaplan1.kennesaw.edu>. Adibide gertuagoak ere eman litezke.



Hona hemen espezialitateko hizkera lantzeko ikastaro telematikoa baliatzen den “kaiera elektronikoa” bat.



Access programaren aplikazio bat besterik ez da, ikasleek hornitzen dutena. Tutoreak aldian behin kaiera guztiak e-postaz jaso eta datu-base bakarrean iraul-tzen ditu etengabeko prozesu berreraikitzailean

Beste adibide bat, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Fakultatean, Euskara Teknikoa irakasgai baliatzen den *portfolioa* izan liteke. Besteak beste,

ebaluziorako erabiltzen da baina, aldi berean, ikasleen ekoizpenen eta kezken bilduma egiteko tresna egokia ere bada. Jarraian ikus daitekeenez, *portfolio* honek lau atal ditu:




2.3. Zein eredu metodologiko baliatuko dugu?

Hirugarren galdera hau ikasgelako dinamikari eta ikaskuntzarako jardueri dagokie. Irakaskuntzaren beste dimentsioetan bezala, honetan ere aldaketa nabarmenak gertatu dira azken urteotan.

Garai bateko ariketa gramatikalak erabat baztertu ez diren arren, orain pisu handiago hartu dute beste batzuek: simulazioek, kasu-azterketek, ataza komunikatiboek edota proiektuek (ikus Aguirre, 2004; Fernández-Conde, 2004; eta Long, 2005).

Diskurtsoaren analisiaren ildoko ariketek ere garrantzi nabarmena hartu dute (Ikus Vazquez, 2005). Itzulpengintzak ere trataera berria du marko berri honetan (ikus, Alcina eta Gamero, 2002; eta Colina, 2003). Aukerak ugariak dira, baina, aldeak alde, badira oinarritzko printzipio batzuk egun aintzat hartzen direnak.

- Ikasleen konpromisoa bilatu.
- Ikasleen arteko elkarreragina eta elkarlana bultzatu.
- Jarduerak ondo testuinguratu.
- Hizkuntzari begiratzeko modu ezberdinak irakatsi.
- Erantzunak pertsonalizatu.



2.3. Jarduerak diseinatzako irizpideak


Bost printzipio hauek orokor samarrak dira eta zehaztapen gehiago eskatzen dute, noski. Edozein modutan, argi uzten dute zein diren paradigma garaikideak gailentzen dituen balioak eta lehentasunak.

3. IRAKASKUNTZAREN KUDEAKETARAKO EREDU BAT

Honez gero, iritsi gara ibilbidearen helmugara. Ikusi dugu nola joan den eraikitzen espezialitateko irakaskuntzaren paradigma garaikidea. Nabarmendu ditugu, halaber, zein diren paradigma horrek eragiten dituen ondorioetako batzuk.

Honenbestez, eta gainbegiratu honi, amaiera emateko, marko hau laburbiltzen duen eskema bat aurkeztuko dugu. Eskema hau Velázquez (2004) adituak hainbat enpresa eta unibertsitateetan egindako lanaren emaitza da. Besterik ezean, eztabai-darako baliagarria izango delakoan, hementxe doa jasota.

PROCESOS DE ELABORACIÓN DE UN DC PARA LA ENSEÑANZA DE LAS LENGUAS CON FE



ERREFERENTZIAK

- Aguirre, B., 2004. "La enseñanza del español con fines profesionales". In: J. Sánchez eta I. Santos, zuzendariak, 2004. *Vademécum para la formación de profesores. Enseñar español como segunda lengua o lengua extranjera*. Madril: SGEL, 1109-1128.
- Alcina, A. eta Gamero, S. (ed.) 2002. *La traducción científico-técnica y la terminología en la sociedad de la información*. Castello: Universitat Jaume I.
- Álvarez, F., 2005. "Corpus de textos académicos producidos por estudiantes universitarios extranjeros". [Interneteko helbidea <http://www2.uah.es/linred/numero3.htm>]
- Bachman, L. eta Palmer, A., 1996. *"Language testing in practice"*. Oxford: OUP.
- Bronckart, J. 1996. "Actividad verbal, textos y discursos". Madril: Fundación Infancia y Aprendizaje [2004].
- Cabré, M.^a T., 2002. "Análisis textual y terminología, factores de activación de la competencia cognitiva en la traducción". In: A. Alcina eta S. Gamero (ed., 2002, 87-106.
- Calvet, M., 1997. "La comunicación escrita en el trabajo experimental". *Alambique* 12, 63-74.
- Carkin, S., 2005. "English for academic purposes". In: E. Hinkel, ed. 2005, 85-98.
- Celce-Murcia, M. eta Olshtain, E., 2005. "Discourse-based approaches: a new framework for second language teaching and learning". In: E. Hinkel, ed. 2005, 729-742.
- Colina, S., 2003. "Translation teaching". Boston: McGraw-Hill.
- Conrad, S., 2005. "Corpus linguistics and L2 teaching". In: E. Hinkel, ed. 2005, 393-410.
- Díaz, L. eta Ruggia, A., 2004. "Cómo evaluar textos con fines específicos con ayuda de recursos informáticos" [Interneteko helbidea: <http://www.sgcl.mec/redele>].
- Dudley-Evans, T. eta St. John, M., 1997. "Developments in English for specific purposes: a multidisciplinary approach". Cambridge: CUP.
- Elosegi, A., 2002. "Xede berezietako hizkerak eta terminologiak euskal tradizioan eta 1976 arte". In: X. Alberdi eta I. Ugarteburu, argitaratzaileak, 2002. *Especialitate-hizkerak eta terminología: jardunaldiak*. Bilbo: EHU/Euskara Inститua, 141-156.
- Escandell, M.^a V., 2005. "La comunicación". Madril: Gredos.
- Europako Kontseilua, 2001. "Ikaskuntza, irakaskuntza eta ebaluaziorako europako erreferentzia markoa". Donostia: HABE (2005).
- Ezeiza, J., 2002. "Gaitasun komunikatiboa Europako Kontseiluaren lanen argitan". In: A. Camacho, koord. 2002: *Helduen Euskalduntzearen IV Jardunaldiak*. Bilbo: UEU, 49-76.
- Ezeiza, J., 2003. "Las bases lingüísticas del enfoque comunicativo: la competencia comunicativa". Doktorego ikastaroetako lana. Argitaratu gabea. Madril: Antonio de Nebrija.
- Ezeiza, J., 2004-a. "Justizia Ezagutzen". [Cd-Rom]. Donostia: Legazpi 6 euskaltegia.
- Ezeiza, J., 2004-b. "Justizia Gizarte Bizitzan [Cd-Rom]. Donostia: Legazpi 6 euskaltegia.
- Ezeiza, J., 2004-c. "Bulegoan Euskaraz" [Cd-Rom]. Donostia: Legazpi 6 euskaltegia.
- Feez, S. 1998. "Text-based syllabus design". Donostia: HABE [2003].
- Fernández-Conde, M., 2004. "La enseñanza de la comunicación no verbal en un curso de español de los negocios según la ELMT". [Interneteko helbidea <http://www.sgci.mec.es/redele/biblioteca>].
- Frodesen, J. eta Holten, C. (ed.) 2005. "The power of context in language teaching and learning". Boston: Thomson/Heinle.
- Galán, C. eta Montero, J., 2002. "El discurso tecnocientífico". Madril: Arco/Libros.
- Gómez de Enterría, J., 2004. "Estudio de los lenguajes especializados en español (I): elaboración y desarrollo de vocabularios científicos y técnicos". [Interneteko helbidea <http://www2.uah.es/linred/numero1.htm>].

- Gutiérrez Quintana, E., 2005. "Corpus de textos escritos por universitarios italianos estudiantes de ELE". [Interneteko helbidea <http://www2.uah.es/linred/numero3.htm>].
- Gutiérrez Rodilla, B., 2005. "El lenguaje de las ciencias". Madrid: Gredos.
- Hinkel, E. (ed.) 2005. "Handbook of research in second language teaching and learning". New Jersey: Lawrence Erlbaum.
- Hinkel, E., 2005. "Analyses of second language test and what can be learned from them". In: E. Hinkel, ed. 2005, 615-628.
- Hutchinson, T. eta Waters, E., 1987. "English for specific purposes: a learning centred approach". Cambridge: CUP.
- Kolb, D., 1984. "Experiential learning: experience as the source of learning and development". Englewood Cliffs, N.J.: Prentice-Hall.
- Korthagen, F., 2001. "Linking practice and theory. The pedagogy of realistic teacher education". Londres: LDA.
- Larsen-Freeman, D., 2005. Enhancing contextual analysis through the use of linguistic corpora In: J. Frodesen eta C. Holten (ed.) 2005, 49-54.
- Le Boterf, G., 2000. "Ingeniería de competencias". Bartzelona: Gestión 2000 [2001].
- Lemke, J. L., 1997. "Aprender a hablar ciencia. Lenguaje, aprendizaje y valores". Bartzelona: Paidós.
- Lerot, P., 1997. "Las lenguas especializadas". Bartzelona: Ariel
- Liddicoat, A., 2005. "Corpus planning: syllabus and materials development". In: E. Hinkel, (ed.) 2005, 993-1012.
- Lin, T., 2005. "Corpus de textos escritos por universitarios taiwaneses estudiantes de español". [Interneteko helbidea: <http://www2.uah.es/linred/numero3.htm>].
- Locke, D., 1997. "La ciencia como escritura". Valentzia: Universitat de València,
- Long, M., 2005. "AS) y nuevas tecnologías. [Interneteko helbidea <http://www.sgci.mec.es/redele/biblioteca2005/fiape/long.pdf>].
- Master, P., 2005. "Research in English for academic purposes". In: E. Hinkel (ed.) 2005, 99-116.
- McGroarty, M. eta Taguchi, N., 2005. "Evaluating communicativeness of EFL textbooks for Japanese secondary schools". In: J. Frodesen eta C. Holten (ed) 2005, 211-224.
- Muñoz, R., 2002. "De la ciencia, la inseguridad y las perlas de tu boca". In, A. Alcina eta S. Gamero (ed.) 2002, 65-86.
- Orwig, C., 1999. "Common purposes of functions of language". Dallas, TX: Summer Institute of Linguistics.
- Penadés, I., 2005. "Corpus para el análisis de errores en el aprendizaje de E/LE: Presentación" [Interneteko helbidea: <http://www2.uah.es/linred/numero3.htm>].
- Perry, W., 1981. "Cognitive and ethical growth: the making of meaning". In: A. Chickering, (ed.) 1981. *The modern american college: responding to the new realities of diverse students and a changin society*. San Francisco: Josey-Bass, 76-116.
- Porter, P., 2005. "Focusing on form: seven habits of highly skilful teachers". In: J. Frodesen eta C. Holten (ed.) 2005, 187-198.
- Prat, Á., 2000. "Habilidades cognitivolingüísticas y tipología textual". In: J. Jorba, I. Gómez eta Á. Prat (ed.) 2000. *Hablar y escribir para aprender. Uso de la lengua en situación de enseñanza-aprendizaje desde las áreas curriculares*. Bartzelona: Síntesis, 51-72.
- Ricento, T., 2005. "Considerations of identity in L2 learning". In: E. Hinkel ed. 2005, 895-910.
- Sánchez, A., 1992. "Historia de la enseñanza del español como lengua extranjera". Madrid: SGEL.

- Serra, R. eta Caballer, M.^a J., 1997. "El profesor de ciencias también es profesor de lengua". *Alambique* 12, 43-50.
- Sutton, C., 1997. "Ideas sobre la ciencia e ideas sobre el lenguaje". *Alambique* 12, 8-32.
- Van Lier, L., 1996. "Interaction in the language curriculum. Awareness, autonomy & authenticity". Donostia: HABE [2003].
- Vázquez, G. (koord.) 2005. "Español con fines académicos: de la comprensión a la producción de textos". Madril: Edinumen.
- Velázquez, A., 2004. "Metodología teórica del proceso de elaboración de un diseño curricular para la enseñanza de las lenguas con fines específicos". [Interneteko helbidea <http://www.sgcl.mec/redele>].
- Wasenberg, J., 2003. "Las palabras del conocimiento". *El País*, 03-V-14, 43

Gramatika- eta estilo-arauak espezialitate-hizkeren garapen diskurtsiboari begira¹

Igone Zabala

EHU

0. SARRERA

Normalizaturiko hizkuntzak askotariko komunikazio-egoeretan erabiltzen dira eta hitzunek hizkuntza horien hiztegia eta gramatika ezagutzeaz gain, badakite zein hizkuntza-baliabide diren egoki erabilera-esparru bakoitzean. Aldakortasun-sistema bat edukitzen dute hizkuntza horiek, bi ardatzen inguruan egituratzen dena: a) ardatz dialektala eta b) ardatz funtzionala. Ardatz dialektalean sartzen dira aldaera geografikoak eta aldaera sozialak, hiztunen jatorriarekin lotuta daudenak. Ardatz funtzionalean sartzen dira, berriz, estiloak eta erregistroak, hiztunei komunikazio-egoera desberdinetara egokitzea posible egiten dietenak.

Hizkuntza-sistema aurkaritzetan oinarritzen da eta, beraz, aldakortasuna sistematikoa izan dadin, beharrezkoa da erreferentziatzat hartzen den aldaera bat. Ardatz dialektalari dagokionez, *aldadera estandarra* izaten da erreferentzia eta, ardatz funtzionalari dagokionez, aldiz, *estilo zaindu orokorra* esango dioguna, neurri handian aldaera estandarrean oinarritzen dena. Hizkuntzen normalizazio-prozesuan, alderantzizko noranzkoan mugitzen dira aipaturiko ardatzak: aldaera dialektalak hurbiltzen joaten dira eta aldaera funtzionalak, aldiz, dibertsifikatuz joaten dira, garatzen doazen neurrian².

1 Lan hau aurrera eramateko EHuko 1/UPV 00113 310-H-15921/2004 eta RICOTERM-2 (HUM2004-05658-CO2-01/FILO) ikerketa-egitasmoen diru-laguntza erabili dut. Eskerrak eman behar dizkiot Agurtzane Elorduiri, azken urteotan berarekin izandako eztabaidak eta lankidetzaz egon izan ez balira, eta lankidetzaz horretan irakatsi didana gabe lan hau ezinezkoa izango zen eta. Halaber, eskerrak asko lan honen inguruan egindako iruzkinengatik Agurtzane Elorduiri, Elixabete Perez Gazteluri eta Karmele Artetxeri. Esan gabe doa akats guztiak neureak direla.

2 Hau erraz uler daiteke Halliday eta Hasan-ek (1985: 41) dialektoak eta erregistroak konparatzen dituztenean egiten duten baieztapena kontuan hartuta:

Dialects are saying the same thing in different ways, whereas registers are saying different things. So dialects tend to differ not in the meanings they express but in the realisations of these meanings at other levels — in their grammar, in their vocabulary, in their phonology, in their phonetics. On the other hand it is precisely in their meanings that registers are differentiated from each other. Of course they must also differ in grammar and vocabulary, because grammar and vocabulary are what express the meanings. Halliday eta Hasan (1985: 41)

Lan honetan, espezialitate-hizkerari begiratu diegu, eta horien artean zientzianren euskarari (ZE) bereziki, euskararen normalizazioaren ikuspuntutik. Euskara kodifikazio prozesu berria eta estandarizazio prozesu bukatu gabea pairatzen duen hizkuntza da, eta baldintza ezegonkor horietan eraman behar du aurrera garapen lexiko-diskurtsiboa³. ■kusiko dugu ZEA ere garapen lexiko-diskurtsiboa murgilduta dagoen eremua dela eta garapen hori euskara batuaren estilo zaindu orokorraren (EBEZO) garapen lexiko-diskurtsiboarekin batera gertatzen ari dela.

Normalizazio bidean dauden hizkuntzek interbentzio handia pairatu ohi dute hizkuntzalarien, zuzentzaileen, itzultzaileen eta bestelako eragileen aldetik. Gainera, normalizazio bidean dauden hizkuntzetan, normalizaturik dauden hizkuntzetan baino areago, hiztunak erraz konturatzen dira gabeziak dituztela, eta gabezia horiek konpontzen saiatzen dira ematen zaizkien aholku eta arauei jarraiki. Horrek ardura berezia eskatzen die hizkuntza-eragileei, edozein aholku edo arau hizkuntza-komunitatean zabaltzeko orduan. Ez da nahikoa arauok azterketa linguistikoetan edo filologikoetan oinarrituta egotea, ikuspegi soziolinguistikoa ere funtsezkoa da. Areago, alderdi soziolinguistikoa erabakigarriagoa izaten da hizkuntzaren garapenari dagokionez, alderdi linguistikoa baino: interbentzioak gehiago lagunduko dio normalizazioari berezko garapen-prozesuen noranzkoan egiten bada.

Gure iritziz, hizkuntzaren erabiltzaileei aholkuak eta arauak ematen zaizkienen, ondo berezi behar dira gramatika-arauak, hizkuntzaren erabilera guztietarako berdintsuak direnak, eta estilo-arauak. Estilo-arauak komunikazio-egoeren arabera izan ohi dira eta, beraz, garapen lexiko-diskurtsiboa lagun dezakete. Euskararen normalizazioari laguntzeko helburuaz estilo-arauak formulatzen eta plazaratzen ditugunean, askotariko estilo eta erregistroak behar ditugula izan behar dugu ikusmiran eta, erabiltzaileei aniztasun hori ulertarazten lagundu behar diegu. Bestetik, beharrezkoa da, gure iritziz, estilo-arauok esparruz esparruko erabileraren deskripzioan oinarrituta egotea, benetako erabileraren deskripzioak ematen baitigu hizkuntzaren berezko garapenaren noranzkoaren berri.

Euskararen berezko garapenaz ari garela, hiztun talde desberdinek hartzen dugu parte garapen horretan eremu desberdinetan: euskara batu zaindu orokorraren garapenean, euskara batua erabiltzen dugun hiztun gehienok hartzen dugu parte, baina espezialitate-hizkeren garapenean eta, horren barruan ZEaren garapenean, aldiz, espezialitate-hizkera bakoitza erabiltzen duen diskurtso-komunitateak bakarrik hartzen du parte. Diskurtso-komunitate espezializatuen parte diren hiztunak, EBEZOa erabiltzen duen komunitatearen parte ere badira jakina. EBEZO-rako ematen diren arauak, nahikoa malguak izan behar dute, horiek abiapuntutzat hartu behar dituzten espezialitate-hizkeren eta horien barruan ZEaren garapen lexiko-diskurtsiboa ez oztopatzeko. Bestetik, espezialitate-hizkeren garapen lexiko-diskurtsiboa EBEZOaren garapena kontuan hartuta egin behar da, baina beti ere ahaztu gabe zenbait alderditan estandar orokorretik harantzago joan behar

3 Garapen lexiko-diskurtsiboa modernizazioa (Ferguson 1968) edo lantzea (Haugen 1983) esaten zaion fasean sartu ohi da hizkuntzen normalizazio-plangintzan.

dutela espezialitate-hizkerek. Hortaz, gizartean zabaltzen diren estilo-arauek bi maila hauetako garapen lexiko-diskurtsiboa harmonizatzen lagundu beharko lukete gure iritziz.

Lan honen lehenengo atalean ZEaren garapena euskararen garapen lexiko-diskurtsiboan kokatuko dugu eta aldarrikatuko dugu badela euskal zientzialarien diskurtso-komunitate bat, azken hogeita hamabost urteotan hainbat generotan sar daitezkeen testuak sortu dituen. Hizkuntzaren gaineko interbentzioa eginez gero, gure iritziz, berezko garapen lexiko-diskurtsiboaren deskriptiotik abiatu behar da interbentzio hori: helburua da berezko garapena azkartzea. Bigarren eta hirugarren ataletan aztertuko dugu nola eragiten dien garapen lexiko-diskurtsiboak hurrenez hurren gramatika-arauei eta estilo-arauei, eta nola formulatu eta interpretatu behar diren arauok, garapen lexiko-diskurtsiboari lagunduko badiote.

1. EUSKARA BATUA, EUSKARAREN GARAPEN LEXIKO-DISKURTSIBOA ETA EUSKAL ZIENTZIALARIEN DISKURTSO-KOMUNITATEA

Euskara Batuaren (EB) finkatze-prozesuari ekin zitzaionean (1968 urtearen inguruan), euskara galtze-prozesu batean murgilduta zegoen zalantzarik gabe: erabilera-esparru pribatuetara mugatuta zegoen ia erabat eta hiztunak galtzen zituen etengabe. Galera prozesu horri aurre egiteko diseinatu zen EBa, eta tresna horrek, EAEan gertatu zen egoera soziopolitikoaren aldaketarekin batera, posible egin du azken hamarkadetan euskara hiztunak eta erabilera-esparruak irabazten joatea.

Hasiera batean euskara batua *erregistro* bat (idatzia eta formal) izateko diseinatu zen baina hiztunak eta erabilera-esparruak irabazten joatearekin batera *dialektoa* ere bihurtu dela esan dezakegu⁴. EBa hizkuntzaren erabilera batzuetan pentsatuz sortu zen, alegia, zenbait argitalpenetarako eta eskolarako: hurbileko harremanetarako eta ahozkorako, baziren dialektoak (Lekuona 1968: 139). Euskal hiztun batzuek hizkuntzaren bi aldaera izango zituzten horrela eta komunikazio-egoeraren arabera aukeratuko zuten aldaera bat edo bestea. Hortaz, erabileraren arabera egokitu behar zen aldaera izateko pentsatu zen EBa. Aurreikusi zen bezala, hiztun askok bi kode dituzte orain euskaraz aritzeko, euskalkia eta EBa, baina, badira baita milaka eta milaka hiztun berri EB kodea baino ez dutenak. Hiztun horiek

4 Gure argudio-ildoak hobeto ulertzeko, hona hemen Halliday and Hasan-en gogoetak:

A dialect, or dialectal variety, can be defined as a variety of language according to the user. That is, the dialect is what you speak habitually, depending in principle on who you are: and that means where you come from, either geographically in the case of regional dialects or socially in the case of social dialects...A register we can define as a variety according to use. In other words, the register is what you are speaking at the time, depending on what you are doing and the nature of the activity in which the language is functioning. (Halliday eta Hasan 1985: 41).

duten kode bakarra egokitu behar dute komunikazio-egoera desberdinetarako. Era berean, hezkuntzan, administrazioan eta hedabideetan askotariko komunikazio-egoeretarako egokitu behar da EBa. Hortaz, hiztunak eta erabilera-esparruak ugari-tu izanak askotariko estiloak eta erregistroak eskatzen diote EBari.

EBak posible egin du euskararen aldaera desberdinak erabiltzen zituzten askotariko hiztunek *hizketa-komunitate* bat⁵ osatzen joatea. Hizketa-komunitatea bereizten duena ez da hitz egiten den hizkuntza, baizik eta, hizkuntza hori erabiltzeko moduak edo konbentzioak. Hiztun bakar batek parte har dezake hizketa-komunitate batean baino gehiagotan. Euskara batuak hizkuntza-aldiera geografiko desberdinetan aldakiak dituzten zenbait hizkuntza-baliabidetakoa aukera jakin bat lehenesten du, lortu nahi den hizketa-komunitate horrek oinarritzko hizkuntza-baliabide komun batzuk izan ditzan, baina ez da eredu itxi eta bukatua, aberastu beharreko eredu irekia da:

a) EBaren arauak kodetzen dituzten baliabideez gain, beste baliabide asko behar dira euskalki eta hizkera desberdinetan aurkitzen direnak: garbi dago EBaren arauak kodetzen dutena bakarrik ez dela nahikoa euskaraz inolako testuingurutan aritzeko.

b) Idatzirako eta komunikazio-egoera formaletarako diseinatu zen euskara batua, baina ahozkoaren eta formaltasun maila desberdinetako erregistroen beharra sortu da, hiztunak eta erabilera-esparruak irabaztearekin batera⁶. Esparru eta enuntziatio-egoera berrietan erabiltzeak dakar hizkuntza-elementu berrien beharra, bereziki hiztegi-elementu berrien beharra.

c) Benetako hizketa-komunitate bat eratzen den momentuan, erabilera-arau berriak partekatuz doaz komunitate horren kideak, erabilera dela eta⁷.

Hizkera desberdinetatik datozen elementuak hizkera bakar batean integratzeak, elementu sortu berri ugari egoteak eta, gainera, hizketa-komunitate batek elementu horiek guztiak erabiltzen hasteak, elementuen beraien arteko harremanak aldatzea dakar: sistema beraren berrantolaketa.

Hizkuntza-baliabideen berrantolaketa estuki lotuta doa irabazitako erabilera-esparruetan sortzen diren behar berriekin. Irabazitako erabilera-esparruen artean daude, batetik, orokortzat hartu behar direnak, adibidez hedabideen esparrua eta, bestetik, espezialitate-eremu bateko prestakuntza berezia behar dutelako esparru bereziztatut har ditzakegunak, zientziarena esate baterako. Esparru orokorretan

5 Hona hemen Hymes-en definizioa:

A speech community is defined, then tautologically but radically, as a community sharing knowledge of rules for the conduct and interpretation of speech. Such sharing comprises knowledge of at least one form of speech, and knowledge also fits patterns of use. Both conditions are necessary. (Hymes 1974: 51).

6 Horrexegatik plazaratu behar izan ditu Euskaltzaindiak *Euskara Batuaren Ahoskera Zaindua* (87 araua) edota *Adizki alokutiboak* (14 araua) bezalako arauak. Ikus Oihartzabalen (1996) gogoetak.

7 Hibridazioa esan ohi zaionak, hizketa-komunitate bat eratzen ari dela jartzen du agerian gure iritziz.

sortzen diren erabilera-arauak hizketa-komunitateko kide guztiek partekatuko dituzte, baina esparru berezitu bateko erabilera-arauak esparru horretan aritzen diren hiztunek baino ez dituzte ezagutuko. Hiztun horiek osatzen duten taldeari *diskurtso-komunitate* esaten zaio⁸. Diskurtso-komunitate bakoitzak bere arauak ditu esan daitekeenaz, eta esan behar den moduz. Diskurtso-komunitate batek erabiltzen duen hizkera erregistrotzat har daiteke. Hiztun bakar bat hainbat diskurtso-komunitateren kide izan daiteke.

Lan honetan, espezialitate-hizkeren eta zehazkiago zientziaren euskararen garapen diskurtsiboaz ari garelarik, aldarrikatuko dugu euskal zientzialariek diskurtso-komunitate bat (edo batzuk) osatzen d(itz)utela. Swales-en (1990: 24-27) arabera, diskurtso-komunitateen kideek badituzte helburu publiko komun batzuk eta elkarren arteko komunikazio-mekanismoak, batez ere informazioa trukatzeko erabiltzen dituztenak. Komunikazio horretan, genero eta lexikoi bereziak garatzen dituzte diskurtso-komunitateek eta komunitateko kide batzuk arituak izaten dira komunikatzen diren edukietan eta eduki horiek komunikatzeko moduan.

Euskal zientzialarien diskurtso-komunitatea 1970 urtearen inguruan garatzen hasi zela esan dezakegu (Etxebarria 2002; Irazabalbeitia 2002): prosa zientifikoa lantzea talde baten xedea bihurtu zen orduan. Helburuak ziren euskara zientzia eta teknikaren alor desberdinei buruz aritzeko prestatzea, bereziki, irakaskuntzarako materialak eta dibulgazio-testuak sortzea. Oso kide gutxik osatzen zuten komunitate hori eta haien arteko komunikazioa etengabea zen: esparruz esparru behar ziren hizkuntza-baliabide oinarrizkoak sortzen, erabiltzen, lantzen eta finkatzen zihoan diskurtso-komunitate hori, ia ezerezetik abiatuta, kode komun modura erabiliz bera ere garabidean zegoen estandar bat, euskara batuarekin batera garatzen baitoa prosa zientifikoa.

Hogeita hamabost urte hauetan askotariko generoak landu dira: mota eta maila askotako testu didaktikoak, era askotako dibulgazio-artikuluak, zientziaren dibulgazio-liburuak, hedabideetarako dokumentalak eta zientzia eta teknikari buruzko magazinak, doktoretza-tesiak, testu lexikografiko entziklopedikoak. Bestetik, hasiera batean oinarrizko lexikoia eta ondoren, apurka-apurka, esparruz esparruko lexikoiak biltzen joan dira askotariko glosarioetan, lan lexikografiko orokorretan, hiztegi berezietan, eta *Euskalterm* datu-base terminologikoan. Egia da terminologia-lan hauetako askoren zati handi bat neologikoa dela. Izan ere, ia inolako erabilerarik ez zegoen garaian nekez abia zitezkeen lan hauek erabileratik: egoera soziolinguistiko bakoitzak era bateko hizkuntza-produktuak behar ditu (eta sortu ahal ditu) (Cabré 2003) eta, produktu hauek sortu ziren garaian, helburu nagusiak ziren erabilera sustatzea eta euskara irakaskuntzan sartzearekin batera agerian geratzen zen hiztegi-premia larriari erantzutea.

8 Hizkuntzaren erabilera pribatuetan ere badira diskurtso-komunitateak: lagun artekoak, familia barrukoak. Hauen artean euskararen tokian tokiko hizkerak erabiltzen zituzten komunitateak baino ez zeuden 1968 urtean, baina egun badira euskara batua erabiltzen duten diskurtso-komunitateak ere. Izan ere, euskara komunikazio-egoera pribatuetan ere erabiltzen duten hiztunen artean badira EB kodea baino ez dutenak.

Euskal zientzialarien diskurtso-komunitateari edota komunitateei buruzko azterketa soziolinguistikorik ez da egin guk dakigula, baina euskarak egun irakas-kuntzan oro har eta unibertsitatean bereziki duen presentzia kontuan hartuta, begi-bistakoa da badirela beren jakintza-alorreko edukietan arituak diren euskaldunak. Euskaldun hauek, gainera, irakasleak direnez, eduki horiek transmititzen dizkiete beren ikasleei, adituak izateko prestatzen ari diren hiztunei hain zuzen ere. Transmisio hori egunero-egunero egiten da diskurtso didaktiko ahozkoaren edota idatzia-aren bidez (klase magistraletan, laborategi- eta landa-praktiketan, mintegietan, harrera-orduetako ikasle-irakasle solasaldietan, lan akademikoen zuzenketetan eta mezu elektronikotan). Badira aditu euskaldunen ikasleak izan diren irakasleak ere, orain adituak izateko prestatzen ari diren ikasleei dagokien jakintza-alorreko edukia transmititzen dizkietenak euskaraz eraikitako diskurtso akademikoaren bidez.

Begi-bistakoa da irakasle-ikasle harreman-sare bertikalak sendo eta arin samarrek direla egun baina, itxuraz behintzat, adituen arteko harreman-sare horizontalak askoz ere ahulagoak dira⁹: badira euskaraz aritzen diren ikerketa-talde sendo bakan batzuk, badira ikerketa-talde desberdinetako kideak terminologia eztabaidatzeko eta finkatzeko elkartzan edo inoiz elkartu direnak¹⁰; badira maila desberdinetako testu-liburuak eta esku-liburuak; badira dibulgazio-aldizkariak eta liburuak norberaren diskurtso-komunitateak eta hurbileko diskurtso-komunitateek erabiltzen dituzten hizkuntza-baliabideak guztien eskura jartzen dituztenak; badira euskaraz idatzitako doktoretza-tesi gutxi batzuk, alegia, espezializazio-mailarik altueneko testuak, aditu batek bere espezialitate-alorreko gai berezitu batez aritzeko garatu duen diskurtsoaren berri ematen digutenak.

Hortaz, gure ondorioa da badela diskurtso-komunitate bat zientzia irakastea, dibulгатzea edota garatzea helburu duena, eta helburu horiek lortzeko euskara tresna modura erabiltzen duena. Komunitate horrek baditu ondo trebatuta dauden kideak eta trebaturiko kideak izateko prestatzen ari direnak. Diskurtso-komunitate honen jarduerari lotuta, garatzen doaz generoak eta lexikoak.

Euskal zientzialarien diskurtso-komunitatea garabidean dago, ordea, eta baditu zenbait puntu ahul: a) adituen arteko sare horizontalak oso ahulak dira, irakasle-ikasle sare bertikalekin erkatuta; b) idatzizko ekoizpena oso mugatua da ahozko ekoizpenaren aldean¹¹. Puntu ahul hauek espero izatekoak dira, kontuan hartuta esparru bakoitzeko aditu euskaldunen kopurua oso txikia dela, eta hiztun talde horrek zama eta erantzukizun handiari aurre egin behar diola. Hasteko, badu bere alorreko euskara garatzeko erantzukizun handia, egunero-egunero aritu behar baitu unibertsitateko irakasle euskaldunak bere ikasleen aurrean euskaraz, askotan beste inork euskaraz jorratu ez dituen gaiez aritu gainera. Baina, bestalde, nazioartean

9 Adituen arteko harreman-sareez eta hizkuntza-gaitasunaz, ikus Zabala eta Elordui (2005).

10 Zientzia eta Teknologia Fakultatean nik neuk zuzenean ezagutu ditut geologoak, fisikariak, landare-biologiako irakasleak eta biokimikariak bilerak.

11 EHUen enborrezko irakasgaiak %80 ematen dira euskaraz gaur egun; hortaz, zientziari buruzko diskurtso didaktiko ahozkoa egunero-egunero garatzen ari den zerbait da. Idatzizko ekoizpena, aldiz, unibertsitatekan kanpoko erakunde eta argitaletxeetan egiten da nagusiki (Artetxe 2005: 88).

aritu behar du lehian eta elkarlanean bere esparruko gainerako zientzialariek. Nazioarteko eremuan ingelesez aritu beharko du gehienetan¹². Hori dela eta, ez da harrizkoa zientzialari euskaldunek denbora askorik ez izatea zientziaren dibulgazioa euskaraz egiteko edota, adibidez, duen erantzukizun handiari doktoretza-tesia euskaraz idazteko erronka handia gaineratzeko¹³. Material didaktiko idatziak dira eskoletan egiten den ahozko jardunarekin estukien lotutakoak, eta ez dirudi azken urteotan irakasle euskaldunen kopuruaren igoerarekin bat datorrenik era honetako materialen ekoizpenaren igoera¹⁴.

Hogeita hamabost urte denbora laburra da diskurtso mota bat eta horrek behar dituen genero eta erregistro guztiak erabat asegarriak eta egokiak egiteko, baina egin diren urratsak oso handiak dira, eta oso handiak izan dira hain zuzen ere prosa hori garatzeko konpromisoa hartu eta eutsi diotenei esker. Gaur egun ereduak badi-ra, eta aintzat hartu behar dira eredu horiek, deskribatu behar dira eta lagundu behar zaie aurrera egiten. Bestetik, mota desberdinetako lan eta produktu lexikografiko eta terminologikoetan bildutako terminologia ahoz zein idatziz (*in vivo*) erabiltzen den terminologiarekin erkatu behar da, erabiltzen ez diren aldaerak baztertzeko edota benetan erabiltzen diren terminoekin osatzeko. Izan ere, eredu horiek deskribatzea eta aintzat hartzea da modu bakarra, aholku eta arauen bitartez euskararen garapen lexiko-diskurtsibo naturalarekin bat datorren interbentzioa egiteko.

EBak ere aurrera egin du eta apurka-apurka ikasten goaz denok hizkuntza nola erabili, apurka-apurka garatuz eta partekatuz goaz denok hizkuntza-baliabideak eta erabilera-arauak. Ikasketa prozesu kolektiboa izan da eta aurrerantzean ere hala izan behar du. Zientzialarien diskurtso-komunitatea, hizketa-komunitate baten parte da, EBEZOa erabiltzen duen hizketa-komunitatearen parte hain zuzen ere. Denok partekatzen ditugu erabilera-arau batzuk: EBEZOarekin zerikusia dutenak, baina era berean, diskurtso-komunitate bakoitzak baditu berezko arau batzuk.

Diskurtso-komunitate horiek aintzat hartu behar dira eta halako gizarte-talde baten berezko esparruko testuei eragin behar bazaie, sortzaile, bitartekari edo zuzentzaile modura, ezagutu eta errespetatu behar dira diskurtso-komunitate horren berezko erabilera-arauak. Era berean, EBEZOa erabiltzen dugun diskurtso-komunitate guztiok joan behar dugu moldatzen gure jarduna garatuz doazen erabilera-arauen arabera. Lehen urratsa da bi mota horietako erabilera-arauak (EBEZOarenak eta EBa erabiltzen duten diskurtso-komunitate desberdinenak) aintzat hartzea, ondo bereiztea eta deskribatzea.

12 Artetxeren (2005: 8) hitzetan, zientziaz aritzeko «hiru bandako hizkuntza-jokoa duten hiztunak» dira euskal zientzialariak, galiziera eta katalana egiten duten zientzialariak bezala: hiru hizkuntzaren artean banatzen dute beren ekoizpena hiztun hauek, hizkuntza gutxituaren, estatuko hizkuntzaren eta nazioarteko zientzia-komunikaziorako hizkuntza den ingelesaren artean hain zuzen ere. Artetxek *triglosia* terminoa aipatzen du egoera hau deskribatzeko Bernardó soziolinguista katalanetik hartua.

13 Artetxek (2005: 45) nabarmentzen du asko direla *Inguma* datu-basearen arabera euskaraz esko-lak ematen dituzten irakasleen artean euskarazko inolako ekoizpen idatzirik ez dutenak, edota euskarazko ekoizpen idatziri dagokionez, doktoretza-tesia baino ekoitzi ez dutenak.

14 Proporzio eza honen arrazoiertako bat izan daiteke EHUren euskarazko argitalpenak sustatzeko politika, itzulpenak lehenetsi dituen irakasleek beraiek sortutako material didaktikoen aldean.

2. GRAMATIKA-ARAUAK ETA GARAPEN LEXIKO-DISKURTSIBOA

Hizkuntza baten gramatika, hertsiki hitz eginez, hizkuntza hori erabiltzen duten hiztunek burmuinean duten sistema bat da, hizkuntza erabiltzea posible egiten diena. Adimenezko gramatika horren zati bat, hizkuntza-gaitasun orokorrari dagokiona, komuna da hizkuntza guztietarako (*Gramatika Unibertsala*) eta beste zati bat, hizkuntza bakoitzak gramatika unibertsal horrek dituen aukeren artean hautatzen du. Hizkuntzalariak hiztunen barne-gramatika hori antzematen saiatzen dira, bi eratako datuak erabiliz: a) hizkuntza-intuizioa (hizkuntzalariarena berarena¹⁵ edota beste hiztun batzuenena), eta b) hiztunen ekoizpenaren ondorio diren testuak. Hizkuntzalariak hizkuntzaren gramatikaren arauak deskribatzen dituzte abstrakzio maila handiago edo txikiagoaz¹⁶. Jarduera horren ondorio dira *gramatika deskriptiboak*: hizkuntza baten gramatikaren araberakoak diren eta ez diren hizkuntza-segidak bereizten dituzten gramatikak.

Gramatika deskriptiboetan biltzen dira mota desberdinetako hizkuntza-elementuak (fonemak, morfemak, hitzak) konbinatzeko arau abstraktuak: fonologia-, morfologia-, sintaxi- eta semantika-arauak. Testuaren gramatikaz ere hitz egin dezakegu, testu zuzenak idazteko beharrezkoa baita testuen eraketa-arauak ere errespetatzea. Bereziki, kohesioa deritzon ezaugarri semantiko-sintaktikoa lortzeko bete behar ditugun arauak esaldiaren maila gainditzen duten gramatika-arauak har ditzakegu. Gramatika deskriptibotzat har dezakegu adibidez, Euskaltzaindiaren EGLU gramatika. Edozein modutan, hizkuntzak gizarteetan erabiltzen dira, eta hiztunek ekoizten dituzten segida guztiak ez dira zuzentzat hartzen gizarte jakin batean. *Gramatika preskriptibo* deritze zenbait hizkuntza-eragilek okertzat hartzen dituzten hiztunen ekoizpenak zuzentzeko helburuaz plazaratzen diren arauak. Euskaltzaindiak eman dituen *Partitiboaren erabilera okerra* (15. araua) edota *Ekartzea merezi du* (31. araua) arauak sar genitzake atal honetan.

Gramatikaren konbinazio-arauok hizkuntzaren erabilera guztietan antzera jokatzen dute, hizkuntza jakin baten funtsezko osagaiak baitira. Horrela, **Liburu erosi dugu* edo **Ez ditugu libururik erosi* segidak euskararen gramatikatik kanpokotzat hartzeko ditugun arrazoi berberak eramaten gaituzte euskararen gramatikatik kanpokotzat hartzera berezituagotzat har ditzakegun **Erreakzio honetan oxigeno askatzen da* edo **Ez dituzte elektroirik hartu* segidak ere. Nolanahi ere, arauen emankortasuna aldatu egin daiteke erabilera-esparruz esparru: erabilera-esparru bakoitzean, eta zehazkiago genero bakoitzean maizago adierazi behar diren nozioen edota diskurtso-funtzioen arabera, gehiago edo gutxiago ustiatuko dira mota bateko edo beste mota bateko arauak.

¹⁵ Hizkuntzalari bera bada hizkuntza bat(zu)en hiztuna eta, beraz, badu bere intuizioa barne-gramatika horrekiko.

¹⁶ Helburua Gramatika Unibertsalaren arauak aurkitzea denean, arau abstraktuagoak formulatzen dira, eta helburua hizkuntza jakin baten arau partikularrak aurkitzea denean, txikiagoa izango da arauon abstrakzio-maila.

Bestetik, morfologia lexikoaren arauak eta sintaxi-arauak desberdin jokatzen dute emankortasunari dagokionez: sintaxi-arauak aukera ematen digute era askotako konbinazioak egin eta nozio bera modu askotara adierazteko; morfologia lexikoaren arauak aldiz, blokeatu egiten dira nozio bat adierazteko elementu bat sortu eta finkatu denean. Adibidez, *jabekuntza* izena sortu eta finkatu ondoren¹⁷, ezin dugu **jabeketa* edo **jabepen* erabili, komunitateak erabilera edo adiera jakin berri baterako onartzen dituen arte behintzat. Behin ekintza-izen hori finkatuta, *jabetze* erabiltzen dugunean, *-tze* atzizki flexiboa, eta ez lexikoa, erabiltzen ari garela ulertuko dugu, eta beraz, aditz bat sortzen ari garela. Alderantziz, *jaiotze* izenaren kasuan, *-tze* atzizki lexiko izen-sortzailea gailendu da eta blokeatuta geratu dira, momentuz behintzat, ekintza-izenak sortzeko morfologia-arauak (**jaiokera*, **jaiokuntza*). Hori dela eta *jaiotze-tasa* bezalakoak sortzen ditugu izen eratorri horrekin. Sintaxi-arauak ez dira blokeatzen ordea, eta, jakina, posible da *Haurra Euskal Herrian jaiotzea nahi zuen* bezalako perpausa, *jaiotze* aditz modura erabiltza duena¹⁸.

Hiztegi-elementuen finkapen ezaren ondorioz eta, beraz, hizkuntzaren normalizazio ezaren ondorioz, gehiegizko sorkuntza gertatzen da zenbaitetan euskaraz morfologia lexikoaren alorrean: gehiegizko sorkuntza hitzun arruntek egiten dute zenbaitetan diskurtso-komunitate batean finkatutako hiztegi-elementuak ezagutzen ez dituztelako, baina beste askotan balizko eratorri okerra zuzendu nahi duen interbentzioaren ondorio da gehiegizko sorkuntza hori (Zabala eta Elordui 2005). Hizkuntzaren erabilera bereziteak aditzetiko izen ugari behar izaten dituzte, nozioak abstrakzio-maila handjaz adierazi behar dituztelako. Hori dela eta, emankorrak izan ohi dira zenbait morfologia-arau esparru berezitu haueetan hizkuntzaren erabilera orokorretan baino (Zabala eta Elordui 2006). Era honetako arauen emankortasun handia normalizatutako hizkuntzetan ere gertatzen da, baina are nabariagoa da euskara bezala garapen lexiko-diskurtsiboan murgilduta dagoen hizkuntza batean.

Hizkuntza-elementu jakin baten gramatikaz ere hitz egiten dugu zenbaitetan, alegia, hizkuntza-elementu horrek bestelako elementuekin dituen konbinatzeko moduez. Hizkuntza-elementu bat besteekin konbinatzen den modua haren semantikaren ondorioa da neurri handian. Har dezagun, adibidez, *irakurri* aditza. Aditz hau iragankorra dela dakigu, eta hortik ondorioztatzen da *Jonek liburua irakurri du* gramatikala bada ere **Jon irakurri da* ez-gramatikala dela. Gauzatze sintaktikoa hiztegi-elementuaren Egitura Lexiko-kontzeptualaren ondorio da eta, aditz hori bere argumentuekin konbinatzen denean, zenbait ezaugarri semantiko eskatzen dizkie argumentu horiei (**Liburuak Jon irakurri du*).

17 Hizkuntzalaritzan erabili da, hizkuntzaren ikasketa prozesu naturala adierazteko.

18 *Jaiotze* bezalako elementuei aditz-izen esan ohi zaie, baina termino hau nahasgarria da, testuinguru bakoitzean *-tze* daramaten hizkuntza-unitateak izen edo aditz modura jokatzen baitute, eta elementu bakar bat ezin izan baitaiteke testuinguru jakin batean batera izena eta aditza (Zabala 1999). Antzeko gogoeta egiten du Hernanz-ek (1999: 2203-2207) gaztelaniazko infinitiboen inguruan.

Hiztegi-elementu bat hainbat erabilera-esparrutan erabiltzen denean, ohikoa izaten da haren semantika eta, beraz, konbinatzeko moduak aldatzea erabilera-egoera batzuetatik besteetara. Ildo honetatik, gerta daiteke erabilera-esparru batean posible diren konbinazioak, beste erabilera-esparru batean posible ez izatea. Har dezagun, adibidez, *erantzun* aditza. Erabilera orokorretan konbinatzeko modu ugari ditu: *Jonek galderari erantzun dio; Jonek erantzun dit ez duela egingo; Jonek txarto erantzuten du arazoan aurrean*. Aditz hau hainbat erabilera-esparru berezitan aurki dezakegu, adibidez, fisiologian edota mekanikan: *Animaliek metabolismoa moldatuz erantzuten diete tenperatura-aldaketei; Materialek tentsioei erantzuten dieten moduaren arabera, ondoko material mota hauek bereizten dira*:... Nolanahi ere, halako esparru berezitu hauetan *erantzun* aditzaren subjektuaren ezaugarri semantikoak direla eta, baztertuta geratzen da hizketa-aditz moduko erabilera eta ezinezkoa izango da beti perpaus konpletiboarekin erabiltzea: **Animaliek erantzun digute ez direla moldatuko* edota **Materialek erantzun dute deformatu behar direla*. Alderantzizko kasua ere gerta daiteke: esparru berezitu batean hizpide diren elementuen semantika berezia dela eta, erabilera orokorretan posible ez den modu batera konbinatua azal daiteke hiztegi-elementu bat: **Jon adierazi da / Geneak adierazi dira* (Zabala 2003, Zabala eta Elordui 2006).

Hiztegi-elementuen gramatikari buruzko informazioa lan lexikografikoetan bildu ohi da. Horrelako informazioa tentu handiz erabili behar da garapen lexiko-diskurtsiboan dagoen hizkuntza batean: lan lexikografikoetan bildutako informazioa testuetan gauzatu den gramatikatik hartua da¹⁹, eta erabilera-esparru desberdinetan testu gutxi badira, edota zenbait testu lan lexikografikoetarako kontuan hartzen ez badira, hutsuneak egongo dira hiztegi-elementu bakoitzaren gramatikaren deskripzioan. Hortaz, testu jakin batean hiztegi-elementu bat hiztegietan jasota ez dagoen modu batean erabilia dagoenean, ezin da zuzenean ondorioztatu elementu hori modu ez-gramatikalean erabilia dagoenik. Izan ere, hizkuntzaren normalizazio eza produktu linguistikoetan ere islatzen da, eta produktu linguistikoen garapena hizkuntzaren beraren garapenaren atzetik joan ohi da.

Adibide bat ematearren, Hiztegi Batuaren (H.B.) hasierako argitalpenean (Euskaltzaindia 2000) *baloratu* aditzaren sarreran, *balioetsi* gomendatzen digu hiztegi horrek (*baloratu h. balioetsi*). Nola interpretatu behar genuen aholku hori? Aholku horrek esan nahi zuen, *balioetsi* egokia den testuinguruan, hiztegi horrek hobesten zuela aditz hori erabiltzea. Baina aholkuak ez zuen esan nahi *baloratu* azal zitekeen testuinguru guztietan *balioetsi* erabili behar (ez eta ahal) zenik. Adibidez, hainbat testuingurutan *balioztatu*, *balio bat esleitu* edo bestelako aditzak erabili behar ziren eta *balioetsi* urrun zegoen testuinguruak eskatzen zuen esanguratik:

19 Ezinezkoa da lan lexikografikoetan bildutako informazioa egilearen intuizioan oinarritzea: hiztunek badute beren hizkuntzaren gramatika-arau sorta oso bat, baina hizkuntza baten hiztegia, diskurtso-komunitate desberdinen parte diren hiztunen hiztegi-ezagutzaren batura da. Ez dago hizkuntza baten (erabilera-esparruz esparruko) hiztegi osoaren berri duen hiztunik.

erabiltzaileek beren intuizioa edo ezagutza erabiliz aurkitu behar dituzte hizkuntza-baliabideak nozio edo funtzio jakin baterako, produktu linguistikoek asegarriak diren konponbideak eskaintzen ez dizkietenean.

Egun H.B. sarean kontsultatzen badugu (Euskaltzaindia 2006) *baloratu* aditzaren sarreran *baloratu h. balioetsi, balioztatu* irakurriko dugu. Alegia, H.B.ko sarre-erabiltzailearen datu berriekin osatu da. Izan ere, H.B. eta euskarari buruzko bestelako lan lexikografikoak lan irekitzat hartu behar ditugu, hizkuntzaren garapenarekin batera eta garapen horren deskribapenarekin batera osatuz eta egokituz joan behar diren lanak baitira: sarreren gramatikari eta pragmatikari dagokien informazioa osatuz joan behar da. Lan hauek bidelagun eraman behar ditugu garapen lexiko-diskurtsiboaren lan nekezean eta ez hartu garapenari heziak jartzen dizkieten arau zurrun eta itxiztat²⁰.

Laburbilduz, oro har, esaldiaren eta testuaren gramatika-arauak oso antzekoak dira hizkuntzaren erabilera guztietarako eta ez dira nahitaez aldatu behar hizkuntzaren garapen lexiko-diskurtsiboan. Zenbait morfologia-arauen emankortasuna handiagoa izango da garapen horren ondorioz, adibidez ekintza- eta ondorio-izenak sortzeko arauena. Normalizaturiko hizkuntzetan morfologia lexikoaren arauen bereizgarria da, gainera, blokeatu egiten direla nozio jakin baterako hiztegi-elementu bat sortu eta finkatu denean. Normalizazio ezaren ezaugarria da, hain zuzen ere, arau hauen gehiegizko emankortasuna. Hiztegi-elementu bakoitzaren gramatika osatuz joaten da, erabilera-esparru berrietan, erabilera-esparru horien bereizgarriak diren baldintza semantiko-pragmatikoen ondorioz, elementuak konbinatzeko modu berriak gauzatzen baitira.

3. ESTILO-ARAUAK ETA GARAPEN LEXIKO-DISKURTSIBOA

Gramatika-arauek hizkuntza-sistemaren muin iraunkorra deskribatzen dute: hizkuntzaren erabilera desberdinetan antzera mantentzen diren arauak dira²¹. Estilo-arauek aldiz, hizkuntzaren aldakortasun-sistemarekin lotuta daude, alegia, hizkuntza komunikazio-egoera desberdinetara egokitzen den moduarekin. *Estiloa* da hertsiki hitz eginez testu baten egileak eskuragarri dituen hizkuntza-baliabide guztien artean egiten dituen aukeren multzoa. Estilo korapilatsuaz, estilo trinkoaz edota estilo didaktikoaz hitz egin dezakegu adibidez. Edozelan ere, hizkuntza-baliabideen hautapena testu-motaren eta gizarte-funtzioaren arabera izaten da: testu baten estiloa estuki lotuta dago testu hori sartzen dugun generoarekin, eta genero horren alderdietako bat da hain zuzen ere.

20 Hiztegi Batuaren onurez eta bertan dagoen informazioa zurrunegi interpretatzeak dakartzan oztopoez ikus Mujika (2005).

21 Jakina hizkuntzen gramatika ere aldatzen da denboran zehar, baina denbora-tarte handiagoa hartu behar da kontuan gramatikaren aldaketak detektatzeko, hiztegiaren edo estiloaren aldaketak detektatzeko baino.

Testuak sortzen ditugunean ez gara hutsetik abiatzen: gizartean finkatutako eredu batzuen arabera aritzen gara. *Genero* deritze eredu horiei, eta finkatzearen atzean daude interes komunikatibo, akademiko, edota profesionalak edo besterik gabe edozein gizartetan gertatzen diren elkarrekintzak (Suau 2000). Generoak testuen egitura funtzionalaren bidez definitzen dira: genero bakoitzaren helburu komunikatiboaren arabera, funtzio erretoriko jakin batzuk izango dituen egitura-patroia azalduko da. Generoak testu artekoak dira: beste testu batzuk gogora ekartzeko duten gaitasunagatik definitzen dira, eta zenbait baldintza inposatzen dizkigute diskurtsoa antolatzeko orduan (Couture 1986).

Generoak *erregistro* jakin batzuekin lotzen dira. Erregistroak dira diskurtso-egoera jakin batekin lotuta maila fonetiko, morfosintaktiko eta lexiko-semanticoko egiten diren aukerak. Aukera horiek erregistroa erabiltzen duen diskurtso-komunitatean finkatzen eta partekatzen dira. Erregistro jakin batzuk genero jakin batzuekin lotuta doaz. Testu idatziez ari garela, erregistro jakin baten bereizgarriak dira finkaturiko lexikoa eta fraseologia. Hizkuntza baten garapen lexiko-diskurtsiboaren graduarekin estuki lotuta dago baliabide hauen finkapen-gradua. Testu bat genero eta erregistroen sistemarekin egokiro erlazionatu ahal izateko, harmoniaz konbinatu behar ditu genero eta erregistroen aukera konbentzionalak.

Erregistroa estiloaren alderdi edo dimentsioetako bat da: bai batean bai bestean hautatu egiten dugu eskuragarri ditugun hizkuntza-baliabideen artean, baina erregistroaren hautapena komunikazio-egoerak baldintzatzen du erabat. Estilorako aukera sorta aldiz, zabalagoa da (Reyes 2003: 48).

Euskararen garapen lexiko-diskurtsiboari begira, bi eratako eremuak hartu behar ditugu kontuan estilo-arauak aztertzeko eta deskribatzeko orduan: batetik, euskara batua erabiltzen duen hizketa-komunitatearen eremua dugu eta, bestetik, euskara komunikazio-helburu jakin batzuetarako erabiltzen duten diskurtso-komunitate desberdinak. Lehenengoa, irizpide soziolinguistikoen arabera definitzen da eta, bigarrena aldiz, irizpide sozioretorikoen arabera: hizketa-komunitateak zentripetoak dira eta, diskurtso-komunitateak aldiz, zentrifugoak (Swales 1990: 24).

Ildo honetatik, kontuan hartu behar da hizketa-komunitate osorako formulatzen diren estilo-arauak era guztietako erabiltzaileentzat baliagarriak izan behar dira. Estilo-arau hauek garapen funtzionalaren erreferentzia dira: euskara batuaren estilo zaindu orokorra (EBEZO) gidatzen duten arauak. Lagunarteko erregistroetan aurkitzen dugun estilo zaindugabea, adibidez, arauon hausteagatik bereizten da. Espezialitate-eremu desberdinetarako erregistroak, aldiz, euskara batuaren estilo zainduan oinarritzen dira eta EBEZOtik bereizten dira *orokor* / *berezitu* aurkaritza dela eta: diskurtso-komunitate jakin batek baino partekatzen ez dituen hizkuntza-baliabideak bereziz hartzen dira. EBEZOra ematen diren estilo-arauak nahikoa malguak behar dira izan estilo zaindua erabiltzen duten diskurtso-komunitate desberdinek (erregistro orokorrak eta berezituak behar dituztenek) berezko erregistroak garatu ahal izateko.

EBEZOra arau malgu baten adibidea dugu mendekotasunezko hitz elkartuen idazkerarena: mendekotasunezko hitz elkartuetarako Euskaltzaindiak marradun eta

marrarik gabeko idazkerak onartzen ditu²². Hain zuzen ere, erabilerearen deskriptiotik abiatu da Euskaltzaindia arau hau emateko orduan (Euskaltzaindia: 1992: 3-21) eta arauaren malgutasunak posible egin du diskurtso-komunitate desberdinek estilo-arau desberdinak garatzea alderdi honetan: zientzialariek marratxo erabili ohi dute eta kazetariak, adibidez, marrarik ez erabiltzeko joera dute. Erregistroen berezko garapenari lagundu dio arauaren malgutasunak.

Baina beste erabilera-arau asko deskribatu gabe dauzkagu eta beraz, ez dira kontuan hartzen hiztunen ekoizpenei eragiteko orduan. Adibidez, erabilera-arau desberdinak daude hizkuntzalarien eta zientzialarien diskurtso-komunitateetan jakintza-alorren izenetatik eratorritako erdal erreferentziazko adjektiboan ordainak emateko orduan: hizkuntzalariak joera dute mugatzaile modura jakintza-alorraren izena duten mendekotasunezko izen elkartuak erabiltzeko (*gramatika-kategoriak, sintaxi-arauak, pragmatika-baldintzak...*); zientzialariek aldiz, erreferentziazko adjektiboak erabiltzeko joera dute (*osaera kristalografikoa, eragiketa kimikoa, frogapen matematikoa...*). Erregistroen garapena oztokatzea litzateke hizkuntzalarien estilo-ohitura zuzenean zientzialarien diskurtso-komunitateari inposatzea, erregistro horren berezko garapenaren kontra egingo bailuke inposizio horrek.

Edozein hiztunek sor ditzake hiztegi-elementu berriak edo enuntziatu berriak nozio bati erantzuteko edo komunikazio-egoera batean ideia bat transmititzeko. Zailagoa da, ordea, sortutako baliabide horiek diskurtso-komunitate oso batek partekatzea, eta diskurtso-komunitate horren hiztegi eta fraseologia bereizgarriaren parte bihurtzea: horretarako harreman-sare trinkoak behar dira diskurtso-komunitatearen barruan eta erabilera-maiztasun handia. Diskurtso-komunitate batean finkatuta dauden hiztegia, fraseologia eta bestelako diskurtso-baliabideak ondarerik preziatuena dira erregistroen garapenerako eta zaindu egin behar dira: ahal den eta gutxien eragin behar zaie. Baina ez eragiteko, eta berezko garapenaren noranzkoan azkarrago finkatzen laguntzeko ere, aintzat hartu eta deskribatu egin behar dira arauok.

Hasteko, espezialitate-hizkeretan hizkera orokorretan azaltzen ez diren hiztegi-elementuak eta adierak behar dira. Adibidez, kimikan *disoluzioa baloratu* esapidea erabiltzen da, eta ez dirudi zuzenean ezarri ahal zaionik erabilera horri bigarren atalean aipatu dugun E.B.aren aholkua (*baloratu h. balioetsi, balioztatu*). Egokitzen hartuz gero, aberastu liteke sarrera hori kimikaren esparruari buruzko informazio pragmatikoarekin (Kim. baloratu). Problematikoagoak dira erabilera gutxietsi eta zientzialarien diskurtso-komunitatean erabat zabaldua eta finkatuta dagoen hiztegi-elementu bat espreski gaitzesten duten kasuak, adibidez, *liseriketa e. digestio sarreraren kasua.

Baina batzuetan itzultzaileak eta zuzentzaileak bezalako hizkuntza-bitartekariak dira diskurtso-komunitateetan finkatuta dauden arauak kontuan hartzen ez dituztenak. Bereziki arreta jarri behar da diskurtso-komunitate batean finkatuta dauden hiztegi-elementuak beste komunitate batera zuzenean ez estrapolatzeko,

22 Euskaltzaindiaren 25. araua: *Hitz elkartuen osaera eta idazkera*.

azken komunitate horrek adierazi behar den nozioerako beste hiztegi-baliabide bat erabiltzen badu behintzat. Adibidez, hizkuntzalarien diskurtso-komunitateak erabiltzen dituen *tasun* edota *hizkuntza* hiztegi-elementuak ezin dira estrapolatu hurrenez hurren genetikazko eta informatikazko testuetara, genetikarien eta informatikariaren diskurtso-komunitateek *karaktere* eta *lengoaia* erabiltzen baitituzte beren esparruetako bereizgarriak diren nozioetarako: hizkuntza-elementuen bereizgarria den nozio-denominazio lotura arbitrarioa da, eta hizkuntza komunikazio-tresna modura erabiltzea posible egiten duena ez da hizkuntza-elementu jakin batek forma jakin bat edukitzea, hiztun talde batek nozio-denominazio lotura bera partekatzea baizik.

Azkenik, garrantzi handia dute erregistroen garapenean elkartasun lexiko errepikatuek (fraseologia). Izan ere, erregistro jakin bat aztertzen denean, oso maiz elkarrekin agertzen diren hiztegi-elementuak aurkitzen ditugu, adibidez, *beroa xurgatu*, *soinua ekoitzi*, *izpiek eraso*, *argia igorri*, *terminoak erauzi*, *hormonak jariatu*. Testu egokiak idazteko, errespetatu egin behar dira konbinazio hauek eta hizkuntzaren erabilera orokorrean sinonimotzat hartuko genukeen elementu batekin ordezkatzuz gero, erregistro horretan desegokitzat hartzen diren konbinazioak sortuko genituzke (*hormonak #isuri/#askatu*).

Laburbilduz, euskararen berezko garapen lexiko-diskurtsiboa ez oztopatzeko garrantzitsua da EBEZOaren estilo-arauak eta diskurtso-komunitate desberdinen estilo-arauak bereiztea. Bestetik, esparru berezitu desberdinetako diskurtso-komunitateek hizkuntza-baliabideen artean egiten dituzten aukerak deskribatu behar dira. Deskripzio hauek beharrezkoak dira testuak sortzen edota zuzentzen direnean, diskurtso-komunitatearen arauak errespetatuz, erregistro desberdinen garapena ez oztopatzeko. Bestetik, deskripzioak posible egin lezake erregistroen berezko garapen eta finkapena azkartzen lagunduko luketen esparruz esparruko estilo-arauak formulatzea.

BIBLIOGRAFIA

- Artetxe, K. 2005. *Komunitate Zientifiko Euskaldunaren ezagutzara lehen hurbiltzea: euskarazko produkzio unibertsitarioaren azterketa* (1968-2003). 2003-2005 biurteko dokto-retza programako ikerketa-lana (argitaragabea). Gaur Egungo Historia Saila. EHU.
- Cabré, T. 2003. «Terminología y normalización lingüística» In X. Alberdi eta I.Ugarteburu (ed.) *Espezialitate-Hizkerak eta Terminologia: Jardunaldiak*. Bilbao: EHUko Argitalpen Zerbitzua, 11-25 or. [Interneteko helbidea <http://www.ehu.es/euskarainstitutua/>; 2006-02-27an irakurria].
- Couture, B. 1986. «Exploring the processes of written language production and interpretation» In B. Couture (ed.) *Functional Approaches to Writing Research Perspectives*. London: Frances Pinter, 67-92 or.
- Etxebarria, J.R. 2002. «Euskal prosa zientifikoaren historiaren inguruan». *Hegats*, 30, 63-75 or. [Interneteko helbidea <http://www.idazleak.org/argitalpenak/hegats/hegats30.pdf>; 2006-02-27an irakurria].
- Euskaltzaindia. 1992. *Hitz-elkarketa/4. Hitz elkartuen osaera eta idazkera*. Bilbo.

- Euskaltzaindia 2002. «Hiztegi Batua». *Euskera*, 45.
- Euskaltzaindia. 2006. «Hiztegi Batua» [Interneteko helbidea <http://www.euskaltzaindia.net/hiztegitatua/>; 2006-02-27an irakurria].
- Ferguson, C. 1968. «Language development». In J. Fishman, C. Ferguson eta J. Das Gupta (ed.) *Language problems of developing nations*. New York: Wiley.
- Halliday M.A.K. eta Hasan, R. 1985. *Language context, and text: aspects of language in social-semiotic perspective*. Oxford: Oxford University Press.
- Haugen, E. 1983. «The implementation of corpus planning: theory and practice». In J. Cobarrubias eta J. Fishman (ed.). *Progress in language planning: international perspectives*. La Haya: Mouton.
- Hernanz, M.L. 1999. «El infinitivo» In I. Bosque eta V. Demonte (ed.) *Gramática Descriptiva de la Lengua Española*. Madrid: Espasa, 2197-2356 or.
- Hymes, D. 1974. *Foundations in sociolinguistics: an ethnographic approach*. Philadelphia: University of Pennsylvania Press.
- Irazabalbeitia, I. 2002. «Zientzia komunikazioa Euskal Herrian: hurbilketa modukoa» *Hegats*, 30, 47-75 or. [Interneteko helbidea <http://www.idazleak.org/argitalpenak/hegats/hegats30.pdf>; 2006-02-27an irakurria].
- Lekuona, M. 1968. «Euskeraren batasuna». *Euskera*, XIII, 139-141 or.
- Mujika, A. 2005. «Hiztegi Batua eta terminologia zientifiko-teknikoa: elkarguneak, estuguneak eta gurutzaguneak». *Senez*, 28, 111-120 or. [Interneteko helbidea <http://www.eizie.org/Argitalpenak/Senez/20051219/mujika>; 2006-02-27an irakurria].
- Oiartzabal, B. 1996. «Euskara Batua eta euskalkiak». *Euskera*, 41, 511-515 or. [Interneteko helbidea <ftp://www2.euskaltzaindia.net/euskera/5980.pdf>; 2006-02-27an irakurria].
- Reyes, G. 2003. *Como escribir en español*. Madrid: Arco.
- Suau, F. 2000. «El género y el registro en la traducción del discurso profesional: un enfoque funcional aplicable a cualquier lengua de especialidad» [Interneteko helbidea <http://www.ub.es/filhis/culturele/tinasuau.html>; 2006-02-27an irakurria].
- Swales, J.M. 1990. *Genre Analysis. English in academic and research setting*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Zabala, I. 1999. «Gramatika-kategoriak eta EGLU». *Euskera*, 44, 865-896 or. [Interneteko helbidea <ftp://www2.euskaltzaindia.net/euskera/49295.pdf>; 2006-02-27an irakurria].
- Zabala, I. 2003. «Causation and semantic control. Diagnosis of incorrect uses in minorized languages». In B. Oyharçabal (ed.) *Inquiries into the lexicon-syntax relations in Basque. Supplements of ASJU*. Bilbao: EHUKo Argitalpen Zerbitzua, 255-284 or.
- Zabala, I. eta Elordui, A. 2005. «Euskara zientifikoaren normalizazioa: hizkuntzalarien ekarpena». In J. M. Txurruka (ed.), *Euskera zientifiko-teknikoa: normalizaziotik homologazinaro*. Bilbao: Mendebalde Kultur Alkartea, 15-53 or. [Interneteko helbidea <http://www.mendebalde.com/antbuspre.asp?Cod=1765&nombre=1765&orden=True>; 2006-02-27an irakurria].
- Zabala, I. eta Elordui, A. 2006. «Specialised Discourse and the Linguistic System of Basque» In B. Fernández eta I. Laka (ed.) *Andolin Gogoan: Essays in Honour of Professor Eguzkitza*. Bilbao: EHUKo Argitalpen Zerbitzua (argitara bidean).

Terminologia batzordearen lana

<http://www.euskara.esukadi.net>¹

Araceli Díaz de Lezana

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

1. BATZORDEAREN SORRERA ETA BATZORDEAREN EGITEKOAK

Terminologia Batzordea 179/2002 Dekretuaren bidez sortu zen Euskararen Aholku Batzordearen barruan, batzorde-atal berezi gisa (148 zk.). Batzorde-atal iraunkorra da eta terminoak finkatu, hobetsi, zabaldu eta erabiltzeko gomendioak emateko sortu zen, kontuan izanda, batetik, terminologia-lanen izaera eta berezitasuna eta, bestetik, terminologia-lanetan erakunde publikoek zein pribatuek dihardutela (laugarren art.).

Dekretuak Batzordeari honako egiteko nagusi hauek ezarri zizkion (zazpigarren art.):

- a) Terminologia-alorrean dauden **lehentasunak finkatzea**.
- b) **Lan-proposamenak egitea** eta urteko jarduera-planetan jasotzea.
- c) Terminologi lanerako **irizpideak ematea**.
- d) Termino bat baino gehiago dagoenean **termino hobetsia proposatzea**.
- e) Landutako **terminologi lanei onespena ematea**.
- f) Finkatutako terminologia zabaltzeko bideak proposatzea eta **terminologia zabaltzea**.
- g) Onetsitako **terminologien erabilera gomendatzea**.

Dekretuan bertan zehaztu zen Batzordearen osaera.

2. 2003-2005 JARDUKETA PLANA

Batzordeak 2003ko apirilaren 1ean onartu zuen Plana. Bertan jasotzen dira Dekretuak agindutakoak betetze aldera aipatutako epealdian burutu beharreko lanak. Hortaz, hauek dira orain arte Terminologia Batzordeak egindakoak:

¹ Ikus Terminologia Batzordeari buruzko informazioa *Euskararen corpusa eta Teknologia Berriak* atalaren barruan.

- *Terminologia-alorrean dauden lehentasunak finkatzea*: irakaskuntza — bereziki lanbide-heziketa eta unibertsitatea, gero enpresa-munduan jarraipena baitute—, teknologia berriak (bai eta informatika ere), hizkuntza-paisaia (errepideetako errotuluak, toki publikoetako karteletakoa eta produktuen eta tresnen etiketetakoa, jatetxeen menuetakoa...), Artea eta herri-administrazioa.
- *Terminologia-lanerako irizpideak finkatzea*: terminologia-lana behar bezala egiteko eta, bereziki normalizazioari begira, nahitaezkoa da irizpideak finkatzea eta modu sistematikoan aplikatzea, subjektibotasuna alde batera utzirik. Izan ere, koherentzia beharrezkoa da terminoak onartzeko, baztertzeko eta termino berriak edo neonimoak sortzeko orduan. Lau dokumentu onartu ditu Terminologia Batzordeak:
 - *Terminologia-lanerako irizpideak* (2004 apirilaren 22an): irizpide linguistikoak (Hiztegi Batua oinarri), irizpide terminologikoak eta irizpide soziolinguistikoak / pragmalinguistikoak
 - *Maileguak eta kalkoak terminologia-lanean* (2004ko apirilaren 22an): maileguak eta kalkoak onartzeko, baztertzeko edo pasatzen uzteko irizpideak.
 - *Normalizazio-txostena* (2004ko apirilaren 22an): arazoak sortzen dituzten terminoen azterketa sakona egiteko eta Terminologia Batzordeari aurkezteko dokumentua.
 - *Arazo terminologikoen inbentarioa* (2004ko urriaren 7an): neologia-sorkuntzaren inguruko zalantza eta arazoen bilduma: eratorpena, hitz-elkarketa, izenondo erreferentzialak, maileguak, sintagmazioa, nominalizazioa, forma lehiakideak eta gehiegizko sinonimia. Konpontzeaz batera irizpideen dokumentuan integratuko dira. Laneko dokumentua da, beraz ez da argitaratu.

Dokumentu irekiak dira eta etengabe berraztertu eta egokitu behar dira.

Terminologia Batzordeak orain arte finkatutako irizpideak orokorrak dira, baina, aurrerantzean, terminologiaren maila desberdinak kontuan izanda, agian, irizpide zehatzagoak finkatu beharko litzuzke. Maila hauek bereizten ditugu:

- *Zientzia eta Teknologietako terminologia*: nazioartean oso antzekoa izanik, ez du arazo handirik sortzen.
- *Gure terminologia tradizionala* (arrantza, nekazaritza, abeltzaintza, basogintza): *hizkuntza-altxorra izanik, erreferentzia interesgarri bezala baloratu behar da.*
- *Eguneroko bizitzan* erabiltzen dugun terminologia (elikagaiak, jantziak, etxebizitza...): maileguak modu masiboan sartzen dira arlo horretan eta, hori dela eta, irizpide argiak eta zehatzak finkatu beharko lirateke. Euskaraz, behintzat, arlo horrek arazoak ematen ditu, besteak beste, Iparraldeko eta Hegoaldeko erabilera oso desberdina delako.
- *Administrazio eta Zuzenbide* arloa: irizpide bereziak behar ditu, zalan-tzarik gabe.

- *Termino bat baino gehiago dagoenean termino hobetsia proposatzea. Landutako terminologi lanei onespina ematea. Onetsitako terminologiaren erabilera gomendatzea:*

Terminologia Batzordeak 5 ponderazio-marka finkatu ditu:

- 0 Baztertu beharreko terminoa.
- 1 Termino erabilia (aztertu gabea baina besterik ezean erabiltzen dena).
- 2 Termino proposatua (adituek proposatua baina oraindik Terminologia Batzordeak normalizatu gabea).
- 3 Termino onartua (ez lehenetsia, beste bat gomendatzen delako).
- 4 Termino normalizatua/gomendatua.

Aurrerantzean Batzordeak onetsitako terminoek ponderazioa eta guzti jarriko dira erabiltzaileen eskutan.

- *Lan-proposamenak egitea eta urteko jarduera-planetan jasotzea:* 2003-2005 epealdian hainbat hiztegi terminologiko egin dira Terminologia Batzordeak ezarritako lehentasunak kontuan izanda. Lan-prozedura hauxe da: hiztegiak enkarguz egiten dira; eremuaren arabera, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak ad hoc sortutako batzorde teknikoek² aztertzen dituzte hiztegiok eta, azkenik, Terminologia Batzordera pasatzen dira horrek on-tzat eman ditzan eta terminoen gainean azken erabakia har dezan. Hauek dira aipatutako epealdian (2003-2005) egindako hiztegiak eta, neurri batean edo bestean, normalizazio-prozesuaren barruan daudenak:
- **Merkataritzaren edo kontsumoaren alorra:** *Jatetxe, Taberna eta Kafetegietako Hiztegia; Turismo Hiztegia; Oinetakoen Hiztegia; Arropadendetako Hiztegia; Elektrizitate-dendetako Hiztegia; Norbere irudia, Ile-apaindegiak eta Estetika Hiztegia; Altzarien Hiztegia; Garraio eta Logistikaren Hiztegia.*
 - **Irakaskuntza** (Lanbide Heziketa, enpresa): *Zenbakizko kontrolaren Hiztegia, Makina-erremintaren Hiztegia; Irudia, Ikus-entzunezkoak eta Soinua Hiztegia; Iturgintza Hiztegia; Automobilaren mantentzearen Hiztegia; Burdingegiko Hiztegia; Papergintza, Ingurumen-kimika eta Paper-pasta Hiztegia. Egiteko bidean: Gorputz Hezkuntzaren Hiztegia.*
 - **Hizkuntza-paisaia:** *Errotuluen Hiztegia.*
 - **Teknologia Berriak** (informatika): *Bulegotika Hiztegia, Hizkuntza Teknologien Hiztegia.*
 - **Herri Administrazioa:** *Europako Hiztegia. Egiteko bidean: Kudeaketa publikoaren Hiztegia; Toki-administrazioaren Hiztegia; Herri-administrazioen Kontratuen Hiztegia. Hiztegi hauek HAEE/IVAPen eskariz egiten ari dira.*

² Batzorde teknikoak lana amaitzeaz batera suntsitu egiten dira.

- **Artea:** *Museoetako Hiztegia.*
- **Bestelakoak:** *Laburtzapenen Hiztegia; Saskibaloi Hiztegia; Eskubaloi Hiztegia.*

Bestalde, Terminologia Batzordeak, lan-metodologiari eta irizpideei dago-kienez, euskaraz egiten den terminologia-lanaren koordinazio-gunea izanik, Batzordetik kanpo egindako hiztegiak ere normalizazio-prozesuan sartuta daude edo sartuko dira: *Ingurumen Hiztegia, Lan Zuzenbideko Hiztegia, Itsas Zuzenbideko Hiztegia, Estatistikako Hiztegia eta Soziolinguistikako Hiztegia.*

- *Finkatutako terminologia zabaltzeko bideak proposatzea eta terminologia zabaltzea:* **EUSKALTERM Euskal Terminologia Banku Publikoa** (www.euskadi.net/euskalterm) da terminologia-zabalkundearen funtsa eta ardatza. Jarduketa Planaren barruan egindako hiztegiak Banku Publikoan kontsultatu daitezke. Horretaz gain, Batzordeak bestelako zabalkunde-bideak (paperezko formatuan nahiz formatu digitalean) proposatuko ditu onetsitako terminologia erabiltzaile estrategikoengana iritsarazteko.

3. TERMINOLOGIA BATZORDEAREN LANA: 2006-2009

Aurreko legealdian finkatutako oinarriak lantzen jarraitzeaz gain, hiru lan garrantzitsu izango ditu Batzordeak hasi berri den epealdi honetan:

1. Lan berriak direla eta, **lehetasunak finkatzea:** gure aldetik, proposamena **arlo sozioekonomikorako** terminologia egitea eta normalizatzea litzateke. Arlo zabala izanik, horren barruan, erabaki beharko da, euskararen erabilerari begira, zeintzuk diren premia eta behar nagusiak horiei lehenbailehen erantzuteko.
2. Eginda dauden **hiztegien normalizatzeko-prozesuarekin jarraitzea eta berau azkartzea**, hiztegiak erabiltzaileen eskura ahalik eta lasterren jartzeko.
3. Onartutako **terminologiak modu egokian zabaltzea**, hau da sektore eta erabiltzaile estrategikoen eskura jartzea, erabiltzeko berariazko gomendioa eta guzti. Horretaz gain, denboraldi bat pasa eta gero, terminoen ezarpen-mailaren azterketa eta ebaluazioa egin beharko da eta horretarako bideak proposatu beharko ditu Terminologia Batzordeak.

OHARRA. Aipatutako Dokumentuak Aurkitzeko Erreferentziak:

- **Terminologia-lanerako irizpideak:** http://www.euskara.euskadi.net/r59-738/eu/contenidos/informacion/6503/eu_2415/adjuntos/Irizpideak%20040422.pdf
- **Maileguak eta kalkoak terminologia-lanean:** http://www.euskara.euskadi.net/r59-738/eu/contenidos/informacion/6503/eu_2415/adjuntos/MAILEGUAK%20ETA%20KALKOAKAO40422.pdf
- **Normalizazio-txostena:** http://www.euskara.euskadi.net/r59-738/eu/contenidos/informacion/6503/eu_2415/adjuntos/NORMALIZAZIO_TXOSTENA_GIDA.pdf

Zientzia-prosa: hitzartutako eredu baten bila¹

Kepa Altonaga

EHU

0. SARRERA

«Saiakera zientifikoa literatur generoa da, tipia, baina zahar eta ohoragarria». Lehenago ere [1: 128] erabili izan dut Stephen Jay Gould-en aipamen hori erakustera emateko zeintzuk diren mugituko naizen alorraren munarriak. Hasieratik argitu gura dut prosa zientifikoaren gainean arituko naizela, nahiz eta hemen aipatuko diren hainbat kontuk hedadura zabalagoa har dezaketen. Prosa zientifikoaren eredu baten bila abiatuko gara, baina, hain zuzen ere, prosa zientifikoaren *adostutako* eredu baten bila. Hau da, onartu egiten ari naiz euskaraz era desberdinak (bi?) dauzkagula, aldameneko hizkuntzek modu bakar batean plasmatzen dutena gauzatzeko. Jakina, prosa zientifikoaren izaerak berak [2] badirudi eredu bakarrera daroala, eta ez elkarren lehian dauden zenbait eredutara, besteak beste babelizazio bidean jarriko gaituztenak [1: 143].

Jose Ramon Etxebarriak [3: 64] 1970. urte inguruan kokatu du euskal prosa zientifikoaren abiapuntua. Banako aitzindarien ekimenez jo ditu Jose Ramonek ordura arteko idazlan urriak, eta gure zientzia-prosaren historiaurrea direla kontsideratu du. Ostera, banakakoa barik talde-lana izatea litzateke historiaren abiapuntua markatuko lukeen irizpidea, hots, ahalegin kolektiboa. Ildo horretan, Jose Ramonen periodizazioaren ondarea testatu aldera, eta bai, aldi berean, aitzindari ilun horien idazlanak ezagutu erazteko asmoz, bizpahiru ekarpen egin ditut —[4], [5], [6]—; badute ondorio argi bat hemen aipatzekoa: eredu-gabezia. Alegia, gure prosaren prehistoria horretan saio guztiz txalogarriak egon arren, gai zientifikoak lantzeko orduan meritu handiko idazlanak itxuratu dituztenak, aitzindari horiek guztiak ez ziren gai izan zientzia-prosarako era bakar bat plasmatzeko, ostekook erabiltzeko moduko *eredu bat* bideratzeko.

¹ Eskerrik beroenak Olaso Dorrea Fundazioari, Lacomberen biblioteka kontsultatzeko eskuzabal-tasunagatik, eta bai Euskaltzaindiako Azkue Bibliotekari ere. Bestalde, zorretan nago hainbat pertsonarekin eskaini dizkidaten era askotako laguntzengatik: Fidel Altuna, Martxel Ensunza, Jose Ramon Etxebarria, Pruden Gartzia, Juan Luis Goikoetxea, Jazinto Iturbe, Jurgi Kintana, Ana Miranda, Juan Carlos Odriozola, Fernando Plazaola, Guillermo Roa, Jesus Mari Txurruka, Piarres Xarriton eta Iban Zaldúa.

Horrela izanik, hasieratik bertatik 1970. urteko lagun-taldeak zientzian erabili beharreko euskararen gaineko mintegiak antolatu zituen; presazko ataza zen, ahalik eta lasterren korritu behar baitzen inguruko hizkuntzetan azken mende bitan eginiko bidea [3: 69]. Ahalegin kolektibo horretan, Jose Ramonek dioskunez, «no-labaiteko “estilo” bat —“estilo zientifikoa”— sortzen ari ginen guztion artean». Eta honezkero joan zaigun iragan horretatik gaur egunerainoko saltoa eginez, 30 urtekoa, ondokoa ere esan digu: «*prozesu asintotikoan* goazela sumatzen dut, asintotatik geroago eta hurbilago, hara hurbildu nahiz, baina iritsi gabe» [3: 72].

Gaur gaurkoz, beraz, nahikoa eratuta daukagu prosa zientifikoaren eredu. Alabaina, hezurramitu dugun kanon horretan badago kezkarri suertatzen zaidan alde bat, lexikoarena hain zuzen.

Beste inoiz ere aritu izan naiz puntu larri horri buruz [1: 140-149; 5: 131-135; 7: 55-69], eta jadanik azpimarratu dut Xabier Amuritzak gure azken hiztegien gainean eginiko kritika guztiz pertinentea [8]. Xabier Amuritzaren ustez, euskal lexiko modernoaren arazoaren iturburua, neurri handi batean, mendebaldeko kulturaren komunak diren hitzen multzoa da, edo hobeto esateko, hitz horien «auzia ahul eta motz planteatzen dela», saihesteari kamuskeria deritzot.

Inguruko hizkuntza hain ezberdin eta indartsuek komunki daukaten unibertso kontzeptuala euskara bezalako hizkuntza txiki eta ia agoniko bat bere baitatik asmatzen hasia ausarkeria suizida bat da. Horrek ez du inola ere esan nahi neologismoen baliabidea ukatzen dudarik. Baina, irizpide orokor gisan, gure erdarek gainera, ingelesak edo alemanak mailegatzeko eskrupulurik ukan ez dutena euskarak saihesteari kamuskeria deritzot.

Zoritxarrez horixe egin dugu. Eta zer lortu da? Hizkuntza guztia deskolokatzeko. Indefinizio etsigarria. Anbiguotasun gogaikarria. Azkenean auzia lehen bezain airean, baina askoz nahasiago gelditzea. (...)

Baina auzia ez da horretan amaitzen. Erdal hitz horiei euskal ordainak ematean, soluzio berdinak edo berdintsuak emango balitzaizkie, gaitz erdi genuke. Okerrena da askotan bakoitzak soluzio ezberdinak ematen dituela. Edo neologismo diferentia asmatzen dute edo gutxi-beherako euskal hitz bat esanahi horretara korriarazten dute, bakoitzak hor ere aukera ezberdinei tiraturik. Hiztegitik hiztegiara diferentzia handiegiak ageri dira eta ez dauka bestela izaterik. Behin enbor komuna errefusatuz gero, zaila da banaka kointzidentzia osoa lortzea.

Ez dira txikikeriak aurreko aipuan aurkitu ditugunak: «indefinizio etsigarria», «anbiguotasun gogaikarria», «ausarkeria suizida» eta horrelakoak egotzi dizkio euskal hiztegitentzari; labur esateko, hizkuntza guztia *deskolokatuta* daukagula. Eta guk geuk zer erantsiko diogu Amuritzak idatzitakoari? Ba, jakina, hizkera estandarreko indefinizio, anbiguotasun eta ausarkeria horiek larriago bihurtzen direla esparru teknikoan: testu edo diskurtso zientifiko batean zehaztasun-falta terminologikoa oso negatiboa da, zeren, zehaztasun-falta terminologikoa zehaztasun-falta kontzeptualarekin lotuta agertzen baita gehienetan.

Halandaze, gure artean mugitzen diren ikuspegi garbizalea eta ikuspegi mordoiloizalea elkarrengana hurbiltzen eta bateratzen ahaleginduko naiz oraingo honetan, hots, ikuspegi biok elkarrekin egokitzen ahaleginduko naiz, ea behin-

goz badugun *amaigabeko eztabaida aspergarria* [9: 64] gainditzerik. Hurrengo orrialdeotan, amaigabeko eztabaida aspergarri horretako episodio bitan geldituko gara tarte batez, arazoaren zer-nolakoaz eta nondik-norakoaz jabe gaitezen, ea era horretara ganorazko irtenbideren bat aurkitzen diogun, ikuspegi kontrajarrientzat onargarria izan daitekeen soluzioraino eroango gaituena.

Lehenengo eta behin, historiara joko dugu, eta konturatu egingo gara aspaldidanik datorkigula gaur eguneko eztabaida ia berbera, eta etorri, gainera, ia-ia termino berberetan. Aurkeztuko dugun lehen auzia ez dagokio bete-betean zientzia-prosari, baina oso argigarri suertatuko zaigu hainbat aldetatik.

1. JAUNGOIKOAREN HITZA ZELAN ADIERAZI

Oso erabilia izan da, Juan Irazusta Hernialdeko erretoreak 1742an Iruñean gipuzkeraz argitaratutako dotrina, eta gutxienez hogeita hamalau aldiz berrargitaratu da; areago, badago noizko eta 1932ko edizio bat [10]. Ezaguna denez, Gaspar Astete-ren *Catecismo de la Doctrina Cristiana* (Madrile, 1599) arrakasta handiko liburua izan da gure artean, eta Rementeriarri irakurri diodanaren arabera [10], hogeita hamar aldiz baino gehiagotan euskaratu da, euskalki guztietara gainera. Nolanahi ere, Irazustarena omen da itzulpen horien artean zabalkunde gehien-edo eduki izan duena, tartean askoz ospe handiagoko itzultzailearik bazegoen arren, hala nola, Agustín Kardaberaz (1760) edota Juan Antonio Mogel (1805).

Arrakasta gorabehera, Irazustaren itzulpenak destainazko esanak bildu ditu euskaltzaleen artean. Izan ere, Juan Mateo Zabalaren eskuizkribuko juzgua — «está en muy mal bascuence» [11]— han-hemenka aipatu da, esaterako Villasanteren *Historia de la Literatura Vascan* edota Auñamendi entziklopedian, eta mesede eskasa egin dio haren ospari. Juzgu horren oihartzuna Azkuerenganaino ere iritsi zen, eta bere hiztegiaren aitzinsolasean honako hau diosku, barbarismoen kontrako azalpenen epigrafean [12: xvi]:

Que l'on juge de cette définition du saint nom de Dieu, extraite littéralement, et sans modification d'orthographe, du Catéchisme du Père Astete, traduction guipuscoane perpétrée par quelqu'un dont le meilleur ouvrage fut de cacher son nom: JAUN BAT INFINITAMENTE PODEROSO, SABIOA, JUSTUA, PRINCIPIOA ETA FIÑA GAUZA GUZTIENA.

Júzguese de esta definición del santo nombre de Dios, extraída literalmente, y sin cambio de ortografía, del Catecismo del P. Astete, traducción guipuzkoana perpetrada por uno que lo mejor que hizo fué ocultar su nombre: JAUN BAT INFINITAMENTE PODEROSO, SABIOA, JUSTUA, PRINCIPIOA ETA FIÑA GAUZA GUZTIENA.

Dagoeneko irakurleak asmatu duenez, esaldi ezin-barkatzuko hori Irazustaren dotrinatik hartua da, jakina, eta seguruenek Don Resuk Tolosan 1889an argitaratutako ediziotik jasoko zuen, hain zuzen ere Azkue Bibliotekan kontserbatu den aletik. Azkuek bestelakorik badiosku ere, argitarapen horrek badakar ekarri

«perpetratzailearen» izena [13]. Bestalde, Koldo Mitxelena ere badarabiltza Irazustaren izena eta obra beste hiztegi baten atarikoan [14], baina, egiten dion lehen aipamen tazittoa ohiko bidetik badoa ere (*doctrina barregarri* [14: viii]), geroagoko iruzkin agerikoak ez dira gutxietsi eta deskalifikatzeoak, itzulpena txukunegia ez izatearena orduko giroan kokatu eta ulertzeko baino [14: x-xi].

Dirudienez, ba, Irazustaren itzulpena ez da suertatu denen gogokoa. Baina, behin eta berriro eduki izan dituen argitalpenen historia luze horretan, badago jakokune bat hona ekarri gura dudana, esangura berezikoa baita gure harirako. Kontua Coro Rubio-ren *La identidad vasca en el siglo XIX. Discurso y agentes sociales* liburuan ikusi ahal duzu xehetasun gehiagoz [15: 446-449].

Aipatu liburuan irakur dezakezunez, Errezil, Albiztur, Bidania eta Goiaz-eko artzapez-barrutitik salaketa bat bideratu zen 1855ean, adieraziz:

...los vicios y defectos de que está lleno el Catecismo del Padre Astete en vascuence, que actualmente se usa en los pueblos de este arciprestazgo, tanto por la mala y aun ridícula versión vascongada, como por la manera en que se imprime dicho catecismo, abusando los impresores de hacerlo hasta el grado de que arbitrariamente y a su antojo van introduciendo en cada reimpresión variaciones notables contra todo lo dispuesto en esta materia, de suyo tan importante, por el Santo Concilio de Trento.

Congregación Ordinaria del Clero esker-onekoa agertu zen luzatu zuen erantzunean, estimatuz artzapez-barruti horretako ardura «por la conservación en su pureza de la doctrina contenida en el Catecismo aprobado de dicho Sr. Astete y de nuestra hermosa lengua vascongada». Eta ez hori bakarrik, batzorde bat ere izendatu zuen, katiximan egon zitezkeen oker guztiak zuzen zitzaizkien. Dirudienez, Irazustaren itzulpenak eztabaida sakona sortu zuen eraturako batzordearen baitan, eta berorrek ezin izan zuen adostutako erabakirik onartu. Edozelan ere, Frantzisko Gorostegik, batzordekidea eta Bidaniako erretorea zenak, Asteteren ordezko itzulpen bat atondu zuen bere aldetik, eta 1867an Gasteizen argitaratu.

Kontua, segun-antza, ez zen denen gustura joan, eta katixima berria bera baino lehenago, Gorostegik zortzi orrialdeko prospektu bat kaleratu zuen [16], haren agerpena justifikatu eta kontrako iritziak baretzeko. Besteak beste, honelaxe dio:

3.^a En dicha traducción se descartará la multitud de palabras castellanas, que se ve en las diferentes ediciones que están en uso, sustituyéndolas con las correspondientes vascongadas; haciéndolo empero con sumo tino y prudencia para no caer en un purismo, que deje en pié el mal que se trata de remediar [ulergarritasuna]; teniendo al efecto muy en cuenta, que siempre que una palabra castellana sea más clara é inteligible que su correspondiente vascongada, se debe preferir aquella á esta; porque la claridad en un *Catecismo* es circunstancia principalísima, que debe procurarse cuanto se pueda. [16: 3]

Eta bizpahiru pasarteren ostetik honelaxe segitzen du:

...¿Cómo podrían entender ni poco ni mucho las palabras *Divinidaddea, Trinidaddea, perseveratu, revelatu, sabioa, medianeroa, clementea*, (y peor aun *clementisimoa*: el vascuence no tiene superlativos en *ísimo*) *verdaderamenté* (tampoco tiene ad-

verbios en *ente*) y otra infinidad de palabras parecidas á esas, que se encuentran en nuestro expresado *Catecismo*?... No las entenderían, en la suposición dicha, mejor que nuestros labriegos, que al pronunciarlas no saben absolutamente, ni pueden saber lo que dicen; siendo tristísimo observar, que ellos usan en el *Catecismo* muchísimas palabras de que, por desconocidas, no se sirven nunca en el lenguaje común; resultando de aquí que no comprenden lo que dicen en la doctrina precisamente, que es lo que más les interesa saber y comprender. ¿Qué falta hacen por otra parte en el *Catecismo* aquellas palabras, verdaderos barbarismos para un vascongado, pudiendo en lugar de ellas decir en su bella y limpia lengua; *Jaungoicotasuna, Irutasuna, irauñ, aguertu, jaquintsua, bitartecoa, biotzberaa, eguiaz?* [16: 4-5]

Dena dela, eztabaidak aurrera jarraitu zuen, eta Eusebio Lópezek, berau ere batzordekidea zena eta Tolosako inprimatzailea, Gasteizeko gotzainari idatzi zion 1880.eko urtarrilean, Gorostegiren itzulpena kritikatu, eta, jakina, Irazustaren itzulpena berriro argitaratzeko lizentzia eskatu. Tolosako inprimatzailearen ustez, «jatorragoa» izan nahi zuen Gorostegiren itzulpena —kasurako, *Jaungoicua dan partetik* erabili beharrean *Jaungoicua dan aldetik* emanez—, akats doktrinaletaraino iristen zen batzuetan. Horixe iradoki digu Eusebio Lópezek ondoko pasartean, Coro Rubiok oin-ohar batean damaiguna [15: 447]:

Es un argumento pueril el que se emplea para combatir la traducción hecha por el Sr. Irazusta cuando no tenemos en bascuence términos propios o los ignoramos para expresar ciertos conceptos, especialmente sobre los dogmas. Y si se me dice que podía sin embargo haberlo hecho en vascuence más correcto contesto que el traducido por el Sr. Irazusta es más claro e inteligible que el del Sr. Gorostegui y que no tiene los defectos gravísimos en que ha incurrido éste. Por ejemplo, antes se decía en el Credo ...concebitu zan Espiritu Santuaren..., ahora el Sr. Gorostegui nos quiere enseñar a decir...sortua izan zan Espiritu Santuaren... Sortu quiere decir crear, inventar, pasar del no ser, etc. Así se dice Jaungoicoac egin zuan mundua eta gauza gustiac ere berac sortuac dira, que quiere decir Dios hizo al mundo y todas las cosas han sido creadas por Él. Si se quiere pues decir que el hijo de Dios N.S.J.C. fue sortua en este sentido, que es el sentido genuino de la palabra y tal como lo entendería todo vascongado, es una verdadera herejía porque viene a negarse la hipóstasis divina. (...) Pero Sr. D. Francisco, ¿dónde ha aprendido U. esa teología? ¿Persona de Dios! ¿En qué catecismo o autor católico ha visto U. ese modo de expresarse? ¿Pues U. mismo no nos ha dicho que hay tres personas en Dios cuando nos ha explicado el misterio de la Trinidad como U. la llama? Porque hasta ahora nosotros, ignorantes, decíamos Trinidad Santísima, pero esta voz de Santísima U. ha excluido de su catecismo sin duda por parecerle bárbara y nombra U. a secas Trínidadea, y aun para quitar a esta palabra su barbarismo porque huele a Castellano o a latín a Irutasun guciz santua le junta U. como correctivos el Irutasuna...Trínidade... Irutasuna voz vascongada significa así como cosa de tres.

Coro Rubiok beste zati interesgarri batzuk ere atera ditu Eusebio Lópezen eskutitz beretik; beste bat bakarrik aldatuko dugu hona [15: 448]:

Pero Sr. D. Francisco, si vamos a variar hasta las palabras sacramentales que tenemos para designar nuestros dogmas ¿cómo nos vamos

a entender en adelante? Por Dios, no alborote tanto y déjenos vivir con nuestros barbarismos de lengua porque antes que vascongados somos católicos.

Ohartu garenez, katiximen aferaren kontakizunean hainbat topiko agertu zaizkigu, oso arruntak izaten direnak prosa zientifikoaren inguruko eztabaidetan. Batetik, Frantzisko Gorostegik euskararen txukuntasuna eta ulergarritasuna ekarri ditu autura zelan edo halan. Bestalde, Eusebio Lópezek beste kontu askoren artean ezin argiago erakutsi digu, zehaztasun-falta terminologikoak heresia-raino eramán gaitzakeela, hau da, zerua galdu eta infernuko leizean betiereko sutara kondena gaitzakeela, zehaztasun-falta kontzeptuala adierazteaz gainera, jakina.

Eusebio Lópezen argudioak zuzenak baldin badira, dogma katolikoa hausteraino iritsiko litzateke, teologiaren alorrean *kontzebitu* barik *sortu* aditza erabiltzeak dakarren desegokitasun semantikoa. Hala izanik ere, gure egungo hiztegieta — [14], [17], [18] — ez duzu *kontzebitu* aurkituko, eta berorren ordez *sortu* sarrerara bidaliko zaituzte, hau da, infernurako bidean jarriko zaituzte. «Orotariko» begiratuko bagenu [19: 764], esan gabe doa, bertan bai topatuko duzu *kontzebitu*:

Documentado desde Leizarraga tanto al Norte como al Sur, aunque su uso es algo más frecuente al Norte. En el siglo XX su uso disminuye notablemente. (...)

Antzeko zeozer esan beharko genuke Gorostegik aipatu dizkigun adibideen gainean, eta, jakina, aipatubako hainbat eta hainbat kasutan. Horrelaxe-edo joan gara historian zehar gure lexikoa *deskolokatu*. Amuritzarekin bat nator, eta kamuseria deritzot horrenbesteko eskrupuluekin ibiltzeari; areago, hizkuntzaren historiari uko egitea da hori. Ausartzia gehiago beharko genuke gure planteamenduetan.

Prosa zientifikoaren gainean dihardugularik, ematen du lekuz kanpo gabiltzala aspaldi bateko katiximen gorabeherak aztertzen, baina, nire ustez, oso ilustratiboak suertatzen dira. Zer esanik ez, dotrinen kasuan ozta-ozta zirriborrotuta agertzen zaizkigun fenomenook, beste barnatasun batekin kutsatzen dute zientzia-prosa, edota, behintzat sentiberagoak gara, hurbilagoko alorra dugu-eta. Alabaina, batzuetan iruditzen zait, neurri batean, dotrinen joan-etorri horietan ondotxo islatuta dauzkagula zientzia-prosaren buruhaustekak.

Nolanahi, kristau ikasbideen kontu honekin amaitzeko, salto batean XX. mendeko hasieran kokatuko gara, eta Villasantek dioskuna arin batean laburtuko dut [20: 401-403]. Dirudienez, 1912. urtean *Jaungoiko-Zale* elkarteak eratu zen, eta, helburu nagusi, dotrina euskaraz irakastea zuen. Sasoi horretan, Bizkaian bakarrik bost dotrina desberdin erabiltzen ziren (Markina aldean, Mogelena; Durango aldean, Artzadunena; Orozkon, Laudiokoa; Gernika aldean, Busturiakoa; Arratian, berea). Elkarreak, ganorazko ezer egitekotan, katiximen batasuna behar zela deliberatu zuen, eta horrela, katixima erreformatu ostean, Eguskitza jaunak eta Manuel Lekuonak burutu zituzten, hurrenez hurren, bizkaierazko eta gipuzkerazko bertsio-

ak. Orduko jazokunen haria albora utzita eta emaitzak aztertuz, ikusi zer dioskun aita Villasantek:

...estando el ambiente cargado de preocupaciones puristas, era de temer que éstas pesasen más de la cuenta sobre los redactores. (...) Por fortuna, los redactores supieron mantenerse en cierto término medio, lo cual quiere decir que a veces también cedieron al prejuicio etimológico, que no debía haber contado para nada en esta materia. Así, la popularísima palabra «pekatu» (pecado) se intentó sustituirla por «oben», «birtute» por «onoimen», «gloria» por «aintza», «penitentzia» por «oben-neke», «misterioa» por «ezkutuki», «Pasioa» por «Nekaldia», «frutu» por «arnari», etc. Otras veces se escamotea la dificultad, recurriendo a un rodeo por no mentar un vocablo de origen románico que en el caso parece indispensable; así, por ejemplo, al hablar del examen de conciencia, se le llama, sin más, «azterketa» dejando a un lado la voz «conciencia», que no se quería citar en vasco por ser latina, y al no tener equivalente indígena se optó por no emplear el nombre ni ningún equivalente de él. El pueblo, sin tales escrúpulos, dice, como es sabido: «kotzientziako esamiña». «Komunioa» (Comunión) fue sustituido por «Jaunartzea», que, aunque inteligible, no siempre tiene la practicidad del otro vocablo; «Konfesioa» por «Aitortza», etcétera. En vez del usadísimo «obeditu» (obedecer) se emplea «esana egin», también usual, pero menos preciso y exacto.

Horraino aipua. Konturatu zarenez, zientzia-prosari buruzko eztabaidetako hainbat kontu agertu zaizkigu Villasantek katiximen gainean idatzitakoan, eta, izan ere, horko esaldi batzuk geure alorrean ia hitzez hitz errepikatzeke modukoak dira.

2. ZIENTZIAREN MINTZOA EZIN BATERATUZ

Hogeigarren mendearen hasieraraino iritsi gara katiximen inguruko gorabeheren hatzean. Hor geldituko gara une batez, eta erakutsi egingo ditugu, Jose Ramon Etxebarriaren periodizazioaren arabera euskal prosa zientifikoaren historiaurreko aitzindari biren ekarpen bana, zeinek bere aldetik darabilen ereduaren arteko urruntasunaz kontura gaitzen.

Euskarazko prosa zientifikoaren basamortu kiskalian, halako batean, ia-ia urte berean idazle bik, bata hegoaldekoa bestea iparraldekoa, gai berberaz idatzi zuten. Batetik, Jokin Zaitetik 1933an *Kizkiña* argitaratu zuen [21]; berrezarpen lexikal horrekin izendaturiko artikuluan, zelulari buruzko oinarritzko datu batzuk aurkezten ditu, orduko edozein testuliburutatik hartuak diruditenak. Bestalde, Jean Etxepare medikuak *Zelulak* plazaratu zuen *Eskualduna* aldizkarian 1934an [22]; gaia era dibulгатiboan landuta dago, sasoi hartako irakurle xeheari zuzenduta, eta artez-artez irakurtzen da, euskalkia dela-eta egon daitekeen oztoporen bat aparte.

Zaitetik eta Etxeparek sujet kasik berbera aukeratu zuten ia-ia urte berean; hala ere, gaia azaltzeko orduan nekez topa daitezke hizkera desberdinagoz ehundutako testuak. Hizkuntza-eredu erabat kontrajarriak darabiltzate Zaitetik eta Etxeparek. Ez dirudi hizkuntza berekoak direnik ere: euskalkien arteko aldeak ezer gutxi dira, aipatutako testu bien arteko trokak eta amildegiak aintzat hartuta.

Jokin Zaitegiren *Kizkiña* irakurtzean, niri testua inintelligiblea bainoago intransitablea begitandu zait; esan gura dut ulertu egin dezakezula neurri batean irakurri ahala, astiro-astiro, baina behin eta berriro aurkituko dituzu irakurketa bera zailduko duten behaztopa-harriak, irakurketa benetan deseroso bilakatuko dizutenak. Eta zailtasuna, izatez, ez dator inondik inora Zaitegik darabilen gaia berez gatxa delako, behintzat biologia pixkatxo bat ikasi duenarentzat. Testuak dioskuna unibertsitatera joan baino lehenago azaltzen da batxilergoko azken urteetan, eta beraz, ia edozeinek ulertzeko modukoa litzateke. Gure deserosotasunaren arrazoia, nik uste, Villasantek aurreratu digu arestian, XX. mendeko hasieran kokatu gaitueanean, alegia, «...estando el ambiente cargado de preocupaciones puristas, era de temer que éstas pesasen más de la cuenta sobre los redactores». *Jaungoiko-Zale* elkartekoek oreka mantentzen jakin ote zutenaren dudarekin gelditu naiz gorago; oraingo honetan, Zaitegik euskaratutako testua begien aurrean daukagularik, uste dut garbiegi gelditu zaiola. Ulergaitza.

Izenburutik bertatik abiatuta, Zaitegirena oztopo-lasterketa bat da behaztopa-harritik behaztopa-harrira. Beste ezer baino lehen, titulua bera argitu beharrean aurkitu da Zaitegi, eta, horrela, zelula esateko *kizkiñ* erabiliko duela diosku, nola-baiteko berrezarpen lexikalera jota:

I. *Kizkiñ-itza*.—Uda bero ta sargoria da. Basetxe aurreko larrñoan lanean ari dira. Mutillak, oyuka, ta aiton kolko-beltz arnas estuak, ardo zatoa arinduaz, lane-rako bizkortzen dira. Larrain bazterrean aurtxo txikia negarrez dago, garimintzak yo dulako.

Larrindu ostean, algotzez bilduta gelditzen dan gari-alea artu ta zuregana urreratzen dan aiton orri galdetu egiozu: Eskuetan daukadan gari-ale au nola deritzazute? *Kizkiña*, erantzungo dizu.

Beraz, *kizkiña*, algotzez jositako gari-alea duzu. Baña, nik izen au, oso egokia zait-eta, doiztarrak «zelle» eta españarrak «célula» deritzatena adierazteko darabilket.

II. *Kizkiña zer da?*—Zeatz-zeatz, argi ta garbi ulertu dezazun txiki-ikuskiña artu ezazu... [21: 60]

Azkuek markatutako bidetik, Zaitegi ere ahaleginduko da hitz arrotzen euskarazko ordain garbiak bilatzen eta aurkitzen. Hau da, *sinesmen* berba jatorra edukita *fede* berba «arrotzaren» beharrik ez dugun bezalaxe (eta beraz ez dugu Azkueren hiztegian topatuko [12]), euskararen harrobiko *kizkiñ* horrek bete dezake, Zaitegiren ustez, *zelula* hitzaren eginbeharra (eta hortaz, euskaraz ez dugu behar).

Badago hor Azkueren printzipio oker bat, «purismo-eskola» baten sortzaile bihurtu zena euskal literaturan [9: 71]. Villasantek dioskunez, purismo horren jarraitzaileek ez zituzten neologismo arantarrak onartzen, «baina hor zebiltzan beti hitz jatorren bila», nahiz eta «zabalera eta sustrai ttipikoak» izan, erdaratiko elementuak baztertzeko; Villasanteren esanean, Olabide da eskola horretako segitzaile argienetako bat, eta joera horretakotzat ditu Orixe, Andima Ibinagabeitia eta Zaitegi.

Zaitegiren Kizkiña bete-betean kokatzen da ildo horretan, eta, lexikoa (= itz-sorta) gehienbat Olabideri jarraituz osotu duela adierazi arren, batzuetan testuan bertan azaltzen du erabiliko duen hitzaren nondik-norakoa:

Kizkin-mamian alderdi bi berezi ditzakegu: bata, uraren antzekoa, urin eta gantz urtuaren edukoa; beraz, *kizkin-mami uriña* deritzakegu. Bestea, berriz, sendo ta ermoa duzu: gatzatu ta mamitutako esnea, gogortu ta ziatutako odola Lapurdin «pirikorna» deritzate. Guk berriz, kizkin-mamia ageri dan alderdi gogorra *kizkin-mami-pirikorna* deritzakegu.

Pirikornaren egitamua, aztertu dezagun. Irakiten dagon esnea zoratu ta galdu danean, azal-gaña pikor ta aletxoz yosita ageri oi da. Aletxo oyeke nere jaioterrian, «lapatsak» generitzan. Pirikornaren egitamua Altmann jakintsuaren iritxiz *lapats-egitamua* da. Bütschli ta beste batzuen ustez, pirikornaren egitamua, *apar-egitamua* duzu. [21: 64-65]

Izatez, inpresioa atera dezakezu, Zaitegi artikuluaeren mamiak berak baino gehiago arduratzen duela, mami hori euskaraz adierazteko erabiliko duen kodearen azalpenak:

XII. *Kizbilla*. — Zer-edo-zer txiki, xe ta mea danean *kiza* ta *kizi* dala diogu. Adibidez, ile-kiza, euri-kiza t. a. Kizkin-mamian ere, zer-edo-zer xe ta txiki baduzu: beraz, *kiza* deritzakegu. Gañera, biribila duzu. *Mendibil* itzak mendi-biribil, opil-itzak ogi-biribilla adierazten duten ezkerero, *kizbil* itzak kiza-biribilla adieraziko du. Kizkin-mamian ageri dan aletxo biribila duzu *kizbilla*. Margo-gaien gurarik ez du izaten eta kizkin-gunaren urbilean izan oi da. Kizkiñaren bizialdi berezietan izarren antzera argi-izpiak yarioan agertzen da *kizbilla*. [21: 65]

Azalpenak azalpen, nik neuk Zaitegik artikulua-amaieran damaigun hiztegiara jo behar izan nuen, jakin ahal izateko *kizbil* delako hori *zentrosoma* dela, zeren-eta, neologismoaren eraketa ri-ra bai argitu badigu ere, testuan ez baita ondo zehaztu hitzberri horrek zer demontre izendatzen duen, hau da, ea zelularen zein egiturari dagokion. Alegia, ez da ikusten denominazio horrek zein nozio daroan aldean, zein kontzeptu ordeztzen duen. Dena esateko, akats hori ez da bakar-bakarririk zorioneko *kizbil* horrekin gertatzen, izan ere, testuko berba gehienak gutxi-aski zehazgabeak dira, eta atzeko hitz-sortaren laguntza barik nekez ulertzen da unean uneko hitzarekin Zaitegik zer adierazi nahi duen. Testua lausoegia suertatzen da.

Eskuetan dugun *Kizkiña* irakurtzean, konturatu zarenez, ez duzu inolako elementu aloktonorik detektatu, eta, hain zuzen ere, horrexek zaildu digu irakurketa: garbiaren garbiaz, testuan ia-ia dena berria izan da, eta kode berri hori oso-osorik deszifratzen nekatu behar duzu burua; alabaina, kodea lausoegia da, ez da zorrotza, eta soilik gutxi-gorabehera ulertzen da, berez zehatza eta mehatza izan beharrekoa. Kontura gaitezen, bada, oraingo honetan zehaztasun-falta terminologikoak, infernuko leizera barik, ulertezintasunera kondenatu gaituela, zehaztasun-falta kontzeptualera. Eta, ez dago esan beharrik, zientzia-alorrean pekatu mortala da zehaztasun-falta kontzeptuala.

Behaztopa-harritik behaztopa-harrira ibiliko gara Zaitegirekin, ezin ulertuz. Alabaina, aurreko epigrafean katiximen gorabeheretan geldidunetxoa egin dugunean

ikusi bezala, orduko eztabaida *Divinidaddea, Trinidaddea, perseveratu, revelatu* eta horrelakoen ordezkoen ondanean zentratu da; berba bitan esateko, *kontzebitu* ala *sortu*, bietariko bat. Nolanahi ere, termino «arrotzak» (*Trinidaddea* kasurako) hein batean irabazita eduki izan du bere txokoa euskara baitan, eta gerora, euskal harrobiko ordaina asmatu zaionean (*Irutasuna*), berau haren hegapean joan da, haren eskutxotik ikasi dugu, eta hark eman dio duen esangura («teknikoa»). Areago, sarri askotan elkarren ondoan agertu dira biak, termino berria behaztopa-harri ez suertatzeko. Gorostegik *Trinidadede edo Irutasun guciz santua* dioenean, *Trinidadede* horrek damaio esangura ondoko *Irutasun* galgarri horri: berez, behaztopa-harria litzateke *Irutasun*, eta *Trinidadede*, ostera, pausu-harria, bestea ulertzen lagunduko duena.

Zaitegik ez du pausu-harririk kokatu bere testuan, eta ia-ia ito egin gara erre-kasto horretan, irakurritakoa ezin ulertuz. Eskerrak ez dela testua batere sakona izan. Dena dela, Zaitegi ez da etorri Gorostegi bezala dagoeneko euskara baitan sartuta eta gutxi-aski sustraituta dauden berbak ordeztara. Zaitegi berba aloktono horiek «guztiak» ukatzera dator, langa jartzera dator. Jakina, aspaldian gauzatuta dago azaldu digun gai horren alorreko teknolektoa; izatez, urratsez urrats joan da osotuz Europako mendebaldeko komunitate zientifikoan, baina, antza, ez du euskararen baitan sartzeko astirik eduki, elizaren teknolektoarekin gertatu denaren kontrara.

John Faber mediku naturalistak 1625ean zizelkatu zuen «mikroskopia» berba, lehentxoago eraturiko «teleskopio» ospetsuagoaren antzera [23], eta horren ostetik gaineratu dira zitologiaren alorreko terminoak, milaka kontatzen direnak. Baina, 1625etik aurrera Europako hizkuntza nagusietan bueltaka dabilen berbak, ku-ku bakar bat egin zuen euskaraz mende bi geroago, eta berriro desagertu zen. Hain zuzen ere, 1827an eman zen argitara Iruñean *Erle gobernatzalleen guidariya, edo erleac gobernatceco modua*, Fray Joaquín de Santa Bárbara kameldarrak gaztelaniaz ondutakoaren itzulpena; bada, liburu horrexetan agertu zen lehen aldiz mikroskopia hitza euskaraz (*beguiratu cien biai microscopioarequin, eta etzuan aen artean diferenciaric batere arquite* [24: 52]), eta hori, Xabier Kintanaren hipotesian [24: xiii], Ignazio Balentin Pagadizabal izeneko itzultzaile ezkutuko baten eskutik. Alabaina, mikroskopia pausu-harria eskueran eduki arren, itxuraz Arnaud Abadia jaun kalonjeak ez zuen baliatu laborantzari eskainitako artikulua gogoangarrietan, eta berorren ordezkari perifrasi behaztopagarrietara jo zuen (= *bixta ainitz azkartzen duten berina batzu*) [5]. Nolanahi, arestiko pasarte batean ikusi dugunez, Zaitegik «txiki-ikuskiñ» erabili du, eta atea itxi gura izan dio mikroskopia delakoari. Dena dela, 1921ean Azkuek «sogailuxko» erabili zuen, baina, berorren ondotik «mikroskopia» pausu-harria kokatuz [25]. Bide beretik-edo, Gerhard Bahr euskaltzale le-gazpiarrak «xikikusle» erabili zuen 1922an argitaratutako artikulua batean [26].

Halandaze, Zaitegik lexiko berria osotu nahi du zitologiaren eta, oro har, biologiaren alorrerako, baina, erabat bestelakoa Europako hizkuntza nagusietan erabiltzen den teknolektoarekiko. Eta, hain zuzen, bestelakotasun horrek bihurtu digu *Kizkiña* ininteligible eta inpraktikable. Nazioarteko teknolektoan aspaldian finkaturik dauden terminoak zelan edo halan moldatu eta geureganatu beharrean, Zaitegik hiztegi hori goitik behera garbitu nahi izan zuen, eta ondorioz, pausu-harriak izan

behar zirenak behaztopa-harri bilakatu zizkigun. Garbitu orde z lardaskatu, Villasanteren eran esateko [9: 63]; eta areago: «Hortik joaz, zer moduzko kultura egin daiteke hizkuntza batean? Honelako tresneria eskas eta zehaztugabeaz, ezer gutxi, inolaz ere» [9: 85]. Mitxelenak beste era honetara laburbildu zuen kontua: «Mirestekoa da, benetan, nola zenbait idazlan eder —Lizardiren poesia, esaterako— sortu ziren garai horretan, hiztegia horrela murriztu eta soildu ondoren» [27].

Jean Etxeparek ez zuen Zaitegiren bidea ederretsi, eta, izatez, badirudi hein batean *Zelulak* artikulua Zaitegiri ihardetsi diola, eta badiotsola gauzak izendatzeko beste modu bat dagoela:

Eskualdunaren irakurleak badaki, elgarri lotuak diren izpika batzuek egiten dutela gure gorputza. Izpika horiek deitzen ditugu zelulak, bertze mintzai gehienen ara bertsurat.

(...)

Guneka, eta gunetik gunera beren itxuraz, moldeaz daukaten eremuaz berexak dira zelulak, hala nola harresi batean harriak. Berexak dira oraino beren egitekoaz: larrukoek ez dute lan edo eginkizun bera ukanen, nola buru-muinetakok.

Arras izpika ttipiak dira zelulak. Mikroskoparen arartekoz baizik ez ditzazkegu ikus. Milimetra bat zonbat den badakigu orok; asma ere dezakegu zombatekoa ditaken milimetra baino mila aldiz ttipiagoko zer bat. Jendearen baitako zelula gehienek, milimetraren milagarren partean hamabortz alditarik ehun alditaraino daukate bakotzak, nunbait han [22: 75-76].

Horrelaxe hasi zuen *Eskualduna* aldizkarian 1934an argitaratutako artikulua, eta bertan aurkitu ditugu, besteak beste, «zelula» eta «mikroskopia», argi eta garbi arbuiauz Zaitegiren egiteko modua. Areago, praxi horrez gainera Jean Etxeparek lehenagotik ere 1928an idatzia zuen:

Nola deitzen diren ere poxika hek on da ikas dezazun, azken mendetik hunat zerbait dakitenek mihian baiterabiltzate noiz nahi, eta ez baita zuzen egon ziten zu, beharriak idekirik, entzuten alferretan. Anglesek delako izpika horier emana dute izentzat *cel*, espainolek, *celula*; frantsesek, *cellule*. Bertze mintzai gehienetan ere holatsu dituzte deitzen.

Guk euskaldunek ez daiegu behinere eman izenik, ausartatu eskasean naski. Hanbat burua berotu gabe, iduri zait deitzen ahal gintuzkela frantsesek eta espainolek bezalatsu, erranez izpika txar hoitarik bakotxarentzat *zelula* bat dela.

Izen bat gauza baliosa da. Oroit eta ez sekula ahantz, gure gorputza egina dela, ile puntetarik hasirik zangoetako eri muturretaraino, egina dela *zelulaz*, hala nola harresi bat.

Zelula edo *cellule* norbaitek aipatuko dauzularik, jakinen duzu hemendik aitzinat zertaz zaitzun mintzo, gehiagoko xehetasunen beharrik gabe [28].

Jean Etxeparek nazioarteko bidea hobetsi du, eta, hain justu, «burua berotu gabe» ikusi duzunez: seinale, Aldudeko bazterreraino iritsi zela bazezilen eztabaidaren oihartzunen bat edo beste. Eta bide beretik «mikrobia» eta horietariko beste termino asko erabili zituen. Nolanahi, Jean Etxepare ez zen lehena izan mikrobia hori euskaraz erabiltzen, «Orotarikoak» adierazten duenaren kontrara. Izan ere, goratxoago aipatu dugun Arnaud Abadia lotsorak «...mikrobia deitzen

diren aberetcho hek ez daitezkeela lanean har. Beraz mikrobe haukiek...» idatzi zuen 1905ean [29: 28], eta berorren antzera «*Mikrobe deitzen diren aberetchoak, baita pozoina dezaketekeen edozein gaijak mihatzen edo ikhertzen dire*» irakur daiteke Felitz Kanpan Baionako botikarioaren propagandan [30].

Alabaina, luzaroan Piarres Lafitte euskaltzainaren iritzietara plegatu izan dugu Jean Etxepareren balioa, eta, eman ere ematen zuen Lafitte izan dela Etxepareren irakurle bakarra, izatez haren zentsuratzaille porrokatua izan delarik. Hortaz, Lafitteri *Etxepare jauna laster jarri zen eskuara garbiari; hainitzak ere badaude ez ote zuenetz azkenean garbiegi* irakurri genionean [31: 12], esaldia hitzez hitz hartu eta Etxepare medikua garbizaleen zakuan sartu genuen beste barik. Seguru nengoen, orobat, Pierre Buruzainen eragin teutonizatzailea jasoko zuela bere hurbileko inguruan [6], eta horrez gainera ezin da ahaztu hegoaldeko orduko giroa. Lafittek honelaxe azaldu digu kontua:

Gerlatik landa, Etxepare jauna nehoiz ez bezalako kar batekin lotu zen berriz ere eskuarari. Broussain Hazparneko eskualzale suharrak sustaturik, itzuli handi bat egin zuen mendiz haraindiko Eskualerrian barna: gogo-bihotzak bete zitzaizkon hango argiaz, hango lurrez, hango anaiez, eta *Eskualdunak* ager-arazi zituen haren oharpen politak. Orduetik beti hango berri jakin-nahia egon zen, izan zadin politika-berri, ala liburu-berri. Adixkide minak ere egin zituen, hiri hetako jaun eskualdun zintzo eta argituen artean. [31: 16]

Zer esanik ez, pentsatu izan dut hegoaldeko purismo eta txukuneria guztiak kutsatuko zitzaizkiola gehiago edo gutxiago, eta, izan ere, M. J. Kerexetak [32] egiaztatu du hein batean eragin horren zer-nolakoa: Etxeparek berak asmatutako neologismoak (*eiken, goipularri, zaintzozte...*), mugaz honantzako era askotako hitzak (*enda, olerki, askatu, gizairudi, gizadi, udaletxe, ekandu, ikuskizun...*), eta, bestalde, garaiko beste idazleek baino hiztegi baxenabartarragoa (*sargi, fleit, ukare, botiges, uzkaili...*). Halaber, Emilio Lopez Adanek bildu du medikuntzaren arloan Etxeparek baliatu zuen lexikoa [33], eta hor, Azkueren joera garbizalea suma daiteke, besteak beste.

Halandaze, hegoaldetiko kutsaduraren uste horrexek ez dit utzi buruan sartzen, Etxeparek berak behin baino gehiagotan esplizituki idatzi duena: «burua berotu gabe» - «bertze mintzai gehienen ara bertsurat» - «bertze guziek bezala zendako ez ginuke behar deitu guk?». Etxepareren idazlanetan horrelakoak behin eta berriro aurkitu arren, niretzat enkriptatuta-edo egon da adierazpen horien zentzua, eta ez dut ikusi begi-bistakoa dena. Alegia, Etxepareren euskara bai da garbia, baina ez da garbizalea, konturatu zarenez.

Okerreko pertzepzio batekin ibili gara. Hobeto legoke esatea *tinkoegia dela eta dorpea idazle honen euskara* [34: 7], eta, seguruenez, izate horrek sortu du Etxepareren gaineko inpresio faltsu hori. Areago oraindik, duela gutxi ohartu gara Jean Etxepare Seber Altuberen jarraitzailea dela, hau da, garbizalea ez izateaz gainera joera hori oso kaltegarritzat duela. Oraintsu jakin izan dut, bai Etxepare eta bai Altube Gernikan egon zirela Eusko Ikaskuntzaren III. kongresuan, 1922an, eta, «adixkide min» bihurtu ote ziren egiaztatzerik eduki izan ez badut ere —baiezkoan

nago—, hona ekarri ditugun aipuetan argi dago Etxeparek bere egin dituela, Altubek han aurkeztutako ideiak [35], euskararen hiztegi-gintzaren desbiderapena salatzen zutenak. Izan ere, Etxepare medikuak behin eta berriro egiten du nazioarteko terminoen alde, Altubek plazaraturiko ideiei eutsiz. Gesu batean aurkeztuko ditugu ideioak.

3. ASINTOTAN GORA ELKAR HARTUTA

Urteak joan, urteak etorri, gure zientzia-prosa ahalegin kolektiboa izatera iritsi zen 1970. urtearen bueltan, hasieran aipatu dugunez [3]. Orduan abiatutako laguntaldean lehenengo emaitzetariko bat *Natur Zientziak hiztegia* izan zen, Jakinek 1976an plazaratu zuena [36].

Ni neu liburu horregaz hasi nintzen euskarazko kontuetara hurreratzen, eta, besteak beste berorretan aurkitu nituen, egokitu zitzaizkidan lehen hiztegi-hutsunetarako erantzunak, Leioako ZEK-Tren abaroan (Zientzietako Euskal Kultur Taldea). Bere orrialdeetan ikasi nituen *giltzurringaineko kutxatila, zihilketa, bizitzagatiko burruka, janzkiberrikuntza, gongoila, barrabil zorroa, guruina, lekuzaldakuntza, bestejalea, lorautsa, lubeltza, oskol-janzkia, ehoardatz tintagaitza, epitelio geruzatu solairuzkoa, hun mintza, zoikaztegia, ugaztuna, hautespen naturala* eta beste maaaaakina bat, eta, areago, bere lerroetan adoretu nintzen, handik aurrera euskaraz azaltzeko ordura arte erdaraz jaso nuen guztia. Kontua da hasierako erabilera usua lantzean-behingoa bilakatu zela apurka-apurka, eta ia konturatu barik apal batean utzi genuen, agortuta-edo.

Goizean berriro koiu dut orduan ondo baino hobeto forratu nuen hiztegia, eta, oroitminaren lehen printzekin batera, nor-eta Zaitegi begietaratu zait harren orrialde horituak pasatu ahala. Sarrerarik sarrera nabilela aurrera eta atzera, Zaitegiren ereduaz idatzita dagoela izan da nigan gailendu den inpresioa. Atarikoan *ehundaka eta ehundaka hitz erdaratiko horietakoak* (onartu) *direla* irakurri arren [36: xxxix], eta egia da atea zabaldu egin zaiela, zenbat eta hiztegia gehiago irakurri biziago egin zait *Kizkiñarekin* aurkitu diodan antza. Beste era batera esateko: nahiz eta *ehundaka eta ehundaka* pausu-harri kokatu, *Natur zientziak hiztegia* behaztopa-harriez mukuru dagoela begitandu zait gaurko perspektibatik.

Hala ere, asmoa desberdina da oraingo honetan. Zaitegiren asmoa euskararen esparrua langatzea bazen ere, *Natur zientziak hiztegiaren* atarikoak behin eta berriro diosku *erdaratiko hitza gorde eta erabili dugu, euskarazkoa argitzaile bezala jarritz* [36: xl]; ageriago beste aipu honetan:

...euskarazkoak erdaratikoa esplikatzeko laguntzen du: adibidez, *entomofilo* hitza erdaratik hartu da, baina ondoan ematen da *insektuzale* euskarazkoagoa; *geofilia* onartzen da, baina *lurzaletasuna* hitza alboratzen zaio; *habitat* hitza ez da baztertzen, baina *bizigu* hitzari ere bidea ireki nahi zaio; *hipoge* (sic) beharrezkotzat jotzen da zientzi mailan, baina *lurpekoa* hitza, laguntzaile bezala,

egokitzat jotzen da: *pelagiko* esaten da, baina baita *itsas-zabal* ere; *anfibia* baztertzea zaila gertatzen da, baina beste *bizierabiko* hitza (eta *ur-lehortar* eta *urlutar* ere bai) egokiak izan daitezkeelakoan jartzen dira. [36: xxxviii-xxxix]

Asmoak asmo, hiztegia ezin beteago dago «laguntzaile eta argitzaile» bizkarroi horietarikoez, eta, ondorioz, Zaitegirena ematen du, edulkoratuta baina. Izan ere, «laguntzaile eta argitzaile» horiek larregi hazi eta leku gehiena bereganatu dute aipatu hiztegian. Neuri aspaldi bateko Gorostegi eta bere *Trinidad* edo *Iru-tasun guciz santua* gogorarazi didate, baina, «irutasun» modukoek azken batean irentsi egin dituzte «trinidad» erakoak. Konturatu orduko, beraz, morroiak nagusitu. Zurkaitzak errotu.

Laguntzaile eta argitzaile izateko eratutako hitzberri autoktono horiek nagusitu eta errotu egin ziren, baina, *Natur Zientziak hiztegiaren* orrialdeetatik askatuta, alor guztietara zabaldu dira gehiago edo gutxiago, eta, denok dakigunez, bakar-bakarrik ibiltzen dira gehienetan, eta ez benetako termino aloktonoaren eskutik. Kontua da Zaitegiren joera hori nabarmenegi agertzen dela gure artean sarri askotan, eta, horrenbestez, aloktonoari esparrua murriztu nahiz, sarri askotan jitoan ibiltzen gara zehaztasun-falta terminologikotik zehaztasun-falta kontzeptualerantz, dibagatzen, Xabier Amuritzak kritikatu bezala. Urrunago joan barik, irakurri berri dugun aurreko aipuan agerturiko adibide autoktonoetan kontura gaitzke desmasiaz.

Zientzia-prosaren eredurako, nik neuk, askoz egokiago deritzot Etxepareren joerari, hots, nazioarteko terminoak parra-parra mailegatzeari [7: 55-69]. Alabaina, aspaldikoa da Zaitegi/Etxepare dikotomia euskaldungoaren baitan, eta, antza, ikuspegi biak joan-etorrian dabilta marea bezala-edo, baina, beti presente ageriago edo kukutuago eta, okerragoa dena, beti alferreko lehian. Honezkero, bada, nahi-taezkoa da drogan ibiltzeari utzi eta joera antagoniko bi horiek bideratzea, biak elkar hartuta. Esan gabe doa, erdibidea izan ohi da erremedioa muturreko jarrera bi elkartu nahi direnean, eta, beraz, joera biak gardainatzea da soluzio baterako abiapuntua. Hau da, zelan edo halan bateratu beharko ditugu Zaitegi eta Etxepareren ikuspegiak: bientzako leku edota zeregin egokia bilatu beharko dugu. Adostutako eredu bat itxuratu beharrean gaude, ea azkenik ebazten dugun gure amaigabeko eztabaida aspergarria.

Ildo horretan, erdibidea esatean ezin da pentsatu konponketa salomoniko batean, halatan non, joera bakoitzari «ume» erdia baitagokio besterik gabe. Ganorazko eredu bat planteatzeko, derrigorrezkoa da zer behar dugun jakitea, eta horretarako joera bakoitzak zer eskaintzen digun. Ahaleginduko naiz eztabaida koordinatu horietan kokatzen.

Nire ustez, hizkuntzaren duintasuna azpimarratu nahi izatea litzateke Zaitegiren bideak duen birtute nagusia, baina, Altubek dioskunez [35: 80], Juan Irazusta Hernialdeko erretorearen osteko «erderakadaz jositako ta euskerazko izenik ere merezi eztaben lotsagarritzko liburu batzuk (...) bestalderantzeko gogo larregiko bat» sortu zuten, alegia, «erderatiko itzai iguin neurritz kanpoko», muturrekoa. Eta, badakigunez, tantaka hasi zen hitzberrien isuria uholde bilakatu da, gure hiztegiak gainezka egiteraino; Mitxelenak zorrotz antzeman zion bezala: «hor egoten

dira azkenik inoren onginahiak, apetak eta ezjakinak asmatu dituen bitxikeriak, odolik ez duten hutsaren hurrengo iratxoak, hain zuzen ere ingelesez *ghost-words* deitzen dituztenak» [27: 41]. Geure honetan, behaztopa-harri —eta bai zurkaitz ere— esan diegu *ghost-word* horiei.

Hau da, hizkuntzaren duintasunaren ideiarekin batera, adostutako eredurako makina bat iratxo, makina bat behaztopa-harri dauzkagu han-hemenka agertu direnak, eta euskararen baitan nolabaiteko bidea egin dutenak. Horientzako leku aproposa bilatzeak ez du esan gura, ez horixe, euskararen teutonizazio-prozesuari [1: 143-144] oniritzia eman diogunik. Izan ere, ez zaigu batere komenigarria iruditzen, *Kizkiña* delakoan ikusi bezala, termino zientifikoak «etxeko» ordainez ematea, era sistematiko batez. Ikusi dugunez, guztiz kaltegarria suertatu zaigu historian zehar, eta erokeria litzateke oraindik ere horretan tematzea. Jakina, gaur egun inork ez bide du erabateko teutonizazioaren alde egiten, baina, horren zantzuak edonon aurkituko dituzu txitean-pitean.

Esate baterako, eta batere asago joan barik, *Hiru mila Hiztegia* hartuta [17], paradigmatikoa bilakatu zaigun adibidea bilatuko bazenu, alegia, *carnívoro* terminoa begiratuko bazenu erdarazko sarreretan, ordain posible birekin egingo duzu topo, *haragijalerekin*, jakina, eta, zer esanik ez, *okelajalerekin*, hiztegia Made in Bizkaia da-eta. *Hiru milak* ez du *karniboro* ematen, ordain bi horiez gainera. Eta modu berean, soilik aurkituko dituzu *belarjale* eta *orojale*; beraz, atea itxi zaie baita, *herbiborori* eta *omniborori* hurrenez hurren. Badirudi egileak teutonizazioaren tentazioan erori direla, eta, horrenbestez, alemanez bezala-edo, termino horien kultur erroak euskal harrobiko osagaiez ordeztu dituzte. Kontua da, soil-soilik horrela eratutako «laguntzaile eta argitzaile» horiek opesten zaizkiola, kontzeptu horiek euskaraz zelan esan bilatzen dabilenari: bilatzaile horri ukatu egiten zaio, hain zuzen ere, termino kanonikoaren aukera. Gorago esan bezala, morroiak nagusitu egin dira, zurkaitzak errotu. Ez naiz hemen luzatuko azaltzen horrelako zurkaitzak noraino desegoki izan daitezkeen (ikus [7: 55-69]).

Beste asko ere gisa horretara topatuko dituzu *Hiru milan*: *autoktono* barik, *bertako*; *azefalo* barik, *burugabe(ko)*; *aurifero* barik, *urredun*; *akuifero* barik, *urdun*; *anelido* barik, *eraztundun*; *ekimosi* barik, *ubeldura*; *hipokondrio* barik, *sahiespe*; *intsektiboro* barik, *intsektujale*...

Nolanahi, ugariagoak dira binaka-edo datozenak, dela termino kanonikoa aurretik eta beronen ondoan «laguntzaile eta argitzaileak», dela alderantziz. Esaterako: *arrainjale*, *iktiofago*/ *saprofago*, *usteljale*/ *alejale*, *garaujale*, *graniborol* *gizajale*, *antropofago*, *kaniball* *oskoldun*, *krustazeol* *eztendun*, *hime-noptero*/ *errule*, *obiparol* *erremen*, *bihotzerre*, *pirosil* *sukar*, *pirexial* *metatartso*, *oinorrazil* *sexagesimal*, *hirurogeikako*, *hirurogeitar*/ *tetrapodo*, *koadrupedo*, *lauhankako*/ eta abar. Jakina, ez dira falta termino kanonikoa soil-soilik da-maiguten sarrerak, eta, izan ere, badirudi begi-kolpe batez hauexek direla arruntenak. Esate baterako, katiximen gorabeherak ikusi ditugunean aipatutako *hipostasi* delakoa, edota *heliofilo* eta *hidrofilo*, harrigarriro zurkaitzik gabe datozkigunak.

Alabaina, bilaturiko terminoaren «maila» beheratu ahala, soil-soilik euskarazko ordainak aurkitzeko probabilitatea izugarri emendatzen dela ikusiko duzu, eta horrela, mendebaldeko kulturaren komunak diren hitzei atea itxi nahiz-edo, hiztegi guzti-guztia —euskararena, ez bereziki *Hiru mila— deskolokatuta* daukagu [8], bai hizkuntza-mailak eta bai berben esangurak ere edozein modutara nahastuta. Eta lehengora itzulita, nire ustez, horrek guztiorrek eredu teutonizatzaile baten eraginpean idatzita egotearen itxura ematen dio sarri askotan gure zientzia-prosari, aldeztu aurretik horretarako asmo kontzienterik egon ez arren. Izatez, neuk, lexiko-kontuetan eredu argi baten gabezia sumatzen dut beste ezer baino gehiago, azken batean, «auzia ahul eta motz planteatzen dela», Xabier Amuritzaren hitzetan adierazteko.

Jakina, zenbait idazlanek kristoren eragina eduki izan dute teutonizazio lausotu horren alde, baina, ez horrenbeste plazara ekarri dizkiguten argudioen onezia dela-eta, sinatzaileen izen handiaren ondorioz baizik (ikus [37: 113], [38], [39: 34]). Areago, egileak euskaltzainak izateak gaitzespen instituzional moduko baten itxura sortu du, oso dudazkoa dena Euskaltzaindiaren jardun arruntari begira (Hiztegi Batua, barbarako), baina nahikoa eraginkor hainbat eta hainbat ikasle, irakasle eta hizkuntza-zuzentzailearen begietan. Neurri batean bedeinkazio moduko bat eman diote teutonizazioari oro har, eta, hein berean-edo, nabarmenago geratzen da termino arrotzen erabiltzailea, deskalifikatuta. Alde horretatik, idazlan horiek txarrerako suertatu dira, zeren, haize berria hauspotu baitiote, apurka-apurka bada ere gesalduz zihoan joera teutonizatzaileari, eta merezi duena baino garrantzi gehiago aitortu zaio.

Nik neuk, Etxepareren naturaltasuna hobetsiko nuke, eta maileguari leku zabalagoa eskainiko nioke, «burua (larregi) berotu gabe». Leku hori zein izan daitekeen, Petöfi-k proposaturiko eskeman zehaztuko nuke [40], [41: 85-87], [1: 134]. Alegia, komunikazio zientifikoan maila desberdinak daudela onartuz, hau da, edozein gai sakontasun desberdinez azal daitekeela onartuz, maila bakoitzak hizkera-modu bat eskatuko du, lortu nahi den zehaztasunak derrigortuta. Petöfi-k lau maila definitu ditu, hots, a-tik d-rainoko graduazioa, halatan non, diskurtso zientifikoaren zehaztasuna galduz baitoa argitasunaren alde: nolabait, a mailako idazlanak erabat espezializatuak izatean guztiz kriptiko eta ulergaitzak izango dira irakurle arruntarentzat, eta b eta c mailetan pixkanaka argiago suertatuko zaizkio, d mailako idazlan dibulgatibo erraz-errazetaraino.

Eskema horretan, esan gabe doa, *haragijale*, *belarjale*, *orojale* eta era horretako berba askok (ez guztiek!) badute euren toki egokia sailkapeneko behe-mailetako diskurtsoetan, eta, halaber, goi-mailakoetan badute berea *karniborok*, *herbiborok*, *omniborok* eta kultur errozko gainerakoek. Jakina, idazleak berak ikusi beharko du kasuan kasu zein termino-mota aukeratu, idazki ahalik eta ulerterrazek beharrezko, aldi berean zehaztasun kontzeptualari muzin egin gabe. Idazleak berak deliberatuko du zein komunikazio-maila komeni zaion.

Petöfi-k lau sakontasun-maila bereiztu ditu goitik beherantz bere sailkapenean, aipatu bezala. Dena dela, maila horiek ezari-ezarian aldatzen direlarik, ezin da euron arteko banaketa argia ezarri, eta Hoffmann-ek, lau beharrean, bost maila (a-tik e-raino) ikusi ditu gradazio horretan, hurbilketa-modu bera erabili arren [42: 62-65] (ikus 1. taula).

	<i>Nivell d'abstracció</i>	<i>Forma lingüística</i>	<i>Àmbit</i>	<i>Participants en la comunicació</i>
A	més elevat	símbols artificials per a elements i relacions	ciències fonamentals teòriques	científic ↔ científic
B	molt elevat	símbols artificials per a elements; llenguatge general per a les relacions (sintaxi)	ciències experimentals	científic (tècnic) ↔ científic (tècnic)
C	elevat	llenguatge natural amb terminologia especialitzada i sintaxi molt controlada	ciències aplicades i tècnica	científic (tècnic) ↔ directores científicotècnics de la producció material
D	baix	llenguatge natural amb terminologia especialitzada i sintaxi relativament lliure	producció material	directores científicotècnics de la producció material ↔ mestres ↔ treballadors especialitzats
E	molt baix	llenguatge natural amb alguns termes especialitzats i sintaxi lliure	consum	representants del comerç ↔ consumidors ↔ consumidors

1. taula

Zientzia-prosaren zehaztasun-mailak, Hoffmann-en arabera [42: 64]

Sailkapenak sailkapen, ideia bat da hemen azpimarratu gurako genukeena, alegia, maila bakoitzak hizkera-modu berebizikoa duela, forma linguistiko bereizgarria, eta, hain zuzen ere, horrexek ahalbide-tuko digu era desberdin-tako hitzekin jokatzeari, sakontasunean gora edo behera egiten dugunaren arabera. Ideia berberera iristeko, baina, beste bide batetik abiatuko gara orain, eta horretarako plebifikazio delakoa aurkeztuko dugu [1: 144-146].

Ingeleseko testuetan sarri askotan ikusten dugu, termino zientifiko kanonikoen ondoan bestelako orde-zko arruntak erabiltzen dituztela txitean-pitean. Kasurako, arestian aipatu dugun *karniboro* horrekin batera, edota gabe, *flesh-eating* eta *meat-eating* ordainak aurkituko dituzu. Era horretako adibideak milaka agertzen dira ingelesezko idazlanetan; adibidez, 2. taulan metatu ditugu *The Song of the Dodo* dibulgazio-liburu zoragarrian David Quammen-ek erabili dituenetariko hainbat eta hainbat [43].

Nolanahi, baten batzuek ez dute oso gogo onez hartzen «termino bernakular» edo *folk-term* deritzen horien erabilera teknikoa, eta, ildo horretatik, zientzi hiztegiaren plebifikazioaz mintzo dira [44: 7-29]. Plebifikazio izenak berak nola-baiteko errefusa adierazten digu, plebea gogorazaraziz, eta, izan ere, Nybakken-ek makina bat desabantaila egotzi dizkio, gehienbat plebifikazioak aldean daroazan

zehaztasun-falta terminologikoa eta zehaztasun-falta kontzeptuala azpimarratuz. Areago, Nybakken-en ustez, zientzi idazlanetan termino bernakularrak onartzeak berba teknikoen eta ez-teknikoen nahasketa desatsegina gauzatzen du, eta, horrenbestez, idaztanka bera itxuragabetzen [44: 14]. Zer esanik ez, Nybakkenek, termino bernakularren ahuldadeak zerrendatu ostetik, greziera eta latinetiko kultur erroez osaturiko terminoen onurak azpimarratu dizkigu, bere liburua horiei buruzkoa da-eta. Abantaila horietariko bat bakarra aipatuko dut hemen: greziera edota latinetiko elementuez eratutako berbak agertzean, une horretantxe igartzen da termino teknikoak direla, eta, hortaz, euren agerpena bera da adi egoteko abisu bat. Izatez, behin baino gehiagotan, arrotz-izate horren, arrotzasun hori edukitzearen desioak ekarri du oso hurbilekotzat jo izan diren latin-errozko terminoak baztertu eta grezierazkoak hobestea (*karniboro*→*sarkofago* edota *zoofago*; *herbivoro*→*fitofago*; *multilingue*→*poliglota*).

tree-climbing rodents/ termite eater/ surface-foraging microgales/ insect eaters/ bird-catching spider/ egg-laying flies/ blood-sucking sand flies/ bee-eaters/ English-speaking world/ population-limiting «checks»/ ocean-voyaging humans/ sea-crossing butterfly/ island-hopping journeys/ surf-diving iguana/ island-dwelling rail/ stupid-looking flightless pigeon/ flesh-eating animals/ beach-loving plant/ sun-loving ferns/ shade-casting trees/ self-sustaining population/ strong-flying species/ weak-flying species/ fig-eating bird/ flyeater/ water-loving elephant/ four-footed creatures/ meat-wolfing gluttony/ ground-nesting birds/ egg-eating predator/ muscle-building exercise/ mountain-dwelling geophiles/ mountain-dwelling carabids/ stream-loving species/ tree-loving species/ dirt-loving ground beetle/ territory-holding male/ head-bobbing display/ dull-looking finches/ sand-digging insect eater/ rock-probing insect eater/ bamboo-eating lemur/ woods-loving tomboy/ thirst-tolerant species/ niche-partioning differences/ fruit-eating birds/ tame-seeming animals/ crab-eating macaques/ fat-bearing domestic beast/ monkey-eating vice/ meat-ripping teeth/ alien-seeming creature/ sheep- and cattle-raising enterprise/ plant eaters/ meat eaters/ newspaper-reading public/ mast-bearing deciduous habitat/ food-seeking flights/ night-flying mosquito/ forest-dwelling birds/ bird-eating tree snake/ ground-lurking species/ nectar-gathering animals/ far-ranging predators/ seed-killing fungi/ flesh-eating beasts/ model-building approach/ theory-testing experiment/ elephant-eating komodos/ shade-loving understory vegetation/ canopy-dwelling creatures/ ant-following birds/ light-loving species/ large-bodied and wide-ranging predators/ swash-buckling herpetologist/ leaf-mining insects/ bird-banding interns/ self-mocking label/ birdwatching skills/ bird-slaving tour/ bird-eating spider/ swivel-eyed and slow-moving chameleon/ French-speaking clients/ animal-breeding literature/ captive-breeding program/ home-loving kestrel/ food-gathering difficulties/ rock-climbing predators/ monkey-eating eagle/ cliff-hugging vine/ doom-threatening convergence/ Portuguese-speaking Brazilians/ earth-moving, cement-slinging crews/ snake-loathing people/ fast-flowing riffles/ fast-maturing creatures/ low-flying plane/ sail-bearing dugouts/ mate-shopping females/ soul-withering biological loneliness/

2. taula

The Song of the Dodo liburuan aurki daitezkeen termino (plebifikatzailetariko) batzuk [43].

Dena dela, alferrik bilatuko dituzu hiztegietan *flesh-eating*, *meat-eating* eta era bereko termino bernakularrak. Ingeleseko hiztegiek ez diete lekurik eskaini era horretako sarrerei. Argigarria da, guztiz, *Oxford English Dictionary* [45: xxxi] omisio hain nabarmenerako damaigun azalpena: oso nekez bereiz daiteke hitz-elkarketa horiek noraino diren lexikografoarentzako langai edota zein neurritan diren gramatikalak², alegia, ez dute argi hiztegirako «hitzak» ote diren, ala esaldi-zatiak. Edozelan ere, guztiz tautologikoak izaten dira, *self-explanatory* izaten dira, eta ez dute inolako definizio beharrik edukitzen, izatez mikrodefinizioak baitira benetako hitzak bainoago; horrenbestez, ez dute sarrerarik hiztegietan, eta, gehien-gehienez, jasota agertzen dira konbinazioaren lehen elementuaren arabera.

Beharbada, horretantxe datza plebifikazioaren eta teutonizazioaren arteko diferentzia nagusietariko bat: plebifikazioaren kasuan termino plebifikatzaileek nekez eskuratzen dute hiztegien onespena, eta soilik termino kanonikoek dute sarrera bana; teutonizazioaren kasuan, ostera, termino teutonizatzaileak dira hiztegien bedeinkazioa lortu dutenak, eta, areago, termino kanonikoak ezabatu egiten dira hiztegietatik. Euskararen kasuan, ez dago esan beharrik, hiztegiek islatzen digutena askoz hurbilago dago teutonizaziotik plebifikaziotik baino: aldeak daude hiztegitik hiztegiara, baina, oro har normalagoa izaten da elementu autoktonoak aurkitzea; berba aloktonoek murriztuta dute agerpena, eta berori nabarmenago suertatzen da historian atzerantz egin ahala. Testuetan beste horrenbeste gertatzen da, salbuespenak salbuespen.

Hiztegietan agertu zein ez, termino bernakularrak oso-oso arruntak dira ingelesezko bibliografian. Alabaina, maiztasunaren aldetik gutxituz doaz testuaren maila gorantz doanaz batera, eta, alde horretatik, *folk-term* dezente gehiago aurkituko dituzu Petöfi eta Hoffmann-en behe-mailei dagozkien testuetan. Oro har, alderantziz gertatuko da termino kanonikoekin: ugariago zenbat eta maila jasoagoa izan. Agertu, edozein mailatan era bietako hitzak ager daitezke, baina, mota bakoitzaren portzentaiak aldatuko dira mailaren arabera. Esaten ari garena kuantifikagarria izan arren, idazlearen izaerak garrantzi handia du bateko ala besteko erabileran, esan gabe doa, eta idiosinkratikoa izaten da ere termino bernakularren eta termino kanonikoen arteko dosifikazioa.

Honaino iritsi garelarik, behar bezain aurkeztuta utzi ditugu, adostutako eredu bat gauzatzeko osagaiak. Amaigabeko eztabaida aspergarria azkenik bertan behera uzteko, nire ustez, ezinbestekoa da izan dugun joera teutonizatzailetik arean urrundu eta joera plebifikatzaile berri baterantz lerratu, baina, bai lehenengoa guztiz abandonatu barik —historiak erakutsi digu ezinezkoa dugula!— eta bai bigarrena ingelesak bezala osotoro besarkatu barik.

Teutonizaziotik plebifikaziora, beraz. Ia automatikoa izan daiteke aldaketa hori, izan ere, gehienbat ikuspegiari dagokio beste edozerri bainoago. Hau da, adostutako eredu berriko termino plebifikatzaileak, izatez, honezkero badauzkagun termino teutonizatzaileak eurak izan daitezke, alegia, gorago aipatu ditugun «la-

2 «There is thus considerable difficulty in determining to what extent combinations are matters for lexicographer, and to what extent they are merely grammatical»

guntzaile eta argitzaileak» erabil ditzakegu, kontuan hartuta noraino egokiak diren. Hala ere, argi eta garbi utzi beharko da termino kanonikoaren lehentasuna, inolako zalantza gabe. Esaten ari naizena da *karniboro* dela termino zientifikoa, eta berorren orbitan mugituko direla *haragijale*, *okelajale* edota *xitxijale* [5]. Gailentasuna, berriro diot, termino teknikoak du, eta diskurtsoaren mailaren arabera-edo erabiliko dira bestelako «laguntzaile eta argitzaileak», baina, ahaztu barik termino kanonikoa ezinbestekoa dugula. Kontura gaitezen: teutonizazioaren kasuan, termino kanonikoak ezabatu egiten dira hiztegietatik, eta, plebifikazioaren kasuan, ostera, berba «laguntzaile eta argitzaileak» dira hiztegietan lekurik ez dutenak. Amaigabeko eztabaida aspergarria gainditzeko, bada, teutonizazioaren eta plebifikazioaren arteko hibridoa da proposatu duguna: bai termino kanonikoak eta bai «laguntzaile eta argitzaileak» jasoko ditugu euskal hiztegietan, eta, halaber, batzuek eta besteak erabiliko ditugu zientzia-prosan, hori bai, proportzio desberdinetan mailaren arabera. Garbiago esanda oraindik, eta nahitaez sinplifikatuz: *karniboro* eta *haragijale* (eta bai *okelajale* eta *xitxijale*) biak dira euskarazkoak, biak sartu behar dira hiztegietan, biak erabili behar dira euskarazko testuetan, baina, adi, autore arretatsu batek hautatu egingo du noiz eta non erabili bata, eta noiz eta non bestea, *The Song of the Dodo* liburu zoragarrian gertatzen den bezala. Eta, bide batez, liburu hori euskaratzea mugarrri suerta daiteke, proposatzen ari naizen soluzioaren bidean.

Ez da berria azaltzen ari naizena. Alde horretatik, aipagarria da 1988. urtean UZEIk argitaratu zuen *Biologia/4: Zoologia hiztegia*, berak aurreratu baitzuten, hemen berriro ere proposatu duguna. Nire ustez, norabide-aldaketa nabarmena eta esplizitua ekarri zuen, ordura arte UZEIk berak kaleratutako gainerako hiztegiekin konparatuz. Horren arrazoia hitzaurreak damaigu:

Hiztegiaren gorputza bi jatorri oso desberdineko hitzek eratzen dute; batetik, erdal hitz tekniko mailegatuak edo hitz kultuek, eta bestetik, euskal harrobitik hartutakoak. Lehen sailekoak ohiki erabilera unibertsalekoak izanik, hiztegi honetan kontrol gisa erabiltzen ditugun hiru erdaretan normalean berdintsuak izaten dira. Kontua izan da, bi jatorriotako zein terminori eman behar zitzaion lehentasuna: hitz kultuari ala euskal harrobitik hartutakoari? Uste dugu, badela ordua erro kultuek eratutako hitzei beldurra galtzekoa. Hitz kultuak mailegatzeko badiugu euskara «zikinduko» dugunaren ustea okerra da eta puntu honetan bat gatoz Kanadako Dalhousie Unibertsitateko irakasle den Kocourek jaunarekin, zeinak *La langue française de la technique et de la science* liburuan zera dioen: «Egia da hitz kultua jatorri latino edo grekoa duten elementu ez ohizkoetan dagoela oinarrituta. Baina formazio-modu horren ondorioa frantssez teknozientifikoaren hitzak dira eta ez hizkuntza arrotz batenak». Guk ere sinesten dugu, hitz kultuak, unibertsalak izategatik, hizkuntza guztien altxorra direla eta baita euskararenak ere, haien baztertzek hizkuntza teknikoaren pobrezia eta zehaztasunik eza besterik ekartzen ez duelarik.

Horrek ez du esan nahi hiztegi honetan euskal harrobiko hitzak zokoratu direnik. Hauek «halaber» batekin ematen dira kuasi-sinonimo gisa, ezin bait dute kasu guztietan hitz kultua ordezkatu. Arazoa da noiz eta nola erabili behar diren. Puntu hau argitzeko zera eduki behar da kontutan, zientzi gaiei buruzko berbaldia ez dela beti maila berean gertatzen, ez bait da berdina, adib., unibertsitatean eta

telebista-irratietan erabiltzen den hizkuntza. Maila bakoitzak, gainera, entzulego propioa dauka. Izan ere, ez dira berdinak zientzilari-kongresu bateko entzulegoa eta dibulgazio-aldizkari baten irakurlegoa. Beraz, maila bakoitzak bere hizkuntza propioa behar du: batzuetan hizkuntza teknizistagoa erabili beharko da eta beste batzuetan hizkuntza apalagoa. Hori hiztegiaren erabiltzaileak erabaki beharko du, kasuan kasu, testuingurua eta jasotzailea kontutan hartuz. [46: 23]

Hiztegiaren planteamendua zuzena bazen ere, atzetik etorri den erabilera, nire ustez, ez da horren zuzena suertatu. Praxian ez dira jatorri bietako lexikoak nahastu. Nonbait, mailak adiabatikoak-edo izan dira, eta, jatorri bietako lexikoak mailaren arabera proportzio desberdinetan agertu beharrean, hiztegiaren erabiltzaileek deliberratu dute, antza, ez direla zientzilari-kongresu bateko partaideak, eta nahikoa eta sobera dutela euskal harrobiko hitzekin euron beharizanetarako. Egia esateko, ezin dut asmatu zein den benetako arrazoa, baina, inpresioa dut erabiltzaileek oro har aipatu mailak ez dituztela ulertu muga argirik gabeko gradazio baten barruan, baizik eta kategoria absolutu gisa, barruti zeharo itxi modura. Horrenbestez, behe-mailetan dihardutela kontsideratuz-edo, erabiltzaileek ez dute teknolektoko hitz kanonikoetara jo, edo oso nekez. Esango nuke ez dela *de facto* lexiko bien arteko nahasketarik egon, eta, izatez, alternatiba modura ulertu direla: bata ala bestea, ez biak batera. Badirudi erreserba mentalek edo buru-hertsikeriak edo nik dakita zerk ez digutela utzi planteamendu zuzenetik abiatu eta berorrek aldean daramatzen posibilitateak ustiatzen.

Beraz, bada, dagoeneko ezin izan da neurri batean, irtenbide modura mahai-gaineratzen ari naizena. Hala ere, egiteko modu hori, oraingo honetan, perspektiba berri batean kokatu nahi dut, alegia, joera plebifikatzailearenean, eta hiztegien esparrua gaindituta argi eta garbi aldarrikatu idazlanetarako ere: «hitz tekniko maillegatuek» eta «euskal harrobitik hartutakoe», mota bikoek, lekua behar dute bai hiztegiatan eta bai hiztegietatik kanpo ere.

Esate baterako, ikusi 3. taulan unibertsitateko behe-mailako eskuliburu batek —*Fundamentals of Biogeography*— zelan darabiltzan iturri bietako lexikoak ingelesez [47: 125-128]. Hona aldatu dugun testu-lagin hori, izatez, *Interacting populations* deritzon kapituluaren laugarren atalaren hasierari dagokio; ondokoak dira kapituluaren atalok: *1/ co-operating populations; 2/ competing populations; 3/ plant-eating populations; 4/ flesh-eating populations; 5/ biological population control*. Jakina, aurkibide labur horrek argi erakusten digu biogeografiazko eskuliburu bat beharbada ez dela lekurik aproposena fintasan eta preziosismo estilistikoetarako, alabaina, 3. taulako lagina irakurtzean ezin hobeto ikusiko dugu zer-nolako konbinazio lexikoak diren posible mota bietako hitzetara joz, eta zelan modula daitezkeen. Alegia, eredu plebifikatzaileak malgutasun handia opasten du berez, eta, berorretatik abiatuta esku egokiek orrialde bikainak ondu dituzte ingelesez, lehenago aipatu ditugun Stephen Jay Gould-ek eta David Quammen-ek bezala, eredu plebifikatzaile hori zeinek bere erara or(h)atzen badu ere.

Horrela jokatuta, plebifikazioarena baliabide estilistiko garrantzitsua izan daiteke, tonu desberdineko eta, beraz, irismen desberdineko idazlanak mamitu ahal izateko. Izatez, Zaitegiren idazkera zurrin eta monokorde begitandu zaigu, besteak beste, hobetsi duen aukera linguistikoak murriztu dio-eta eredu plebifikatzailearen

plastikotasuna. Alde horretatik, Etxepare medikuak askozaz zalu eta gihartsuagoa ematen du, naturalagoa.

Euskarari dagokionez, dena dela, badaude zenbait ohar egiteko lehen hurbilketa batean. Orain arteko hariaren azalpenetatik, pentsa daiteke eredu plebifikatzailearen *folk-term* horiek beti izango direla termino kanonikoak baino ulerterrazagoak; izan ere, gorago aipatutako «laguntzaile eta argitzaileei» dagozkie. Kontua, baina, ez da horrelakoa izaten sarri askotan. *Zihilketa* da nire adibiderik gogokoena. *Zihilketa* hori ingelesezko *budding* da, alegia, *gemazioa* da. Nik dakidan ingeles apurrarekin ezin dut zehaztu noraino arrunt eta zabaldua den berba hori, baina, ingelesezko testuetan duen erabileragatik badirudi gemazio baino askoz inteligibleagoa dela. Euskaraz, ostera, adin batetik gorakoek bakarrik dakigu patatak *zildu* egiten direla; hori jakin ezean ez dago *zihilketa* gemazio baino errazago ulertzerik, eta, horrenbestez, nahikoa zalantzarria da berba horren izaera plebifikatzailea. Hau da, geurean termino kanonikoa izaten da sarritan termino bernakularra baino ezagunagoa, eta horrelakoetan ez dirudi oso zehatza denik plebifikazioaz egitea berba, baina, tira. *Eraenketa*, *baresare*, *apaxdun*, *iraitzi*, *hozi* eta beste asko dirateke zaku bereko adibideak.

Ildo beretik, niretzat oso ernegarria izaten da euskaraz ez aurkitzea ingelesezko *folk-term* mailako berben parekorik. Kasurako, *hatching* esateko *eklosio* dugu ohiko ordaina. Era berean, ez dugu ordeko egokirik, gure bibliografian hain sarri topatzen ditugun *mating* eta *breeding* eta beste zenbaitzuentzat.

Beste alderaino joanda, *koniofilo* dugu [48: 181]. Botanika alorreko termino tekniko ezinago ezezagun hori alagalakoa suertatzen zait azaldu gura dudana ilustratzeko. Nire lagun botanikariek ere ez dute inoiz topo egin koniofilo delako horrekin neuk galdetu diedan arte, eta harridura-aurpegia izan da euron erantzunik

HUNTER AND HUNTED: CARNIVORY

Flesh eaters

Carnivores are animals that eat animals. **Carnivory** is predation where animals are the prey. Carnivory includes predators eating herbivores as well as top predators eating predators. A predator benefits from interaction with a prey — it gets a meal; the prey does not benefit from interaction with a predator — it normally loses its life. Rare exceptions are lizards that lose their tails to predators but otherwise survive attacks. Predation is plain to see and easy to study. It is evident when one animal eats another, often in a gory spectacle.

Predators come in a variety of shapes and sizes. Highlights from a predator catalogue might be the ‘small but deadly’ — the least weasel (*Mustela nivalis*) is the smallest carnivore ever — and the ‘large and equally deadly’ — the African lion (*Panthera leo*). Some fossil carnivores were awesome in size and possibly in speed. The most famous examples, even before their appearance in Jurassic Park, are the dinosaurs *Tyrannosaurus rex* and *Velociraptor*. But more recent avian predators were just as terrifying. The phorusrhacoids were a group of large, flightless, flesh-eating birds (L. G. Marshall 1994). They lived from 62 million to about 2.5 million years ago in South America and became the dominant carnivores on that continent. They ranged in height from 1 to 3 m, and were able to kill and eat animals the size of small horses.

Carnivorous specialization

All animals, except those at the very top of food chains, are eaten by a predator. The zoological menu is vast, but predators tend to specialize. Carnivore niches include general flesh-eaters (faunivores), fish eaters (piscivores), blood feeders (haematophages or sanguivores), egg eaters (ovivores), insect eaters (insectivores), ant eaters (myrmecivores), and coral eaters (corallivores). Omnivores are unspecialized carnivores-cum-herbivores. Scavengers feed on dead animal remains. Coprophages feed on dung or faeces.

A few carnivorous niches are highly specialized and rather unusual. There are few sanguivores, the most notorious (apart from Count Dracula) are the New World vampire bats. The sharp-beaked ground finch (*Geospiza difficilis*), one of the Galápagos finches, obtains some its nourishment by biting the bases of growing feathers on boobies (*Sula* sp.) and eating the blood that oozes from the wound. Coprophagy is more widespread than might be supposed. Several birds eat animal dung. The ivory gull (*Pagophila eburnea*) feeds on the dung dumped on ice by polar bears, walruses, and seals. Puffins and petrels eat whale dung floating on the water. Certain vultures and kites feed solely on human and canine faeces around native villages. Myrmecophagy (ant eating) is found in several species in Australia, South America, Africa, and Eurasia that are adapted to feed upon ants and termites. Extreme adaptations for this diet are seen in teeth, jaws, and skulls. The teeth are reduced to flat, crushing surfaces, as in the armadillo (*Oryzomys azer*), or they are missing, as in the giant or great anteater (*Myrmecophaga tridactyla*). Tongues are long, mobile, and worm-like, with uncommon protrusibility ('stick-out-ability'). Enlarged salivary glands produce a thick, sticky secretion that coats the tongue. Ant-eating mammals also tend to have elongated snouts and powerful forelimbs for digging and ripping open nests.

Some plants are carnivorous, including the great sundew (*Drosera anglica*) and the greater bladderwort (*Utricularia vulgaris*). Pitcher plants of the genus *Heliophora* (Sarraceniaceae) in the Guayana Highlands of Venezuela have carnivorous traits (Jaffe *et al.* 1992). *Heliophora tatei* is a true carnivore. It attracts prey through special visual and chemical signals, traps and kills prey, digests prey through secreted enzymes, contains commensal organisms, and has wax scales that aid prey capture and nutrient absorption. Other species of *Heliophora* possess all these traits except they seem neither to secrete proteolytic enzymes nor to produce wax scales. The pattern of the carnivorous syndrome among *Heliophora* species suggests that the carnivorous habit has evolved in nutrient-poor habitats to improve the absorption of nutrients by capturing mainly ants. Only *Heliophora tatei* further evolved mechanisms for rapid assimilation of organic nutrients and for capturing a variety of flying insects. The carnivorous traits are lost in low light conditions, indicating that nutrient supply is limiting only under fast growth.

3. taula

Fundamentals of Biogeography liburutik hartutako lagina, kultur erroz osoturiko hitzen eta *folk-term* deritzenen nahasketa posible bat erakusteko [47: 125-128].

argiena. Ba, hala izanik ere, *Biologia/2: Botanika hiztegiak* sarrera horretan «Mantenu-gai bezala hautsa erabiltzen duena. Adib. liken koniofiloa.» diosku. Esan gabe doa, harrigarria suerta daiteke ikastea definizioak zehaztutakoa, baina, neure iritiz harrigarriaren mugak gainditzen dituen da, *koniofiloa* sarreraren eta definizio-

aren artean «Sin.: Hauts-zalea» ikustea. Alegia, euskaraz badaukagu, eduki, inork ezagutzen ez duen termino tekniko baten sinonimo bernakularra. Ezin dut sinestu, baina, halaxe da. Tira, ba. Adibide horrek gutxienez gauza bi irakatsi beharko lizkiguke. Batetik, teknolektoetako termino batzuen «laguntzaile eta argitzaileak» zeharo alferrikakoak direla, zeren, nozioaren mailagatik beren denominazioek ez baitute erabilera arruntik edukiko, edozein izanik ere. Horixe da *hauts-zale* horren patua, edota beste «zurkaitz» askorena: zenbat eta zenbat ez ote ditugu, ba, horrelakoak! Kasurako, *Natur Zientziak hiztegiak* [36], besteak beste, *bestejale*, *handijale* eta *txikijale* plazaratu zituen, baina, *Biological3: Ekologia hiztegiak* [49] ez ditu jaso, ez zaie-eta inolako zereginik ikusten. Koniofilo horren bigarren lezioa prospektiboa da, zeren eta, atzera begira ikasi dugunaketorkizunerako argibideak mahaigaineratu baitizkigu. Esan nahi baita, koniofilorekin —eta beste makina bat!— eskarmentua hartu beharko genuke, begien aurrean jartzen zaigun hitz oro ez «euskaratzeko». Esate baterako, niri asko gustatuko litzaidake jakitea zenbat berba *-jale*dun eratu diren euskaraz teknolektoko hitzak ordeztuko; zenbat izan daitezke denetara, hoguei?, berrogei?. Ba, hala ere, interneten bilatuz zerrenda askoz pottoloagoak aurki ditzakezu euskaratzeko; [50] erreferentziako helbidean zenbat-eta 158 (ehun eta berrogeita hamazortzi!) terminoraino konta ditzakezu, eta hala ere bertan ez daude jasota 3. taulako testu-laginean dituzun *faunavore*, *myrmevore*, ez *ovavore*, besteak beste.

Oharrak ohar eta lezioak lezio, badago azpimarratu nahi dudana puntu bat begi-bistakoa dena. Eskuen artean darabilgun gai honetan, konturatuta ala konturatu barik behin eta berriro jo dugu ingelesera; izan ere, plebifikazioari buruz aritu garen bakoitzean inplizituki ingelesa eduki dugu mintzagai. Nolabait, ingelesa eduki izan dugu itsumutil eta gidari gure ibilbidean. Uste dut, ueña iritsita dugula ingelesaren eredugarritasuna ozenki aitortzeko, eta hori ez bakarrik zientzia-prosari dagokionez, baita prosa orokorrari doakiola ere. Ingelesa eredu hartuta, ni neu konbentzita nago, askoz errazago suertatuko zaigu testu argi, malgu eta zehatzak idaztea. Kasurako, 3. taulako ingelesezkoak ederto adierazten digu zelan jokatu teknolektoko hitzekin eta termino bernakularrekin, bakoitzari dagokion zeregina esleitzuz: horrela egin ezean, euskarazko parekoa *jale-jale* erakoa izango litzateke, hots, ezinago jator eta ganorabakoa [7: 61]. Horrela egin ezean, gainera, sekula santan ezin izango dugu guztiz argitu noiz aritu garen maila jasoan (*lurjale* —?—) eta noiz ez (*azpijale* —?—) [1: 146-149].

Areago, zientzia-prosaren alorretik urrunduz eta Amuritzaren kritikari helduta, ingelesaren ildotik hiztegi-planteamendu ahul eta motzak gaintzeko bidean jarriko gara behingoz, eta ingelesaren erara (ia) normaltasunez onartuko ditugu inolaz ere baztertu ezin diren kultura-hitz komunak. Horrela eginez, batetik, *birkolokatu* egingo ditugu neurri batean euskarazko betiko berbak, eta, bestetik, geureganatu egingo ditugu egungo egunean bizi garen mendebalde honetan hila-bizikoak diren kultura-hitzak. Horrela eginez, gainera, erreskatatu egingo ditugu Leizarragak eta beste hainbatek erabilitako hitzak (eta joerak), xx. mendeak ostrazismora kondenatu zituenak, eta inertzia hutsez baztertuta eduki ditugunak. Horrela eginez, euskara homologatzen hasiko gara berandu baino lehen.

4. EPILOGOA: ALTUBE MAISU?

Ezin diot parraplada honi azken puntua ipini, aurretik beste kontutxo bat hona ekarri barik. Oso adierazgarria begitandu zait, eta, dena esateko, etsita utzi nau.

Idazlan honen lerroetan barrena aitzurtu dudan saila, luzaroan ibili dut buruan jira-bueltaka. Aspalditik ahalegindu naiz horren gaineko iritziak biltzen eta irakurtzen, nire inpresio eta intuizioekin kontrastatzeko. Hiztegiaren ardura horregaz bizi izan naiz ia mende-laurden batean, eta hainbat eta hainbat orrialde bisitatu ditut denbora horretan, era sistematiko batean izan ez bada ere. Ba, egundo ez dut inon aipatuta ikusi Seber Altuberen ekarpenik. Gaiari buruzko bibliografian inork ez du Altuberen berri ekartzen. Badakigu: Altube galdegaia da, *Erderismos* da, eta horregatik-edo ez dut inoiz oso begikoa izan.

Kontua da joan den udan txosten honen konpromisoa hartu nuela, eta hor hasi nintzen gerotik gerora luzamenduetan, jesarri eta idazten hasi ezinik. Horrelakoetan, ez hasteko aitzakia eta alibi «arrazoizkoren» bat behar izaten duzu, ezin aldapatsua-go suertatzen baita paper zuriari aurre egitea. Ezinegon horrek, dena dela, gehiago du beldurtasunetik nagitik baino, zeren, idatzi ez, baina irakurri, denetarik irakurtzen baitut, eta burua ere borborrean ibiltzen zait. Halandaze, uda ostean *Euskararen auziaz* [9] irakurtzeko premia «larria» sentitu nuen; izan ere, Pruden Gartzia Euskaltzaindiako Azkue Bibliotekako buruak egun batzuk lehenago aipatu zidanez, Villasantek liburu horretan dioena, euskarak Nafarroan bizi izandako atzerakadaren gainean, megafaunaren sarraski handiaren hipotesiaren postulatuetariko batekin konpara liteke, zelan edo halan. Hor aritu nintzen, bada, aipua bilatzen, eta bide batez liburua irakurtzen. Eta ez idazten, zer esanik ez. Tardantzaren bila, umetan legez.

Edozelan ere, Villasanteren liburua interesgarria da oso, eta xumea, ezinago. Orrialdeak pasatu ahala gero eta damutuago egon naiz udazken honetan, ez nuelako irakurri kaleratu zenean. Zertan ibiliko nintzen orduan! Bosgarren kapitulua errebelazio bat izan da niretzat. Euskararen hitzak ditu gai, eta, besteak beste, euskal hiztegian sortu diren nahasteak kontatzen dizkigu polito-polito, Larramendi, Arana eta, batez ere, Azkue aurkeztuz. Eta halako batean, zer-eta *Harritzekoa da zer-nolako itzulginguruak hartzen dituen taiuzko izen zehatza, hitz teknikoa, hartarakoa, ezin utzizkoa ez erabiltzeagatik* diost [9: 85]. Hori irakurtzea esangura bezikoa izan da niretzat, zeren eta, labor eta zuzen deskribatzen baitu gure letretan gertatutakoa, hain justu artikulu honetara ekarri gura izan dudana autua.

Horren ostetik, Villasantek, nahaste-borrastea gainditzeko Sebero Altubek 1922an gogorarazi zituen printzipioak dakartza laburbilduta, eta, besteak beste, «goi-jakintzei dagozkien hitzak» direla-eta, zera diosku:

Altubek dio Mendebaleko beste herriek bezalaxe, eremu honetako hitzak latin eta grekotik hartu behar dituela euskarak. *Ingelesaren bidea* proposatzen digu berak. Aitortzen du orain arte euskaltzaleek bakar-bidetik eraman nahi izan dutela euskara, baina bide hori, noiz eta orain, inongo kalteginena izango litzaiokeela uste du. [9: 88-89]

Pasarte horrek hainbat iruzkin merezi baditu ere, hemen bizpahiru eginen dizkiogu labor zurrean. Lehenengo eta behin, aipatu behar da letra etzana neuk jarria

- [25] Azkue, R. M. 1921. «Euskaltzainburuak Hasparrengo batzar agirian Geo. Lacombe euskaltzainari egindako erantzumena». *Euskera*, II: 57-63.
- [26] Bahr, G. 1922. «Uaño naiz xirietaz». *Euskal-esnalea*, 222: 109-110, in *Enciclopedia General del País Vasco. Literatura III*, 262-263. Ed. Auñamendi.
- [27] Mitxelena, K. 1960. «Asaba zaharren baratza». *Egan*, (3-6) 121. In *Koldo Mitxelena gure artean*, 37-51. Alberdania. 2001. 437 orr.
- [28] Etxepare, J. 1928. «Gure gorputza: harresi bat bezala». 17-18, in: *Jean Etchepare mirikuaren idazlanak, II. Mediku-solas*. P. Xarritonen ed. 1985. Elkar. 374 orr.
- [29] Abadía, A. 1905. «Laborarier: Nola eta zertarateko diren on mahats-arnoaren eta sagar-arnoaren phatsak». *Eskualdunentzat eskuarazko egunari edo Almanaka berria*. 27-29.
- [30] Kanpan, F. 1905. «Felitz Kanpan-baithako Bothikarioan». *Eskualdunentzat eskuarazko egunari edo Almanaka berria*. 63.
- [31] Lafitte, P. 1941. «Jean Etxepare jaun mirikua (1877-1935): aitzin-solas». 5-21, in: *Buruxkak*, J. Etchepare. Elkar. 1980. 195 orr.
- [32] Kerexeta, M. J. 1987. «Jean Etchepare». 21-29, in: *Beribilez*. J. Etchepare. Klasikoak, 17.
- [33] López Adán, E. 1985. «Medikuntza hiztegi berezia». 363-370, in: *Jean Etchepare mirikuaren idazlanak, II. Mediku-solas*. P. Xarritonen ed. 1985. Elkar. 374 orr.
- [34] Xarriton, P. 1984. «Jean Etchepare mirikuaren (1877-1935) idazlanak : aurkezpena». 5-11, in: *Jean Etchepare mirikuaren idazlanak, I. Euskal Gaiak*. P. Xarritonen ed. 1984. Elkar. 386 orr.
- [35] Altube, S. 1923. «Euskel-itz barrijak. Eurok eraltzeko, erderaak zetara lagun egin bear deuskuen». 78-93, in: *III Congreso de Estudios Vascos*. San Sebastián.
- [36] Arantzadi Elkarteko Talde Batek. 1976. *Natur Zientziak hiztegia*. Jakin. Arantzazu. 483 orr.
- [37] Sarasola, I. 1997. *Euskara batuaren ajeak*. Alberdania. 283 orr.
- [38] Altonaga, K. 1998. «Ajeak eta aje ez direnak». *Berba*, 26: 1-2. Ikus: <http://www.uzei.com/berba/zaharrakberri.cfm?id+7>
- [39] Salaburu, P. 2002. *Euskararen etxea*. Alberdania. 203 orr.
- [40] Petöfi, J.S. 1976. «Lexicology, encyclopaedic knowledge, theory of text». *Cahiers de Lexicologie*, XXIX: 25-41.
- [41] Altonaga, K. 1997. «Bizkaiera unibertsitatean». 79-91, in: *Mendebaldeko euskara xx. mende goiengan*. Mendebalde Kultur Elkartea. 191 orr.
- [42] Hoffmann, L. 1987. «Caractéristiques des llenguatges d'especialitat». 21-69, in: *Llenguatges d'especialitat*. Hoffmann, L. (1998). Institut Universitari de Lingüística Aplicada. Universitat Pompeu Fabra. Barcelona. 284 orr.
- [43] Quammen, D. 1996. *The Song of the Dodo. Island Biogeography in an Age of Extinctions*. Pimlico. 702 orr.
- [44] Nybakken, O. E. 1959. *Greek and Latin in Scientific Terminology*. The Iowa State University Press. 321 orr. (1985).
- [45] 1989. *The Oxford English Dictionary*. I. Second Edition. Clarendon Press. Oxford.
- [46] UZEI. 1988. *Biologia/4: Zoologia hiztegia*. Elkar. 721 orr.
- [47] Huggett, R. J. 1998. *Fundamentals of Biogeography*. Routledge. London. 261 orr.
- [48] UZEI. 1986. *Biologia/2: Botanika hiztegia*. Elkar. 502 orr.
- [49] UZEI. 1987. *Biologia/3: Ekologia hiztegia*. Elkar. 413 orr.
- [50] Roland, W. E. 2002. «Glossary of Feeding Habits». Ikus: <http://www.fargoth.com/downloads/feedinghabits.html>

- [51] Villasante, L. 1963. «Sebero Altube, iztegi arazoetan maisu». *Euskera*, VIII-IX: 293-313. Ikus: <ftp://www2.euskaltzaindia.net/euskera/51266.pdf>
- [52] Villasante, L. 1979. «Altuberen maisutza euskal hitzen arazoan». *Euskera*, XXIV: 611-614. ■kus: <ftp://www2.euskaltzaindia.net/euskera/51313.pdf>
- [53] Irigoien, A. 1980. «Sebero Altube eta euskal hizkuntzaren pleguak». *Euskera*, XXV: 325-353.

Gaikako aurkibidea

- adierazpide sinbolikoa, 185
- administrazio testuak, 171, 173, 175, 176
- agindu edo betebeharrak balioko geroaldia, 171
- aldaera estandarra, 227
- aldakortasun sistematikoa, 239
- aldakortasun terminologikoa, 81, 86
- aldakortasuna euskarazko testu zientifikoetan, 89
- Altube, 271
- Alvar Ezquerria, Manuel, 14
- Arantzazuko Biltzarra, 82
- arazo terminologikoen inbentarioa, 244
- argota, 78
- argumentu-egitura, 106
- arteak, 246
- Auger, 87
- aurreuposizioa, 199
- azaleko analisisa, 135
- Azkarate, Miren, 101
- azpicorpusak, 36, 46, 50
- azterketa intertestuala, 91
- azterketa intratestuala, 91

- baliokide onenak hautatzeko algoritmoa, 136
- baliokidetza lexikala, 126
- Batzordearen hobespenak, 25
- Béjoint, Henri, 12
- berariazkotasuna, 211
- besarkadura, 202
- Brown corpusa, 35

- Cabré, Teresa, 13, 14, 84, 86, 87, 231

- corpus eleaniztunak, 124
- corpus etiketatua, 50
- corpus kodetua, 50
- corpus lematizatua, 50
- corpus oportunistiko edo monitorea*, 46
- corpus paraleloa, 124
- corpus paraleloen ustiaketa, 126
- corpusa eskuratzea, 43
- corpusa kodetzea, 43
- corpusa lematizatzea, 43
- corpusak, 53
- corpusak parekatzea, 124
- corpusaren aplikazioak, 44
- corpusaren mugak, 45
- corpusaren normalizazioa, 84
- corpusaren osaera, 40
- CORPUSGILE, 57, 62, 65, 66
- corpusgintza ereduak, 55
- corpusgintza lana, 57
- CREA, 43

- definigiaia, 145, 155, 162
- definizio 'antikomunikatiboak', 146
- definizio egokia, 164
- definizioa, 145
- definizioen idazkera, 146
- definizioetako perpaus erlatiboak, 159
- desadostasun txostena, 29
- deskriptorea, 150
- Diaz Rojo, 85

- diskurtsoa, 88, 209
 diskurtso-komunitatea, 81, 229
 dispertsio terminologikoa, 85
- EAGLES, 47, 49, 51
- EBEZO (euskara batuaren estilo zaindu orokorra), 228
- EDBL, 62
- eduki-deskriptoreak, 73
- EGLU, 37
- EITB, 71
- eleaniztasuna, 123
- eLENA aplikazioa, 26
- ElhDB, 62
- Elhuyar Fundazioa, 123
- Elhuyar Hiztegia, 273
- elkartze-neurriak (*AM, associations measures*), 130
- EM algoritmoa (*Expectation Maximization*), 136
- erauzte prozesua, 132
- Erauzterm, 133
- ere*, 199
- eredu metodologikoa, 221
- erkametz*, 24
- erreferentzia-corpora, 46
- erreferentzia-corporaren diseinua, 47
- erregistroak, 238
- erregulazio-jarduera, 86
- espezialitate-erloto lexikoa, 13
- estandarizazioa, 82
- estilo zaindu orokorra, 227
- estilo-arauak, 238
- etiketatze, 58
- EULIA, 57, 65, 66
- euskal definizioak, 145
- Euskal Hiztegia, 51, 52
- Euskalterm eta hiztegi batuaren erabakiak, 25
- Euskalterm eta hiztegi batuko lantaldearen proposamenak, 25
- Euskalterm eta hiztegi berrien integrazioa, 25
- Euskalterm, 246
- Euskaltermen sorrera, 24
- Euskaltzaindia, 17, 22, 72, 162
- euskara estandarra, 111
- Euskara Juridikoaren Mintegia, 177
- euskarazko terminologia modernoa: hasiera, 23
- EUSTAGGER, 57, 59, 133
- ezagutza semantiko-pragmatikoa, 82
- facilitating instruments*, 101
- filosofia alemana, 111
- Freeling*, 133, 139
- full word alingment*, 126
- gailu* atzizkia, 103
- galdegai/mintzagai sistema, 203
- garapen iraunkor*, 22, 25
- garapen lexiko-diskurtsiboa, 81
- Garcia, Pruden, 271
- Garrido Medina, 171
- geroaldiaren balio deontikoa, 172
- Gràcia, 96
- gramatika unibertsala, 234
- gramatika, 227
- Gramatika-batzordea, 162, 166
- 'greedy' algoritmoa, 136
- Grupo de Estructuras de Datos y Lingüística Computacional, 27
- Gutiérrez, 85
- Halliday eta Hasan, 239
- harmonizazioa, 82, 85
- harreman-sareen trinkotzea, 83
- hasierako hiztegitintza (1977-86), 23
- hautagai bikoteak, 136
- Hauta-Lanerako Euskal Hiztegia, 48
- hedagarritasuna, 191
- herri administrazioa, 259
- high resolution alignment*, 126
- hiperonimoa, 150
- hitz anitzeko unitateak, 131
- HIZKING21, 133
- hizkuntza paisaia, 244
- hizkuntza-plangintza, 81
- hizkuntzaren sistema, 208
- Hiztegi Batua, 16, 37
- Hiztegi Batuaren ezaugarriak, 16
- Hiztegi Batuaren sistematizazioa: makroegitura, 17
- Hiztegi Batuaren sistematizazioa: mikroegitura, 18
- hiztegi orokorra eta teknikoa, 13
- hiztegia, 11
- hiztegiaren definizioa, 11
- hiztegiaren makroegitura, 15
- hiztegiaren mikroegitura, 15
- hiztegien sailkapena (tipologia), 11
- hiztegitintzaz kanpoko definizioak, 161
- Hoffmann, 265

- ikaskuntza prozesua, 211
 ikuspegi funtzionala, 208
 in vivo, 82, 86
 inbentario sailkatua, 37
 interbentzio-jardunbidea, 85
intermediary instruments, 101
 irakaskuntza, 207, 245
 irakaskuntzaren kudeaketa, 222
 irakaskuntzaren testuingurua, 217
 irakurbide analitikoa, 192
 irakurbide lineala, 192
 irrati-telebistako glosarioa, 71
 ISO 704 araua, 155
 itzulpen memoriak, 143
 itzulpen memoriaren prozesatze linguistikoa, 133
 itzulpen unitateak, 130
Itzulpenen Diagnostiko Terminologikoa (IDITE),
 26
 itzultzea, 117
 IULA, 27
 IXA, 27, 57, 123
- jarduera plana, 245
- karniboro*, 263
kate-erreakzioa, 90
 Klasikoak, 117
 Kocourek, 266
 kognatuak, 130
- komunikazio-egoera, 230
 lagin tamaina, 56
 Landau, 14
lengoaia, 240
 lexikologia eta terminologia, 12
 literatura unibertuala, 117
 LUR entziklopedia, 92
 lur-telebista digitalari begirako estandarizazio-
 akordioak, 73
- magnitude fisikoak, 185
 maileguak eta kalkoak, 244
matxinsaltoa, 163
 merkataritza edo kontsumoaren alorra, 245
 morfologia lexikoa, 95
- Natur Zientziak hiztegia, 259, 270
 neurriak sinboloen bidez adierazteko arauak, 189
 neurrien balioa, 194
 neurrien deklinabidea, 185
 normalizazio txostena, 244
normazioa, 82
 nozio-denominazio lotura, 82
 ‘null’ elementua, 126
- Orotariko Euskal Hiztegia, 36, 95, 102, 189
 ortotipografia, 189
 osagai kognitibo eta soziokulturala, 210
- parekatze mailak, 125
 PAROLE, 47
 perifrasiak, 178, 179
 Petöfi, 262
 plebifikazioa, 263
 ponderazio-markak, 245
 postposizioa, 204
 preskripzioa, 85
- RAE, 172
- Sarasola, I., 145, 152
 semantika, 106
 SGML, 43
stand-off annotation (markup), 63
statement, 73
 Stephen Jay Gould, 247
 Sustatu, 158
- teknologia berriak, 245
 Telebista Digitaleko Foroa, 71
 termino ezezagunen azterketa, 28
 termino habiatuak, 135
 termino hautagiak, 133
 termino teutonizatzaileak, 265
 terminoaren poliedrikotasuna, 86
 terminoen egokitasuna egiaztatzea, 29
 terminogaien erazketa, 31
 terminologia banku publikoa, 24
 terminologia bateratzeko saiok (1990-2000), 24
 Terminologia Batzordea, 25
 Terminologia Batzordearen lana: 2006-2009,
 246
 terminologia egiteko modu berriak, 26
 terminologia lanerako irizpideak, 244
 terminologia tradizionala, 244
 terminologiaren finkapena, 82

- terminologiaren ikuspegi linguistiko-komunikatiboa, 85
- terminologiaren ikuspegi normalizatzailea, 84
- terminologiaren izaera aldatua, 87
- terminologiaren izaera komunikatiboa, 87
- Terminologiaren Teoria Klasikoa, 85
- Terminologiaren Teoria Komunikatiboa, 13
- Terminologiaren Teoria Orokorra, 82, 85
- testu tokenizatua, 64
- teutonizazioa, 265
- TMX formatua, 143
- Toury, Gideon, 111
- tzaile* atzizkia, 96
- unitate terminologikoa, 86
- UZEI, 23, 24, 25
- Villasante, 98, 272
- Wordnet, 123
- Wuster, 12, 86
- XML, 50
- xx. mendeko euskararen corpus estatistikoa, 37
- xxi. mendeko erreferentzia corpora, 35
- zer dira corpusak, 35
- zientzia eta teknologiaren corpora, 53
- zientzia eta teknologietako terminologia, 244
- zientziaren euskara, 231
- zuzenbideko corpora, 27
- zuzenbideko terminologia, 25

